



Iturria: *Ipuinak (I eta II)*, Wentworth Webster (Xipri Arbelbideren edizioa).  
Euskal Editoreen Elkartea, 1993.

Klasikoen Gordailuan:  
<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/W/Webster.htm>

## EUSKAL IPUINAK

Wentworth Webster

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira,  
eta, Jabetasun Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak  
bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

## TARTARUA

Behin batez, bazen errege seme bat, punimendu batez bezala muntro bat gelditua, eta ez zitaken jende bilaka ezkondu arte. Eta egun batez atzematzen du neskatxa polit bat. Arras gustatzen zitzaion, baina neskatxak ez du nahi, arras izitu baitzuen. Eta Tartaro harek nahi zion eman erreztun bat, eta neskatxak etzuen nahi hartu; baina jaun gazte batekin egortzen dio, eta erreztunak erhia sartu orduko erraten zuen:

—Hi hor eta ni hemen.

Bethi oihuka eta Tartarua bethi segitzen da, eta neskatxak izitzen baitzen, erhia pikatzen du bere erreztunarekin eta botatzen du ur handi baterat, eta han ithotzen da Tartarua.

*(Estefanella Hirigaray)*



## ARROSA

Behin batez bazen errege bat. Bazituen bi alaba; arras maite zituen eta alaba hek ere beren aita maite zuten; eta errege hura egun batez deitua izan zen gerla handi batetara; eta hori aditu zutenian, arras tristatu ziren; eta beren aitak eman zioten bakotxari arrosa bana eta erran:

—Jeus hutsetan erortzen bazarete, zuen arrosak histuko dire.

Eta ez du faltatzen. Egun batez heldu da errege seme bat eta erraten dio arrats batez harekin oherat juan behar dela, eta andere gazte hura arras sokatzen<sup>3b</sup> da. Erraten dio ez duela posible errefusatzea. Eta biharumunian atzematen du bere arrosa arras histua. Eta haren ahizpari ere agertzen dio gisa berian eta erraten dio harek ere igual, eta bere boketa atzematen du igual histua.

Eta errege hura gerla finitu zenean ethorri zen bere etxerat, eta bere bi alaben arrosak atzeman zituen arras histuak. Eta izan zen xangrina handitan.

*(Estefana Hirigaray)*

## AXERIA

Behin batez bazen axeri bat eta egun batez errekontratzen du gizon bat ur bazter batean eta erraten dio eian posible duen pasatu ur hartan. Erraten dio:

—Zer emanen nauk sari?

Eta gizonak erraten dio:

—Hirur egia erranen hauzkit, bat urean sartu eta kusian, bertzia erditan eta bertzia akhabantzan. Eta hartzen du eta erraten dio kusian:

—Orai errak niri egia.

Eta gizonak erraten dio:

—Batzuek erraten ditek: A! Zer gau ederra! Iduri dik eguna, bainan ez duk gaua sekulan eguna bezin ederra!

Axeriak erraten dio:

—Hala duk. Egia duk hori.

Eta gero urean bide puxka bat egin zutenean erraten dio:

—Orai erditan gaituk. Errak bigarren egia.

—Oi hau arthua! Iduri du ogia! Bainan ez duk egia. Ez duk sekulan artoa ogia bezin ona.

Axeriak erraten dio:

—Hala duk, egia duk hori.

Gero, ura pasatu zutenean erraten dio axeriak:

—Errak orai hirugarren egia.

Eta gizonak erraten dio:

—Axerito, axerito. Galtzak txarrak dituk, bainan txarrak izanen dituk ni baino hobiagorik ur huntan pasatzen ez baduk.

*(Stephana Hirigaray  
Hold of «Basa Jauna» chez M. Cerquand pp. 29  
Tartaro to Mde. Bellevue - Baigorri)*



## BASA JAUNA

Behin batez baziren etxe batean etxeko andre eta bordaria. Bazituen bordari harek hiru seme. Egun batez erraten diote bere amari emateko pilota bana eta soseko olata bana, gan behar direla munduz mundu. Eta ama hura xangritzen da bere seme maiteak utzi behar dituela eta hiruak partitzen dire. Oihan baten erdian zirelarik ikusten dute ilhuna heldu zela eta anaia zaharrenak erraten du lehenbiziko arbola baten gainera guanean dela. Atzematen du arbola luze bat eta goiti igatzen da, gaineko puntta punttaraino. Eta bigarrenak erraten dio:

—Ikhusten duk jeusik?

Erraten dio:

—Ez. Ez dut pitxik ikhusten. Ez. Ez duk jeus ageri.

—Haua beheiti. Asto zaharra haiz hi.

Eta bigarrena igatzen da, eta ez du jeus ikhusten. Hirugarrenak, hura zen gaztena, erraten dio:

—Jeus ez zarete zuek. Ni igatuko nuk.

Eta igatzen da arras puntta punttaraino. Erraten diote:

—Ageri da jeusik?

Erraten diote:

—Bai. Ageri da khe luze mehe mehe bat, urrun, arras urrun. Guazen hari segi.

Eta partitzen die hiru anaiak elkarrekin. Arratseko zortzi orenetan arribatzen die xato handi batetan eta jotzen dute athia eta heldu zioite basa andria. Galdetzen du:

—Nor da hor?

Erresponditzen dute:

—Gu gare hemen.

Erraten diote:

—Zer nahuzue haur gaztiak? Nun zabiltzate tenore huntan?

—Galdetzen dugu, otoi indatzu gaurko leihorra. Heia zoko batez kontent gare tristiak.

—Nik ene senharra basa jauna dut eta harek hatzematen bazauzte, janen zaituzte, segurra da.

—Kanpuan ere atzematen bagaitu, bardin janen gaitu.

Orduan sartzen ditu barnean hiru anaia hek eta hiruak hiru zokotan gordetzen ditu. Gero bederatzi orenetan heldu da basa jauna. Iten zuen harrabots eta espantu, eta gero andria ateatzen zaio eta erraten dio:

—Badun hemen ene gaurko ahamen bat?

Erraten dio:

—Ez duk nihor.

—Bai badun norbeit. Atera zan, edo bertzela hihori janen haut.

Eta ateratzen dio anaia zaharrena arras izitua, eta basa jaunak erraten dio:

—Nahi haiz enekin mutil paratu?

Eta erraten dio baietz. Eta oraino basa jauna hasten da usainka:

—Badun hemen oraino bertze norbeit!

Eta ateratzen dio bigarrena. Erraten dio:

—Nahi haiz enekin mutil hari?

Eta erraten dio baietz.

Oraino haitzen zuen usaina norbeitena eta hirugarrena ateratzen dio eta erraten diote hiruei:

—Egun, afaldu eta ganen zarete ohera, bainan bihar ganen gaituk denak ihizirat.

Eta partitzen dire biharamunian arratseko zortzi orenak arte.

Bazuten hek etxean arreba bat. Tikia zen, bainan denborarekin handitu zen.

Egun batez etxeko andriak eta bordariak baratzian bazituzten erraldiak arto heziak idortzen emanak, eta egun batez nihork ikhusten ez duelarik, nexka mehiak hartzen du etxeko andriaren arthotarik, ematen du bererat. Ikhusi zuenean etxeko andreak, hasten zaio oihuka erraten diolarik:

—Haizen bezelako ausarta, anaiek bezela fin gaixto in beharra.

Eta nexka hura hasten da nigarrez eta gaten da bere amarenganat eta erraten dio:

—Ama! Nik banuen anaiek?

Erraten dio:

—Bai, ene haurra.

—Zer in zien hek?

—Partitu zien, haurra, aspaldi.

Eta erraten dio nexka harek:

—Gan behar naiz ni ere. Ekartzu sei arteko kilo bat eta bi soseko olata bat.



Partitzen da eta arribatzen da basa jaunaren etxerat eta jotzen du athia eta sartzen da barnerat. Haren andreak erraten diolarik:

—Bainan, basa jauna duzu hemen.

Eta heldu dira lehenbiziko haren anaiak, bainan ez zuten elkhar batere ezagutzen. Eta gero heldu da Basa Jauna eta erraten dio etxian sar-tziarekin:

—Badun hemen enetzat zerbeit.

Erraten dio ezetz.

Erraten dio:

—Ager an!

Eta kusian irakhusten dio, eta erraten dio basa jaunak:

—Nahi haiz enekin neskato plazatu?

Erraten dio:

—Bai jauna.

Gero, handik zenbeit egunen buruan ezagutzen dute anai arrebek elkhar eta ongi besarkatzen, eta neskatxa hura hain ongi zelarik, arras mehatzen ari zen, eta egun batez bere anaia batek galdetzen dio:

—Zer duzu hola mehatzeko?

Eta ihardesten dio:

—Jaunak arrats guziez erhi pittina galdetzen athe xilotik eta handik erhia surkatzen.

Eta bethi gero ta tontoago zohan. Egun batez, anderia etxean ez zuelaik, haurhide hoiek elkharrekin hitz hartzen dute, beren basa jauna hil behar dutela eta erreka batian hulako tokitan atzemanen dutela. Eta atze-man eta hiltzen dute.

Egun batez haren anderiak galdetzen du nun den basa jauna. Eta erraten diote. Andere harek kentzen diotza hiru hagin eta ekhartzen ditu etxerat, eta manatzen du nexka hura, bere anaieri harratsean zanguak gar-bitzeko hagin bakotxarekin. Eta hirugarrena finitu orduko, hiruak idi bila-katzen zaizko. Eta neskatxa harek ibiltzen zituen hiruak landan eta hek biltzen zuten xori bakharrekin bizi zen neskatxa hura.

Egun batez zubi batean pasatzen zelarik ikhusten du andere hura zubi azpian eta erraten dio:

—Idi hoik ez baditutzu lehen zien bezala gizon bilakatzen, labe gorritu batean sartuko zaitut.

Erresponditzen dio:

—Ez, ez, zuazte halako erreketarat, eta handik ekhar hiru abrasta urritza eta bakotxari emozu bizkarrean hiru zartako.

Iten du harek erran bezela eta jende bilakatzen die lehengo manera berean, eta haurhide guziak elkharrekin zien basa jaunen xato hartan, eta ongi bizi zien, ongi hil zien.



## GODEON

Behin batez bazen errege bat. Bazuen alaba bat hainitz maite zuena eta egun batez adiskidantzak egiten ditu gizon gazte belar mahasti pika-tzaile batekin, batere bere etxeok jakin gabe eta bere hordi.

Errege harek aditu zuenean harritu zen eta erran zion uzten ez balin badu mutil gazte hura, emanen zuela preso. Eta alabak erresponditzen dio bere aitari:

—Ez aita! Ez dut utziko! Maite dut. Bere ederrez maitatu dut.

Eta errege hori goaten da furia jaun leherren mintzatzerat. Eta bere alaba preso sar arazten du eta han zagoen gaxua zango bat urean, harrek jaten, eta bertzea burdin gateg estekatua. Hola holako sei urte pasatu zituen nihor ikusi gabe. Egunian bietan ikhusten zuen jaun bera. Zopa ematerat hura ethortzen zen. Eta sei urteren buruan ethortzen zio bere aita eta erraten dio:

—Ene haurra! Zer ari haiz hor?

—Ez dakizu aita zer ari naizen hemen, zango bat urean usteldua eta bertzia harrek jaten ari? Ez zintuzke ba bortz sos jaun lerrari emaiteko; nere zango hauk hemen die, libratzeko.

—Bai, ene haurra! Banuke saskika ere nahi baduzu zure Godeon kitatu.

—Ez aita! Sobra maite dut.

Eta bere aita partitzen zio bere alaba estatu hortan utzirik. Eta egun batez han pasatzen zen Godeon eta akaspetik botatzen dio paper ttiki bat hiru hitz eskribatuak eta hetan emanak: «Bota zazu zure burua hila bazin-de bezela eta utz azu enterratzerat». Eta andre gazte harek uzten du bere burua hila bezala. Eta jaurelak etorri eta atxematen du hila.

Berehala gaztiatzen du erregeri zer arribatu den eta errege harritzen da eta hala xangrintzen, aditu duenean bere alaba bakharra hil ziola.

Haren enterramendua zohalarik bidian, errekontratzen dute Godeon eta erraten diote:

—Utz nazazue, ene maitea ikhus dezadan azken aldikotz.

Uzten dute eta kaxa idekitzen dute eta Godeonek ukitzen du eta andre gazte harek oihuka ondekitzen du eta pizten da andre gazte hura eta jende guzia estonitzen da eta orduan erregek itzematen dio:

—Godeonek piztu baitu nere alaba, harentzat izanen du.

Eta biak ezkondu ziren eta erregek eman zioten bere xatoa.

## APEZAK

Asko munduan bezala baziren jaun andre batzuek. Apezek afizione handia zuten bisitan ibiltzen. Jaun andreek ideian pasatu zuten behar zutela zenbeit sos kendu. Eta jauna ethorri zen koleran bezala, behar zuela labia piztu. Eta aphezak heldu balin bazien, labean sartu.

Egun batez, aphezak han zirelarik ethorri zen koleran. Erran zion andreari:

—Maria, higi adi fite. Labia piztu behar dinau.

Jaun erreterak erran zuen:

—Non sarthuko naiz?

—Labian.

Eta bikarioak:

—Non sarthuko naiz?

—Barrikaren barnian.

Eta erran zion Mariari bikario batek:

—Othoi libra nazazu!

Erraten zion:

—Zenbat emanen duzu? Bortz ehun liberetan libratuko zaitut.

Bertziak erran zion Mariari:

—Othoi libra nazazu!

—Zenbat emanen duzu?

—Lau ehun libera.

Eta arte hartan, labea piztu zuen jaunak othe adar batekin eta jaun erretora atheratu zen kriolaka.

Gero handik igandian gan zen Maria urguillu handian eta bezperak onduan apezak jautsi ziren aldaria beheiti. Batek erran zion bertziari:

—Orduz goitiko Mariaren urguillu handia! Bertze horrek bazakik hire eta nere moltsaren berria.

Jaun erreterak:

—Zuek bezala nik izan banu dirua ez nuen izanen gibleleko aldia errea.

*(Gaña haurra)*



## SUGIA ETA HIRU ALABAK

Asko munduan dien bezala, bazen gizon alhargun bat. Bazituen hiru alaba. Egun batez zaharrenak erran zion gan behar zuela bazterren ikhusterat. In zuen bi orenen bidia eta ikhusi zituen iratze pikatzaille batzuek. Eta turnatu zen etxerat mirakuillu hek ikusirik espantitua.

Erraten zion aitari zer mirakuillu ikusi zuen. Eta aitak erran zion iratze pikatzailiak zirela eta belhar pikatzailiak.

Bigarrenak ere galdetu zion hura bezala gan behar zuela eta turnatu zen gero gibela gauza berak ikhusirik.

Eta hirugarrenak erran zion hark ere gan behar zuela:

—Haurra, zer ikhusi nahi duzu?

—Nik hoik bezala zerbait nahi dut ikusi.

Gan zen hekien bide beraz. Ikhusi zituen hek bezala iratze pikatzailiak eta belhar pikatzailiak.

Aintzinaxago gan zen. Ikhusi zituen liña xuritzaille batzuek. Eta gero aintzinaxago gan zen. Hiru orenen bidia ordukotz eta ikhusi zituen xara pikatzaille batzuek eta erran zioten deusik gehiago ikhusiko othe zuen aintzinaxago gaten bazen:

—Bertze xara pikatzaille batzuek.

Gan zen aitzinerat hañitz xara hartan eta arrastatu zuen suge batek eta nigarrez han zagon nahiz bazuen jatekua, deusik ezin janez. Eta hala hala egotu zen zortzi egunez partikulazki arras triste eta handik hala hala hasi zuen etsitzen. Pasatu zituen han berian hiru urthe.

Hiru urtheren buruan, abiatu zen gan behar zuela etxerat. (Sugeak) erran zion turnatuko zela gibelerat bi egunen buruko. Denborak abantzu zituela. Errege baten semia zela hala kondenatua lau urterentzat. Eman zion kilo bat eta lardatza zillarrez doratua. Eta eman zion mokanes zeda bat.

Etxerat arribatu zenean erran zion hura han kausitzen ez bazuen, hautsi beharko zituela zazpi zapata pare, sei larruzkoak eta bat burdinazkoa.

Etxian arribatu zenian, aitak ez zuen utzi nahi etxetik athera, nun pasatu zituen hainbertze denborak. Erran zion:

—Errege seme suge kondenatu batekin.

Eta denborak akhabo zituela eta othoi gibelerat utzi behar zuela. Erran zuela biak esposatuko ziela. Eta aitak eman zuen preso gela zerratu batian, hañitz gora.

Espakatu zen laugarren egunian. Gan zen toki hartarat. Ez zuen hatzeman errege seme hura. Soinian ordukotz zituen zapatak abantzu hautsiak zituen. Gero bertze pare bat erosi zuen. Bethi galdein, aintzinerat zohan, errege seme hura heia hañitz urrun zen, Erraten zioten baietz hañitz urrun zela.

Berritz ere erosi zuen bertze zapata pare bat. Hura ere bidian abantzu higatuak, bethi bidiaren gainian. Berritz erosi zuen laugarren paria. Hek higaturik berritz bortzgarren paria. Gero berritz seigarrena. Orduan galdetzen zuen heia hurbiltzen zen. Erraten zioten, oiñon hañitz urrun zela. Gero erosi zuen zazpigarrena, burdinazkoa eta hekiekin bide puska in zuenian galdetu zuen heian urbil zen errege seme hura.

Zazpigarrena abantzu higatua sartu zen hiri hartan eta aditu zituen musika soñu batzuek eta erran zioten heian zer zen hiri hartan. Eta erran zioten:

—Hulako erregeren semea egun da espos.

Eta gan zen etxe hartarat; athia jo zuen eta ethorri zitzaion sehi bat, zer galdetzen zuen. Erran zioten baldin bazuten iruteko lanik iruten hari-ko zela. Eta erran zion sehi harek andreari. Andriak erran zion ekhartzeko aintzinerat.

Ekharri zuen eta sukaldian zelarik agertu zuen mokanes zeda, errege seme harek eman zion hura. Eta hasi zen harekin sudurra garbitzen. Eta andere hura harritua zen ikhustiarekin haren mokanes zeda eder hura zoin aiseki ibiltzen zuen sudurraren garbitzen. Haren semiak ere halakua zuela espos egunian. Eta erran zion semiari elizatik arribatu zenian irulle bat bazutela hañitz urrundik heldu zena. Eta amak erran zion errege seme hari:

—Hik bezalako mokanes zeda dik.

Eta errege seme harek erran zion amari:

—Nik ikusi behar dut hor duzuen irullea.

Eta abiatu zen ikusterat. Amak erran zion:

—Zertako ikusi behar duk?

—Nik ikusi nahi dut!

Gan zen sukalderat eta haren bistan agertu zuen mokanes seda hura.

Erran zion:

—Ikus azu hori niri.

Erran zion:



—Jauna, zure eskuetarat emateko zikhiña da.  
 Erran zion jaunak:  
 —Ikusi nahi dut.  
 Eta irakutsi zion. Ezagutu zuen neskaxa hura zela.  
 Erakutsi zion kiloa eta lardatza. Eman zuen mahaiñian eta guziak hari ziren historioak kondatzen.  
 Erran zuen errege harek.  
 —Nik ere banuke historio bat kondatzeko.  
 Denak ixildu eta eman zien errege hari beira eta erran zuen:  
 —Lehenago banuen armario batentzat gakho bat eta hura galdu nuen eta in arazi nuen berri bat.  
 Eta erran zion andriari heia zein behar zuen zerbitzatu, berri hura ala zahar hura. Eta erran zion:  
 —Lehenago ona baduzu, zertako behar duzu berria zerbitzatu?  
 Eta orduan erran zion erreputa hau:  
 —Lehen banuen emaztegei bat eta orai hartu zaitut zu, bañan uzten zaitut eta hartzen dut lehengoa. Zoazi beraz zure etxerat.

*(Gaña haurra. Getarin ikasia)*

## ALARGUNTSA

Behin batez bazen jaun bat arras gaitza. Hamabortz hamasei aldiz alargundua zen. Eta egun batez gaten da xato eder baterat. Han atzematen du andre gazte bat. Hain pulita zen non arras gustatu baitzen eta jaun harekin egin zituen ezkontzeko adiskidantzak. Eta ezkondu ziren.

Jaun harek bere palaziorat gan zuen eta hura, hamazazpigarrena, hil zuen. Oraino bertze hiru atzeman zituen eta hirurak hil zituen. Hola, jaun hori hogoi aldiz alargundu zen arras denbora laburrez.

Hain pulita eta gaztea baitzen atzematen du bertze andre gazte bat eta esposatzen da hogoi eta batgarrenarekin. Egund batez ematen diozka hamabi gakho eta erraten dio:

—Hameka gakho hautaz irekazu hameka ate, bainan hamabigarrena ez hunki.

Idekitzen ditu hameka athe, bainan hain toki ederrak ikhusi baitzitu, arras kurios zen. Hamabigarrena idekitzen du eta ikhusten ditu hogoi andre hilak eta gakho hura erortzen zaio odol putzu batetarat eta ez zitaken garbi. Eta jaunak dixidatua zen gako hura hunkitzen bazuen, haren biziak in zuela. Eta hari zen bethi bere gakhua garbi eta garbi, eta ez zuen garbitu.

Zer iten du? Bere anaieri eskribatzen du. Eta bere jauna arribatzen zaio eta erraten dio:

—Ibili dun gakho hau!

—Ez. Ez diat hunkitu!

—Bai ibili dun eta presta hadi hiltzeko.

—Utz nazak othoi esposeko abilamenduak jaunzterat.

Erraten dio:

—Bai, uzten haut, bainan fite presta hadi.

Badoha prestatzerat eta aditzen ditu jaunaren oihuak. Erraten dio:

—Prest haiz?

—Soinak jaunzten hari nauk.

—Prest haiz?

—Utz nazak istant bat.

—Prest haiz?

—Soinian kurtzetetzen ari nauk.

—Prest haiz?

—Galtzerdien ematen hari nauk.





Eta zagoen maiz leihotik beira heian bere anaiak ikusiko ote zituen.  
 —Prest haiz?  
 —Hago istant bat, botinen ematen hari nauk.  
 —Prest haiz?  
 —Buruaren arrimatzen 6 hari nauk.  
 —Prest haiz?  
 —Utz nazak koronaren arrimatzerat.  
 Eta ikhusten du bere hiru anaiak heldu zaizkola oihan batean, zaldiz, arras urrun. Eta aditzen du berriz ere:  
 —Prest haiz?  
 —Heldu nauk istantian. Heldu nauk.  
 —Heldu haiz, edo heldu naun?  
 —Ez haila ethor. Nehori ethorriko nauk.  
 Eta andere hura eskaleran behereko mailan, hiletik errestan zarama-kolarik bere jaunak, arribatzen zaizko bere hiru anaiak. Jaun horri khen-tzen diote haizkora eskutik eta hartzen dute jaun hura preso, eta andrea gelditu zen etxe hartan nausi, bere hiru anaiekin.

*(Stefana Hirigaray)*

## ERREGE BATEN GAZTETZEA

Behin batez bazen errege bat, asko munduan dien bezala. Bazituen hiru seme. Egun batez xurnal baten irakurtzen hari zelarik, atzematen du badela ur bat, gartzetzeko dena. Eta hasten da irriz. Eta seme zaharrenak galdetzen dio:

—Zer duzu aita?

Erraten dio:

—Atzeman diat berri drole bat.

—Zer da aita?

—Ur bat badela hainitz urrun, gizon zahar guziak gartzetzen ditue-na, bainan hainitz urrun.

—Ebien, aita, ni ganen naiz zuretzat bila.

Erraten dio.

—Ez, ene seme. Sobra urrun da.

—Bai aita.

Eta partitzen da. Bainan ez zen fitsik ageri eta aita arras xangritzen hari zen. Bigarren semeak erraten dio:

—Aita, ni behar naiz partitu.

Eta partitzen da diru puska batekin. Lehenbiziko hiriratu denean atzematen du bere anaia zaharrena eta erraten dio:

—Zer hari haiz hemen? Ez dakik zer hitzeman diokan hire aitari?

Eta erraten dio:

—Eman dauztan diru guziak enpleguak ditiat.

Eta biak hari ziren zituzten diruen xahutzen eta gero fitsik ez zuten.

Hasten die gizon behar batzu bezala lanian. Bainan guazin gure erre-gerenganat. Seme gaztenak erraten dio:

—Aita! Bertze anaiek ez dute fitsik egin. Bainan nik eginen dut. Utz nazazu partitzerat.

Eta partitzen da diru puxka batekin eta bidian dohalarik atzematen du emazteki zahar bat eta galdetzen dio:

—Norat zoazi jaun gaztea?

Eta erraten dio:

—Botolla bat uren bilha.

Erraten dio:

—Baduzu oihan hortan alimalez leher.

Eta erraten dio:



—Nola behar naiz pasatu?

—Zuazi hamar orenetan.

Eta pasatzen da alimale guziak lo zielarik. Eta ez zakien gero zer egin. Atzematen du bertze emazteki zahar bat eta galdetzen dio hari:

—Ikhusi duzu hulako erregeren bi seme?

Erraten dio:

—Bai ikhusi ditut. Hordi banda bat hartua dute. Utz atzu hek bere gisan.

Bainan erraten dio:

—Ene anaiak ditut.

Eta galdetzen dio:

—Nohat zuazi?

Eta erraten dio:

—Aditu baitut hulako tokitan badela zahar guzien gaztetzeko ura.

Eta erraten dio:

—Hartarik botolla bat behar dut ereman aitarentzat.

Erraten dio:

—Ene haurra aski duzu hurrupa bat zure aitaren hogoi urtetarat turnatzeko.

Eta erraten dio:

—Zuazi gauerditik oren batean. Xato eder bat bada. Han atzemanen dituzu guziak lo, andre bat leiho baten onduan dagoela lo eta alimale suerte guziak lo. Bainan handik atera zaite kusi kusian. Utz atzu guziak. Han izanen da xori bat kantari ederrena, zaldi bat irrintzinari ederra. Bainan bego guziak bere tokietan.

Partitzen da jaun gazte hori eta atzematen ditu alimale guziak lo, andre hura lo. Eta gero hartzen du ura. Bainan oraino ez zen kontent. Ebasten ditu xori eder hura eta zaldi eder hura. Eta partitzen da bere etxerat.

Atzematen du oihaneko alimale guziak atzarriak eta bazagoen triste, ez jakin zer egin.

Heldu zaio emazteki zahar hura eta erraten dio:

—Malurusa! Zertako hartu dituk horiek guziak. Nik ez hinduan erran bertze fitsik ez ukhitzeko ura baizik?

Eta erraten dio:

—Orai har zak zigor bat, eta emok oihanian sartzean harekin zarteko bat lurrari. Alimale guziak loak hartuko dituk. Bainan hire anaiak hulako tokitan dituk. Ez zatekela hekier beira. Utz azik bere gisan.

Partitzen da mutiko hoi. Oihanean sartzian ikhusten ditu alimale guziak hari beira. Eta ematen dio zigorrarekin zarteko bat lurrari. Eta loak hartzen ditu alimale guziak. Eta pasatzen da. Eta badoha bidian arras alegera, xoria kantuz, zaldia irrintzinaka, eta bere ura sakelan.

Atzematen ditu bere anaiak. Estonitzen dire. Besarkatzen ditu eta erraten diote:

—Guazen etxerat. Zer hari zarete hemen? Zatozte etxerat.

Eta erresponditzen diote:

—Ez dugu dirurik eta ez gara izatu aitari hitzeman gindion uraren bilha.

—Higual duk. Nik badiat eta ganen gaituk denak elkharrekin etxerat.

Eta partitzen die. Eta erreka batian zohatzilarik botatzen dute putzu batetarat eta han zagoen tristerik. Eta bi anai zaharrenak partitzen die, bainan zaldia orduan ixil, xoria triste. Etxian sartzien die eta zaldiak ez ez irrintzinarik eta xoriak ez ez kanturik. Eta aitari eman dute ura edaterat, bainan lehen bezala bethi; triste eta zahar. Ez, ez, batere gaztetu gabe.

Guazan orai gure anai gaztenarenganat. Bere ziloan tristerik zagoelarik, ez jan, ez edan, arras bentzutua zen. Eta agertzen zaio bere emazteki zahar hura eta erraten dio:

—Zer hari haiz hor?

—Hemen naiz ene anaiek botatua putzurat.

—A! Malurusa! Nik ez hinduan erran uzteko hire anaiak bere gisa?

—Othoi lagun nazazu hemen goiti atheratzen!

—Nundik? Ez diat posible. Ez duk ikhusten? Zahartu nauk, ezindu nauk. Bainan egorriko haut axeri bat. Eta haren buztanetik lotuko haiz.

Eta lotzen da eta atheratzen da. Partitu zen bere etxerat. Hura etxean sartziarekin hasten da zaldia irrintzinaka, xoria kantuz errepikaz eta aita estonitzen da eta ematen dio bere ura edatera aitari. Bazituen haren aitak chun eta laur urte eta harek ura ematiarekin ethortzen da errege hura hogoi urtetan.



## APHEZ AT'ZIPAKORRA

Asko munduan dien bezala bazien jaun andreak. Jaunak zuen izena Petarillo. Ibiltzen zen ihizian. Egun batez bazituen atzemanak bi erbiko hume eta jaun erretora goan zen egun batez harat. Eta andriari erran zion heldu zelarik berriz erretora, hetarik bat libratzeko haren bilha, billeta bat lephoan emanik, eta bertziari utzi zion bertze billet bat berak emanik.

Erretora goan zen gizon hura non zen, haren galdez. Andriak erran zion egorriko zuela erbietarik bat haren bilha, nun nahi izan zadien atzemanen zuela, arras ongi eskolatuak zituela. Eta libratu zuen hetarik bat.

Berantetsia zuten eta ethorri zen noizbeit. Andriak erran zion:

—Egorri dut erbia.

Erran zion:

—Hemen dut.

Erretorak erran zion othoi behar ziola hari saldu. Erraten dio ezetz, hainitz ongi eskolatua zuela. Berritz ere erran zion behar zioela saldu. Erran zion ez zioela emanen bortz ehun libera baño merkeago. Eman behar zioela hiru ehun liberetan. Ezetz. Eman zion lau ehun liberetan.

Erretorak erran zion bere gobernantari nihor heldu bazen, libra zezan erbi hura, atzemanen zuela nun nahi izan zadien. Gizon bat etorri zen erretoraren etxerat, eri batek galdetzen zuela. Egorri zuen erbi hura, harek atzemanen zuela eta erretora ez ageri. Berantetsia, gizona partitu zen eta gobernantak erran zion nola libratu zuen erbi hura.

Eta, ez zitzaiola agertu, koleran gan zen ihiztariaren etxeat, eta ikusi zuen Petarillok koleran heldu zela eta eman zion andriari zahagi bat:

—Hau emanen dun kasakaren azpian, eta arribatzen denian erretora, koleran sartuko haut ganibet bat eta eroriko haiz hila bezela, eta ni hasten naizenian xiolaren jotzen, altxatuko haiz piztu hizela.

Arribatzen da erretora koleran eta sartzen dio bere andriari ganibet handi bat. Erortzen da lurrerat. Erretorak, iya badakien zer in duen, erraten dio. Ez dela deusik, erremediatuko duela. Eta hasten da xiolaren jotzen. Altxatzen da pixtua, eta erraten dio jaun erretorak othoi behar diola xiola hura saldu. Ez diola salduko hainitz baliosa duelakotz. Baietz, behar diola saldu. Zenbat behar duen. Behar den guzia emanen diola. Bortz ehun libera. Eta ematen diozka.

Gobernantak zenbeit aldiz trufatzen baitzuen, etxerat gan eta behar duela piska bat izitu. Usaian bezala hasten zaio trufatzen eta sartzen dio mahaineko ganibet handi bat. Arrebak erraten dio:

—Badakizu zer ari zaren? Zure gobernanta hil duzu!

Bertzeak erraten dio:

—Ezetz! erremediatuko dut.

Hasten da xiola jotzen. Bañan ez du erremediatzen.

Badoha koleran ihiztariaren etxerat. Orduan arrimatzen du zaku batian eta erematen du errestan, behar duela itsasorat arthiki. Xilintxa mezakoa jotzen diote elizako ondoan pasatzian eta uzten du meza eman artio.

Artzain bat arte hartan pasatzen da eta erraten dio zer hari den han. Erraten dio itsasorat arthiki nahi duela jaun erretorak. Erregeren alabarekin ezkont arazi nahi duela. Harek ezetz. Hortakotz itsasorat ardiki nahi duela. Erraten dio bertzeak:

—Ni emanen nauk hire plazan eta libratuko haut. Hi ganen aiz ni arrimatu eta ene arthaldiarekin.

Meza emanik gibelerat itzuli denian, hartu eta erraten dio:

—Ezkonduko naizela erregeren alabarekin.

—Nik instantian ezkonduko haut.

Eta arthikitzen du itsasorat. Gibelerat itzuli denian ikusten du artaldiarekin bere gizona eta erraten dio:

—Nondik atheratu duk arthalde hori?

—Itsasoko zola hortarik. Hor bada holako franko. Ez dituzu ikhus-ten buru xuri batzuek nola agertzen dien itsasoaren gainian?

—Nik ere baitezpada hik bezala nahi nuke arthaldea banu.

—Hurbil zaite itsaso hegri hortarat.

Hurbiltzen da eta botatzen du.

*(Gaña Haurra Hirigarai)*



## LAMINAK

Behin batez bazen emazteki bat. Bazituen hiru alaba eta egun batez gaztena abiatu zen, gan behar zela sehi. Hiriz hiri zohalarik atzematen du lamina bat eta galdetzen dio:

—Norat zohazi haurra?

Eta erraten dio:

—Neskato plazarik badakizu?

—Baietz; nahi bazare ene etxerat ethorri, hartuko zaitut.

Erraten dio baietz eta goizeko lanak ematen diotza. Erraten dio lamina harek:

—Nihorari ilkhi behar naiz, bainan zure lanak izanen dire: sukaldia aintzurtuko duzu, pegarra hautsiko duzu, baxera guziak porroskatuko ditutzu, haurreri gosaiterat emanen diozute eta bisaiak zikinduko, iliak kartsailluko ditutzu.

Eta hari zelarik haurrei gosaiterat ematen, heldu zaio xakur ttiki bat eta erraiten dio:

—Ttau, ttau, ttau, nik ere zerbeit nahi.

—Hail hemendik xakur txarra, emanen haut ostiko bat.

Eta xakurra ez zen gaten. Azkenian ematen dio jateko pixka bat eta erraten dio:

—Nik orai erranen etxeko andriak zer erran duen iteko.

Eta erraten dio:

—Erran zaitu sukaldia garbitzeko, pegarra bethetzeko eta baxera guziak garbitzeko, eta guziak ongi eginak balinbadituzu, emanen zaitu hauta: orai zer nahi duzu, zakhu bat ikhatz ala zakhu bat urhe? Izar ederra kopetan ala asto zilla kopetan? Eta erranen diozu zakhu bat ikhatz eta asto zilla kopetan.

Eta etxeko andria arribatzen da eta bere neskato berriak lan guziak inak ikhusten zelarik, arras kontent zen eta erraten dio:

—Hauta, zer nahi duzu orai ene neskato: zakhu bat ikhatz edo zaku bat urhe?

Eta erraten dio:

—Ba, nik igual zakhu bat ikhatz.

—Izar ederra kopetan edo asto zilla kopetan?

—Ba, nik, asto zilla kopetan.

Eta ematen dio zakhu bat urhe eta gero ematen dio izar ederra kope-tan. Eta neskata hori partitzen da etxerat. Hain zen ederra izar ederra kopetan eta zakhu ederra bizkarrian, eta familia guzia estonitzen da eta erraten dio alaba zaharrenak bere amari:

—Ama, gan behar naiz ni ere neskato.

Eta erraten dio:

—Ez haurra, hik jeus ez dun eginen.

Eta ez baitzuen bakerik eman nahi, partitzen da. Bertze ahizpa beza-la arribatzen da laminen hirirat eta atzematen du barnian hura bera. Eta erraten dio:

—Norat zohazi neskata?

Erraten dio:

—Neskato!

—Zato gure etxeat.

Eta hartzen du sehi. Ematen dio aintzinekoari bezalako lanak eta hasten sukaldia aintzur eta aintzur, baxera guziak hauts, pegarra hauts, haurreri gosaitera eman, eta guzieri bisaiak zikintzen eta bazen oino gosari hondarra. Eta xakurra heldu da eta xakur harek egiten zuen:

—Ttau, ttau, ttau. Nik ere zerbeit nahi.

Bethi han zabilkion ondotik, eta ez dio fitsik ematen. Eta azkenian jotzen du ostiko batez eta egortzen du kanporat. Eta heldu da etxeko andria. Atzematen du sukalde guzia haintzurtua, pegarra eta baxera guziak hautsiak, eta galdetzen dio:

—Orai, ene neskato, zer nahi duzu sari?

Eta erraten dio zakhu bat urhe eta izar ederra kopetan.

Eta ematen dio zakhu bat ikhatz eta asto zilla kopetan.

Badoha etxerat nigarretan eta erraten dio amari hura hain triste heldu dela. Eta tartekoak galdetzen dio berriz permisionea. Ezetz. Uztu da eta geldi arazten du etxian.



## SORGINAK ETA ERGELAK

Behin batez baziren bi anaia, bat ergela eta bertze bat enuxentina. Bazuten ama xahar xahar bat. Eta goiztiri batez abiatzen da seme zaharrena mendirat arthaldiarekin eta uzten du enuxenzko hura etxian bere ama xahar xahararekin eta erraten dio:

—Orai nik amari emanen diot xokoleta eta zuk emanen diozu maño bat bero beroa trenpoan.

Eta partitzen da mendirat bere arthaldiarekin.

Bigarren semiak ematen du ura berotzen eta erraten dio bere amari:

—Ene ama, ura bero beroa da. Zer maño nahi duzu?

Eta erraten dio:

—Brazadazeo maño bat.

Eta ematen dio ohe aintzinerat maño irakitzen hari zuena. Eta ama ez baitzen jeikitzen erraten dio:

—Nahi duzu salda ematia?

Erraten dio baietz.

—Ama, jeiki zaite fite.

Eta ez zen jeikitzen. Hartu eta ematen du berak maño irakitzen hari zenian eta ama gaixoa han egosten da eta erraten dio:

—Ama, altxa zaite, oiño ez zaitzu mañoa hoztu.

Eta ez dio jeus errepustarik ematen.

Arratsa ethorri zen eta bertze anaia arribatzen zaio eta erraten dio:

—Nola duk ama?

—Ongi duk.

—Eman diok mañua?

—Baietz. Bainan oiñon han lo ziauk.

Eta erraten dio:

—Ikusak heia lo den.

Badoha eta erraten dio:

—Ez. Erriz ziagok.

Badoha bertze anaia eta ikusten du ama arras hila eta ez zakiten zer egin.

Badohazi biak baratzerat eta han iten dute zilo handi bat eta anaia gaztenak sagardiaren puntan sartu eta botatzen du zilorat. Eta biak etxera gan eta izitzen zien.

Zer iten du anaia bigarrenak? Hartzen du izpirituan behar dutela zerbeit hartu zeinetarik gauza hainitz baitzen etxe hartan. Eta uzten dituzte alimal guziak, muble eta puxketa liña guziak, eta hartzen du athe bat bizkarrian. Oihanian zohazilarik igotzen die biak arbola punttarat eta gauerdiko iñ hartan aditzen dituzte sorginak akhelarrian eta biak arras izituak zien.

Erraten dio anaia batek bestiari:

—Oi! Ni ezin naukek hemen!

Eta sorginak heldu dire hen arbolaren azpirat eta batek erraten zuen:

—Erregeren alaba eri duk hainitz eta ez dun sendatuko idi baten bihotza jan arte.

Eta han hala zaozilarik hek, anaia batek botatzen du basa puxka bat eta sorgin bat hartzen du:

—Ai! Jainkoaren errakia! Jan dezagun guziek!

Bildu ta jaten dute.

Handik instantian botatzen du ur xorta bat.

—Ai arno, arnoa! Edan dezagun!

Gero bere athiarekin arras hunatua zen eta uzten du guzien gainerat. Batek ail! eta bertziak oi! Tarrapataka guziak badohaz.

Eta badohazi anaia hek biak, erregeren palaziorat. Eta atzematen dute andre gazte hura hain txar. Eta estonitzen dire, mutil hek biak nola dabil-tzan han. Erregeren zerbitzariak galdetzen diote:

—Zer behar duzue?

—Errege ikusi.

Eta zer iten du? Erraten dio erregeri bainan ez zuen sinetsi nahi zer-bitzari hura:

—Zozuak zirezte, hoik eta egorratzu handik.

Eta ez baitzuten gan nahi, errege heldu da eta erraten dio:

—Zer behar duk?

—Zuk alaba bat baduzu eri.

Eta erraten dio:

—Hik ze ari behar duk?

—Nahi duzu jakin horren sendatzeko erremedioa?

Eta erraten dio baietz.

—Ebien. Hiri huntan den idirik ederrena hil araz zazu eta haren bihotza labian erretua emozu.

Eta errege harek aditu guziak iten zituen bere alabaren sendatzeko. Eta iten du harek erran bezala.



Idi bihotza jan zueneko, bere andre gaztia hari zen pullikitzen. Eta sendatu zen fite eta mutil hura errege harek hartu zuen bere etxerat eta bere alabarekin ezkondu eta xato guzia eman zioten beretzat, diru eta izate guziekin.

## LAMINA

Behin batez bazien jaun andre batzuek eta andrea haritzen zen arratsetan iruten. Eta ethortzen zitzaion emazteki lamina bat eta etzitaken nihondik kasa. Eta ematen zion arrats guziez xingarra jaterat. Et azkene-kotz arras unatua zen emazteki hura bere laminarekin.

Egun batez erraten dio bere senarrari ez zezakela nihundik buru bere lamina, eta nahi zuen egorri. Eta haren jaunak pentsatzen du behar dela bere andriaren arropaz beztitu emaztekoa balitz bezala. Eta iten du.

Haren andrea oherat gaten da eta gizon hura bera sukaldian gelditzen da eta usaian bezala heldu zaio bere lamina. Hari zen iruten. Laminak egiten dio:

—Agur andre.

—Bai zuri ere, lamina. Jar zaitte.

—Lehen xirinxirin haritzen zinen, bainan orai fargalu fargala hari zare.

Gizonak ihardesten dio:

—Bai, orai unatua naiz.

Nola haren emazteak ematen baitzion xingarra jaterat, gizonak ofreitzen dio:

—Nahi duzu orai afaldu?

—Bai, nahi baduzu, laminak ihardesten dio.

Ematen du padera suan xingar puska batekin. Irakitzen hari zelarik, gorri gorria ina, botatzen dio laminari bisaiaren erdirat. Hasten da lamina gaixo hura nigarrez deihadarka. Heldu zaizko hogoi ta hamar bat lagun. Galdetzen diote:

—Nork zer egin daun?

Errepusta:

—Ni neuk nee burua.

—Hik hire buruari in badion, atxikan!

Partitzen die lamina guziak eta ez zen etxe hartarat ethortzen gehi-go laminarik.

Jaun andre hek aintzinean hain ungi zienak, gero, lamina hek ganez geroztik etxe harek baatxe baatxe jo zuen errekarat, eta jaun andre hek miserian baizik izatu zien.

Ungi bizi bazien, ungi hil zien.



## ANDRE BATEN HILTZEA

Behin batez, asko munduan dien bezala, bazen andre bat hainitz aberatsa. Egun batez eritasun handi batek hartu zuen eta galdetu zuen hura hiltzen zenian, bere diru guziak emateko berekin.

Hil zen andre hura, eta eman zioten kaxaren barnian, eta bere diru guziekin ehortzi zuten.

Egun batez heldu die etxe hartarat bi gizon galdetzen zutela:

—Andre harek zer egin ditu bere diruak?

Errepusta ematen diote:

—Berekin gan ditu kaxaren barnian, eta badu ja zenbeit denbora.

Gizon hek elkarrekin hitz hartzen dute behar diela arratsian gan andre hura ehortzia den tokirat. Eta badohazi. Eta xilua idekitzen dute. Kaxa atzematen dute eta atheratzen goiti. Andre hura kentzen dute eta atzematen bere diru guziak. Ez zakiten zer pentsa. Badohazi jaun ertorraren landarat eta han ikhusten dute haren zaldia. Atzematen dute eta erematen dute berekin andre hura. Estekatzen dute bere zaldiaren gainian. Eta izitua, bazabilan zaldi hura bere andre hila bizkarrian, alde baterat galupa eta bertzerat jauzika.

Biharamun goizian badoha zerbitzaria bere zaldiaren bilha eta ikhusten du zaldiaren bizkarrian zerbeit xuri xuria. Ez zakien zer zen. Iziturik badoha etxerat eta erraten dio jaun erretorari badela zerbeit zaldiaren bizkarrian. Erraten dio guateko:

—Zoazi norapeit gizon baten bila.

Badoha. Ekhartzen du gizon bat, eta gizon hura estonitua, zer othe zen zaldi haren bizkarrian. Heian sartzen zuelarik jotzen du andre harek gaineko koluma eta erortzen da lurrerat.

Estonitua, jaun erretora, ikusirik andre hura zela putzutik atheratua, baduazi eta atzematen dute kaxako diru guziak galduak. Pentsatzen dute norbeitek gaixtakeria egin zuela eta aintzinean bezala ehortzi zuten.

## ALARGUNTSA

Behin batez bazen errege bat. Bazuen andre bat hainitz ederra eta hainitz maite zuena. Andre gaixo hura egun batez gertatu izan zen eritzia, eta gaitzak hartu zuen arras lanjeroski.

Egun batez erraten dio bere jaunari:

—Ni hilen naiz, baina ez duzu sekulan ezkondu beharko ni bezalakoarekin baizik.

Eta andre hura hil zen. Bazuten alaba bat, bere ama iduri iduria; aitak erraten dio bere alabari egun batez biak behar diela ezkondu. Alabak erraten dio kuxian bere amatxiri. Erraten dio amatxik:

—Erran behar diozu zure aitari, nahi bada zurekin ezkondu, behar duela egin zuretzat ehun uli hegalezko soin bat.

Eta galdetzen dio bere aitari, eta erraten dio:

—Bainan ene haurra, nundik dun posible? Bainan hala ere enseiatuko naun.

Eta egun batez ekhartzen ditu ehun dendari. Eta guzien artean egi-ten diote uli hegalezko soina.

Badoha andre gazte hura tarrapataka. Erraten dio bere amatxiri. Amatxik kontsultatzen dio gateko etxez etxe heian behar zen sehirik. Eta arribatzen da errege baten etxean. Jotzen du athea eta galdetzen du heian behar zuten antzara zainik.

—Bai, preseski. Atzo gana dugu.

Eta sar arazten dute. Eta asto bat hil eta larrutu, ematen diote asto-larru hura bere beharriekin. Eta gero arras aire desgustagarria zuen.

Egun batez hiri hartan egiten dute terriblezko besta handia eta errege seme hura han zen. Zer iten du neskatxa harek? Deliberatzen du gan behar dela hura ere. Eta arratsa ethorri denian agertzen zaio atso zahar bat eta erraten dio:

—Neskatxa, zer duzu tristezia hori?

Erraten dio:

—Guziak bestan eta ni hemen naiz bakharrrik triste etxean.

Erraten dio:

—Jo zazu makil batekin ura.

Jotzen du eta ethortzen zaio heltxaur bat. Idekitzen du. Atheratzen zaio egundaino nihork ikhusi ez duen abilamendu ederra. Eta oraino ez zakien zer egin.



Berritz jotzen du hura bera. Eta heldu zaio karrosa eder bat bere zaldiekin. Sartzen da haren barnean bere asto larrua botatu eta. Plazan arribatu denian, karrosatik jaustiarekin heldu zaio etxean zuen errege seme hura. Ez zuen batere ezagutzen bethiko bere etxeko sehi afrus hura zela. Hartzen du eta estonitzen da nondik heldu othe zen halako printzesa ederra. Jende guzia harrítua hari beira. Dantzan aritu zen errege seme harekin.

Gauerdi jotzian erraten dio partitu behar dela etxerat. Erraten dio ezetz. Bainan abiatzen zaio kusi kusian, eta ematen diotza bi erreztun.

Arribatzen da bere uraren hegirat. Uzten du han bere abilamendu ederra. Eta errege seme hura arribatu zen etxean eta ordukotzat emana zen bere asto larrua bizkarretik. Errege seme harek ez zuen gehiago ikhusten bere andre gazte eder hura eta xangrin hartarik eritzen da.

Egun batez erraten diote neskatxa harek:

—Nik badakit jaun gazte hori sendatzeko erremedio ona.

—Hik zer dakin? Ez dakin fitsik, hire asto larrua ibiltzen baizik.

Aparta hadi hemendik.

Erraten diote:

—Nik egiten badiot ogi olata bat, laster sendatuko da.

Eta egiten dio.

Haren olata jaten hasi zueneko, atzematen ditu bere erraztunak haren barnean. Estonitzen da eta erraten diote:

—Galdetzen dut sehi hura jin dadiela ene aintzinerat, bainan ni sobera desgusta ez nadien, bota dezala bere astolarrua bizkarretik.

Badoha eta neskatxari erraten dio:

—Zu zinden halako orduan enekin plazan dantzan hari zindena?

Erraten dio berehala baietz. Eta:

—Ebien! Biak ezkonduko gare.

Ezkontzen die. Atheatu zuen oraino tualeta ederragokua eta beren xatua berentzat izatu zuten.

Ungi bizi bazien, ungi hil zien.

## MUNSTROA

Behin batez bazen errege bat. Bazituen hiru alaba. Gaztena zuen arras andre gazte pulita, eta bi handienak zien arras itsusiak eta beren buruaz arras hartuak.

Egun batez errege harek deliberatzen du gatia pidaia handi baten egiterat eta bere alabei galdetzen diote:

—Zer present nahi duzue nik ekhartzia?

Eta bi alaba zaharrenek hautatzen dute tualeta posible zuen bezin ederra. Eta gaztenak:

—Nik aita, ez dautzut bertzerik galdetzen buketa bat baizik.

Eta erraten dio:

—Zer kolore?

Erraten dio:

—Orai, huna, negua da, eta ez dut posible buketa ederrik atzematea.

Eta errege hori partitzen da.

Etxerat heldu delarik atzematen du xato eder bat, eta baratze eder bat aintzinean eta sartzen da han. Hartzen du buketa eder bat eta agertzen dio terriblezko mustro itsusi bat eta erraten dio:

—Ene baratzetik hartu duzu buketa hori!

Eta errege hori arras tristatzen da. Eta erraten dio mustro harek:

—Zure alaba, urtetegun egin orduko ekharri beharko duzu hunat edo bertzela zerbeit malur arribatuko da zure etxian.

Partitzen da etxerat eta bere buketa ematen dio bere alabari. Bainan errege hori egunetik egunerat tristatzen hari zen eta egun batez galdetzen dio alaba harek:

—Aita, zer duzu hola tristatzeko?

Eta errepusta ematen dio:

—Baratze batetik hartua nuen zuri emanikako buketa hura eta orduan mustro batek galdetu ninduen zu harat eremateko.

Eta erresponditzen dio:

—Ba, aita. Hori baizik ez baduzu, ez zaitela xangrina. Gootik ganen naiz.

Eta hori jakindu zutenean bi alaba zaharrenak alegeratzen dire eta kontentatzen, uste baitzuten mustro harrek janen zuela andre gazte hura. Ezin ikhus zezaketen zeren hek baino hainitz pulitago baitzen. Eta alaba





gaztenarekin badoa aita. Eta arribatzen die xato hartan. Eta atzematen dute terriblezko bazkari handi bat prest eta nihor ez etxe hartan.

Eta aita partitzen da, bainan ungi bazkaldu ta, aski tristarik, bere alaba han utzirik. Eta andre gazte hura etxe hartan gelditu zen. Arratsean ez zuen nihor ikhusi. Eta badoa oherat.

Gero heldu zaio bere mustroa; arras izitzen da. Eta bethi arratsetan agertzen zitzaion, bainan egun guzietz eta bethi, lanak inak zituen, beti jateko prest, baina hala izitzen zen.

Azkenean baatxe baatxe hartu zuen eta maitatu eta egun batez huts iten dio eta arras xangrindua egotu zen bizpahirur laur gau, egun bat ere ez ikusi gabe. Ordenariozki gabaz agertzen zitzaion eta nola maitatua baitzuen, arras penetan zen. Eta egun batez agertzen zaio jaun gazte bat superra, eta andre gazte hura estonitzen da. Eta jaun gazte harek erraten dio:

—Ni naiz hulako erregeren semea punimendu batez mustro gelditua emaztegei bat atzeman arte. Orai zu baitzaitut, biak behar gare ezkondu.

Eta biak ezkondu zien eta xato hartan bizi izatu zien eta ongi bizi bazien ongi hil zien.

## OHORIA

Behin batez, bazien neskatxa gazte eta mutil gazte bat eta elgarrekin atxikitzen zuten. Eta mutil gazte harek neskatxari ohore guzia barraiatzen dio eta badoha koetsatzerat. Eta aphez harek egortzen du bertze zahar batenganat. Eta oraino aphez harek bertze zaharragoko batenganat. Harek aita sainduarenganat eta erraten dio aita sainduak bere herrirat arteko hiri eta herri guziak bilha ditzala eta lehenbiziko atzematen duen hila gau bat elizan gabailla dezala. Eta partitzen da.

Badohalarik hiri eta herri guziak bilhatuz, ez du nihor hilik atzematzen. Arras kontent zen, eta bere herrian sartziarekin aditzen du hil ezkila eta galdetzen du nor hil den. Eta ematen diote erreputa:

—Zure emaztegeia.

Eta gau hura gabaillatzen du. Eta hila bere kaxan, mutil hura elizako athe baten gibelian. Eta oillarrak lehenbiziko aldian jo zuenian, hila igatzen da. Eta mutil hura arras estonitzen da. Bigarren oillarrak jo zuenian, hila altxatzen da eta botatzen du azieta bere ur benedikatuarekin lurrerat, eta erraten dio mutilari:

—Hik ene ohoria hola barreiatu duk, eta orai bilzak, ur hori azita batean bilduko dukan bezala.

Eta mutilari mihia ateatzen dio eta harekin eskribatzen du lurrian biak zeruan diela.



## DIRUA

Behin batez bazien bi jaun. Karrosan bazituzten bi zakhu dirurekin eta oihanpe batean bazohatzilarik errekontratzen dute gizon bat badohala idi larru bat burutik emana eta bi adarrak goiti. Jaun horiek ikhusi zutenean gizon hura, halako gorri gorria bezi erran zioten elgarri:

—To, badakik zer den ifernuko debrua!

—Nik ez! Hik?

—Nik ere ez!

—To, to, hara to hantxet heldu duk!

Kusi kusian uzten dituzte beren diruak, zaldiak eta karrosa oihan batean eta kusian badohazi tarrapataka ihesi bertzearekin batean. Eta gizon harek kentzen du bere idi larrua bizkarretik eta sartzen da karrosan, hartzen ditu bi zakhu diru hek eta partitzen da bere diruekin etxerat.

Andrea arras estonitua zen bere diruekin. Bazuen haurra frango eta orduan bazuen hazteko ausarki. Ongi bizi bazien, ongi hil zien.

*(Stefana)*

## SORGINAK AKELARRIAN

Behin batez bazen, munduan asko dien bezala, gizon gazte bat. Egun batez gaten da kisulabe baterat eta arratsian heldu die sorginak. Han dantzan hari zien. Batek iten zuen etxe batetako etxeko andre bat bezala, arras eri. Eta elizatik ateatzen hari zelarik egun batez utzi zuela ogi benedikatua lurrerat erortzera eta apho batek altxatu zuela eta apho hura han dela athe hekien onduan, harri baten azpian, bere ogia ahuan. Eta oraino sorginak berak erraten zuen hura ahotik apho hari kendu arte ez zitekela senda. Eta gizon gazteak guzia aditzen zuen.

Beren aldia in zutenean, sorginak baduazi bakotxa bere etxetarat, eta gizon gazte hura ilkhitzen da bere kisulabe xilotik eta badoha etxeoandre eri den harenganat eta erraten dio:

—Nik orai badakit zer egin behar den zure sendatzeko.

Eta sorginak erran guziak erraten diotza eta egiten ditu, eta egun berian sendatzen da. Eta gizon gazte hura ongi pagatua izan zen.

Eta arrats hartan heldu zaio konkorr bat eta erraten dio:

—Aditu dut, gizon gaztea, badakik sorginek non egiten duten akelarre.

Eta erraten dio baietz.

—Bihar pentsatzen dut behar dutala aditu sorginek zer erraten duten.

Eta erakusten dio bera aintzinean izatu zen kisulabe zilo hura. Eta gauerditan heldu die sorgin guziak biribilli baraballa, bazutela arrabots eta espantu. Bainan sorginek erraten dute batak bertziari:

—Behar dinau bilatu kisulabe zilo huntan zer othe den.

Badohazi bilhatzerat eta atzematen dute konkorra eta egortzen sasiz sasi, berhoz berho, laharrez lahar, othez othe, zirripo zarrapo. Ez zuen posible nihundik bere etxea atzematia. Denak funditua, gure konkorr gaxua azkenean goiz alderat arribatzen da bere etxean.



## ENUXENTA ETA ERGELA

Behin batez bazen emazteki bat. Bazituen bi seme, bat arras enuxenta eta bertzea arras ergela. Enuxent hura guan zen mutil. Eta sartzian egin zuen, nausia hartaz kontent balin bazen eta mutila ez kontent, nausiari bizkarreko larrua ken. (Nausiak, kontent ez bazen mutilaz, bere mutilari ezkerreko larrua khen.) Eta nausia ez baitzen kontent, bere mutila ungi zafratu zuen eta bizkarreko larrua khendu eta bere etxerat egorri. Erraten dio bere anaia ergel harek:

- Zer duk?
- Ez diat nahi nik mutil egon.
- Ganen nauk berdin.

Guan zen. Arribatu zen bere anaia, aintzinian egoturikako etxe hartan berian. Nausia kontent mutila bazuela eta arrazoina baitzuen. Egun batez heldu zaio desgusta bat bere mutilarentzat eta zer pentsatzen du? Egortzen du xerri tropa handi batekin mendirat, baitzakien tartaro handi izigarri bat bazela mendi hartan. Zer iten du mutil gaixuak? Arribatzen da bere xerri troparekin eta atzematen du bere tartarua. Arras izitua zagoen, bainan azkeneko maithatu zuen bere tartarua.

Tartaro hura bazabilan bethi kurri, gizonak atzeman, hil, erre eta jan. Muthil hura aspertu zen. Eta gero, bere Tartaruarekin egon zagoelarik, azkenian zer iten du? Su handi baten onduan zagoelarik, ematen du gerrena bat suan gorritzen. Gorritu denian hartu ta sartzen dio begitik tartaruari eta mutil hura partitzen da etxerat.

Bidian zohalarik hiltzen du xerri bat, tripak atheratu eta uzten du bidiaian erdian. Heldu zen Tartaro hura begi okherrarekin, behar zuela bere mutila atzeman eta hil. Eta hala heldu zelarik atzematen du xerri hura bidian eta jaten du. Eta denbora gan zen.

Arte hartan haren mutilak bere xerri guzi guzi buztana pikatzen diote. Baderamatza etxeko ondorat. Nola baitzuten putzu bat dena basaz bethia, hartan sartzen ditu buztan guziak muthurrez goiti. Sartzen da etxerat. Ikhusten du bere nausia. Egiten dio:

- Agur nausia!
- Bai zuri ere ene mutila.

Nausia estonitua nola ziteken mutil hura etxerat ethortzia Tartaro harek jan gabe:

- Ene mutila, ene xerri guziak oso dituka?

—Bai nausia! Hor dia pezaska basa hortan, bero baita, freskatzen geldituak.

Badoha nausia bere mutilarekin. Guan denian, xerririk ez ageri, buztana baizik.

—Ez izi, ez izi. Xerriak basan barna sartuak die.

Nausiak tiratzen ditu buztanak bainan xerririk ez heldu. Erraten dio:

—Guziak othe lo die? Hua etxeat. Ekhartzik pala eta aintzurra.

Etxera gan denian, berehala abiatzen da amari eta alabari joka.

—Zer hari zare?

—Nausiak erran nau.

Ez dute sinesten. Badoha mutila atherat. Egiten du oiuhu bere nausiari:

—Ho! Nausia! Bat, ala bia?

—Biak, biak, nausiak dio.

Eta ama eta alaba jo, eta bizkarreko larrua khendu artino. Biak ungi zafratu eta nausia atzeman eta hari bizkarreko larrua khendu artino jo zuen eta partitu zen bere etxerat.



## ESKOLIA GAZTEA

Behin batez bazien jaun andre batzu. Bazuten seme bat eta aita zuen untzietako kapitaina eta seme hura bethi egortzen zuen bere amak eskola hartzerat. Aita arribatzen zenian galdetzen zioen bere semiari heia hainitz ikasi zuen eskolan. Amak errepusta:

—Ez gauza handirik.

Eta oraino bere aita partitzen da untzietan. Bigarren aldian ethorri zenian:

—Ene haurra zer ikhasi duzu eskolan?

Haurrak jeus errepustarik. Bere amari galdetzen dio ez duen fitsik ikhasten. Kapitaina badoha haren nausiarik galdetzerat heia haren semeak ez zuen jeus ikhasten. Ihardesten dio:

—Fitsik ez dut posible horri buruan sar araztea.

Eta arribatzen da seme hura. Bere aitak kusian galdez heia zer ikhasi duen eskolan:

—Hori, aita: xori kanta.

—A ene semea, xori kanta! Xori kanta! Zato, zato enekin untzian.

Eta ereman zuen. Bidian bazohazilarik heldu zaiote untziaren muturrerat xori bat kantuz turrirtitti.

—Ene semea, zato ja, zato ja, kapitain eskola hartzeko partez ikhasi baituzu xori kanta, orai badakizu horrek zer kantatzen duen.

—Bai aita, orai zure azpiko naizela, bainan oraino zu izanen zarela ene azpiko.

Zer iten du kapitain harek? Hartzen du barrika bat, khentzen dio burua eta ematen du bere semea haren barnian.

Barrika tapatu eta botatzen du urerat eta tirain kolpe batek botatu zuen itsaso bazter baterat.

Errege bat gerthatzen da itsaso hegian eta atzematen du barrika bat. Badoha gizon batzuen bilha. Hasten die hautsi nahiz eta mutiko harek barnetik:

—Pulliki! Pulliki ee! Jende biziak badie barne huntan.

Bere barrika idekitzen dute eta mutiko hura handik atheratzen da. Errege harek erematen du bere etxerat eta esposatu zen errege haren alabarekin. Eta egun batez mutiko haren aita kapitainaren untzia hartzen du haize borthitz batek. Kapitain hura orduan tirain korte batek botatu zuen itsaso bazterrerat.

Badoha errege haren etxerat eta ikhusten du bere semea. Semeak aita ezagutu zuen kusian, bainan aitak bere semea ez zuen batere ezagutu. Bere semearen mutil zagoen. Egun batez erraten dio:

—Ezagutzen nauzu, ni nor naizen?

—Ez jauna!

—Ni naiz zure seme hulako hura, halako orduan urerat barrikan botatu ninduzuna.

Eta aita semeak elgarrekin bizi izatu zien.



## HEREN SUGEA

Asko munduan bezala bazen ama bat bere hiru semekin. Zaharrenak erran zioen gan nahi zubela munduz mundu sehi plaza bat atzeman arte eta emateko opil bat. Partitzen da.

Bazoalarik oihan batean atzematen du emazteki zahar zahar bat eta galdetzen dio opil piska bat. Erraten dio ezetz, nahiago lukela botatu basa bustiña hortarat. Eta gizon gazte horrek galdetzen dio eian mutil plazarik senti duben.

Erraten dio ezetz. Eta badoha oihanez oihan gabak atzeman arte. Eta heldu zaio otso bat. Erraten dio:

—Lurreko xinaurria, nork eman behar hau permisionea hunarat ethortzeko?

—Nork eman behar nik dikan? Neonek hartu!

Eta iresten du.

Bigarren semeak galdetzen dio bere amari, bere anaiak bezala nahi dubela gan mutil eta emateko opil bat. Ematen dio. Eta badoha. Bertze anaiak bezala atzematen du emazteki zahar hura. Erraten dio:

—Ekharzu opil pitta bat!

—Nahiago dut zuri eman baiño basa bustiña hortarat bota.

Eta galdetzen dio mutiko horrek sehi plazarik senti duben. Erraten dio ezetz. Eta badoha, gan, gan, gan, oihanaren barnera.

Eta atzematen du otso handi bat. Erraten dio:

—Lurreko xinaurria! Nork eman hau permisionea hunarat ethortzeko?

—Nork eman behar nik dikan? Neonek hartu!

Eta iresten du.

Hirugarren semeak galdetzen dio bere amari bertze anaiak bezala gan nahi dubela eta emateko opil bat. Partitzen da. Gan, gan, gan eta atzematen du emazteki xahar bat. Galdetzen dio:

—Nohat zuazi mutil?

—Plazatu nahi nuke. Ekarzu opil pitta bat.

—Hori guzia ere nahi baduzu.

—Ez, ez! piska bat aski dut.

Eta galdetzen dio eian sendi duen mutil plaza bat. Erraten dio baietz. Atzemanen dubela palazio bat oihanetikan urrun. Baña, atzema-

nen dubela etsai bat. Bañan ematen dioela makil bat zeinakin ukitu eta hilen baitu.

Badoha, gan gan gan. Heldu zaio otso bat erraiten baitio:

—Lurreko xinaurria! Nork eman hau permisionea hunat ethortzeko?

—Nork eman behar nin dikan? Nehonek hartu!

Eta ematen dio zarta bat bere makillekin lepuan. Ematen da otsoa marrasketan:

—Oi! Oi! Oi! Utz nazak! Utz nazak bizia!

Bañean erraten dio:

—Erran nazak bada zenbat zaizten tokian.

—Zazpi!

Ematen dio bertze zarta bat eta hil hotza erortzen da.

Badoha gan, gan, gan palazioa atzeman arte. Eta sartzen da palazio hartan. Galdetzen du:

—Behar duzube mutilik?

Erraten diote baietz, artzaña gana dutela eta behar dutela. Egortzen dute ogerat. Biharamuñian ematen diote artalde eder bat eta erraten diote ez gateko holako mendirat zeren alimalia handi eta izigarri batzuek bethia baita. Eta emateko ungi kondu zeren ardiek bethi harat gan nai beitate.

Biharamuñian badoha bere ardiekin eta denak eskapatzen zaiozkate mendi hartarat zeren bazka ederra baitzen han.

Gure artzeinak ez zuen ahantzi bere makila, beharrik, zeren istantean agertzen baitzaio otso izigarri bat.

—Nork eman hau permisionea hunat ethortzeko?

—Neonek hartu!

—Jan behar haut!

Urbiltzen zaio eta ematen dio gure artzaiñak bere zigorrarekin golpe txiki bat lepuan. Ematen zaio oihuka:

—Ai, ai, ai! Utz nazak bizia!

—Erran nazak bada zenbat zaizten tokian.

—Zazpi gintukan atzo, bainan egun enekin sei.

Ematen dio bere makillekin bertze kolpe bat eta hil gogorra erortzen da eta ahal bezela gorditzen du sasi batean.

Artzaiña badoha etxerat ardiak ungi aserik. Arratsean eman zioten esne hañitz eta in zituen gasna eder batzuek. Etxeko jauna eta etxeko anderia zoraturak ziren halako mutil ona izatiaz.

Biharamuñian badoha igual. Athea ideki orduko, ardi guziak lasterka badoazi bezperako belar eta bazka on hartarat, eta igual instant baten



buruban, agertzen da artza, erraten dioelarik zertan dabilan toki heketan. Gure artzainak bere zigorrarekin ematen dio zarta bat lepuan eta artza ematen da oiuka:

—Ai, ai, ai! Utz nazak bizia!

Galdetzen dio artzainak:

—Zenbat zaizte zaizten tokian.

—Bagintukan zazpi eta orai bortz nerekin.

Eta ematen dio horrekin batean bertze zarta bat. Eta hil gogorra erortzen da. Eta bertze hiruak igual hil zituen egunian bat. Eta azkenekua ethorri zenian arritu zen halako bestia handi eta izigarria ikhustean. Herrestan arribatu zen, hain zaharra zen. Erraten dio igual zertan zabillan haren inguruan.

Eta horrekin batean ematen dio zarta bat. Ematen da oihuka orroaz, emateko bizia, emanen zioela aberastasunak, toki ederrak eta elkarrekin biziko zirela. Uzten dio bizia, egortzen du artaldia etxerat ungi aserik eta badohazi sasiz sasi lamiña zilotarik. Arribatzen dire palazio eder bate-  
rat. Han atzematzen dute mahaña emana eta zernahi gauza on jateko. Mutilak ere baziren gure zerbitzuko. Zamariak ere prest zagozin bañan nola antolatubak! Harnasak urhez eta diamantez bezitubak, gela osuak urhez eta zillarrez bethiak. Ez zen aberastasunik bertzerik. Zenbait egun hala pasatu eta gure artzainak erran zuen bere buruan, hobe zubela bere nausi izan fortuna hoik guziez.

Ematen dio artzari zartako bat. Hiltzen du, hil gogorra. Zaldi gañian eman eta ederki beztitu eta badoha munduz mundu. Arribatzen da herri baterat eta aditzen du ezkillak dilin dong dilin dong dong, zeñietan mundu guzia airean beitzen, galdetzen du zer den. Erraten diote nola den mendian heren suge bat zeñeri presuna bat behar beitzaiio eman egun guziez. Suge harek bazituen zazpi buru. Iten zen sorthea jakiteko nor eman suge hari. Sorthea erori zen erregeren alabarengañat. Mundu guzia penetan eta xangrinetan zen eta denak bazuazi errege buruz haren segi mendirat.

Uzten dute mendiaren azpian eta bazuan goiti, bera. Gizon gazte hura badoha ondotik eta erraten dio nahi dubela segitu. Erregen alabak erraten dio:

—Zoazi othoi gibelerat, ez dut nahi neregatik zure bizia irriska dezazun.

Bañian erraten dio ez izitzeko hartaz, bazubela podore zerbeit. Horrekin batean aditzen dute harrabots eta sistu handi batzuek eta ikhusten dute suba bezala heldu dela hekien gañeat. Gure jaunak bere makilla

han baitzuen, ematen dio zarta bat buru baten gañian, eta bat banazka, zazpiak pikatzen diozka eta gure printzesa salbatua da.

Mendirat gateko jauntzi zituen bere arropa ederrenak. Bazituen zazpi soñian. Artzen dio puska bana arropa bakotxetik eta hartzen du igual buru bakotxetik mihiak, zeñak ematen beittitu seda puska heketan eta hartzen du errege alaba hori bere zaldiaren gañian eta jausten die menditik.

Erregen alaba badoha bere aitaren etxerat eta gure jauna bere otsuaren etxerat. Herensuge hil delako berria laster jakindu zen. Erregek agindu zuben bere alaba ematea hil zubenari eta bere erresumaren erdia suge hura hil zubenari.

Hiru ikazgin menditik pasatzian ikhusten dute suge hura. Artzen dituzte zazpi buruak eta badohazi erregerenganat, bere saria nahiz. Bañan hiru beitziren, enbrazutan ziren. Eta egorri zituzten kontseiluba bildu arte eta ikhusi arte eian bertze norbeit ethorriko zen. Nihor ez baitzen ageri, sortean tiratzerat zoazin, nor izanen zen erregen alabaren senharra. Mohimendu handi bat zen egun hartan, igual jaun gazte hura arribatzen denian herri hartarat. Galdetzen du zer den. Eta erraten diote zer zen.

Ederki beztitua eta zamari eder batekin zen.

Galdetzen du errege ikhustia. Eta ederki beztitua baitzen berehala errezebitu zuten. Galdetzen du eian buru hekiek bazuten mihirik. Eta ez zuten atzeman. Orduan irakusten ditu zazpiak. Ekar arazten ditu erregen alabaren zazpi arropak eta irakusten ditu zazpi puska eskas zirenak eta zazpi mihiak.

Hori ikhusten dutenian denek erraten dute hori dela egiezko erregeen alabaren salbatzalia eta esosa. Bertze hiru ikazkiñeri athorra sufresko bana eman eta erre zituzten plazaren erdian. Eta gure jaun andriak ungi bizi ziren batzoetan bere aitarekin eta bertzetan bere otso tokian. Ungi bizi izan baitziren, ungi hil ziren. Orduan han nintzen eta orai hemen.



## ERRUA

Asko munduan bezala bazien jaun andre batzuek. Bazuten seme bat. Bañian arras gaixtua eta errua. Ez zuen gaixtakeriarik eta zarkeriarik bertzerik iten. Et dezidatubatu ziren egorri behar zutela. Eta mutilak ere gan nahi zuen sehi.

Partitzen da, gan, gan, gan. Arribatzen da erri batean. Han galdetzen du iyan baduten mutil beharrik. Beharretan ziren etxe batean. Badoha harat eta iten ditu kondizioñak, horren bertze hillabetian eta kontent ez zenari bizkarreko larruba ken.

Nausiak egortzen du mutil hori oihañerat ekhar zezan egurrik makhurren makhurrena. Oihañaren onduan bazen mahasti bat eta mutil harek pikatzen du guzia eta ekhartzen du etxerat.

Nausiak galdetzen dio non duen haren egurra. Irakusten dio mahastia pikatuba. Nausiak ez dio deusik erraten bañian ez zen kontent.

Biharamunian nausiak erraten dio eremateko behiak landarat atekarik eta gaetarik idiki gabe. Gure erruak pikatzen ditu hazienda guziak eta botatzen ditu puskaka landarat. Nausia asarriago ohañion. Bañian ez zuen nahi deusik erran, ez bizkarreko larruba kenduba izateko.

Zer iten du? Erosten dio xerri artalde bat eta egortzen du mendirat. Bazakien bazela han Tartarua, banian igual da. Gure errua partitzen da. Gan, gan, gan. Arribatzen da etxola baterat. Tartaruena han zen urbil. Tartaruaren xerriak eta erruarenak batean ibiltzen ziren. Tartaru harek erraten dio egun batez iyan nahi duben pariatu zeniak urrunena botako duten arri bat. Atxikitzen dio parigua arratsean. Gure errua arras triste zen.

Ari zen othoitzian eta agertzen zaio emazteki xahar bat. Erraten dio zer duen hain triste izateko. Kondatzen dio zer pario in duen Tartaruekin.

—Hori bezik ez bada, ez da fitsik hori.

Ematen dio xori bat eta erraten dio arri haren plazan bota dezala xori hura. Kontent zen gure errua.

Biharamunian iten du emazteki xahar harek erran bezala. Tartaruaren arria gan zen izigarri gora, bañian erori zen. Erruaren xoria ez zen gibelarar ethorri. Gure Tartarua arritu zen ez irabaztiz parigua.

Iten dute bertze bat, zeniak egorriko duen palenka bat urrunena. Atxikitzen du erruak parigua. Bere etxolan zaguena tristeki othoitzian. Agertzen zaio berritx atxo xahar hura. Erraten dio zer duen. Nola pari-

gua in duen Tartaruekin zeniak botako duten palenka urrunena eta arras triste dela. Erraten dio:

—Hori bertzerik ez baduzu, ez da fitsik.

Eta erraten dio:

—Palenka hartuko duzunian, erranen duzu: altza la palenka hemen eta Salamanca.

Biharamunian Tartaruak hartzen du bere palenka izigarriga eta botatzen du izigarri urrun. Erruak doi doia altxatzen zuben buru batetik eta erraten dio:

—Altza la palenka hemen eta Salamanca.

Hori aditu orduko Tartaruak erraten dio:

—Uzten deat, uzten deat parigua irabazia. Han ditiat ene aita eta ama. Ez zakala etxa othoi, othoi. Lehertuko dituk.

Gure errua kontent zen. Tartaruak erraten dio oihañian atheratuko duela haritz handiena eta harek bertze bat. Arratsago eta tristeago zuan. Gure errua hari zen othoitzian. Heldu zaio berritx ere atxo xahar hura. Erraten dio zer pario in duen Tartaruekin eta nola atheratuko duen harek haritz bat. Erraten dio atxuk ematean hiru harilko.

—Ateratzen dubenian bere haritza asiko zare, arrima eta arrima zure harilkuarekin.

Badohazi biharamunian. Tartaruak ateratzen du bere haritz izigarri handia. Eta errua hasten au arrima eta arrima.

Tartaruak galdetzen dio:

—Zer hari haiz hola?

—Hik bat eta nik hau guziak.

Tartaruak erraten dio:

—Ez, ez, ez! Nola gizen nitzake nire xerriak ezkurrik gabe? Irabazi duk parigua.

Tartaruak ez zakien zer pentsa, bera bañion abilagoa atzeman duela. Erraten dio, iyan ganen den haren etxolarat gabaren pasatzerat!

Erruak erraten dio baietz. Badoha Tartaruekin ogerat. Bañian bazakien bazuela gizon bat oge azpian hilla. Tartarua loharkatzen denian erruak zer iten du? Ematen dio hil hura bere plazan eta bera oge azpian.

Tartaruak pentsatu dubenian ungi loharkatuba dela, hartzen du bere palenka izigarri hura eta ematen dio zinpi zanpa iñahalarekin. Tartarua jeikitzen da. Usaian bezala badoha bere xerrietarat, eta errua ere atheratzen da ohe azpitik eta badoha xerrietarat.

Tartarua harritua da hura han ikhustia. Ez daki zer pentsa eta iten du bera bañion habilagoa dela erro hura.



Galdetzen dio iyan ungi in duben lo. Erraten dio baietz arras ungi, bakharrikan sentitu duela zenbeit kukuso asiki.

Beren xerriak nahasiak zituzten eta ungi gizenduak. Behar zuten beraz partitu. Galdetzen dio Tartaruak zer marka duten haren xerriek. Erraten dio erruak:

—Nereek buztan azpian zillo bat zulobi.

Ematen dire billatzen eta deneri marka hura atzematen zioten. Badoha beraz gure errua xerri guziekin. Badoha gan, gan, gan. Arribatzen da iri batean. Preseski merkatu eguna zen. Saltzen ditu xerri guziak biga salbo. Bainen eman zuen kondizionetan ere salbatzen dituela buztan guziak. Eta eman zituen bere zarpan.

Pentsatzen duzuen bezala Tartaruen beldur zen gure errua. Eta ikusten du mendi ganetik heldu dela. Hiltzen du bere xerrietarikan bat eta tripak ematen ditu bere golkuan. Bazen gizon tropa bat bide bazterrian. Hekien onduan pasatzian hartzen du bere kanibeta, sartzen du bere paparruan eta erortzen dire tripak. Gizon hekiek harritubak dire eta ematen da gure errua lehen bañon lasterrago bere xerria aintzinian.

Tartarua arribatzen denian gizon hekien ondurat galdetzen du iyan ikhusi duten halako gizona.

—Ba! Ba! Lasterka zuan eta lasterrago iteko, hementxe kanibeta sartu du bere burubari, tripak botatu ditu eta orañion lasterrago zuan.

Tartaruak ere lasterrago iteko sartzen du kanibeta bere buruari, bañian hil gohorra erortzen da gure Tartaroa.

Errua badoha bere nausiaren etxerat. Etxearen onduan bazen putzu bat dena basaz bethea. Sartzen du bere xerri bizia eta buztan guziak eta badoha etxerat. Erraten dio nausiarri arribatzen zela bere xerriekin. Arrituba da nausia. Erraten dio non dituen bada xerriak. Erraten dio basan sartuak direla zeren hañitz unatuak beitziren.

Hilkitzen dire biak eta ematen die atheratzen. Hasten dire egiazko xerriatik eta bien artian atheratzen dute ederki. Nahi dituzte bertzeak ere atheratu, bañian beti buztanak atheratzen dituzte. Erraten zuen erruak:

—Ikhusten duzu. Gizenegi dire. Hartako, buztanak heldu dire bakharririk.

Egortzen du mutila aintzurra eta palaren billa. Hek artzeko plazan hasten da emaztiaren zanpatzen eta iten dio oiua nausiarri:

—Bat ala biak?

Erraten dio:

—Biak.

Eta igual zanpa porrokatzen du neskatua eta badoha aintzurra eta pala artu eta. Arribatzen denian nausienganat hasten zaio hari ere aintzurra eta pala kolpeka. Bentzutu duenian, kentzen dio bizkarreko larruba, hartzen du bere xerria eta badoha bere aita eta amarenganat. Ungi bizitu baitzen, ungi hil zen.

*(Pierre Bertrand)*





## TOM THUMBER

Behin omen zen muttiko ttiki ttiki bat. Izena zuen Ukhaitxo (edo Baatxuri). Egun batez amak bihaldu zuen behizain. Uria asi ta Ukhaitxo gorde zen aza ondo baten azpian. Ukhaitxo ez ageri eta, ama Juan zen bila. Ez zuen nihon ikhusten. Hasi zen oiuka:

—Ukhaitxo! Ukaitxo! Non zara?

—Emen! Emen!

—Non?

—Emen! Behien tripa barnian!

—Noiz ateratuko zara?

—Beiak kakiten duenian.

Behiak iretsi zuen Ukaitxo ustez aza ostua zen.

(M. Larralde, *Lesaka*.  
Senpere 3.12.1875)

## JESU KRISTO ETA SOLDADU ZAHARRA

Behin Jesu Kristo zohalarik bere dizipuluekin Jerusalemeko alderat, errekontratu zuen gizon zahar bat eta galdetu zion karitatea. Gizon zahar harek erran zion:

—Soldadu zahar bat naiz eta igorri naute armadatik, gehiago on ez naizelakotz, bi sosekin. Sos bat ia eman dut bidian. Ez zait bat baizik gelditzen eta hura ematen dautzut.

Orduan Jesu Kristok erran zion:

—Zer nahi huke? Zakhu bat urhe ala parabisua?

Jondone Petrik erraiten zion bulharran, gizon zaharrari:

—Errak: parabisua!

—Zer, parabisua, dio soldadu zaharrak. Gero ere izanen diago parabisua. Nahiago diat zakhu bat urhe.

Eta erran zion Jesu Kristori:

—Zakhu bat urhe.

Eta eman zion erranez:

—Zakhu hori husten zaikanian, askiko duk erratia: *artxila murtxila zakhuan sar*. Eta nahi ditukan guziak sartuko dituk zakhuan.

Gizonak hartzen zuen zakhua eta berriz eman zen bidian. Bide puxka bat in zuenian, ostatu baten aintzinian pasatzen da eta ikhusten du mahainain gainian zikiro azpi ederra bat. Gose zen eta zakhua idekirik erran zion: «artxila murtxila, zikiro azpi ederra zakhuan sar» Eta instantian sartzen zen. Eta halaber nahi zuen guzia izan zuen.

Egun batez debrua ethorri zen gizon zaharraren tentatzera eta harek, aditu orduko zakhua harturik erran zuen: «Artxila, murtxila, zakhuan sar!» Eta debrua bera zakhuan sartu zen. Erematen du zakhua debruarekin arotz batenganat eta han denbora luzez eta tarrapataka jo zuten.

Soldadu zahar hura hil zenian, joan zen parabisura. Han arribatzen denian agertzen zaio Jondoni Petri eta erraiten dio:

—Zer galdez hago?

—Parabisua.

—Zer, parabisua! Ez duk othe nahiago izan zakhu bat urhe, Jaunak hauta eman ziokanian? Habil hortik eta hua ifernura. Han duk atea!



Arras tristaturik badoa gure gizona ifernuko athera. Eta jo zuen, bainan ideki zioten bezain laster debruak ezagutzen du bere soldadua eta hari zen oihuka:

—Ez utz hori sartzera! ez utz hori sartzera! Sobera damu eta kalte inen dauku. Arras gaixtoa da.

Eta ez dute nahi errezebitu. Juaiten da berriz parabisura eta Jainkoak manatzen dio Jondoni Petriri utz dezan sartzera, gizon debruari hain etsai izan zen hori.

*(M. Larralde Senpere 1875.XII.3)*

## NESKATXA EDERRA ETA ALFERRA

Behin batez bazen ama bat. Bazuen alaba bat hainitz ederra. Ama hura hari zen beti lanian, bainan neskatxak ez zuen hari nahi. Jotzen du hainbertzetaraino non harri lauza baten gainian baitzagoien nigarrez.

Egun batez heldu da xatoko jaun gazte bat. Galdetzen du eian zer duen halako nexkatxa ederra hala nigarrez atxikitzeke. Ematen dio errepusta emazteki harek sobra ederra delako ez duela lanian hari nahi.

Galdetzen du jaun gazte harek:

—Badaki josten?

Erraten dio:

—Bai, nahi balu, egunian zazpi atorra jos letzazke.

Jaun gazte hura arras agradatu hartaz partitzen da etxerat. Ekartzen du oihal peza bat erraten diolarik, hauk zazpi athorra eta hulako tenoretako josteko. Egiten baditu, biak ezkonduko diela. Gogoetan zagoen fitsik egin gabe bere oihalari beira, nigarra begian. Heldu zaio emazteki zahar bat, baitzen sorgina. Erraten dio:

—Zer duzu horren triste?

Ematen dio errepusta:

—Hulako jaun gazteak ekarri nazki zazpi athorra josteko, bainan ez dut posible. Hemen nago gogoetan.

Emazteki zahar harek erraten dio:

—Badakizu josten?

Erraten dio, orratzean harien sartzen baietz.

Emazteki harek erraten dio:

—Nik eginen ditut zure athorrek behar dien tenoreko, urte eta egunen buruan, oroitzen bazare ene izenaz. Eta erraten dio:

—Oroitzen ez bazaizu, enetzat nahi dutana zutaz egin: Maria kirikitun, nihor ez dun orhoituko ene izenaz.

Eta erraten dio baietz.

Iten diotza bere zazpi athorrek bere tenoreko. Ethorri zenian jaun gazte hura, bere athorrek prest, lorietan neskatxa hura hartu zuen eta biak esposatu ziren. Bainan neskatxa hura hari zen beti tristatzen. Jaunak iten zituen besta handi batzu, bainan sekulan ez zuen irri egiten.

Egun batez terriblezko besta handia zuten. Eta heldu da emazteki zahar bat atherat. Galdetzen dio zerbitzariari:

—Zer duzue holako besta handien egiteko?



Erraten dio:

—Gure andreak ez du batere irri egiten, eta jaunak, haren alegeratzeko, besta handiak egiten ditu.

Erraten dio:

—Nik egun ikhusi dutana adi baleza, irri egin bide lezake.

Zerbitzariak erraten dio:

—Zaude hor. Erranen diot.

Berehala sar arazten dute. Zer ikhusi duen erraten dio: atso bat zaharra hari zela pezoñ batetik bertzera, salto eta jauzi egiten duela: «Hupa, hupa, Maria kirikitun, nehor ez dun oroituko ene izenaz».

Hori aditu duenean, andre gazte hura alegeratzen da berehala. Markatzen du berehala, izen hura. Emazteki zahar hura ungi errekoen tsatu zuen. Eta bera ungi kontent gelditu eta ethorri zenian emazteki zahar hura, bazakien haren izena.

*(Stefana Hirigarai)*

## GEZURRA ETA EGIA

Behin batez bazen emazte bat ezkondua, alargundua eta berriz ezkondua. Egun batez bere senarra lanian duelarik heldu zaio gizon bat eta erraten dio nundik heldu den. Ematen dio errepusta:

—Bertze mundutik.

—Ba ahal dakizu Pierren berririk?

Erraten dio ontsa dela bainan oinetako eta arropaz, miseriakkan dela, eta ez duela posible erostea pipatzeko belarra.

Emazte harek berehala:

—Nahi diozu senarrari sos eta zerbeit arropa ereman?

—Bai.

Azkenian ematen diotza. Gizona partitzen da lorietan, bere paketa eskuan eta bere sosekin. Heldu zaio emazteki hari bere senarra eta erraten dio:

—Joanes! ez dakizu bada berri? Pierren berriak baditut.

—Zer derasazu emaztekia! Zer eman diozu? Paketa ttiki bat eskuan ikusi dut juaixtian gizon bat hor pasatzen.

Hartzen du bere zaldia establiatik eta badoha tarrapataka.

Gizon hura bere paketa aldean, jarririk zagoelarik, aditzen du zaldi harrabotsa eta berehala bere paketa botatzen du bazterrera. Arribatzen da zaldizko hura han eta erraten dio:

—Ikhusi duzu gizon bat paketa bat eskuan hemen pasatzen?

—Bai, zuen aldean gan da. Oianpe hortan sartu da.

Erraten dio:

—Nahi nauzu zaldi hau gardatu istan bat?

Erraten dio baietz. Eta badoha gizon hura bere zaldia utzi eta, oiha-naren bilatzerat. Bertze brigantak hartzen du bere paketa eta igotzen da zaldia gainerat. Partitzen da.

Bertze gizon gaizo hura heldu da bere ustez. Ethorri bainan ez zaldirik, ez paketarik. Koleran partitzen da bere etxerat. Erraten dio bere emazteari:

—A! Zure paketa eta diruak eraman dituen gizon hari eman diot zaldia lehen bai lehen zeruan sartzeko.



## JOSE MARIA ERRUA

Bazien jaun andreak eta haur ttiki bat. Erran zion andreak jaunari:  
 —Jose Maria, beira! Xerri gabe ez gare ongi.  
 Jose Marik errepusta eman zion:  
 —Gaur Senpereko merkatua da. Ganen naiz haien bilha.  
 Erraten dio andreak gateko.  
 —Ekar azu xerri pullit bat.  
 Egun hartan uriska zen. Hartu zuen kapusaila. Gan zen Senpererat.  
 Erosi zuen xerri pullit bat. Erran zion saltzailiak:  
 —Zato arno trago baten itera.  
 Erran zion Jose Marik xerriari:  
 —Zoazi etxerat.  
 Eman zion kapusaila ere bizkarrean. Edan zuten trago bat:  
 —O! Nere xerria etxian da ba!  
 Heldu da arratsian etxerat. Erraten dio andreak:  
 —Nun duzu xerria?  
 —Zer?  
 —Xerria ez da etorri?  
 —Ez! Hemen ez da deusik etorri! Zer egin duzu xerriarekin?  
 —Ba! Erran diot etxerat etortzeko.  
 —Hauxe gizona! Funts hortan xerria galdu duzu! Bethi holako asto-keriak egiten dituzu. Hura behar zen sokaz lotu eta eskutik ekharri.  
 Biharamunean erran zion Jose Mariri andreak:  
 —Zoazi peharraren bila karrikat. Ekarzkizu bizpahiru hautatzeko.  
 Jose Marik hartzen ditu peharrak, sokaz lotu eta errestan, taran teren, tirin turun, denak hausten ditu. Badoha etxerat. Andreak:  
 —Nun dituzu peharrak?  
 —Erran nauzu sokaz lotu eta ekartzeko.  
 —Hauxe duk, hauxe duk gizona! Nik ez doiat hori erran. Nik erran doiat xerria lotzeko. Horiek behar hituen ekharri buruan, pulliki!  
 Gero erran zion barrikak ixurtzen zuela. Guateko plazarat bikhiaren bila. Bero zen gohorki egun hartan. Bikhia erosten du. Ematen du buruan. Etxerat guan deneko, bike guzia kolatu zitzaion buruan. Erran zion andreak:  
 —Zer egin duzu bikhia?  
 —Bikhia! Erran nauzu buruan emateko.

—Nik ez nian hori erran. Nik erran nian peharrak buruan emateko!  
 Bertze egun batez erran zion:  
 —Irinik ez dut etxean Jose Mari. Horra zakua. Eremazu errotarat.  
 Errozu errotazainari berehala pasatzeko.  
 Gure gizonak ahanzten du. Haize hego handia zen. Orroitzen da etxerat hurbiltzian andreak erran ziola pasatzeko. Hasten da beira haizeari ustez eta pasatuko den, kar, kar, kar, kar. Irin guzia haizeak ereman zion. Hutsik badoha etxerat. Andreak erran zion:  
 —Nun duzu irina?  
 —Irina ahantzi dut errotazainari pasatzeko eta dena galdu dut.  
 —Hauxe gizon zozua, ez zaitut gehiago utziko nihorat. Orai, nehonek guan beharko dut.  
 Andreak erran zion jaunari:  
 —Guaten naiz karrikat. Emaiozu haurrari zopa hameka orenetan.  
 Erran zion barrikak ixurtzen zuela, tapatzeko.  
 —Horra xitoak amarekin? Ez utz miruak jaterat. Zakurrari ere emazu kontu.  
 Zer iten du? Xitoak estekatzen ditu zangotik zangora. Miruak hartzen du batto eta denak erematen ditu. Zakurra barrikaren errobineteen estekatu zuen. Zakurrak aditu zituen xito guziak ka, ka, ka, ka. Barrika irauli zuen eta pitarra guzia ixuri.  
 Badoha haurrarenaganat. Ematen dio zopa agoat. Haurra jaten hari zelarik ikhusten du kopetako zainean zerbait mugitzen. Erraten du bere buruari.  
 —Arratoina du barnean. Arratoina du barnean. Hil behar diot.  
 Hartzen du haintzurra. Tiratzen du kolpe bat kopetako zainean. Haurra hiltzen da. Izitzen da, andreak erranikako lan guziak malurrak egiten dituela.  
 Historia nola finitzen den phentsatuko duzu.

*(Marie Hiriartek F.C. Webster andreaki kondatua, Saran)*



## ALARGUNA ETA BERE SEME

Behin bazen asko munduan bezala alargun bat. Bazuen seme bakar bat. Hain ona zen bere amarentzat non maite zuten elkar ezin erran bezala. Egun batez erraten dio seme harek bere amari Erromarat gan nahi dubela. Ama penatzen da eta uzten du gaterat. Ematen diozka hiru sahar erraten dioelarik:

—Bidian lagunak atzematen ditukian eta egarritzen balin bazarezte, emotek sagar bat partitzerat eta zeinik ematen beihau parterik handiyena, hura izanen duk bideko lagun ona.

Badua beraz. Bide pixka bat in duenian errekontrazten ditu hiru gizon zeinik beitzuazin Erromarat. Gan, gan, gan eta bidiak eman zioten erraria. Erraten diote alargunaren semiak:

—Badut sagar bat amak emana partitzian. Janen dugu. Ori! Parti zazul

Eta ematen diote parterik tikiena eta zerbeit aitzaki billatu eta uzten ditu lagun heiek. Badoha bere bidian kurri kurri. Atzematen ditu hiru fraide Erromarat zuaziñak. Bidia in eta egarritzen dire hek ere. Erraten diote ama alargunaren semiak badubela amak emana sagar bat. Eta ematen dio bati partitzeko. Heiek ere ez zien lagun onak: ematen diote parte txikiena. Oroitzen da bere amaren erranaz eta uzten ditu. Badua bide puska batian bera eta ikusten du urrundik aritz azpi batian zerbeit dirdiratzten eta hurbiltzarekin ikusten du errege bat dela. Erraten dio norat duan eta jakitearekin Erromarat duala pausatzen da bere onduan eta egoten dire han luzaz. Egarritu beitzien ematen dio berak azken sagarra, parti dezala, bere amak emana duela partitzian.

Errege seme harek partitzen du beraz eta ematen dio parterik handiyena. Ama alargunaren seme hura loriatzen da atzeman duela lagun ona eta elkarri agintzen dute ama alargunen semeak hila edo bizia eramanen dubela Erromarat. Eta errege semeak azkeneko odol sorta arte, harena izanen zela.

Hitz hekiek elkarri eman eta ematen dire bidian. Gan, gan, gan, in zuten bide puxka bat. Ilunak atzeman zituen. Ez zakiten norat gan. Atzematen dute neskatxa bat iturrirat zuana. Erraten diote eian leihorra emanen zioten ikhusten zuten jauregi hartan. Erraten du baietz. Eta erraten du apaltsago: «zuen malurrentzab». Ez zuen ama alargunaren semeak bertzeik aditu hitz hoik. Eta badohazi harat. Sartu eta ederki errezebitzen dituzte. Ematen diote afari on bat eta ematen dituzte hirugarren estaian, oge on batean.

Erregen seme lokartzen da kusian, unatua beitzen hanitz. Baiñan ama alargunaren semea bere beldurrarekin bazagoen erne. Eman arazi zuen erregeren semea punttan eta bera zokuan. Eta gauerdiko jotzarekin ikhusten ditu gelan sartzen gizonak kanibeta handi batzu eskuban, emazteak argia eta neskatxak tirriña bat. Eta pikatzen diote lepua errege semeari eta erematen dute beheiti.

Arte hartan eskapatzen da tellietarat eta handik hari da oiuka justiziari. Bere buruba aditu arazten du eta erraten du zer pasatu den. Baiñan behin ere ez beitate aditu deusik jauregi hartako jende hekien gainean, ez zuten nahi sinetsi eta ematen dute preso. Biharamuñian kondentzen dute hiltzera.

Baiñan galdetzen du grazia bat hil baiñon lehen. Eta erraten diote baietz. Galdetzen ditu bi xakur xardango jauregi hartarat gateko hekiekin. Baietz promisa ematen diote eta badohazi denak hekiekin. Etxe guzia kurritu onduan odol sorta bat atzeman gabe badohazi lur azpira. Baiñan ez zuten nahi ideki athea ez zela deusik, zikinkeriarik bertzerik. Erraten diote ideki behar dela. Ideki onduan atzematen dute errege bere koruekin. Ez zuten bertzerik galdetzen. Eta libratzen dute ama alargunaren semea eta galdetzen du errege haren gorputza. Zaku baten barnean sartu eta bere bizkarrean eman eta partitzen da eta hola arribatzen lehertuba Erromarat. Aita Sendua ikhusten du eta erraten dio zer pasatu zaioen bere lagunarekin. Eta erraten dio biharamuñian, elebazioneko mementoan emateko burua gorputzaren gainean. Ematen du erran bezala eta ordu berian zaiñetako ikara bat lotzen zaio eta erraten du:

—Nun naiz ni?

Erraten dio:

—Erroman! Ez haiz oroitzen atzo nola lepua pikatu hauten? Nik ekarri haut erran bezala.

Eta aita sendua ikhusi errege seme harek ere eta partitzen dire. Eta bide puska bat in eta arribatzen dire lehen ezagutza in duten haritzen azpirat. Han behar zuten elkar kitatu. Elkarri erreberitzen diote lehen eman hitzak. Erregen seme harek kentzen du bere erhitik erreztun eder bat eta ematen dio hartaz oroitzeko. Eta diruak kondatu zituen errege semeak. Eta ikhusi zuen ez zirela gutitu. Kondatu zituen Erromatekuan aritz beraren azpian kondatu zuen bere dirua, eta hunatekuan ez zen gutitua. Hala hala zen.

Pena hanitzekin kitatzen dire gateko beren etxetarat. Ama alargun hura bozkariatua zen ikhustiarekin bere semea eta semea ere. Baiñan



biharamuñian estalgia da min izigarri batez. Lepra iduri zuen. Usain izigarria zuen.

Baiñan amak eta berak ez zuten sentitzen. Ama gaixo harek iten zuen zernahi bere semearen sendatzeko. Baiñan deusik ez zuen soleitzen.

Aditzen dute badela ingurutan fraide bat añitz senduba eta zernahi mirakullu iten dubena. Ekar arazten dute eta erraten du ama alargunaren istorioa aditu onduan nola elkharri eman zioten agintzak, erregen semeak azkeneko odol sorta arte lagunduko zuela. Berehala erraten dio fraideak:

—Behar duzu errege haren odolarekin garbitu sendatzekotz.

Berri horek tristatzen du gure semea. Baiñan amak biharamunetik nahi du partitu. Karrosa batian sartzen dire eta mundu guziaz harritzen. Phu eta phu, hekien onduan pasatzian. Arribatzen dire noizbeit errege haren palaziorat. Galdetzen dute errege, baiñan neskatxek egortzen dituzte urrun handik, usain harengatik eta ez ziren gehiago hurbiltzen.

Egun batez errege hilkitzen zen eta ikhusten du karro hura. Galdetzen du zer den. Erraten diote eri usaindu bat dela eta nahi zubela mintzatu. Errege hasarretzen da zeren ez duten in mandatu. Errege hura ezkondua zen eta bazuen haur bat. Ekhar arazten ditu karroko jende hek. Ama alargun seme harek erran dioenian nor den, haren miñeri kasurik in gabe, bere besuetan hartzen du eta besarkatzen. Bere miñen tartetik irakusten dio erreztuna bere erhian. Erraten dio penekin fraideak erran dioena. Errege hori badua bere emaztearenganat. Erraten dio zer pasatzen den, nola han den eri bat haren athean. Eta nola eri harek bizia eman diguen eta orai bere sanja dela. Erregen odolaz garbituz bertzerik ez ditakela senda.

Eta behesteko edo semea edo errege bera. Ama gaxo harek sakrifikatzen du bere semea. Hiltzen dute. Eria garbitzen da eta memento berian sendatua da. Erregen andrea badoha bere semearen gelarat. Eta han kausitzen du bere semea bizi bizia. Loriatua da eta badoha bere semearekin oihuka mundu guziari erakusterat. Pentsa zer loria denentzat. Ama alarguna eta bere semea erregen palaziuari bizi izan ziren. Ez zuten gehiago elkar kitatu.

## SOLDADU POBRE BAT ETA JAUN ABERATSA

Asko munduan bezala bazien jaun andre batzuek. Bazuten seme bat. Zerbitzuat gateko adiña ethorri eta partitzen da pena handi batekin. Bere zazpi urteak in eta heldu zen etxerat bortz sosekin. Heldu zelarikan pobre bat heldu zaio Jainkoaren izenean emateko karitatea. Erraten dio bortz sos dituela, baiñan Jainkoaren izenian eman behar dioela. Ematen dio sos bat.

Istant baten buruan bertze pobre bat agertzen zaio Jainkoaren izenean karitatea emateko.

—Nahiz nik bortz sos izaki, bat eman, orai bertze bat Jainkoaren izenian ematen dut lorietan. Orain izanen dut goizeko baten itekoa.

Eta badoha aintziñerat. Agertzen zaio berritz pobria. Bethi beha zen eta erraten dio:

—Ganen zare holako etxerat, galdetuko duzu karitatea Jainkoaren izenean Monsintartaini. Baiñan ez du nihori ematen. Baiñan zu sar arazi-ko zaituzte kuriostasunez eta erranen diozu jaun hari zure zerbitzuko istoriuk. Kondatu eta erranen beitzeitu nondik heldu zaren, erranen diozu izatu zarella zeruban eta ifernuban. Ikhusi dituzula zeruban hainbertze jende pobre eta erromes, baiñan ifernuko athean baziren bi debru fotilletan jarriak. Sartzen da barnerat eta ikhusten ditu hainbertze jende aberats. Eta fotilla eder bat utsa galdetzen du norentzat zen hura.

Heldu zaiozka atheko bi debruak errestan mainguka eta erraten diote:

—Monseintartaintzat da; behin ere ez beitu karitaterikan ematen. Eta ez baldin bada sendatzen haren plaza izanen da.

Badoha gure soldadoa erran bezala. Galdetzen du karitatea Jainkoaren izenian neskatxa hari. Baiñan beti bezala egortzen du. Jaunak aditu du norbeit bazela. Galdetzen du neskatxari nor zen han. Erraten dio:

—Soldado bat eske.

Erraten dio igan arazteko, zerbeit berri jakiteko. Erraten diozka pobre harek erran guziak eta bere beithan sartu eta gardatzen du soldadu hura aberats berekin eta gañerateko diruak ematen ditu pobreeri.



## ZILIZIGUAREN ISTORIGUA

Behin baziren asko munduan bezala jaun andre batzuek. Ez zuten haurrik. Hañitz nahi beitzuten bat izan, iten dute bellia ganen direla Erromarat. Bellia hori in orduko emaztea esperantzetan gertatzen da. Jaunak erraten dio gan behar dutela beraz Erromarat. Eta emazteak erraten dio baietz, gero ere ganen direla.

Erditzen da andre hura. Seme bat. Anditzen da mutil hura eta atzematen du bere aita bethi triste eta zoko guzietan nigarrez. Zazpi urtetarat arribatzen da mutil hura eta ama hura ez zuan sekulan Erromarat.

Egun batez sartzen da mutil hura bere aitaren gelarat. Eta atzematen du nigarrez. Erraten dio bada zer duen. Ez dio erran nahi. Hartzen du mutil harek pistola bat eta erraten dio bere aitari:

—Ez baldin banauzu erran nahi zer duzun, tiratzen zaitut kolpe bat eta neri bertze bat gero.

Aita harek erraten dio erranen dioela beraz. Nola in zuten haren amak eta biek bellia bat Erromarat gateko haur bat izateko eta sekulan ez zirela gan. Haurrak erraten dio:

—Neretzat in duzube bellia hori eta nik gan behar dut.

Iten ditu adioak eta partitzen da. Ematen ditu zazpi urte bidean bere ogia eskatuz. Arribatzen da aita sendubarenganat. Erraten dio zerk ekhar arazi duen Erromarat. Aita Senduak ematen du gela batetan oren batenzat. Handik atheratu denian erraten dio:

—Hor tronpatu bide zare. Atxiki nauzu bi oren segurik.

Erraten dio ezetz, oren bat egotu dela. Ematen du bertze gela batean bi orenentzat. Handik atheratzen denian erraten dio:

—Atxik arazi nauzu bi oren bañion gehiago. Erraten dio ezetz eta ematen du bertze gela batian hiru orenentzat.

Handik atheratzean erraten du:

—Ez nauzu utzi ere hiru minuta.

Eta erraten dio egotu dela hiru oren. Erraten dio Aita Senduak lehenbiziko gela zela ifernuba; bigarrena zela purgatorigua eta azkena parabisuba. Galdetzen du mutilak:

—Ni nun naiz?

Parabisuan. Eta bere aita ere parabisuan eta bere ama ifernuban.

Penatzen da mutil hura eta erraten dio:

—Ez dezaket salba nere ama zazpi urtez nere odola isuriz?

Erraten dio Aita Senduak baietz. Ematen dio zilizigua. Kadena batekin zerratzen du eta botatzen du gako urerat. Erraten dio Aita Senduak:

—Gako hori atzematen duzunian zure ama salbatua izanen da.

Partitzen da eske eta ematen du bertze zazpi urte bere herrirat arribatu orduko. Badoha bere etxerat eske. Heldu zaio bere aita. Erraten dio nondik heldu den. Erraten dio Erromatik. Galdetzen dio iyan ez duben bada ikhusi bere bidean, haren adiñeko bertze mutil bat. Erraten dio baietz, badabillala kurri zazpi urtez, bere odola isuriz, bere ama salbatzeko.

Eta beti mintzo zaio bere semeaz. Andrea ateratzen da eskalerretarat eta erraten dio bere senarrari utz dezan pobre hura gaterat handik. Ez dio kasurik iten. Sar arazten du eta erraten dio heiekin behar duela bazkaldu. Andrea ez zen kontent. Egortzen du neskatua jaunak merkaturat eros dezan harrañik ederrena.

Arribatzen denian neskatxa, badoha basakurterat arrañaren garbitzerat. Eta mutila badoha ondotik arrañaren garbitzen ari zelarik. Atzematen du gako bat barnean. Erraten dio mutil harek:

—Neria da gako hori.

Eta ematen dio. Andre harek ez zezakeen soporta mutil hura eta pusatzen du putzuaren barnerat. Kolpe kolpez urak gaindi iten du eta mutila atheratzen da. Jaunak ez zuen ikhusi bere andreak botatu zuela. Erraten du mutillak erori in dela. Nahi diozka bere arropak eman. Bañan ez du nahi, supazterrian idortuko dela. Mahañean andreak ez dio batere begitarte ona egiten.

Erraten du mutillak iyan bada ezagut lezaken bere semea. Baietz, baietz, baduela bi bularren erdian kalitx bat. Eta mutilak idekitzen du bere beztimenta eta irakusten du bere kalitxa eta ematen dio bere amari gakua idek diozala bere zilizua eta ikusten du ama harek zenbat odol saraskillia sofritu duben.

Hiruak hiltzen dire eta neskatuak ikusten ditu hiru uso xuri airatzen eta desiratzen du:

—Haiek bezala guazen gu ere.



## ERREGE

Asko munduan bezala, baziren errege bat eta erregiña bat. Bazuten nexka bat. Andre hura eritzen da eta arras txar zelarik erraten ziguen bere senarrari ez zadien ezkont haren iduriko norbeitekin bertzeik. Andre hori hiltzen da eta zenbeit denboraren buruban nahi zuen ezkondu. Bazabillan herriz herri bere emaztearen eiteko norbeit atzeman nahiz, bañan ez zezakeen atzeman. Haren haurrak zuen bakarrik bere amaren eite handia.

Kridatzen hasten du herri guzietan, bañan inutil zen. Ez du kausitzen eta dezidatuba da bere alabarekin ezkontzia, hura bederen bere amaren idurikua beita. Erraten dio bere alabari hori. Pentsa zazu zer xangriña harentzat. Ez zuen nahi nihondik aditu hori.

Untzi bat beitzen abian zena erraten dio bere filiari behar duela partitu, bañan sekretuba atxik dezan. Garraiatzen dituzte printzesa haren puska baliosen guziak eta gau batez partitzen da. Mahistruba eta ondokua arras gisakuak izatu ziren harentzat.

Jausten dire untzitik eta gida arazten du bere buruba hotel on bate-tarat. Han galdetzen du iyan badakiten ingurutan sehi beharretan nihor. Erraten diote baietz eta gidatzen dute erregeren etxerat. Eta galdetzen du iyan baduten neskatxa plaza bat. Erraten diote baietz. Preseski goizean gana dutela bertze antzara gardatzailla eta haren plaza hartuko dubela. Badoha bere hotelerat. Han uzten du bere mala. Beztitzen da ardi ille batez eta badoha xatorat.

Establia batean egiten zuen lo bere antzaraekin eta partitzen goizian goiz kantuz errepikaz eta ethortzen hilluneko etxerat. Bertze schiek ez zuten maite batere. Supazterrian beti hazka egiten zuen bere ardi larrubaren azpian eta bertzeak desgusta arazten zituen.

Errege harek bazuen seme bakar bat eta galdetu zuen besta batzuek itia bere aita ameri emazte bat atzematoko. Hiru egunez izan ziren bestak. Bertze schiek erraten zuten ganen zirela gogotik balarat eta Marmitonek ere erraten zuen ganen zela. Marmiton eman zioten izena gure printzes hari. Eta galdetzen du permisionea bere etxeko andreari oren batez, iyan utziko zuen gako zilotik begiratzerat. Erraten dio baietz.

Badoha hotelerat eta han beztitzen da ederki eta badoha balarat. Hura han sartu orduko mundu guzia zoratzen da eta erregeen semea partikularrean. Dantza guzietan harekin ari nahi zuen denbora guzian. Bañean andre harek bere muntran ikhusi eta bazuela oren bat han zela ilki

nahi izan zuben. Errege seme harek nahi zuben atxik arazi, bañean erra-zen ziguen bazuela gaozama bat arras gaxtua eta krudela. Ez zubela gehi-ago utziko ethortzerat. Eta ez zuen nahikatu segi zezan.

Badoha hotelerat billuzterat. Bere etxerat gan eta kondatzen du balan zer ikhusi duen, nola ethorri den andre eder bat eta erregeren gus-tukoa zela hanitz. Eta galdetzen du etxeko andreari biharamuneko per-misionia bi orentzentat. Ematen dio. Ematen du arropa bat, bezperakua bañion ederragua geihago. Erregea zoratuba da haren edertasunaz eta ez du kitatzen. Bere muntran ikhusi bere tenoria ethorria zuela eta badoha bi orenen buruan.

Etxerat arribatzen deñian erraten du zer pasatu den balan eta nola andre eder hura egotu den bi oren eta galdetzen du permisionia bihara-muneko hiru orentzentat. Ematen dio etxeko andreak.

Ematen du arropa bat bertzeak bañion hanitzez ederragua. Mundu guzia estonitua dago. Erregen semeak ematen dio erreztun eder bat eta hiru orenen buruban badoha. Erregeren semeak nahi zuen segitu bere etxeañion. Bañian ez zuen nahi izan.

Biharamuneko elkar ikus zezaten hitz hartu zuten noapeit gatea. Erregen semeak ez zuen lorikan egin gau guzian. Gan zen erran tokirat. Bañian nihor ez zaio heldu. Badoha tristeki etxerat eta egunetik egunerat haren pena handiago zen.

Bere amak erraten dio:

—Zer bada semea, ungi jostatu zare. Nola zare bada hoin triste?

Erraten dio nola in duben ezagutza bat bañian ez dakiela ez nora gan den eta ez zer den. Eta hura bertzeik ez du dubela goguan. Ama badago billa, billa, billa, nor izan behar ote den. Eta oroitzen da nola Marmitonek bazakizkien balako berri guziak eta erraten dio bere semea-ri iyan hura ote litakeen. Denak ematen dira irriz eta erregen semeak ez du nahi erran dezaten hori.

Amak erraten dio behar dutela segurtatu eta gan behar dubela erre- gen seme harek Marmiton bañion lehenago oihanerat. Eta han ikhusten badu antolatu duela etxe txiki bat, izan ditakela zerbeit.

Errege badoha eta atzematzen du haritz azpi batean etxe olha pulli pullit bat. Izatzen da haritz haren ganeat eta aditzen du urrundik Marmitunen kanta ederra. Arribatzen da bere etxeolharat. Kentzen du bere ardi larruba eta bazuen arropa xuri eder bat haren azpian.

Ematen da orraztatzen orraze urre eder batez. Ilhuntzian badoha bere antzaren billa eta orduan jausten da erregen semea eta badoha etxe- rat amari kondatzerat zer ikhusi duen. Penatuba da nola utzi duten heia





zahar batean hainbertze denbora. Ez dakite zer pentsa. Amak erraten du behar dubela haren semeak eri gelditu. Erranen dutela ez duela nahi niho-  
ren eskutik salda hartu, bañian naski, Marmitunen eskutik hartuko dube-  
la.

Iten dute beraz erran bezela. Eta Marmitunek erraten du eremanen diguela segurki. Kentzen du bere ardi larruba eta agertzen da ederki bez-  
titua. Salda emana zuen kuziñariak prest. Ematen du Marmitunek trin-  
tsonian erregek emanikako erreztuna eta badoha goiti. Erregen gelan sartu orduko ezagutzen du bere andrea. Ez zuen salda beharrik sendatze-  
ko. Ekhar arazten ditu bere aita eta ama eta ezkont arazten dute. Ezkondu onduan ematen diote parte Marmitonen aitari. Ethortzen da eta elkarre-  
kin urus bizi izan ziren.

## MAHISTRUBA

Asko munduan bezala bazen mahistru bat. Malur hañitz izan du bere bizian eta ez zen gaten gehiago biyaietan. Eta egun guzietan gaten zen kosta gainerat denbora pasa eta egun guzietan ikhusten zuen suge handi bat. Bañian erraten ziyuen bethi:

—Hi ere Jainkoak eman hau bizia eta bizi hadi.

Mahistru hori bizi zen, bere haurrak eta emazteak josten irabazten zutenarekin. Egun batez erraten dio sugiak:

—Hua holako xentierretarat eta manazak horrenbesteko untzi bat. Galdezak prezia eta galdetzen hautenaren doblea emanen dukala errok.

Manatzen du harek, sugiak erran bezela. Eta badoha biharamunian kostarat eta erraten dio suge hari in zuela harek erran bezala. Erraten dio billatzeko hamabi mariñel, azkarrak, eta galdetzen zutenaren doblia emateko hekieri. Badoha eta iten du erran bezala.

Badoha berriz sugienganat. Erraten dio badituela mariñelak eta sugiak ematen dio unziaren pagatzeko dirua. Harrituba zen xantierreko nausia antziñetik pagatzia gizon malerus hartaz. Baiñan lasterrago finitu izan zen lana.

Sugiak manatu zion in araztia unziaren zolan toki handi bat eta kasa handi bat eta erran ziguen eremateko berak kasa hura. Erematen du eta sartzen du suge hura. Untzia laster prestatu zen. Kargatzen dute bere kasa eta partizen dire.

Mahistru hura gaten zen egun guzietan sugienganat. Bañian mariñelek ez zakiten zer zen han. Bide puska bat in zuten jakin gabe norat zuhazin. Erraten dio sugiak egin behar duela denbora bat izigarria. Zeruba lur inen dela eta gaberditan xori beltz handi bat pasatuko dela eta hura behar litakela hil eta duala ikhusterat iyan baden mariñeletan ihiztari bat.

Badoha eta erraten die mariñeleri iyan baden hekietan ihiztariarik. Erraten dio batek:

—Ba, ba! Eñiadak airian hiltzen ditut nik.

—Obe, obe. Baliatuko zaik.

Badoha beheiti suge hari erraterat badela ihiztari bat eñiadak hiltzen dituen airean. Eta horrekin batean denbora beltz iten da. Zeruba lur iten da eta denak badohazi ikaretan. Sugiak ematen dio mahistrubari edari on bat ihiztariarentzat eta arrimatzen dute gure gizona mastari. Gaberditan aditzen du sistu miñ bat. Xoria pasatzen zen. Badu bonurra hiltzeko eta



denbora berian itsasoa edertzen da eta mahistrua badoha sugiarenganat. Erraten dio hil dutela xori hura. Erraten du:

—Badakit.

Bide puska bat iten dute hala hala. Egun batez erraten du sugiak:

—Ez gare holako portutaikan hurbil?

Mahistrubak erraten dio:

—Bistan dugu. Harat guazi.

Eta erraten dio horaiñon duala galdetzeat bere mariñeleri iyan baden lasterkaririk. Badoha mahistruba eta galdetzen du gero mariñeleri iyan baden lasterkaririk. Batek erraten dio:

—Nik segurik atzematzen dut erbia lasterka doana.

—Obe! obe. Behartuko zaik.

Badoha mahistruba erraterat sugiari badela bat erbia atzematzen dubena lasterka dualarik. Erraten dio sugiak:

—Portu hortan jautsiko duzu laterkari hori eta erranen diozu gan behar dubela mendi txiki baten gañerat. Han badela etxe txiki bat. Eta han emazteki zahar zahar bat. Han badirela ereta, harría eta drundra bari-lla eta hekiek hiruak behar direla hartu bat banazka, bañan in behar dela bidaia bat bakotxarentzat.

Gure lasterkaria partitzen da eta arribatzen da etxe hartarat. Ikhusten du atxo begi gorri bat iruten athe gañean. Galdetzen dio ur xorta bat hainbertze bide in dubela nihon hurik atzeman gabe eta eman diozan xorta bat. Erraten dio ezetz. Otoizten du, oraiñon ez dakiela herri hartako berri eta iyan bada norat ganen den. Eta beti beha zagoen atxo hura ximinearen gañerat. Eta erraten dio emanen diguela beraz. Pegarrarat gan denian, gure lasterkariak hartzen du ximinearen gañetikan ereta eta badoha lasterka ximixtaren pare. Bañan atxua ondotik. Untzirat salto iteko mementoan, atxoak atzematzen du eta hartzen dio bere paltua eta bizkarreko larru piska bat. Mahistruba badoha sugiarenganat. Erraten dio baduela ereta, bañan gizonak bizkarreko larruba eskas duela.

Ematen dio erremedio bat ta edari on bat eta erraten dio biharamuneko sendatuba izanen dela, bañan gan behar dela berritz. Erraten du ezetz. Debruak ereman dezala nahi badu atxo hura, bañan ez dela ganen gehiago. Bañan biharamunian sendatuba beitzen, eman zioten berritz ere edari on hartarik. Eta partitzen da beztitua athorra maunkarik gabe batekin, galtza zahar batzuekin eta badoha emazteki zaharraren etxerat. Erraten dubelarikan kosta in duela haren untziak, berrogoi ta zortzi oren hartan kurri dabilala eta othoi pipa pizterat utzi behar duela, erraten dio ezetz. Urrikal zakioela, malurus zela hainbertze eta ungi fagore txikia

ziguela galdetzen. Ezetz, ezetz, bezperan trunpatua izana zela. Bañan erraten dio mundu guzia ez dela trunpatzallea, ez beldurrik izateko.

Altxatzen da atxua surat eta kunkurtu denian hartzen du ximinearen gañetik arria eta badoha lasterka, zangoak hausteko.

Bañan emazteki zahar hura, gure lasterkaria bezen laster, ez du atzematzen untzirat salto itian bertzerik. Hartzen dio athorreakin lepotik eta bizkarreko larruba eta erortzen da untzirat. Mahistruba badoha berehala bere sugiarenganat. Erraten dio baduela harría. Erraten dio:

—Badakit.

Ematen dio erremedigua eta edari ona, biharamuneko sendatuba izateko. Erraten diote gan beharko dubela berritz. Erraten du ezetz. Ez duela gehiago ikhusi nahi atxo begi gorri hura. Erraten diote eskas dutela oraiñon drundra barilla.

Ematen diote biharamunian edari on hura. Harek ematen dio kuraia eta gutizia gateko berritz ere. Antolatzen du bere buruba kosta in balu gisa, erdi biluzia, eta arribatzen da emazteki haren etxerat. Galdetzen dio ogi piska bat, nola aspaldian deusik jan gabe den. Izan dezala urrikal-mendu hartaz. Ez dakiela norat gan. Erraten dio doala nahi duen tokirat. Ez dela haren etxean nihor sartuko. Egun guzietz baditubela etsaiak. Iyan bada zer egiñen dioen pobre harek, bere ogi piska eman eta ganen dela.

Noizpeit atxua altxatzen da armariot gateko eta gure gizona bere drundra barillaren hartzeko. Emaztekia haren ondotik atzeman nahiz. Gizona lasterrago arribatzen da salto egiteko meneradiño. Bañan atxuk hartzen du lepotik eta zangotaradiño kentzen dio larru guzia. Erortzen da gure lasterkaria. Ez zen seiñarik iyan hil ala bizi zen. Eta atxuak erran zuen:

—Arnegatzen dut hori eta untzi hartako guziak.

Badoha mahistruba sugiarenganat. Erraten dio:

—Badugu drundra barilla, bañan gure lasterkaria ez dakit biziko den. Ez du larrurik bizkar guzian zangotaradino.

—Kontsola zaite, kontsola, biharko sendatua izanen da. Horra erre-medigua eta edari ona. Orai salbatuak izanen gare. Zuazi goiti eta tira zatzu hamabi peza kolpe.

Badoha eta tiratzen ditu. Badoha sugiarenganat eta erraten dio tiratzeko bertze hamabi eta ez izitzeko, ethorriko dela justizia. Arrimatuko dituztela. Eta galde dezala fagore ez kondenatzia ikusi arte iyan untzian baduten deusik merezitu duenik holako gaztiguba.

Badoha eta tiratzen ditu bertze hamabi peza kolpe. Tiratu orduko heldu da justizia eta tropako gizonak. Arrimatzen dituzte mahistruba eta



mariñelak eta ematen dituzte preso. Mariñelak ez ziren kontent, bañian mahastrubak erraten diote:

—Laster liberatuak izanen zarezte.

Biharamunian mahistrubak galdetzen du erregeri mintzatzia. Erematen dute erregeren aintzinerat eta erraten dio kondenatubak direla hurkatzerat. Mahistrubak erraten dio:

—Zer bada? Zeren peza batzu tiratu ditugun behar gaituzube kondenatu?

—Bai, bai! Zeren zazpi urte hunetan ez beita aditu gure hirian pezarik. Doluban naiz, ni eta nire populuba. Banuben seme bakar bat eta galdu dut. Ez dezaket ahantz.

Erraten dio mahastrubak ez zakiela berri hori eta debeku hura eta ez othoi hiltzeko ikusi gabe heian untzian atzemanen duten zerbeit behar ez dena.

Badoha errege, bere korte, bere soldadu eta justizia guziarekin. Zubi gañerat gan denian, zer harrigarria! Erregek atzematzen du bere seme maitea zeinak kondatzen beitio nola izatu den ezkantatua atso zahar batez, eta suge egotu zela zazpi urtez. Nola mahistruba hura gaten zen egun guziez kosta gain baterat eta utzi izan zioen bizia erraten zioelarik Jainkoak iña zela hura ere. Ikusirikan mahastru haren bihotz ona, pentsatu zuen harek salbatuko zuela bizia eta hari esker zuela bizia.

Badohazi korterat. Salbatzen dituzte guziak. Ematen diote diruba franko bere bi alaben dotatzeko eta untzia beretzat. Eta mariñeleri jan eta edan nahi zuten bezenbat eta nahi zuten bezenbat denboraz eta geroko bizitzeko segida.

Eta erre zuten atxua bere etxearen barnean eta erregeren semea bizitu zen hurus bere aitarekin. Ungi bizi izan baitziren, ungi hil ziren.

(*Gaxcina ebulea*)

## TARTARO ETA PETIT PERROQUET

Asko munduan bezala baziren ama seme batzuek. Arras miserableak ziren. Semeak egun batez erran zioen bere amari gan behar zubela iyan zerbeit irabaziko zuen. Badoha gan, gan, gan, gan. Pasatzen ditu herria franko, bañian badoha bethi aintzinat. Arribatzen da herri handi baterat. Han galdetzen du iyan senti duten mutil plaza bat. Gidatzen dute erregeren etxerat; han erraten diote baratzezain izanen zela. Bañian erraten diote ez dakiela aintzuraren ibiltzen. Igual dela ikhasiko duela bertzeekin. Eta arras gisakua beitzen ikhasi zuen. Eta denetarik maitatua zen. Errege harek bazuen alaba bat eta iten zioen begitarte Petit Perroquet-i zeren arras gisakua zen mundu guziarentzat.

Hiri hartan bazen printze bat eta harek bazuen zerbeit esperantza printzesa haren gañian. Eta hartu zuen karamitxia eta jelsia piska bat Petit Perroquet-entzat. Egun batez badoha printze hura erregerenganat eta erraten dio:

—Ez dakizu zer erran duen Petit Perroquet-ek? Tartaroren zamaria ekharriko duela.

Erregek ekhar arazten du Petit Perroquet eta erraten dio:

—Erran omen duk ekharriko dukala Tartaroaren zaldia.

—Ez dut segurki holakorik erran nik.

—Ba, ba! Erran duk.

—Nahi banauzu eman galdetzen ditudan guziak, entsaiatuko naiz.

Galdetzen dio diru hanitz. Eta partitzen da. Gan, gan, gan eta behar zen erribera handi bat pasatu. Batela zain bat mintzaten du pasatzeko eta erraten dio behar bada hunaratekuan izanen zuela karga handi bat ekartzeko, bañian ungi pagatuba izanen dela. Eta pasatzen da. Bertze alderat gan eta, oraino egin behar zuen bide hanitz zeren Tartarua mendi zoko batean egoten beitzen. Noizpait arribatzen da. Jotzen du athea. Etortzen zaio emazteki xahar xahar bat. Erraten dio:

—Zuazkit hemendik lehen bai lehen. Nere semeak sentitzen du oren bat urrundik, girstinuaren usaina.

—Hemen jan ala kanpua jan, igual zait.

Eta badoha kanporat eta gordetzen da iratze meta handi baten azpian. Bazuen istan bat han zela aditzen duenian sistu eta hortz karraska handi batzuek. Iduri zuen idurzuriak hari zirela. Badoha ikharetan. Gure Tartarua badoha etxerat eta erraten dio bere amari iyan bada ez



duen han norbeit gordia. Erraten dio ezetz, ezetz eta jan dezan berehala preparatuak dituen gauzak. Ezetz, ezetz. Behar duela lehenbizi jan giristino hura.

Badoha billa, billa, billa zoko guzietan eta badoha iratze meta hartarar. Ari da ken eta ken bazterrerat. Bañian gure Petit Perroquet zola zolan beitzen, Tartarua unatu eta badoha abantzu atzemateko puntian bere etxerat.

Ematen da, jaten eta edaten ausarki. Gure Petit Perroquet atheratzen da bere iratzetarik eta badoha establiarar.

Zaldi harek baitzuen gare handi bat bethetzen du iratzez. Gare hura Donibaneke ezkillara bezin handia zen. Izatzen da zaldi haren gainferat eta laster arribatzen da batelazañiarenganat.

Heldu zaio laster eta ahal bezala ematen dute zaldi hura gabarrarar eta pasatzen dire. Ematen dio sari ederra eta denbora berean agertzen da Tartarua bertze aldean oihuka. Emanen ziguela nahi dituen guziak ematen badio bere zaldia. Erraten dio ezetz eta badoha trostean aintzina. Bere erregeren palaziguen ondorat arribatu denian kentzen dio zaldiari iratzia goaretik eta mundu guzia ateratua zen leioetarar eta arritubak dire Petit Perroquet gibelat etortzen ikustia.

Errege loribatubak ez zekien zer erran, bañian lehen bañion geihago maite zuen eta printzesak ere.

Bertze printze hura ez zen kontent eta pentsatzen du oraino bertze zerbeit. Badoha erregerengana eta erraten dio:

—Ez dakizu? Petit Perroquet-ek erran du ekharriko duela Tartaruaren diamanta.

Erregek ekhar arazten du Petit Perroquet eta erraten dio:

—Erran omen duk ekharriko dukala Tartaruaren diamanta.

—Ez dut holakorik erran.

—Segurki bai! Bai! Erran duk.

—Ez, bañian ensaiatuko naiz ematen balin banauzu nahi dutana.

Eta galdetzen dio diru hañitz. Eta partitzen da. Badoha gabarratzai-learengana. Pagatzen du ungi eta badoha oraino gan, gan, gan Tartaruaren etxeradiño. Emazteki xahar harek erraten dio duala handik, bañian inutil zen. Gan zen iratze azpirat eta han dago Tartarua ethorri arte.

Lehen bezela ibiltzen du iratze kasik guzia eta ez du atzematen. Uzten du Tartarua ederki afaiterat eta pentsatu duenian loharkatua dela badoha emeki emeki, eta diamanta buhurdi azpian ematen beitzuen, kentzen dio. Eta badoha lasterka, zanguak hausteko, gabarrazañiarengana-

diño. Pasatzen du. Ungi pagatzen. Tartarua agertzen denian bertze aldiar, iten dio oihu emateko bere diamanta, emanen diozkala nahi dituen guziak.

Ezetz, ezetz, eta badoha aintzina erregeren etxerat. Arribatu denian ez zakiten zer egin Petit Perroqueti. Batek besta eta bertzeak besta, denek maithatzen zuten gero eta gehiago. Printzesak ere. Bañian printze harek ez zakien zer pentsa. Jelosiaz eritzen ari zen. Pentsatzen du oraino bertze zerbeit eta erraten dio erregeri Petit Perroquet-ek erran duela ekarriko duela Tartarua ere.

Ekar arazten du Petit Perroquet eta erraten dio:

—Erran omen duk ekharriko dukala Tartarua bera.

—Ez, ez! ez dut holakorik erran. Bañian nik erranar egiten badituzu entsaiatuko naiz. Egin behar duzu karrosa bat burdinezkoa, berga erdi bat lodi. Hiru zaldi haren tiratzeko eta dirua franko. Prestatzen direnean partitzen da. Galdetzen du barrika bat ezti, barrika bat luma eta bi adar.

Gabarrarar arribatu denian ez dute erreski han ematen beren karrosa. Bertze alderat pasatu direnien, sartzen du barrika eztiar eta gero luman, eta adarrak arrimatzen ditu burugañian eta ematen da postillon. Arribatzen da Tartaruaren etxerat eta preseski etxean zen. Jotzen du athea Petit Perroquetek. Heldu da Tartarua bera. Erraten dio:

—Nor haiz hi?

—Ni ifernuko debrurik zaharrena.

Eta idekitzen du karrosako athea eta erraten dio:

—Sar hadi hor.

Tartarua sartzen da eta Petit Perroquet kontent. Arribatzen dire gabarrarar. Ahal bezala antolatzen dituzte zaldiak, eta karrosa ederki pasatzen du. Eta badoha erregeren palazigurat. Espantituak dire ikhustea han dubela Tartarua. Nahi zuten hil pezekin, bañian bonbak igortzen zituen gibelerat pilotak bezala. Ezin hil zezaketen hala. Harmekin finitu zuten.

Ungi irabazia beitzuen, eman zioten printzesa bere emaztetzar. Ezkondu ziren. Ekhar arazi zuen bere ama korterat eta ungi bizi baziren, ungi hil ziren.

(Pierre Bertrand)



## EZKABI

Baziren, asko munduan bezala, ama bat eta seme bat. Sortu zen ezkabiarekin eta beti Ezkabi erraten zioten. Baratzte eta lur puska bat zuten beren erresurtsa guzia. Saltzen zituzten baratzekariak eta hala bizi ziren doi doia.

Ogoi eta lau urtetarat arribatu zenian mutil hura, erran ziguen bere amari gan nahi zubela munduz mundu zerbeit gehiago egiteko. Amak ez zuben nahi, bainan azkenian utzi behar izan zuen. Ematen diozka bildu ahal zituen sos guziak eta partitzen da.

Gan, gan, gan, arribatzen da hiri baterat eta elizako aintzinian pasatzian ikhusten ditu gizon batzuek zinpi eta zanpa hari zirela. Galdetzen du zer egiten duten. Erraten diote hil bat jotzen dutela zeren zorrak uzten dituen. Eta norbeitek pagatu arte hola joko dutela. Ematen ditu zituen diru guziak ez dezaten gehiago jo.

Piska bat gan eta badoha gan, gan, gan. Arribatzen da desertu handi beltz baterat. Arras tristatua ez zakien heian aintzinerat ala gibelerat ganen zen. Hala zagoelarik othoitzian, agertzen zaio atxo xahar bat, erraten dio zertan den han. Gure Ezkabik erraten dio baratzezain plazatu nahi lukela, hala ilki dela etxetik bañian ez dakiela norat gan. Erraten dio atxoak lehenbiziko irian, erregeren etxean hartuko zutela baratzezain eta bere buruko miña sendatua izanen dubela lehenbiziko atzematen duen asto pizarekin buruba garbitu eta, bañian beti buruba igual arrimatuba atxikitzeke. Eta erregeren baratzezain izanen denian, lehenbiziko arrastean atera detzala han diren arbola eta edergalu guziak.

Badoha gure Ezkabi, gan, gan, gan. Eta atzematen du asto bat; garbitzen da haren pizaz eta sendatua da. Arribatzen da iri handi batean. Arrastatzen da ostatu ttiki batean eta galdetzen du iyan erregeen etxean baratzezainik behar duten. Eta badoha berehala nagusia jakiterat erregeren etxerat. Erraten diote behar dutela, baietz. Badoha Ezkabi. Berandu baitzen badoha ogerat.

Biharamunian abiatzen da denen atheratzen errotikan. Errege eta bere alaba bazkal onduan leihotik zagozin. Ikhusten duenean erregeek zer obra iten duen Ezkabik iten diote oihu bere gardiari har dezatela gizon hura eta hil.

Alabak erraten dio:

—Ez hil araz othoi, aita. Iklusiko dugu gero zerbeit naski.

Eta uzten diote bizia.

Biharamunian espanituak dire ikhustez baratzte bat xoragarria. Lehen ederra zen, bañian orai hala ere ederrago. Kontent ziren hala ikhustez. Ezkabik arras bisaia ederra zuen. Erregeen alabari arras gustatzen zitzaioen. Bazkal ondo guziez Ezkabi gaten zen pausatzerat bethi arbola beraren azpirat. Erregeen alabak ikhusten ahal zuen bere gelako leihotik. Ikhusten zuen egun guziez han eta iduritzen zitzaioen bazela argitasun bat han. Ikusi behar duela zer den, badoha eta ikhusten du mokanesaren azpian zerbeit urria bezala distiratzen.

Zenbeit egunen buruan erraten du bere aitari Ezkabiakin behar duela ezkondu. Aitak erraten dio ezetz. Alabak baietz, belarra janen badu ere, harekin iñen dela. Ezkontzen da beraz. Aitak ez dio ematen ontasun ttiki ttiki bat bertzerik, desertuan, urrun eta han bizi dire baratzekariak salduz eta Ezkabiri ilia handitzen zaioenian, hura salduz.

Aditzen dute egun batez erregeek gerla bat egin behar duela. Ezkabik erraten dio bere emaztiari gan behar duela bere aitaren ganat eta erran behar dingoela gan nahi lukela Ezkabik ere gerlarat. Badoha bere aitaren ganat eta erraten dio nola haren senharrak gan nahi duen gerlarat. Aitak erraten dio:

—Zertako dugu hura? Ez daki zizari hiltzen bertzerik. Ez dugu haren beharrik.

Bazen han jeneral xahar bat. Erraten dio:

—Nahi badu ethorri, ez zazula gibela. Bat gehiago.

Eta gure Ezkabi arribatzen da. Ematen diote zamari xahar bat maingua, doi doia zagoen xutikan. Ezpata bat dena erdoilduba, arropa itsusi batzuek eta hala partitzen da. Bide piska bat in orduko erortzen da zaldi hura eta ez du nahi gehiago zutitu. Han zagoen beraz tristeki ez jakinez zer in.

Agertzen zaio berritz atxo hura eta erraten diozka bere malhurrak.

—Hori bertzerik ez bada, ez da deusik.

Eta ematen dio zamari eder bat, arropa eder batzuek, ezpata eder bat eta anpolla bat hillak piztuko duena. Eta erraten dio irabaziko dutela gerla hura laster.

Lehen, azken beitzen gure Ezkabi, orai, denak pasaturikan badoha lehenbizi. Atxoak erran bezala zenbeit tiro tiratu onduan etsaiak izitu eta badohaz iyessi eta Ezkabi ederki beztitua beitzen eta zamari eder bat beitzuen ere harekin, iten dituzte antolamenduak eta Ezkabik berekin hartzen ditu paperak eta badoha bere etxerat.



Handik zenbeit denboraren buruban aditzen dute erregek ematen duela bazkari handi bat eta izanen direla bestak kortean. Egortzen du bere emaztea erraterat bere aitari iyan nahi lukeen egur garraioko eta bertze zerbeit lanetako zuazin lagun, egun hartako. Aitak erraten dio ezetz, badirela aski jende. Ez dutela nihoren beharrik.

Lehen bezela, jeneral zahar harek erran zuen uzteko bada ethortzerat, laguntza inen dutela heiek ere eta heldu dire. Arribatu eta ematen dire biak lañian.

Ungi bazkaldu direnean hasten dire jaun guziak beren historiguaren kondatzen, edo beren balentriak. Ezkabi han zabillan heien ingurutan. Hori aditzen duenian erraten diote harek ere balukeela historigua kondatzeko.

—Bai, hik erranen duk zenbat xixari hil dukan. Ez! Ez! Ez dik balio! Jeneral zahar harek erraten dio:

—Nork daki zer erranen duen. Aditu behar dugu.

Eta erregek uzten du orduan. Erraten dio Ezkabik:

—Ni hasten naizenian mintzatzen nehork ez du deusik erran behar, eta erraten duena, hilla izanen da nere ezpatarekin.

Hasten denian bere emazteak erraten dio, ematean buru gañean kolpe bat zeñek kentzen eta etxatzen beitu Ezkabiren mokanesa. Denek ikusten dute orduan haren buru baliosa eta oraino haren bisaia ederrago egiten zen.

—Hik zer dakik?

Hori erran orduko hiltzen du bere emaztea. Hasten da kondatzen azkeneko gerlan zer pasatu zen. Nehork ez zakien harek bezen ungi, zeren Ezkabi beitzen lehenbizi eta harek beitzituen paper guziak. Irakusten ditu jaun hek guziera. Arrituak dire harek zenbat gauza in duen gerla hartan eta ikhusten dute erraten dituenak egiak direla zeren paperak han dituen.

Finitu duenean hartzen du bere anpolla eta ematen dio bizia bere emazteari. Denak arritubak dire harek egin duen obra ederraz eta ikhusten dute gizon miragarria dela hura bere hille urrearekin eta bisaiya ederrarekin. Errege bera ukitua da eta erraten dio Ezkabiri erregek, bere buru gañetik kendu ta bere korua:

—Nik bañion obekiago irabazia duzu.

Eta ematen dio buru gañian. Ederra zen gogotik korona harekin. Ez ziren gan gehiago beren desertuko etxe ttikirat. Kortean bizi izan ziren ederki. Ekhar arazi zuten ere bere ama.

Eta ungi bizi izan baitziren, ungil hil ziren.

## ARRANTZALEA ETA BERE SEMEAK

Asko munduan bezala bazen arrantzale bat. Bizi zen bere andrearekin. Gan zen egun batez arrantzarat. Atzematen du arraño eder bat (denbora hartan bestiak eta gauza guziak mintzatzen ziren) zeñak erraten beitiio:

—Utz nazak! Utz nazak othoi bizia. Emanen haut nahi dukan guzia.

Eta gizon gaizo harek uzten dio bizia eta badoha etxerat bertze deus arraño atzeman gabe. Andriak arribatzen denian galdetzen dio non duen bere arrantza. Erraten dio nola ez duen arraño bat bertzerik atzeman eta othoiztu dubela bizirik uztea eta utzi duela urean.

Emazteak erraten dio iyan bada burutikan in zaioen arraño atzeman eta gibelerat uztea. Zer nahi erraten dio, asto handika.

Biharamunian badoha berritz ere arrantzarat eta fortunaz arraño bera heldu zai. Erraten dio berritz ere uzteko bizia. Gizonak erraten dio ezetz, emazteak xahutu duela bezperan. Arrañoak erraten dio emanen dioela nahi duen bezenbat diru, uztekotan eta gure arrantzaliak uzten dio berritz ere eta badago oraino, bañian ez zai. deus heldu.

Badoha berritz ere etxerat deus gabe. Emaztea fureatzen da ikhustean ez duela deusik hartzen. Ematen ziguen diruba bañian ez zen kontent. Erraten ziguen senharrari, arraño hura behar zuela ekarri.

Badoha orañoon hirugarren aldiko arrantzarat. Heldu zai. orañoon arraño hura bera. Erraten dio uzteko urean bañian gure gizonak ez du nahi, emazteak xahutu duela bezperan ere eta ereman behar duela etxerat. Arrañoak erraten dio:

—E bien! Etxerat erematekotz erranen zaitut nola beharko nauzuen partitu. Emanen diozu buztana xakurrari, buruba beorrari eta trunkua zure emazteari. Eta denboraren buruan zure emazteak eginen ditu hiru seme elkar iduri iduriak. Behorrak hiru beoka, hiruak igualak eta potzuak hiru potzo igual igualak eta deus malurrikan arribatzen bazaiote haur hekiera, etxe gibellian den putzuak irakituko du.

Arrañoak erran bezala emazteak iten ditu hiru seme ederrak gogotik eta arras elkarri iduriak, beorak hiru beoka, potzuak hiru potzokume arras igualak. Haurrak handitu direnean, batek erraten du bere burrasueri gan nahi lukela munduz mundu. Ez zuten nahiko burrasuek bañian halako desira zuen, uzten dute azkenian. Ematen diote ahal bezenbat



diru. Hartzen du zaldi bat, potzo bat kuriosa gogotik eta ezpata bat. Eta partitzen da.

Gan, gan, gan, eta badoha urrun. Arribatzen da hiri baterat eta jausten da ostatu batean. Han hanitz mintzo zen mundu guzia tristeki. Galdetzen du zer den. Erraten diote nola duten aspaldian heren suge bat mendian eta egun guzietz sortean tiratzen dutela nor ganen den harenganat. Zeren presuna bat behar baitu egun guzietz. Eta egun hartan erregeren alaba erori zen sortean. Denak penatuak ziren.

Biharamunian goizik gan behar zuen printzesa harek mendirat. Gure mutillak hartzen du bere beorra, bere potzua eta ezpata, eta partitzen da hura bañion goizago. Gordia egotu zen, printzesa hura bera utzi zuten arte. Ateratzen zaio gure mutilla. Erraten dio printzesak non dabillan. Duala berehala beheiti. Bertzenaz hura ere jana izanen dela. Aski dela batekin eta othoizten duela duala beheiti.

Bañian gure mutilak ez zuen nahi. Entsaiaitu nahi duela iyan iñen duen zerbeit. Horrekin batean aditzen dute txistu miñ batzuek eta arribatzen da horrekin batean heren sugea. Mutilak erraten dio potzuari:

—In zak hire eginbidea!

Xakurra saltatzen zaio sugearen gañerat eta atxikitzen du. Mutillak hartzen du bere ezpata eta pikatzen diozka zazpi buruak, ahal bezala. Hori iñ onduan kentzen diozkate buru hekien mihiak, ematen ditu bere zarpan. Printzesa harek bazituen zazpi arropa, batzuek bertzeak bezin ederrak. Eta hartzen ditu zazpitarik puska bana. Printzesak ez daki zer egin erremesiatzeko. Mutiko hura nahi du berekin ereman bere etxerat. Bañian mutikuak ez du nahi eta badoha bere ostaturat.

Erregek erraten du suge hura hil duenak irabazi duela haren erresumaren erdia eta haren alaba. Ager dadiela. Ez da gure mutikoa batere agertzen. Bañian ikazkin batek mendian pasatzean atzematen ditu zazpi buru hek eta presentatzen da erregeren aintzinerat, harek hil balu bezela sugea. Printzesak ez du ezagutzen. Erraten du ez dela harek salbatua. Bañian ez beitzen ageri bertze nihor, harekin ezkontzerat zuan. Besta ederrak in behar zituzten eta ezkontza egiterat zuan. Noiz eta printzesak irakusten beiti bere aitari, urrun, hura salbatu zuena.

Erregek ez zuen nahi siñetsi. Ekhar arazten dute eta erraten diote ikazkinari irakusteko sugearen buruak. Irakusten ditu hausartzea handi batekin. Bañian gure mutikoak erraten dio idekitzeko agoak. Idekitzen ditu eta agoek ez dute mihirik. Orduan hil zituenak agertzen ditu zazpi mihiak eta printzesaren zazpi arropa puskek eta seguratuak ziren harek hil zuela.

Erretzen dute ikazkina plazaren erdian. Mutiko hura ezkontzen da printzesarekin eta egiten dituzte besta handi eta eder batzuek, zeren mundu guzia salbatu beitzuen suge izigarri hartarik.

Arratsean gan zirenean bere gelarat, emaztea eman zen bere otoi-tzaren egiten. Esposa eman zen leihotikan beira eta arritzen da ikhustea illargi xuri batekin jauregi bat superra oraino ikusi ez zuena. Galdetzen dio bere emazteari zer zen hura. Emazteak erraten dio jauregi hartarik nihor ez dela hurbiltzen. Harat gaten diren guziak han gelditzen direla.

Erraten dio senharrak gan behar duela. Emazteak ez du utzi nahi. Bañian halako desira du, bere zamaria eta potzua hartu eta badoha. Badabila billa, billa. Ez du atzematen aterik. Azkenian atzematen du bat, erdi gordia eta tiki tiki. Jotzen du. Heldu zaio emazteki zahar zahar bat. Galdetzen dio zer nahi duen. Erraten dio ikusi duela jauregi hura, hain ederra kanpoz. Kurios zela barnia ikustia.

Sar arazten du barnerat. Ikhusten du mahain bat superki emana. Ez zen han ez zenik. Emazteki harek ofreitzen dio zerbeit hartzia. Erraten dio ez duela beharrik. Bañian hainbertze egiten dio non hartzen beitu zerbeit. Jan orduko lehen poxia, billakaturia da mustro izigarri bat eta nihondik ezin athera ditake etxe hartarik.

Ura ematen da irakitzen haren etxean arrañoak erran bezala. Etxeko guziak tristatzen dire zerbeit malur arribatu dela hekien semeari. Erraten diote seme batek, partitu nahi duela kusian bere anaiaeren laguntzerat. Tristatzen dire etxeokak, bañan uzten dute partitzerat. Hartzen du zamari bat, xakur bat, ematen diote aita eta amak ahal zuten bezenbat diru eta partitzen da.

Badoha gan, gan, gan. Eta hala beharra, ostatu bererat arribatzen da. Han ezagutzen dute. Ematen dute parte erregeri han dela heien jauna, zeren bazter guzietan billa ibilliak beitziren. Heldu zaiozka kortetikan billa. Uzten du egiterat nahi duten bezala. Ematen dute afari eder bat eta printzesarekin badoha haren gelarat.

Lehen bezala printzesa ematen da othoitzian. Mutiko hura ematen da leihotik beira eta ikhusten du palazio hura. Galdetzen dio zer den gauza eder hura. Erraten dio iyan ez dakien bada zer pasatu den han. Harat gaten direnak ez direla ethortzen. Erraten dio gan nahi duela bada ikhusterat. Emazteak erraten dio iyan bada lehen bezala iñ nahi duen. Ez gateko othoi. Bañian deusek ez zuen geldi araziko. Eta partitzen da bere zaldi eta potzuekin.

Bertzea bezala badabilla bira bira nihon atherik atzeman gabe. Azkenian ikhusten du tiki tiki bat, erdi gordia. Jotzen du. Heldu zaio



emazteki xahar bat. Erraten dio zer nahi duen. Halako ederra ikusi duela jauregi hura kanpoaz, barnez ikhusteko gutizia lukeela. Sar dadiela. Uzten ditu bere zaldia eta bere potzua athean eta badoha. Ikhusten du mahain bat superki emana. Ezin erran zitakeen zer zen eskas. Denetarikan bazen. Erraten dio jateko eta jateko zerbeit. Ez zuen nahi, bañian azkenian hartzen du zerbeit pehesekeri.

Lehenbiziko poxiñua jan orduko bilakatua da munstro izigarri bat, nihondik ezin athera ditake kanporat. Bere etxeko ura ematen da berriz irakitzen. Konprenitzen dute malur bat arribatu zaiola bertze anaiari.

Hirugarrenak erraten du gan behar duela lehen bai lehen. Ez zuten utzi nahi burrasuek. Bañian erraten zioten harek salbatuko zituela naski eta uzteko gaterat. Ematen diote ahal bezenbat diru. Hartzen du zaldi bat, potzua eta badoha, gan, gan, gan.

Hura ere jausten da bertze anaiak gan ziren ostatu bererat. Ezagutzen dute. Berehala parte ematen dute erregeri han dela hekien jaun gaztea. Heldu zaiozka berehala billa. Iten dituzte bozkarioz besta ederrak, ustez eta bethi lehenbiziko beren jauna zutela.

Arratsean badoha printzesarekin haren gelarat. Ematen da printzesa arratseko othoitza egiten. Eta gure esposa, ikusi behar dituela orainon bestak, ematen da leihotik. Ikhusten du harek ere jauregi eder hura. Galdetzen dio bere emazteari zer den etxe eder hura. Erraten dio:

—Ez dakizu zer den? Nihor ezin ethorria beita handik! Zuk badakizu zer gertatzen den han.

Erraten dio:

—Gan nahi nuke ikhustera.

Ez zuen utzi nahi printzesak. Bañian badoha aitzina. Hartzen du zaldia eta potzua eta partitzen da. Badabilla billa billa inguruban athea ezin atzemanaz. Agertzen zaio atxo bat. Erraten dio zer pentsatzen duen han ibiltzea. Harat gaten diren guziak han gelditzen direla. Barne hartarat gan nahi zuela ikhusteko zer pasatzen zen. Ematen dio atxo harek orduan uso bat jateko prest presta eta erraten dio:

—Barne ortan bada atxo bat. Nahiko zeitu bortxatu jaterat, bañian, zuhur baduzu, ez jan. Irakutsiko diozu zarpan duzun usoa sobratua zure oturuntzatik eta behar diozu hartarikan jan arazi eta izanen duzu haren gañean podore guzia.

Athea atzematen duenian jotzen du. Heldu zaio atso hura. Erraten dio zer nahi duen. Ikhusi nahi lukela etxe eder hura soilki. Sar arazten du. Eta hartzen du potzua berekin barnerat. Ikhusten du mahain eder hura. Bortzatzen du zerbeit jateko. Bañian erraten dio nihondik ez duela posi-

ble. Baduela orainon bere zarpan uso bat, ezin janez gehiago altxatua, eta harek jan behar duela hartarik. Ez du nahi atsoak. Bañian bortxatzen du eta jaten du azkenian.

Galdetzen dio zer egin dituen haren anaiak. Erraten dio ez dakiela zer erran nahi duen. Bortxatzen du eta erraten dio emazteki zaharrari, bere xakurraz ito arazten duela ez badu erran nahi. Hala bortxatzen du eta irakusten diozka mustro izigarri batzuek. Erraten dio eman detzala lehen ziren bezala, bertzenaz malur izanen duela. Emateko kontu. Noizpeit ematen ditu bada lehen bezala bai eta ere hekien zaldiak eta potzua eta badohazi denak erregeren etxerat. Harritzen dire ikhustea hiru jaunak elkar iduriak. Galdetzen diote printzesari zoin den haren jauna. Bañian gaxuak ezin ezagut zezakeen zeren hiruak elkar iduriak beitziren. Azkenian sugea hil zuenak deklaratu zuen hura zela haren esposa.

Iten dituzte besta handiak. Ematen diote bere anaieri dirua franko berentzat eta beren burrasoentzat eta partitzen dire. Erre zuten emazteki hura plazaren erdian eta jauregi eder hura jaun andre esposentzat izatu zen. Urus bizi izan zen kortean eta ungi bizi izan bazen, ungi hil zen.





## TABAKIERA

Asko munduan bezala bazen mutiko bat. Biaieta zuan eta bazualarik atzematen du tabakiera bat. Idekitzen du eta erraten dio tabakierak:

—Ke kieres.

Izitzen da eta sartzen du fite bere zarparat. Uruski ez zuen botatu.

Badoha gan, gan, gan eta erraten du bere beithan:

—Berritz erraten banau «Ke kieres» jakiñen dut zer erran.

Artzen du bere tabakiera eta idekitzen du eta berritz erraten dio:

—Ke kieres.

Mutillak erraten dio:

—Ene xapela urrez bete.

Eta betetzen zaiyo. Xoratuba da gure mutilla ez duela gehiago deusen eskasik izanen.

Badoha, gan, gan, gan eta oian batzuek pasatu eta arribatzen da jauregi eder batean. Errege han egoten zen. Badoa bira, bira, bira aire ausart batekin denetarat beira. Erregek erraten dio non dabillan.

—Zure xatoaren ikusten. Naiago nuke banu nik ere olako jauregi bat.

Mutilla badago ixil ixila. Arratsa ethorri denian gure mutillak artzen du bere tabakiera eta erraten dio:

—Ke kieres?

—In zak hemen berian xato bat, latak urrez, tellak diamantez eta gañeratiko furnisment guziak urrez eta zillarrez.

Erran orduko ikhusten du erregearen etxearen aintzinian, harek galdetu bezalako xato bat. Errege jeikitzen denian arrituba da etxe zoragarri hura ikhustia. Begiak athera nahi zituen iduzkiaren argiarekin. Neskato guziak ere han zagotzin hari beira.

Errege badohako eta erraten dio hura gizon podore handitakua dela eta behar duela hekien etxerat ethorri edo elkarrekin bizi. Baduela alaba bat ere eta ezkonduko direla. Erregek erran bezala gertatzen da eta denak badoazi etxe zoragarri hartarat. Ezkontzen da erregeren alabarekin eta bizi ziren urus.

Erregeren emazteak bazuen jelsia handi bat mutiko harentzat eta bere alabarentzat. Bazakien bere alabarengatik nola zuten tabakier hura eta nahi zituzten guziak egiten zituztela. Bere zerbitzari batekin aditu eta ensaiatu behar dutela hekier ebastia. Ungi ematen dute kontu nun hal-

tzatzen duten arratsetan tabakier hura. Noizbeit bada ikhusi zuten eta gabaren erditan lo zagotzilarik, artzen diote neskato harek eta erematen bere andre zaharrari. Zer loria harentzat!

Idekitzen du eta erraten dio:

—Ke kieres?

—Behar nauzu ereman nere senharrarekin, nere zerbitzari guziekin, etxe eder huntan, itsaso gorritz bertze alde eta nere alaba eta bere senharrara, hemen dagozila.

Atzartzen direnian jaun andre gazteak, atzematen dute beren burua jauregi zaharrean eta beren tabakiera falta. Bilhatzen dute, bañian inutil zen. Gizon gazteak ez du egon nahi memento bat etxian. Gan behar duela berehala bere xatoa eta tabakier haren billa.

Hartzen du zaldi bat eta harek altxa ahala urre eta badoha gan, gan, gan. Billatu zituen ingurutako hiri guziak. Bere diruak finitu arte ibili zen. Bañean ez zuen nihon atzematen. Bañean beti bazabillan bere zamaria ahal bezela haziz eta bera eske.

Norbeitek erraten dio gan behar duela ilhargiaren ganat. Harek iten duela bidaia bat aski edatuba eta harek gidatuko duela.

Badoha gan, gan, gan eta noizpeit arribatzen da. Atzematen du emazteki xahar bat. Erraten dio:

—Non zabiltza hemen? Nere semiak jaten ditu arraza guziak eta zuhur baduzu, hura ethorri gabe obe duzu gan.

Erraten diozka bere malurrak, nola zuen tabakier podoros bat eta ebatsi diotela. Orain, deus gabe dela, bere emaztiarengatik urrun eta denez gabetuba. Eta haren semeak naski ikhusi duela bere biaieta haren palazioa, latak urrez, tellak diamantez eta gañeatikuak urrez eta zillarrez. Horrekin batean agertzen da ilhargia. Erraten dio bere amari sentitzen duela norbeit. Amak erraten dio nola den gizon malurus bat denak galdutak, harenganat heldu dela. Harek gidatuko duelakuan. Erraten dio ager dadiela. Heldu da eta galdetzen dio iyan ez duen bada ikhusi latak urrez, tellak diamantez eta gañeratekuak urrez eta zillarrez dituen etxe bat. Nola kendu dioten. Erraten dio ezetz, bañion harek bañion bide handiyaguak eta edadura geiago egiten dituela iduzkiak eta obe duela harenganat gan.

Badoha beraz, gan, gan, gan, bere zaldia ahal bezala aziz eta bera eske. Arribatzen da noizpeit iduzkiaren etxerat. Atzematen du atxo xahar bat. Erraten dio non dabillan. Duala bada handik, iyan ez dakien haren semeak giristiño guziak jaten dituela.

Erraten dio ezetz, ez duela gan nahi. Haren malurus dela, igual zaioela hilkan ere. Nola galdu dituen denak. Bazuela etxe bat, nihon ez beita



halakorik, latak urrez, tellak diamantez eta gañeatiko guziak urrez eta zilarrrez, eta haren billa dabillala harenbertze denbora hartan. Ez dela hura bezin gizon malurusik.

Gordetzen du emazteki harek. Arribatzen da iduzkia eta erraten dio bere amari sentitzen duela giristiño usaiña eta jan behar duela. Amak erraten dio nola gizon malurus bat den, denak galdurik haren mintzatzera etorria eta urrikaltzeko hartaz. Ager arazteko beraz.

Heldu da mutilla eta erraten dio iduzkiari iyan bada ez duen ikusi etxe bat niyon parerik ez duena, latak urrez, tellak diamantez eta gañeatikuak urrez eta zillarrez. Iduzkiak erraten dio ezetz. Bañean egoak atzematen dituela harek ezin ikusitako gauzak. Zoko guzietan sartzen dela hura. Eta nihork jakitekotz, harek jakiñen duela.

Partitzen da beraz gure gaxua bere zaldiarekin ahal bezala hura aziz eta bera eske. Arribatzen da egoaren etxerat noizpeit. Atzematen du emazteki xahar bat hari dela ur garraiyoen barrika hanitzen betetzen. Erraten dio zer pentsatzen duen harat ethortzea, haren semeak denak jaten dituela. Arribatuko dela egarriak furian eta kontu eman behar dela hari. Erraten dio igual zaiola janik ere, haren malurus dela, ez dela deusen beldur.

Kondatzen dio nola etxe eder bat parerik ez beitu, kendu dioten eta harekin bere aberastasunak. Bere emaztea abandonaturikan, hura ezin atzeman ez dabillala eta haren kontsultatzerat heldu dela, iduzkiak egorririk. Gorde arazten du eskaleer azpian eta arribatzen da egua, etxea erro-tik ereman nahi balu bezala, egarria. Edaten asi baiñon lehenago sentizen du giristino arraza. Erraten dio bere amari, athera dezan gordea duena. Haren jaten hasi behar duela.

Amak erraten dio jan eta edan dezala aintzinian dituenak eta kondatzen diozka gizon haren malurrak, nola iduzkiak utzi dioen bizia haren kontsultatzerat etortzeko. Orduan ekhar arazten du gizon hura. Erraten dio nola dabillan etxe bat atzeman nahiz eta nihork jakitekotz harek jakinen duela. Ebatsi diotela bere etxea, zeñak beitu latak urrez, tellak diamantez eta ganeatikoak urrez eta zilarrrez. Iyan ez duen bada nihon ikusi.

Erraten dio:

—Ba, ba. Egungo egun guzia, haren ganean pasatu dut ezin tella bat hari atheratuz.

—Erraten baninduzu non den!

Erraten dio itsaso gorritz bertze alde dela, ungi urrun. Gure gizonak hori aditu zuenean, ez zuen izitzen bideak. Hainbertze egin zuen jadane-kol! Partitzen da beraz eta noizpeit arribatzen da iri hartarat. Galdetzen du

iyani senti duten nihon baratze zain tokirikan. Erraten diote xatuan partitua dutela eta naski han har lezaketela. Badoha eta ezagutzen du bere etxea. Pentsa haren loria eta bozkarigua.

Galdetzen du iyan behar duten baratzezainik. Erraten diote baietz. Ungi kontent zen gure mutilla. Zenbeit denbora pasatzen ditu hala hala. Zerbitzari batekin mintzo da nagusien aberastasunez eta heiek zuten podoriaz. Hala akort zen neskatxa harekin. Ungi zirikatzen zuen hari ateratzeko tabakieraren historia, non behin erraten beitu ungi ikhusi nahi lukeela. Arrats batez ekhartzen dio ikhusterat eta gure mutillak ungi kontu ematen du non gordetzen duen bere etxekandarearen gelan. Gabaz, mundu guzia lo delarik, badoha eta hartzen du bere tabakiera. Konprenitzen duzue zer loriarekin ideki zuen. Erran zioenian:

—Ke kieres?

—Eraman nazak xato hunekin nere lehengo plazarat eta errege eta bere andrea beren schi guziekin ito arazkik itsaso gorri hortan.

Harek erran orduko eramaten du bere emaztearenganat eta han bizi izan ziren urus eta bertzeak sekulako itsasuaren barnean hil ziren.



## ERRUA

Asko munduan bezala bazen ama bat bere semearekin. Mutil hura errotzat zeukaten bañian ez zen hala. Pobriak ziren eta deusikan gabe gelditzerat zoazin. Beitzuten xerri bat, amak erraten dio:

—Hobe duk gan merkaturat xerri hunen saltzerat. Ez diagu gehiago deusik. Bañian eginzak diru.

Erraten dio:

—Bai, ama, bai.

Eta partitzen da. Zubi baten ganean zelarik, bi jaun gaztek, herri hartakuak, erraten dute elkarri:

—Behar diagu jostatu mutil horrekin. Nik atzemanen diat lehenbizi, eta galdetuko zioiat norat duan asto harekin. Erranen niak ez dela astua eta erranen zioiat lehenbizi atzematzen dugun gizona iñen dugula juje eta harek erraten duena izanen dela. Erraten badu xerria dela, mutikuarentzat izanen dela xerria. Bertzenaz, harentzat.

Iten dute erran bezala. Badoha bat eta erraten dio:

—Norat hua asto horrekin?

Erraten dio:

—Ez da astoa. Xerria da.

—Zozua haiz? Astua.

—Enezat xerria.

—Burua galdu duk?

Ari ziren batek baietz eta bertzeak ezetz. Eta iten dute lehenbizi atzematzen duten gizonak jujatuko duela. Eta astoa baldin bada, jaun gazte harentzat izanen dela astoa, eta xerria baldin bada, mutil harentzat.

Lehenbizi atzematzen duten gizona da jaun gazte haren laguna eta erraten du pentsatzen duzun bezala, astoa dela eta gure mutilla badoha bere etxerat, ez diru eta ez xerri. Amak pena handia zuen. Bañian semeak erraten dio:

—Zaude trankil ama. Ekharriko zaitut diruba franko. Behar duzu gan hauzuko holako etxerat.

Baziren andre gazte bat eta mutil gazte bat etxe aberats hartan. Arras aberatsak ziren. Erraten dio beraz amari galda ditzala andre gazte haren arropa ederrenak presta. Badoha ama. Ematen diozkate. Badoha etxerat eta semea beztitzen zaio arropa eder hekiekin eta partitzen da.

Badoha jaun gazte tronpatu zuen haren jauregiaren ingururat. Eta han zagoen noiz eta zerbitzari batek han ikhusi eta galdetzen dio nola den han baxharrik. Erraten dio nola karrosa malurtu zaiola eta oiñez obligatuba izatu dela hainbertze bide egitera. Zerbitzari harek erraten dio jauna prebenituko duela eta urbil dadiela. Aditu duenian hori jaunak, heldu zaio biderat, sar arazten du barnerat eta bere mahañean emanik iten diozkate besta ederrak. Arratsean ohore gehiago iteko, jaunak erraten dio bere gelan bazirela bi oge.

Badoha gure neskatxa eta gelan sartzean begistatu zuen makil eder bat. Bertze sehi guziak aspaldi ogeat ganak ziren. Hekiek egotu ziren luze, historio kondatzen, zeren beitzakien zer egin gogo zuen. Eta ogeat gan zenian hartzen du makil lodi hura eta ematen diozka besuak eman ahala jaunari, galdetzen ziguelarik:

—Non duk nere xerria?

—Hua! Hartzak, hartzak.

—Ez duk aski oraiño.

—Emanen deat moltsa bat urre.

—Ez duk aski! Oraiño behar ditiat bertze biga.

Eta bethi zinpi eta zanpa umatzen zuen gure jauna. Bere hiru moltsa urre izan zituenian, partitzen da gure mutilla bere etxerat. Gaba hartan berian arribatzen da bere amarenganat eta erraten dio:

—Ikhusten duzu, ama, egia erran nuben ekharriko nubela diru hanitz. Horizu.

Ama lorietan dago. Semeak erraten dio:

—Gan behar duzu arroparen turnatzerat eta galdetuko dituzu semearen arropa ederrenak. Eta ematen dio present bat etxe hartarat eremateko.

Amak ekhartzen dio jaunen beztimenta. Ederki beztitu eta badoha gure mutilla makil pulit bat hartu eta miriku bat gisa etxearen ingurutarat argiko. Jaun harek erreprotxu hanitz egin zuen bere zerbitzariari zeren ez zuten aditu haren oiñuak eta marraskak. Bañian urrunxko ziren eta duda gabe lo gogorra. Preseski zerbitzari bat ilki zen lasterka. Galdetzen dio jaun harek norat duan. Erraten dio nola bezperan ohoñ bat andrez beztitua ethorri den, jauna dena funditua utzi eta eskapatu den eta mirikuketa duala.

Gure jaunak erraten dio:

—Hala naiz eta nahi baduzu eginen zaitut atsegiña zure jaunaren bisitatzeko.



Zerbitzariak nahi zuen segurki. Badoha jaunari erraterat eta sar arazten dute. Ungi etsaminatzen du.

—Ez da bertze erremediorik jaun hunen sendatzeko, zeren ainitz funditua beita. Gan behar duzube guziek horen baten bidetan den iturri hartarat eta zuetarik bakotxak agoaren bete ekarri artaz freskatzeko eta orduan sendatua izanen da. Ori da erremedio bakarra.

Ukitzen ditu haren miñak eta jaun hura, ai eta ai hari zen beti. Mutikoak erraten dio artzean lehengo makil lodi hura:

—Non duk nire xerria?

—Emanen haut nahi dukan guzia, bañan utz nazak bizia.

Agintzen diozka hiru mando karga urre arratsa gabe eta gure mutikoa kontent gan zen bere etxerat. Amari kondatzen dio zenbat urre izanen duen orañon. Egortzen du arropen turnatzerat sari ederrekin.

Schiak arribatu zirenian, unatuak, aguan ura ezin atxikiz, nagusia pleñuz ai eta ai eta hekiek deuseri kasurik egin gabe, botatu zioten denek beren agoko ura, atsegin hartu baitzuten.

Ama semeak abiatzen dire afariaren moldatzen mandozaiñentzat. Nahi zituzten ungi errezebitu. Arribatzen direnian ematen diote ungi jaterat eta obeki edaterat. Ogeak preparatu zituzteñean eman zituzten mihi-siaren azpian arroltziak eta erran zioten gizon hekieri, ogeat gatian ungi kontu emateko ogeak ez zikintzetik. Badohazi ogerat eta goiz nahi zuten partitu. Jeikitzen dire beraz argia gabe eta ikhusten dituzte penarekin ogeak zikiñiak. Ez zakiten zer egin.

Eta nagusiak gañean iña zuen xillo bat aditzeko zer erraten zuten. Aditu dituenian hekien hitzak, hasten da oiuka eta gure mandozaiñak eskapatzen dire athorra has beren mandoak utzirik. Badohazi baratzerat eta gordetzen dire aza tartean zoiñak ungi ederrak beitziren eta izotzaz ungi xurituak. Han dagozilarik kokoriko, gaba beitzen, heldu dire ohoniak aza ebasterat. Hari dire bat uki eta bertzea uki eta mandozain baten burua ukitzean erraten du ohoinak:

—Huna! huna bat gogorra! Pikatzen diat.

Xutitzen da horrekin batean mandozaina, badoha bere lagunekin etxerat lasterka. Ohoinak ere gan ziren beren azak han utzirik eta gure zorua bizi izan zen aberats bere amarekin. Ungi bizi baziren ungi hil ziren.

## BELTZUNTZE ETA HERENSUGEA

Denboraz Kanboko ingurutan kausitzen zen jauregi bat Beltzuntz deitzen zena. Jauregiko nagusiak bazuen seme bat bakarra. Nahiz mundua ezagut zezan egorri zuen munduz mundu. Gan zen urrun, urrun, urrun eta heldu zen egun batez iri handi batetarat zeintan kausitu beitzuen jende oste handi bat bildua baldarapezaren borta aintziñean.

Galde egin zuen zer gertatzen zen eta eman zioten errepusta nola herensuge bat etorri zen inguruko mendi baten gainerat eta bere ateraldi guzietan hedatzen zuben bazter guzietan beldurra eta izialdura. Erran zioten zenbat azienda, haur, gizon ereman zituben bere harperat eta dudarik gabe zerbitz arazi bere hazkurritzat.

Bazter guziak lotsatuak ziren hainbertzetaraino non lanetarat ere ez baitziren hiri hartako gizonak ateratzen ahal. Berri horiek guziak aditurik Beltzuntzeko premua pentsaketan dago eta odol handitik ateratzen zelakotz, iduritzen zaio bere izenak manatzen dioela ere ahal duben guzia egi-tea herri hunen libratzeko.

Entzun gabe erraten ziozkaten gauza harrigarriak. Hartzen du xedea herensugearen bentzutzeko eta bederen harekin bere indar guzien neurtzeko. Harturik bere segida guzia, badoa herensugeak bere egoitatzat hautatu duben mendiko alderat eta berekin harturik bere schiak, manatzen diote esteka dezaten gerritik soka azkar batekin eta eginik bere adioak segidante guziei egortzen ditu heiekin bere oroitzapen guziak bere aita ameri, bere buruba ematen du Jainkoaren eskubetan.

Emaiten diote berekin ziren presunei ordena, utz dezaten soka kurritzerat librokari sugearekin borroka ariko zeno, baina tira zezaten ahal bezenbat ikusiko zutenean indarrak gutitzen zitzaizkola eta lanjer zenbeit handi zubenean.

Heltzen da mendiko harperaino ezkuban dubelarik bere ezpata zorrotza. Sentiturik norbeit heltzen zela bere harpeko alderat, heren sugea ateratzen da bazter guziak izitzen dituztelarik bere histu lazgarriek. Beltzuntzeko aitoren semeak lotsatu gabe jotzen du bere ezpata handiaz bere aintzinean duben mustro izigarria eta eror arazten du herensugearen zazpi buruetarik bat.

Kolpatuba azkarki nahi du mustroak bere etsaia iretsi, baina Beltzuntzen sehiek ikusirik beren nausiak heren sugea bigarren aldian kolpatu zubela eta zazpi buruetarik hiru pikatu ziozkala, ikusirik zer lan-



jer handitan zen beren nausia, tiratu zuten soka eta mustroaren aztaparrerarik atera Beltzuntzen semea. Bainan gure gizona ez zen kontent ikusten zubelakotz bere etsaia bere harperat sartzen.

Bazter guziak bere orroaz iziturik atxikitzen zituben herensugeak. Pentsatzen zuten urrundik begira zeuden jendek, orai izanen zela alde baterat edo bertzerat harat hunata. Sekulan baino azkarkiago atakatuba, herensugea ateratzen da eta entsaio guziak eginik alde guzietarik, heren sugeak hartzen du bere etsaia eta bere harperat erematen berekin. Akabo gure gizona. Aditu zutenean Beltzuntzeko aitoren semeko aita amek zer gertatu zen heien semea, nigarrez eta deiarrez ereman nahi zioten etxeari kapeta eta beren dolubaren handitasuna irakusteko, tintarazi zuten jauregi guzia beltzez. Eta horra nondik heldu den Beltzuntzeko izena.

*(Baigorriko Betscheller jauna.*

*Inglesez idatzia da: «Ipui hau oso euskara txarrean da. Iduritzen zaizt frantsesetik edo frantses liburu batetarik itzulita dela». J.V. Ipui hau ez da Webster-en eskuz idatzia.)*

## HAMALAU

Asko munduan bezala baziren ama seme batzuek. Mutiko harek bazuen hamalaur gizonak bezinbat indar, bainan jan behar zuen hamalaur gizonak bezinbat. Pobreak ziren eta hartako, maiz goseak penatzen ziren. Erran zioen egun batez bere amari obe zuela entseiatu noapeit gatea, iyan obekiago atheratuko zen. Ez zuela hala posible irautia. Pena zuela ikhustiaz zenbat gostatzen zitzaioen haren aztea.

Amak penekin kontsentitu zuen haren uztea. Partitu zen. Gan zen, gan, gan, gan. Arribatu zen etxe handi batetarat. Galdetzen du iyan behar duten mutilik. Erraten diote nagusiari galdetuko dutela. Badoha neskatxa. Nagusia heldu da eta erraten dio langilleak enplegatzen dituela komuzki, bañian igual ar lezakeela.

Mutiko harek erraten dio behar duela abisatu hamalaur gizonak bezenbat jaten duela eta lana ere araberan eginen duela. Galdetzen dio zer dakien eginen. Erraten dio badakiela lur lan denetan.

Biharamunian nagusiak erematen du errepera baterat eta erraten dio behar duela pikatu belar peza hura. Erraten du baietz. Eta nagusia badoha. Zortzi orenetan heldu da neskatua gosariarekin. Bazen saski bat gauza. Baziren sei ogi, xingar azpi erdi bat, sei botella arno. Gure mutilla, kontent. Neskatxa harritua da ikusteaz landa guzia pikatua zuela. Badoha nagusiari erraterat. Hura ere loriatua da ikusteaz zer mutil baliosa duen.

Ematen dio bertze landa peza bat pikatzeko. Eguerdi gabe dena botatzen du. Neskatxa heldu da bazkariarekin eta harritua da ikustiaz zenbat lan egin duen. Ekartzen ziguen zazpi ogi, zazpi botella arno eta zenbait xingar. Denak garbitzen ditu.

Nausiak ematen dio berritz bertze landa bat belarra pikatzeko. Arratsa gabe, aise finitzen du. Gure nagusia ungi kontent zen. Ungi ematen ziguen jaterat eta mutila ere lorietan zagoen.

Lana zueno nagusiak ez zuen deusik erraten. Bañian gero ikhusi zuen bere errekolta guziak bere mutillarentzat izanen zituela eta ez zakien nola egin hartaz gabetzeko. Egortzen du oihanerat zoiñetan baitziren alimale izigarri batzuek eta erraten dio handik ekartzeko egurra.

Harat arribatu orduko heldu zaio hartz bat. Hartzen du sudur mizpiretarik. Botatzen du lurrerat eta bihurtzen dio lepua eta ari da aitzina arbola gazte guzien ateratzen. Heldu zaio berritz otso bat. Hartza bezala



hartzen du sudur mizpiretarik, botatzen du lurrerat eta lepua bihurtzen dio.

Arratsian heldu da etxerat. Nagusia harrítua da ikhustiaz gibelerat ethortzen. Eman arazten dio afari on bat. Bañian ez zen kontent zeren arbola gazte guziak ateratu beitzituen. Gabaz ari da nagusia pentsaketan zer egiñen duen bere mutillaz eta egortzen du berritz oihan izigarriagoko batetara agian zerbaít alimalek iretsiko duelakoan.

Gure mutilla badoha berritz ere. Ateratzen du arbola hanitz leherra. Noiz eta heldu beitzaió lehoiñ izigarri bat. Hura ere destruitzen du istant batez. Heldu zaio oraiñon bertze alimale izigarri bat. Hura ere finitzen du.

Arratsean etxerat heldu delarik egiten du bere baitan nagusiak zertako egortzen ote duen holako oihanetarat. Hartaz unatua izan behar duela naski eta egiten du erran behar dioela ganen dela haren etxetik.

Etxian sartzen denian nagusiak ungi errezebitzen du. Ez du konprenitzen nola etorri den gibelerat. Ematen dio ungi afaiterat eta gure mutillak erraten dio hobe duela bertze norapeit gan, ez dela gehiago lanik harentzat.

Pentsazube nola kontent zen nagusia. Ematen dio berehala bere soldata eta partitzen da. Badoha gan, gan, gan, bañian fite bere dirua xahutzen du. Ez zakien zer billaka. Ikhusten ditu bi gizon ur hegian dagozila. Hurbiltzen da hekienganat eta erraten diote gizon hekiek heian nahi dituen bertze alderat pasatu. Erraten diote baietz.

Hartzen ditu biak batean bizkarrean eta gizon heiek ziren Jainko maitea eta Jondoni Petri. Erraten dio gure Jainkoak bidearen erdian:

—Pizua naiz?

—Botatzen zaitut urerat ez baldin bazare ixil ixilla egoten, gosea bainago.

Arras arribatu direnian bertze alderat, erraten dio gure Jainkoak:

—Zer eman behar haut sari?

—Nahi duzuna, bañian emazu fite, gosia bainago arras.

Ematen du zaku bat eta erraten dio:

—Nahi ditukan guziak sartuko dituk zaku hortarat.

Eta badoha gan, gan, gan eta arribatzen da hiri baterat eta bolanjeren baten aintzinian pasatzian senditzen du ogi bero usain bat ungi ona eta erraten diote:

—Sar zaizte nere sakurat.

Eta zakua betetzen zaio.

Badoha oihan zoko batetarat. Uzten ditu bere ogiak eta heldu da berritz ere irirat. Badoha xerriki saltzaile baten aintziñat. Han bazen odolki, xingar, lukainka eta gauza on hanitz. Eta erraten du:

—Sar zaizte nere zakurat.

Eta erran orduko betetzen zaio zakhua. Badoha berritz ere uzterat ogiekin eta heldu da berritz ere karrikarat, ostatu baten aintzinerat eta erraten du:

—Sar zaizte nere zakhurat, —han ziren botolla arno eta edari on guzietari.

Eta zakhua betetzen da.

Badoha bere oihan zokoat eta zenbeit egunen janaria han izan zuen. Bazabillan ase eta pasaia. Egun batez ikhusten ditu neskatxa batzuek nigarrerez. Galdetzen diote zer duten. Erraten diote aita arras eri dutela, galdetzen du heian ikhus dezakeen. Erraten diote baietz.

Badoha eta erraten dio gizon gaixo harek nola emana duen bere arima debruari eta egun hartan duela esperantxa, debrua billa. Ikharetan zagoen beraz. Galdetzen du gure mutillak heian utziko duen oge zokhuan ikhusteko debrua. Erraten dio baietz.

Gordetzen da berriz bere zakuarekin. Istant baten buruan heldu da debrua eta erraten dio gure mutillak:

—Sar adi zakurat.

Eta erran orduko debrua sartzen da. Pentsa gure gizonaren loria. Bere zakuarekien badoha mutilla harripikatzalle batzuetarat eta erraten diote:

—Jo zazue gogotik! Debrua da zaku horren barnean.

Hari dire jo eta jo. Debrua hari zen:

—Ai ai ai! Utz nazazue!

Erraten dio mutillak:

—Ekharriko nazak bada paper bat siñatuba ifernuko debru guziez, ez duzuela gehiago deus dretxorik izanen gizon haren gañean?

Debruak erraten dio baietz. Uzten du gaterat. Istant baten buruan heldu da bere paperrarekin eta mutillak sar arazten du bere zakhuan eta berritz jo arazten harripikatzallez. Erematen dio lehengo gizon hari paper balios hura. Pentsa zazu zoiñen kontent ziren etxe hartan!

Bazabillan kurri, kurri gure mutilla eta hunatu zen mundu huntan eta erran zuen zerurat gan nahi zuela. Badoha gan, gan, gan. Arribatzen da ifernurat eta debruek ikhusi zutenian oraiñon Hamarlaur zela, lasterka atea zerratu zituzten.



Badoha gan, gan, gan. Arribatzen da purgatoriorat. Hek ere lasterka atheak zerratzen zituzten.

Badoha gan, gan, gan. Arribatzen da zerurat. Han atheak zerratuak ziren. Zer egiten du Hamarlaurek? Gako zilotik pasa arazten du bere zakua eta erraten dio zakuaren barnerat gan nahi duela. Erran orduko sartzzen da eta han dago beti ate zokuan.

Ganen zarenian zerurat, emazu ungi kontu, han ikusiko duzu.

*(Catherine Elizondo,  
cf Le Vieux soldat Caballero)*

## AMA ETA BERE SEME ZOZUA

Asko munduan bezala bazen ama bat bere semiarekin. Pobreak beitziren, mutiko hura handitu zenian nahi izan zuen gan munduz mundu. Amak penarekin uzten du. Badoha gan, gan, gan oihan izigarri batzuetan. Arribatzen da etxe eder baterat, galdetzen du iyan behar duten mutillik. Erraten diote baietz, sar dadiela. Eta erraten diote nola gabaz ibiltzen diren jenden arrogatzen eta batzuetan hiltzen, eta iyan ganen den hura ere. Erraten du baietz. Eta gabaren erdian arribatzen da ohoñ nausia bere segidarekin, urrez eta zilarrez kargatua. Eta ibiltzen da luze ohoñ hekiekin, hek bezala egiñez.

Egun batez erraten dio nausiak holako tenorean pasatuko dela jaun aberats bat zaldi ganian, holako tokitan eta hura behar duela arrogatu. Eta ez badu eman nahi gogo onez, hiltzeko.

Gure mutilla asia zen ofizio hartaz. Baiñan erraten dio nagusiar egiñen duela. Badoha beraz gizonaren beira eta ikhusten du arribatzen. Badohakio eta erraten dio:

—Moltsa ala bizia?

Gure jaunak ematen dio bere moltsa eta zituen diru guziak. Bazuen hanitz. Erraten dio ez dela aski. Behar digoela eman orañion bere arropa ederrak eta bere zaldi ederra. Egiten du beraz arropen trukada. Eta jauna badoha, ungi gogotik arropa zahar hekiekin, zeren bizia uzten beitzigoen.

Ohoïn etxerat gateko plazan zer egiten du gure mutillak? Badoha bere diruarekin bere amaren etxerat zaldi gañian. Jende guziak arrituak dire ikhustiaz arribatzen haren laster fortuna eginik. Badoha bere amarenan. Pentsa haren loria. Kondatzen du bere amari nola aberastu den.

Urrun arras pasatu zen gauza hori. Amak erran zuen bertzeri eta arribatu zen berri hori jaun baliaren ganadino. Egortzen du bere mutilla gizon gazte haren etxerat, biharamunian zohala faltarik gabe haren etxerat. Badoha utzirik bere ama nigarretan. Erraten dio jaun balliak konda zezala nola aberastu zen haren laster. Erraten dio urrun zer ofizio egin duen, baiñan ez duela nihor hil.

Erraten dio ez badu gau huntan ebasten haren estauliatik zaldirik ederreña, biharamunian hil araziko duela. Jaun hura hañitz aberatsa zen. Bazuen mutil hañitz eta zaldi hañitz baiñan hiru, ederrak eta baliosak gogotik. Badoha gure mutilla etxerat. Ama kontsolatzen du eta galdetzen dio emateko lehengo arropa zahar zerbeit. Hekiek soñian eman eta, makil



handi bat hartu eta, badoha jaun baliaren etxerat herrestan, agure bat bezala. Jotzen du atea eta galdetzen du gab hartako leihorra. Heldu zaio mutil bat. Erraten dio, ez dioela emanen etxe hartan leihorrik egun hartan. Badohakela aintzinat. Bañian egiten du harenbertze othoitz, bederen utz dezala estaulia zokoan, ez dakiela norat gan.

Uzten du bera sartzerat. Ematen dio lasto puska bat. Gure mutillak aditzen du zer erraten duten. Behar zuten hiru mutilek egon gau erdi arte hiru zaldi hekien gañian eta gaberditan ethorriko ziren bertze hiru mutil hekien plaza artzeko. Gure gizonak zer egiten du? Lo zagozin zaldi gañian. Gaberdi aditu orduko ematen dio kuska bat eta erraten dio:

—Gaberdi duk. Ua ogerat.

Erdi lo badoha gure mutilla ogerat. Bertzeak lo zagozin zaldien gañian. Ematen da gañian: ederrena behesi zuen. Atheak ixil ixila ideki eta badoha trostean gibelerat beiratu gabe. Badoha bere etxerat. Ama loriazten da ikhustia bere semea. Biharamunian badoha merkaturat bere zaldiaren saltzerat.

Jaun ballia jeikitzen denian badoha estauliarat eta ikhusten bere zaldi ederra falta, bi mutillak lo zaldien gañian eta bertzeak lo ogean. Koleran ematen da. Ez zakien zer egin. Egortzen du ama haren etxerat iyan non duen semea. Erraten dio:

—Zaldi saltzerat gana.

Erraten diote jaun balliak galdetzen duela berehala. Ama tristatzen da berritz ere. Erraten dio bere semeari zer erran dioten eta partitzen da. Erraten dio jaun balliak:

—Haizen bezalakoa. Atzo egin duk hire jokoa bañian ez baldin baduk ebasten gure labetik heldu den gabean han diren ogi guziak, hire biziak egin dik.

Jaun balliak billa arazten ditu kontseluko jendeak eta bere adiskide guziak, besta egin behar dutela labe hura guardatzian. Baziren dantzak, musikak, jokoak, argi ederrak eta zernahi libertitze on. Hek guziak labe-ko ate aitzinian.

Zer egiten du gure mutillak? Hartu martellu ttiki bat eta badoha labe gibelerat, zilutzen du eta handik atheratzen ogi guziak. Saski batean hartu eta badoha bere etxerat.

Biharamunian jaun ballia fier zen ez zutela ogirikan ebatsi. Ungi zaindu zutela labeko athea eta egortzen du neskatxa ogi baten billa gosaiteko. Labeko athea idekitzen dutenian ikusten dute iduzkia labearen bertze aldetik. Pentsazu hekien harritzea. Jaun balia kolera gorrian, egortzen

du mutill haren billa. Badohazi, galdetzen diote amari non duen semea. Erraten diote:

—Ogi saltzera gana.

Erraten diote jaun balliaren partez gateko haren ganat ethortzen den bezen laster. Ama gaxo hura berritz ere penatzen da. Semea ethortzen denian iten dio mandatua eta partitzen da. Jaun balliak erraten dio:

—Atzo ere egin dituk hire jokua bañian ez duk akabo. Behar duk heldu den gabean gure ogeko mihisia ebatsi. Bertzenaz hire biziak egin dik.

Badoha bere etxerat eta egiten du bera iduriko portreta bat bere arropa zaharrekin. Eta gaba etorri denian badoha herrestan jaun balliaren etxerat bere portretarekin. Jaun balliak eman zituen gardianoak athe eta leio guzietan sispas eta armekin. Gure mutillak arrimatzen du haga batean bere portreta eta soka bat tiratuz iza arazten du paretara gora. Gardiyek ikusi dutenian gizon bat paretan gora leihorat hurbiltzen, egiten diote tiro eta denak hasten dire oihuka eta bibaka.

Arrabots hartan jaun ballia saltatzen da ogetik, pentsaturikan hil dutela, gan behar duela ikhusterat. Baliatzen da mementu hartaz gure mutilla etxean sartzeko eta badoha jaun balliaren ogerat. Erraten dio:

—Otz eta otz.

Eta hari da beti tira eta tira mihisea bere alde. Dena hartu duenian erraten dio andre hari gan behar duela orañon segurtatzerat iyan ungi lurrean sartu duten. Emazteak erraten ziguen:

—Ago bada hemen. Ethorriko haiz otzak hilla berritz ere.

Badoha eta fite eskapatzen da ahal bezala bere mihisiarekin. Bertzeak hari dire batek bañon bertzeak egin naiago, batek zilua egin, bertziek erreata. Beren panpiña enterratzen dute azkenian eta denak kontent eta fier, han zutela beren gizona.

Jaun ballia badoha ogerat eta emazteak erraten dio:

—Orai bederen egonen zare hemen, ibilli gabe harat hunat nere ozten.

—Ez naiz eta hemen ibili ni!

—Ba, bal istantean ere hemen zinen segurki.

Sartzen da ogean eta ari da bethi mihisia ezin atzemanetz. Azkenian kexatu eta argia pizten du eta ikhusten du mihisia falta dela handik. Pentsa azu hekien kolera. Ez zakiten zer egin. Emazteak erraten zigoen uzteko gizon hura bere gisa, malur gertatuko zitzaioleta. Ez zuen nahi deus aditu.

Egortzen du berritz ere billa eguna ethorri denian. Atzematzen dute ama. Galdetzen diote nun duen semea. Erraten diote:





—Mihise saltzera gana.

Erraten diote egortzeko etortzen denian jaun ballienganat. Eta ama gaxo hura berritz ere tristatzen da hanitz, azkenian ere finituko diotela bere semea. Egortzen du berritz. Jaun balliak erraten dio:

—Oraikuan ez duk eskapurik. Ez baldin baduk nere anaia apheza-ren diru guzia ebasten, hire biziak egin dik.

Erretor zen iri hartan jaun ballien anaia. Arratsa ethorri denian, elizan gordetzen da eta beztitzen da elizako arropa ederrenez handienian. Pizten ditu argi eta lanpa guziak. Eta gaberditan hasten da ezkil guzieren jotzen errepikaz dilindon, dilindondon. Heldu da erretora eta bere neskatua lasterka zer gertatzen den elizan eta ikhusten dute aldare nagusiarren gañetik norbeit. Erraten dio:

—Ahuspe zaite. Ni naiz Jainkoa zure billa etorria. Hil behar duzu. Bañon hil banon lehenago ekarri behar dituzu zure etxean dituzun diru eta aberastasun guziak.

Badoha apheza. Ekartzen ditu guziak. Erematen du ezkila dorriaren puntarat gure apheza eta erraten dio purgatoriotarat gan behar duela eta gero ganen dela zerurat. Ematen du zaku baten barnian eta handikan jauts arazten du herrestan zanpi eta zanpa, eskeleer guziak herrestan. Egiten zuen:

—Ai! Ai!

Erraten ziguen:

—Ez da deusik. Istantian zeruban izanen zare.

Erematen du bere anaiaren ollo tokirat eta han uzten du. Biharamunian neskatua badoha ollueri jaterat ematerat. Ikhusten du zakua. Ukitzen du eta zakua egiten du mugimendu bat. Neskatxa hura badoha lasterka etxekandreaganat. Erraten dio zer ikhusi duen. Etxeko andrea badoha, ukitzen du zakua eta iten dio gauza bera. Ikharatzen da. Badoha bere senharrarengat. Erraten dio:

—Ikhusten duzu! Erraten zintudan nik uzteko gizon hura bere gisa. Orai zer behar dugu billakatu. Zer othe dugu zaku hortan?

Egortzen du jaunak berehala mutilla haren billa. Preseski etxean zen. Erraten diote jaun balliak haren galdea duela. Ethortzeko berehala. Erraten diote idekitzeko zaku hura. Ukitzen du eta egiten du salto bat eta erraten du ez duela nahi ideki, ez eta hamar milla liberetan ere.

—Emanen azkit hamar.

—Ez, ez, ez!

—Ogoi!

—Ez eta ere!

—Ogoitahamar.

—Ez.

—Eta berrogoi.

—Ez eta!

—Berrogoi ta hamarretan?

Ideki zuen eta eman zioten beren anaia apheza sos bat gabe utzi zuena.

Bere 50.000 libera eman eta gan zen gure mutila lorietan etxerat eta bizi izan zen aberats bere amarekin eta jaun ballia gelditu zen bere anaia apezarekin lehen bañon pobriago.

*(Catherine Elizondo)*



## AMA ETA SEME ZOZUA

Asko munduan bezala bazen ama bat. Bazuen seme bat eta arras pulliki bizi ziren.

Artalde bat zuten beren aberastasuna. Mutiko harek apetitu handi bat zuen. Maiz ama grina zuten haren jatekuentzat. Zozoa zen ere, ezin gehiago. Amak penekin ikhusten zuen deusetako ez zuela.

Egun batez egortzen du oihanerat ekhar zezala asto karga bat. Badoha arbolaren gainerat eta ari da aizkorarekin jo eta jo aldaska zeinen gainian beitzen. Gizon bat handik pasatzen zen. Ikhustian hori erraten dio:

—Zer hari haiz hola? Hire aldaskarekin eroriko haiz.

—Ez dut lehena pikatzen.

Eta gizonak erran bezela erortzen da aldaskarekin batean. Bere doloriak ahantzirik, badoha ahal bezala lasterka, gizon hura atzeman behar duela. Jainkoa zela hain ungi pentsatzen zuenaz geroz eroriko zela.

—Ho gizon! Ho! Gizon! Ho! Jainko maitea bide zare zu. Erran behar nauzu noiz hillen naizen.

—Hire astuak hiru uzker iten dituenian.

Gure mutilla badoha bere astoarenan eta hari da karga eta karga. Patarra goiti gatean iten du bat. Istant baten buruan beste bat eta erraten dio bere buruari:

—Bertze batekin hilla naiz.

Iten du bertze bat eta bere buruba botatzen du hilla bezala lurrerat eta han badago. Astua badoha etxerat.

Amari ikhusten duenian astoa mutikoa gabe izitzen da, malur gertatu zaiola seme hari. Badago atean instant bat iyan agertuko den. Ikusten ditu gizon batzuek heldu direla alde hartarik. Galdetzen diote iyan ikhusi duten mutiko bat. Erraten diote baietz. Ikusi dutela hilla bezala.

Egortzen ditu lehen bai lehen auzoko bi gizon hangallekin billa. Ez zakien zer gertatu zitzaioen. Badohazi gizonak. Hartzen dute hangalletan eta heldu ziren.

Baziren bi bide etxerat ethortzeko eta hari ziren gizon hekiek zeñ zen bide ona. Ez ziren segur. Mutiko harek buruba altxatu eta erraten diote:

—Ni bizi nintzenian, hortarik gaten nintzen.

Gizon hekiek botatzen dute hangalletarik eta erraten diote:

—Ua beraz orai ere.

Ama penatu zen oraiñon harek in zuen jokoaz. Ikusten zuen ez zuela deusetako eta bizkitartean behar zuen behi eder bat sal arazi. Erraten dio bere semeari:

—Ez duk jakiñen hik, behi horren saltzen.

—Ba, ba! Aise! Erraten balin banazu nola in eta zenbat.

Erraten dio amak ele guti iten duen gizonari saltzeko behia.

Badoha merkaturat. Behia ederra baitzen, heldu da gizon bat.

Ukitzen du eta erraten dio:

—Zenbat nahi duk hazienda huntaz?

—Ez dut nahi deusik zurekin. Sobra mintzatzen zare.

Heldu zaiot bertze bat. Ukitzen du eta erraten dio:

—Badik esne behi hunek? Zenbat nahi duk?

—Ez da zuretzat ere. Sobra gauza erraten duzu.

Eta urbildu ziren guziera gauza bera in zuen eta ilhuna ethorri zenian heldu zen etxerat bere behiarekin. Elizan pasatzean, sartzen da iyan inen duen han tratu. Ikhusten du sendu bat zoko batean eta erraten dio:

—Hik erosiko nauk nere behia. Hi haiz nere amaren gogorako erosuna. Ethorriko nauk diruaren billa zortzi egunen buruban.

Arrimatzen dio haziendaren soka eta badoha etxerat. Amak galde-tzen dio:

—In duk nik errana?

—Ba, ba! ez du deusik erran segurik.

—Non duk dirua?

—Erran diot ganen naizela zortzi egunen buruban billa.

—Nori saldu duk?

—Patron bati, etxe handi batean. Zuk erran bezala ez du hitz bat erran. Arrimatu diot. Hura da martxanta ona.

Amak ikhusi zuen zer astokeria in zuen oraiñon eta ikhusten du obeki deusetako ez duela.

Gonbitatuak izan ziren ama semeak ezteietarat. Amak erran zigoen:

—Nihork ez hau hartuko senartzat ikhusten badute hire apetitu izigarria eta nik ukitzen hautanean zangoa, arrastatuko haiz jatetik.

Erraten dio baietz. Etxe hartan bazuten potzo handi bat. Eta mahai-anean eman orduko badoha preseski gure mutillaren aintzinerat eta buzta-naz ukitzen dio zangoa. Gure mutillak ustez eta amak jotzen zuen ez du jan nahi gehiago. Amak eta bertze jendeak erraten zioten jan zezan bañan nihondik ez zuen nahikatu.



Etixerat arribatu zen gosiak. Amak erran zigoen nolaz ez zuen jan gehiago harek erran arte. Erraten dio semeak:

—Zuk zangoa jo eta gelditu naiz segurki.

Amak ezetz ez zigoela ukhitu segurki hoin fite. Eta gero konprenitu zuten zakurrak egin zuela.

Ama gaxo harek nahiko zuen ikhusi bere semea emazte bat hartzen eta erraten dio gan behar lukeela goiz mezarat, harat gaten direla neskatxa gazte guziak, heien begiz jotzerat eta berex zezala eder bat.

Biharamunian igandia beitzen, badoha artalderat eta atheratzen diote ardi guziera begiak. Zarpa guziak bethiak zituen. Badoha eta paratzen da elizako atheetan eta neskatxa bat agertzen zenian, botatzen zigoen begi bat. Noizpeit finitu ziren eta neskatxa eder bat atheratzen da orañion eta badoha etxerat. Amak erraten dio:

—E bien! Gustatu zaik batere?

—Ba, ba! Eta nik begiak akabatuz geroz ere ateratu da neskatxa eder bat elizatik.

—Zer begi akabatu?

—Ez ninduzun erran begiz jotzeko? Atheratu diozkatet ardi guziera begiak hekieri botatzeko.

Ama badoha eta ikhusten du pena handi batekin bere artalde guzia masakratua eta heien bizitzeko manera guzia akabo zela. Pena horrek eri arazten du. Ekhar arazten du mirikua zeñak ordenatzen beitu maño bat.

Gure mutillak ematen du egur zama bat surat eta panderu handi bat ur. Harek erakitzen duenian bal bal bal, botatzen du mairarat eta soñian artu eta, han sartzen du bere ama eta egosten.

Heldu da arratsean mirikua. Galdetzen du nola den ama. Erraten dio:

—Ungi! Ungi! Goizetik irriz dago.

Badoha eta ikusten du urean zaukala orañion egosia. Gure mutillak igual finitu zuen bere bizia amak bezin malurus.

## TONTUA

Asko munduan bezala baziren jaun andre batzuek. Bazuten seme bat. Handitu zenian aitak ez zuen ernea atzematen, nahiz eskoletan atxiki zuen. Zer iten du? Erosten du untzi bat. Hartzen du mahistruba eta eskipaia, untzia harriz kargatzen du eta egortzen du semea haren barnean, hura nausi.

Partitzen da eta badoha urrun urrun. Arribatzen dire arririk ez zen toki batean. Saltzen dute gogotik garasti eta han zabillalarik, gure Jaun Dekosek ikhusten du egun batez elizako athean pasatzean jende guziek tu egiten zutela zerbeiti. Galdetzen du urbiltzean zertako iten duten tu. Erraten diote hil bat dela han eta usteldurik ere nihork ez badu haren zorra pagatzen han egonen dela. Jaun Dekok zer egiten du? Zituen diru guziez pagatzen du gizonaren zorra. Bere eskipaia eta ondokua kolera gorrian ziren zeren diru guziak han enplegatu zituen.

Heldu zen bere untiarekin gibelerat. Arribatu ziren beren hirirat. Aitak urrundik ezagutu zuen bere semearen untzia eta heldu da haren biderat. Untziko gizonak erraten diote urrundik zer in duen diruaz. Aita ez zen kontent eta egortzen du berritz untzia burdinez kargatu eta. Badohazi eta arribatzen dire noizpeit toki batean eta saltzen du diru hantzentzat bere burdiña. Hiri hartan zabilalarik ikhusten du plaza batean giristinoak saltzen salbaiez. Baziren zortzi saltzeko. Erosten ditu zortziak. Burdiñaz in zuen diru guzia enpleatu zuen heien erosten.

Egortzen ditu zazpi beren etxerarat eta gardatzen du neskatxa bat berekin, izena zuena Marie Louise. Arras ederra zen. Badoha etxerat bere untzia, eskipaia eta Marie Louisekin.

Aita heldu da berritz ere biderat eta erraten diote gizonak Juandekok baino lehenago, zer in duen diruaz. Aita asarre zen gogotik. Ez du nahi gehiago eman deusik bere semeari. In dezala nahi duena.

Bere gizonekin akort iten dute ganen direla Marie Louisen herrirat. Partitzen dire beraz. Jaundekok egiñarazi zuen Marie Louisen portreta emateko untzi ganean. Untzi hartan bazen ondoko bat, mahingua, jeloisia handia zuena Jaundekoz eta Marie Louisez. Ez zakien zer in. Egun batez ekar arazten du Jaundeko zubi ganiat behar diola irakutsi arrain izigarri bat urean. Urbil arazi duenean ungi, botatzen du ureat. Nihor ez zen han, egin zuenean gauza hori.



Jateko tenorea etorri zenian denek galdia zuten non zen Jaundeko. Nehork ez zakien zer billakatu zen. Mahingua kontent zen pentsatzeaz Marie Louise harentzat izanen zela. Iten diozka maña suerte guziak. Eta Jaundeko artuba izan zen aingeru batez eta pausatua arroka baten gainean eta harat ekhartzen zigoen egun guziez, jateko nezesario zena.

Arribatzen da noizbeit untzia Marie Louisen hirirat eta Marie Louise erregearen alaba beitzen, mundu guziak ezagutzen zuen eta urrundik aise ezagutu zuten haren potreta. Laster jaun erregek jakindu zuen. Heldu da bere alabaren biderat eta pentsa zer bozkariguak! Ereman arazten ditu gizon guziak bere etxerat erregek eta denak ungi tratatzen.

Marie Louisek kondatzen dio nola izatu den erosia Jaundekozez eta zein ona izatu den harentzat eta ez dakitela zer billakatu den. Erraten dio ere ondokoak ungi artatu duela eta nahi zuen osoki ondokoak harekin ezkondu. Aitak ere nahi zigoen ezagutu bere ezagutza zeren harek ekarri beitzigoen bere alaba eta ez beitzuen ezagutu Jaundeko.

Hala tormentatzen zuten Marie Louise non itz eman beitzuen urte bat eta egun bethe eta, Jaundeko ez balin bazen agertzen, ezkonduko zela harekin. Urtea eta egun pasatu ziren eta ez zen Jaundekoren berririk agertu. Ezkontzen dira beraz eta Jaundeko zagoen bethi arroka haren gainean. Itsaso belarrak sortuak zituen bere arropen gainean. Bizarra izigarria zuen. Erraten dio ageruak:

—Egun ezkontzen da Marie Louise. Nahi zinduke gan hekienganat? Erraten dio baietz.

—Eman behar nauzu zure hitza urte baten buruan izaten duzun haurra Marie Louisekin, erdia neretzat izanen dela.

Ematen dio promes eta artu eta erematen du Marie Louisen etxeo atherat.

Aingeru hura zen arima salbatu zuena, elizako atheran zagoena zorreatatik. Galdetzen du karitate piska bat. Marie Louisen aita, hanitz emalea zen. Ematen diote beraz. Galdetzen du orañion iyan ez duten utziko sartzerat, bero dadien su onduan. Erraten diote ezetz, traba inen duela egun hartan. Baiñan galdetuko dutela nausiari. Badoha eta nausiak erraten du sar arazteko eta emateko hari ere bazkari on bat. Jadaneko ezkondua zen Marie Louise.

Jaundeko arribatu zenian bazuen mokanes eder bat Marie Louisek emana eta han zabillanean Marie Louise, agertzen zuen harek ikhusteko gisan eta arras ungi ikhusi zuen eta ungi begiratu eta ezagutzen du Jaundeko. Badoha Marie Louise bere aitarenganat eta erraten dio:

—Aita! Behar nauzu egin atsegin bat.

—Ba, ba! ahal badut.

—Ikhusten duzun gizon pobre hori nahi nuke egun gure mahañean ematea.

Aitak erraten du:

—Ez ditake. Zikiña eta desgustagarriegia da.

—Nik garbi nezake eta eman niotzake zure zerbeit arropa berri.

Aitak erraten dio beraz baietz. Iten du beraz Marie Louisek nahi zuen bezela. Mahañean ematen dute eta Marie Louisek ezagutu zuen bakarrik. Bazkariaren akabantzan erraten diote bertzeri bezala Jaundekori kondatzeko istorio bat. Erraten du baietz, baiñan nahi badute haren istorigoa aditu, behar dituztela athe guziak zerratu eta gako guziak hari eman. Ematen diozkate.

Hasten da bazutela aita ama batzuek seme bat, ez beitzen ernia hañitz. Egiten dute egorri behar dutela itsasoz itsaso. Untzia kargatzen diote harritz. Ederki saltzen du harri hura eta diru hartaz pagatzen ditu elizako atheran zagoen gizon baten zor handiak.

Ondokoak ikhusi zuen hori aditu eta galdua zela. Haren biziak egin zuela eta galdetzen zuen erregeri atherko gako. Hilki behar zuela. Baiñan ez zuen posible ematea. Han egon behar izan zuen bortxaz, bainan ez aiseki.

Erraten du orañion Jaundekok, aitak berritz ere kargatu zioela untzia burdiñez. Ederki saldu zuela burdin hura eta erosi diru harekin zazpi girixtiño eta, irakustean, «errege, zure alaba zortzigarren».

Jadaneko erregek bazakien bere alabaz istorio hori. Zer iten dute ikhuserik zenien tzarra izatu zen ondokoa? Orga bat fagota plazaren erdian eman eta athera sufrezko bat eman eta ondoko hura erre zuten plazaren erdian. Jaundeko eta Marie Louise ezkondu ziren eta hañitz urus izan.

Izan zuten haur bat eta urtea pasatu ondoan ethorri zitzaigoen aingeruba haurraren erdiaren billa. Penatzen da hanitz Jaundeko, baiñan itzema beitzuen, erditik egiterat zuan, aingeruak arrastatu zioenian besoa, erraten zigelarikan:

—Ikhusten diat hire obedientzia eta uzten deat hire haurra.

Ungi bizi izan baziren, ungi hil ziren.



## BOZAK ENTZUTEN ZITUEN SEMEA

Asko munduan bezela baziren jaun andre batzuek. Bazituzten haur hañitz. Bazuten seme bat maite ez zutena zeren erraten beitzuen aditzen zuela boza bat arras maiz. Erran zuben ere bozak erran zigoela aita ama batzuek beren semearen mutil izanen zirela, erran gabe hori hekientzat.

Amak aditu zuenean hori, hasarretu zen hañitz, hori beretzat hartu eta. Aberatsak ziren hañitz. Bazituzten bi mutil. Erraten diote ama harek bere mutil hekieri behar zutela gan semearekin eta hil behar zutela eta haren bihotza ekhartzeko.

Biharamunian erraten diote bere semeari gan behar duela bere mutillekin holako tokitarat pasaiatzeko, badagokela egun erdi arte. Mutiko hura badoha trankilki bere mutillekin. Bide puska bat egin dutenian bi mutillak hasten dire hizka eta hasarretzen dire gogotik. Urbiltzen da hekienganat eta ikhusten du zer den hekien makhurra: batek nahi zuen hil eta bertzeak ez. Hasten dire kolpeka eta hil nahi ez zuenak garraitzen du eta erraten dute, hilen dutela berekin zuten zakhur handi bat eta eremane zutela haren biotza andre hari.

Mutillak ethorri orduko ama hura urrikitan sartua zen eta gure jaun gaztea bazuan munduz mundu. Hala zohalarikan egiten du bere buruarekin gan behar duela Erromarat. Errekontratzen ditu bi gizon. Erraten diote heiek ere Erromarat duatzila eta egiñen dutela bidea elkharrekin. Maitatzen dute gizon gazte hura hanitz zeren ikhusten beitate baduela zerbeit bertzek bañion geihago.

Gaba ethorri eta badohazi oihan tartean zen etxe baterat. Galdetzen dute gab artako lehiorra. Erraten diote baietz, sartzeko. Ematen diote ederki afaiterat eta gure jaun gazteak aditzen du boza zeñek erraten beittio:

—Toki malurusean zaitze hemen. Obe zindukete ez baziñete ethorri.

Bertze gizonek erraten diote:

—Zer da? Zer da?

—Deusikan ez! Obeko ginduela bertze norapeit gan.

Finitu zutenean ematen dituzte ogerat, bañan gure jaun gaztea ez zen lokartzen. Aditzen ditu gabaren erditan arrabots handiak. Ohuñiak heldu ziren diruz kargaturik. Emazteak erraten diote:

—Egizue batxe, baitaude hemen hiru gizon, batek iduririk aberatsa.

Aditzen du hori gure jaun gazteak, iratzar arazten ditu bere lagunak eta egiten dute leiotik salto eta badohazi ihesi. Kurritzen dute orañion egun guzia. Gaba etortzen denian badohazi etxe eder batetarat. Galdetzen dute gab hartako ostatua. Erraten diote:

—Gogotik, segurki, bañan ez zirezte hañitz pausatuko. Badugu alaba bat zazpi urte huntan gabaz eta egunaz marrakaz ari dena.

Gizon heiek erraten diote jaun gazte hari:

—Ez duzu bada zuk sendatuko?

Erraten diote ensaiatuko zela.

Aberatsak ziren hañitz. Sendatu zenian aita gaizo harek erraten dio:

—Jauna! Zu zare orai etxe huntako nausia. Mana zazu eta egiña izanen da zuk nahi duzuna.

Gure jaun gazteak erremesiatzen du hanitz eta erraten diote nola Erromarat duan eta ez duela erraten gero zer egiñen duen.

Andre gazte harek bazuen erreztun bat erhian. Aitak pikatzen du erreztun hura erditik eta ematen diote erdi bat. Badohazi eta luzian arribatzen dire Erromatik urbil. Eta hekiek urbiltziarekin, ezkillak abiatzen dire bere beitarik errepikan. Jende guziak atheratzen dire:

—Nor da? Zer da? Aita Saindua heldu bide da.

Hartzen dute gure jaun gaztea eta egiten Aita Saindu.

Ama, jaun gaztearena, gero eta tristeago zuan. Meatuz eta iraungituz, ezin ezagut ziteken. Ez zigoen behin ere erran bere senarrari zer egin zuen, bañan galdatau zigoen senarrari Erromarat gan nahi zuela eta erraten dio zer izigarrikeria egin duen eta han uste duela izanen dela barkatua. Iyan nahi duen segitu bere bi mutillekin, heiek ere egin dutela bekatu.

Arribatzen dire Erromarat. Ama gaxo harek halako pena zuen eta bihotz miña non, nahi izan zuen bere kobesigua egin Erromako elizaren erdian, gora gora. Suertea! Semea elizan gertatzen zen. Aditu duenian hori badoha besuak zabaldu eta amaren besotarat erraten zigoelarik:

—Barkatzen zaitut. Ni naiz zure semea.

Loriz eta bozkarioz aita eta ama hiltzen dire han berian. Bi mutillak ereman arazten ditu bere etxerat. Ematen dio hil nahi ez zuen hari andre gazte haren erreztunaren erdia eta harekin ezkondu zen, urus bizitu aberastasunen erdian. Beste mutil, hil nahi zuen hari, erran zigoen zuala mendirat ikhazkin egiterat eta bethi han hari da ikhatz egiten. Eta ikhusten duzun ikatz hau hareganik ekharria dut.



## MANDUA ETA BAKEZKO JUJA

Asko munduan bezala bazen tratulari bat. Egun batez bazuan merkatu bere mandua arroltze kargaturik. Bi itzain ere bazuazin bide beraz. Batek manduaren sahetsean pasatzean hartzen du bere idiari ahur bat ulimando eta urbildurik manduarengat mandatu bat erran behar balio bezala ematen diozka lepo ondorat uli heiek. Gure mandua hasten da salto eta bringo. Niholaz ezin geldi araz zezaken bere nausiak. Halako jauziak iten ditu non arroltze guziak xehatzen beitu. Gure gizonak kole-ran itzain haren kontra iyan bada zer in zioen. Itzañak erraten zigoen:

—Deusez.

—Pagatu behar nauzkik nere arroltziak.

Ez zuen nahi. Ereman arazten du bakezko jujetarat. Han erraten du gizonak nola haren manduak ez duen behin ere holako saltorik sekulan in eta bai eta itzañ hark egin dioela zerbeit. Itzañak erraten dio erran digo-ela xoilki hiltzen denian egiñen duela bere premu, eta hala loriatu zen eta bozkariotan sartu non ez zakien geihago zer iten zuen.

Jaun jujiak ez zakien zer erran eta egorri zuen deusik paga arazi gabe. Gure tratularia bazabillan merkatuan attristerik. Eltze saltzaille baten aintzi-nian hasten zaio mandua saltoka, non hausten beitu martxantaren eltze guziak. Koleran erraten dio behar dituela pagatu. Ez zuen nahi tratulariak.

Ereman arazten du bakezko jujetarat eta han erraten du:

—Jaun juje, uliyari gaztelañiaz erraten zaio muzka. Harek egiten badio nonbeit ozka, egiten baldin badu salto eta fringo, austen balin badi-tu ehun eta bat lapiko, nik zer kulpa dut jauna?

Bakezko jujiak ez zakien zer erran tratulari hari. Erraten dio bertze gizon hari ikhusten dituen uli guziak hiltzeko eta manduak izanen direla presto.

Horrekin batean uli bat pausatzen da bakezko jujiaren kopetan. Gure eltze martxantak beitzuen makil eder bat berekin, zer egiten du? Bere in ahal guziekin ematen dio kolpe bat izigarria eta erortzen da bere uliarekin. Arrabots hartan heldu dire etxeko jende guziak eta erraten diote nola gauza pasatu den eta uzten dituzten gaterat bakotxa bere gisa. Tratularia gan zen bere manduarekin eta eltze martxanta gelditu zen bere eltze autsiekin eta jaun balia gelditu zen hil otza uli hura zela medio. Egun hartan merkatuan han nintzen eta orai hemen.

Unigi bizi baziren, ungi hil ziren.

## XOXO XURIA

Asko munduan bezala bazen errege bat. Bazituen hiru seme. Errege hura itsua zen. Jakindu zuen egun batez bazuela errege batek xoxo xuri bat zeinak bista ematen beitzuen. Seme zaharrenak aditu zuenian hori, erraten du bere aitari gan behar duela lehenbailehen xoxo haren billa. Aitak erraten dio nahiago duela itsu izan eziñez eta haur hartaz gabetu. Erraten dio semeak ez beldurrik izateko hartaz. Zaldi eder bat diruz kar-gatuarekin atzemanen duela eta ekharriko xoxua.

Badoha beraz gan gan gan. Gaba ethortzen zenian arrastatzen zen. Arrats batez badoha ostatu baterat. Baziren hiru andre gaxto arras ede-rrak. Afal ondoan erraten diote, hari behar duela jokotan. Erraten du ezetz. Bañian hainbertzetan othoizten dute non hasten da. Galtzen ditu zituen diru guziak, bere zaldia ere eta zor hanitz egin bere hitzaren ganean.

Herri hartan usaia zen zorrak zituena preso emana izatia. Ez baldin bazuen pagatzen holako denboretan hiltzen zuten eta gero oraiñion ema-ten elizako athetan norbeitek zor hura pagatu arte. Ematen dute beraz errege seme hura preso.

Bigarren semeak ikhusririk anaia ez dela heldu gibelerat, erraten dio aitari nahi lukeela gan, emateko zaldi bat eta diru hañitz eta ez duela segurki denbora galduko. Partitzen da. Eta, hala beharra, badoha anaia errobiñatu zuten ostatu hartarat. Afal ondoan andre gazte hekiek erraten diote behar duela ari jokotan. Erraten du ezetz.

Bañian andre gazte hekiek haren ungi itzultzen dute eta mañastatzen non finitzen beitu erratean baietz. Hasten da beraz eta harek ere galtzen ditu bere diru guziak, bere zaldia eta zor hanitz egiten oraiñion. Bertze anaia bezala ematen dute preso. Noizpeit errege eta seme gaztena xan-grintzen dire malur gertatu zaiotela eta anaia gaztenak erraten du bere aitari:

—Behar nazu othoi utzi gaterat aita. Seguratzten zaitut nik eginen dutala zerbeit. Ez griña nere ganean.

Aita gaixo harek uzten du gateat. Bañian ez bihotz onez. Erraten zigoen bethi, nahiago zuela bethi itsu egon. Bañian semeak ez du entzu-ten. Nahi du gan. Ematen dio aitak zaldi eder bat eta harek altxa ahala urre, eta bere korona. Badoha gan gan gan. Pausatzen zen gau guziez eta arribatzen da bertze anaia bezala ostatu hartarat. Afal ondoan andre



gazte hekiek erraten diote usaia dela jokotan haritzeko. Denak haritzen direla. Erraten du ez dela haritzen hura. Andre gazte heiek egiten dute hainbertze othoitz bañian ez zuten erreusitu harekin nihondikan. Ez zuten posible izan.

Biharamunian jeikitzen da goiz. Bere zaldia artu eta bazuan eta ikhusten ditu erematen ari zituztela bi gizon hiltzerat. Galdetzen du zer egin duten. (Ezagutzen ditu bere anaiak). Erraten diote zorrak ez dituztela pagatu denboran eta hil behar dituztela. Pagatzen ditu harek bien zorrak eta badoha aintzinerat.

Elizako athean pasatzean ikhusten du zerbeiti egiten dutela tu. Galdetzen du zer den. Erraten diote gizon bat dela hila. Zorrak badituela eta norbeitek pagatu arte han utziko dutela. Pagatzen ditu haren zorrak ere. Badoha aintzinerat eta arribatzen da noizpeit xoxua zuen erregeren etxerat. Galdetzen dio gure errege semeak iyan ez duen xoxo xuria, bista ematen duena. Erraten dio baietz.

Kondatzen dio gure jaun gazteak nola aita itsua duen eta harentzat heldu den billa hainbertze bidetan. Erregek erraten dio emanen diola xoxo xuria ekhartzen digoenian holako erregeren etxetik andre gazte, han den bat.

Gure muthiko badoha gan gan gan. Urbildu denian erregeren etxe ondorat atheratzen zaio axeri bat. Erraten dio:

—Norat zuazi.

Erraten dio:

—Erregeren etxetik behar dut andre gazte bat.

Ematen dio zaldia gardatzera axeri hari eta erraten dio axeriak:

—Ganen zare holako geletarat. Han izanen da zuk behar duzun andre gaztea. Ez duzu ezagutuko, zeren arropa xahar batzuek izanen beittu. Bañian haren gelan badire ederrak dilindan. Eman araziko diozu hekietarikan bat. Hura eman orduko asiko da kantaz; atzar araziko ditu etzeko jende guziak.

Badoha barnerat axeriak erran bezala. Atzematen du andre gaztea. Eman arazten dio arropa ederra eta jauntzi orduko hasten da kantaz erre-pikaz. Denak ethortzen dire andre gazte haren gelarat. Errege koleran, nahi zuen preso eman arazi. Erregeren semeak irakusten du bere korona eta erraten du nola egorri duen holako erregek andre gazte haren billa. Hura ereman eta agindu diotela xoxo xuria bere aitaren begien argitzeko. Erraten dio orduan erregek:

—Gan behar duzu holako erregeren etxerat eta handik ekharri behar nazu zaldi xuri eder bat.

Partitzen da gure jaun gaztea. Badoha gan, gan, gan. Eta urbiltzean erregeren etxerat agertzen zaio axeria. Erraten dio:

—Holako tokitan da zuk behar duzun zaldia. Bañian zela xahar batekin da. Emanen diozu dilindan den zela eder eta distirant bat. Hura eman orduko asiko da zaldia irrintzinaz, ezin arrastatu gisan. Erregeren jende guziak ethorriko dire ikhusterat zer pasatzen den. Bañian zure kokuarekin libratuko zare.

Axeriak erran bezala badoha eta atzematen du zaldia zela xahar batekin. Ematen dio ederra eta hasten da irrintzinaka, ezin arrastatu bezala. Heldu dire jendeak. Nahi dute mutil hura preso eman. Bañian irakusten du korua eta kondatzen du zeñ erregek egorri duen zaldi haren billa, izateko andre gaztea.

Ematen dio zaldia eta partitzen da. Arribatzen da andre gaztea zen erregeren etxerat. Irakusten du zaldia bere zela ederrarekin eta erraten dio erregeri iyan ez luken nahi ikhusi andre gazte hura basakurte hartan tornu bat egiten zaldi eder haren ganean. Erregek erraten dio baietz. Ederki beztitua zen andre gazte hura. Izatu denian zaldiaren gañerat ematen dio zarta bat bere makillarekin eta partitzen da ximixta bezala. Erregeren semeak segitzen du eta badohazi biak errege xoxua zubenarenganat. Arribatzen dire jaun andreak. Galdetzen dio xoxua. [Eta xoxoa badoha bere baitarik andrearen altzorat, zaldiz zegoelarik. Erregeren semeak zarta bat ematen dio eta badoazi lauhazka. Bera ere eskapatzen da haien ganat.]

Eta partitzen dire. Badohazi gan, gan, gan. Urbildu zirenean beren hirirat anaiak artu zuten berria nola heldu zitzaioten anaia xoxo xuriarekin. Noizpeit bertze anaiak heldu ziren beren aitaren etxerat eta erran zioten ehun gezur. Ohoñek hartu ziotela beren dirua eta holako gauza hanitz. Bi anaiak elkar aditu eta egiten dute behar dutela anaia gibelatu etxerat ethortzetik eta ebatsi behar diotela bere xoxua. Badohazi bethi beira. Egun batez ikhusten dute ethortzen eta elkharri erraten diote behar dutela ziterna baterat botatu.

Egiten dute erran bezala. Hartzen diote xoxua eta botatzen dituzte jaun andreak urerat eta uzten zamariak kanpoan. Heldu zaiote axeria ziternako bazterrerat eta erraten diote:

—Nik egiñen dut horrarat salto. Lotuko zarezte bapanazka nere buztanari eta salbatuko zaituztet.

Bi anaia gaistoek artu zioten xoxua bainan eskapatu zitzaioten etxean sartu orduko. Eta ethorri zen zaldi xuriaren gainerat. Pentsa zazu hekien bozkarigua deus ez eskas izatea. Badohazi erregerenganat. Etxean



sartu orduko asten da andre gazte hura kantaz errepikaz. Xoxua ere eta zamaria irrintziñaka. Xoxua bere beitharikan badoha erregeren altzorat eta hasi kantaz; xoxuak bere kantez eman zioen bista aitari.

Semeak kondatzen diozka zenbat pena pasatu dituen atzeman arte hiru gauza heiek. Erraten dio ere nola hiltzerat zaramaten bi gizon salbatu zituen hekien zorrak pagatuz eta hekiek zirela bere bi anaiak. Bertze gizon baten zorrak ere pagatu zituela, hila zena jadaneko eta haren arimak salbatu zuela anaiek bota zuten ziternatik.

Pentsazube aitaren atsegiña eta pena denbora berian ikhustearekin seme gazte hura zenien ungi eta prestuki ibilli zen bethi, eta ikhustia bi zaharrenak zenien tzarrak izan ziren. Ungi irabazia izan beitzuen, ezkondu zen ekharri zuen andre gazte harekin eta bizi izatu hurus eta bozkariotan. Eta bi anaiak egorri zituen aitak deserturat penitentzia egiterat.

Eta ungi bizi izan baziren, ungi hil ziren.

## OHOÑAK

Asko munduan bezala, ama batek bazituen bi seme. Egun batez badohazi ihizirat. Egun guzia aritu ziren ihizian. Arratsa etorri zenian etxeko bidea ezin atzeman zezaketen. Bazabiltzen bira harat eta bira unarat. Bañian inutil zen. Etsitu zuten eta gelditzen dire arroka xoko batean gabaren pasatzeko beitzuten jateko piska bat orañion. Biharamunian hasten dire atzeman nahikan bide ona. Bañian etzitaken.

Denborak txarrerat ematen du, uria hasten da egun guziko eta badabiltza gosiak eta bustiak ezin atheratuz oianetik. Ilhunean ikhusten dute argi ttiki bat. Badohazi esperantzaz betherik. Arribatzen dire etxe txar txar baterat. Sar arazten dituzte. Galdetzen dute jateko piska bat bañian erraten diote nihondik ezin eman dezaketela zeren ez beitate. Galdetzen diote iyan ingurutan nihork ez letzaken sokorri. Erraten diote badela urbil jauregi eder bat, han baluketela, bañian ez litazkela urbil, naiz gose ziren, zeren ez beitzen nihor atheratzen sekulan etxe artarikan. Erraten diote gan nahi dutela, zernahi ikhusirikan ere, ezin dagozila hola.

Badohazi. Atzemaiten dute mahaiñ bat handienian emana, su bat labez labekoa. Ungi berotu eta idortu direnian ematen dire mahaiñian. Ederki jaten dute eta hola dagozilarik brau, brau, brau, norbeit urbiltzen. Badoazi elkharri beira ixil ixilla zer ikhusi behar duten. Agertzen zaiote gizon handi bat, izigarri bat, burutik eta zangorat armez distiratzten zuena. Bazuen ezpata, sabre, kanibet handi, denetarik. Erraten diote:

—Segi nazube.

Badohazi beheiti eta egiñarazten diote salto toki handi baterat. Arritzen dire ikhustia han hainbertze jende. Toki bat superra zen urrez eta zillarrez kargatua. Erraten diote nausiak ohoiñ etxean direla eta hek bezala egin beharko dutela. Erraten diote baietz eta hasten dire gau hartan berian.

Bazuten lurrazpian iña zenbait tokitan bide ederrak. Hartako nihork ez zuen ikhusten etxe hartarik nihor atheratzen. Gure bi anaiek nahiko zuten eskapatu bañian nihondik ez zuten biderik atzematen.

Egun batez uzten dituzte bi anaiak etxe gardan. Zer iten dute? Bi karrosa betetzen dituzte urrez eta zillarrez. Hartzen dituzte zaldi ederrenak eta ilkitzen dire ahal bezala eta ederki ezagaturikan beren etxeko





bidea arribatzen dire. Amari kondatzen diote zer pasatu den eta bizi izan ziren aberastasun handiekin urus, luze.

*(Kattalin Elizondoa  
Mendionde bikarioarengatik)*

## ERREGE ETA HIRU ALABAK

Asko munduan bezala, errege batek bazituen hiru alaba. Ingurutako errege seme batek ezkribatu zigoen nahi zubela ezkondu hekietarik batekin, aita maitena zubenarekin. Erregek ekhar arazten du zaharrena bere aintzinerat eta galdetzen dio zenbat duen maite. Erraten dio, bere erripiña bezinbat. Aitak egortzen du gibelerat deusik erran gabe. Ez zen kontent.

Ekhar arazten du bigarrena. Galdetzen dio hari ere zenbat duen maite bere aita. Erraten dio: erhi handia bezinbat. Ez zuen aski atzematen maite zuela. Egortzen du gibelerat deusik erran gabe.

Ekhar arazten du alaba gazteena eta galdetzen dio zenbat duen maite. Erraten dio:

—Ogiak gatza bezinbat.

Aita koleran sartzen da. Ekhar arazten ditu bere bi mutil eta erraten diote behar dutela hartu bere alaba gaztena, ereman holako tokirat eta han hil eta, ekharri haren bihotza ezpataren puntan.

Beztitzen da alaba hori ederki. Ematen da zaldi eder baten ganean eta badoha. Badohazi oihanian hiruak urrun. Pena zuten holako andre gaztea hiltzea eta erraten diote ez ethortzekotan etxerat, utz lihozaketela bizia, biziak bide iten duela. Hiltzen dute beraz andre gazte haren zaldi ederra eta ekhartzen aitari haren bihotza ezpataren puntan.

Andre gazte gaxo hura arrastatu zen etxola txar batean. Han bizi zen xoriek ekhartzen zioten belar puntez eta erliek ekhartzen zioten loriez. Hola bizi zen luze.

Egun batez errege seme bat ihizian zabillalarik ikhusten du zerbeit etxola hartan. Urbiltzen da. Galdetzen dio nola den han. Erraten dio aitak egorria dela harat. Jaun horrek nahi du berekin ereman, bañian andre gazteak ez du nahi.

Partitzen da errege hori eta heldu da biharamunian zaldiz, bigarren zaldi batekin andre gazte hura eremateko. Etxolan egoteko arropa txar batzuek zituen eta erregek izan zuenian itza ganen zela harekin, jauntzi zituen ekharri zituen ederrak; zaldi ganean eman eta badohazi.

Andre gazte harek kondatzen dio bere istorigoa, nola hasarretu zen haren aita zeren erran zigoen maite zuela gatza ogiak bezala. Ikhusi zuen errege seme harek berak galdeturikako andre gaztetarik bat zela eta zenbeit denboraren buruan ezkontzen dire. Esposatzeko iten dituzte gonbi-



du handiak bazter guzietarat. Besta handiak in behar zituzten. Gonbidatu zuten ere andre gaztearen aita. Eta galdetu zigoen andre espos harek berak manatzia bazkaiteko behar ziren guziak. Erran zioten baietz. In zituen denak handizki. Bazkari bat bazen xoragarria, banian manatu zuen ogia gatzikan gabe.

Bazkal ondoan, ederki ohore egin zutenian bazkariari, galdetu zuten han zireneri nola atzematen zuten bazkari hura. Denek ederra eta etzelleta atzeman zuten. Banian erran zuen andre gaztearen aitak ogiari atzematen zigoela uts bat, gatzikan ez zuela. Bertze ganeateko guziak ederki gan zirela. Andre gazte hura urbiltzen da eta erraten dio:

—Ikhusten duzu aita ungi beharra duela ogiak gatza.

Aita hura loriatzen da bere alaba bizirik ikhustea eta hiltzen da bozkarioz.

Ederki eta urus bizi izan ziren jaun andre gazte hekiek eta bi aizpa hek gelditu izan ziren mutxordin. Ungi bizi izan ziren, ungi hil ziren.

## ERRETORA

Asko munduan bezela bazen jaun erretor bat. Bazuen errota bat eta hura zen irian zagoen errege. Egun batez errege harek ekhar arazten du bere aintziñerat eta erraten dio:

—Jaun aphez batek gauza hañitz daki eta behar du jakin. Hiru gauza behar nauzkitzu erran: zenbat bide den hemendik zerurat, zenbat dutan balio eta zer dutan gogoan. Eta hori halako denboretako. Bertzenez hila izanen zare.

Gure jaun apheza badoha tristeki etxerat. Ondoko egunetan orañion tristeago. Maiz errotako ingurutan beitzabillan errotazaniak ikhusi zuen eta erremarkatu haren tristezia. Erraten dio behin:

—Zer duzu, jauna, hola billakatzeko? Baduzu zerbeit pena? Erran nazazu.

—Bai, zuri erranikan ere ez dut probetxurik.

Eta ez dio erraten. Denborak urbiltzen ari zitzaiozkan eta ari zen meatzen bere peñarekin. Errotazaiñak erraten dio egun batez:

—Jauna, erran nazazu zer duzun. Nik erremediatuko dut.

Biharamuñian zen eguna. Pentsaazu nola zen gure jaun apheza. Erraten dio bere errotazaiñari zer galdetu digoen erregek eta billatu zuela bere liburu guzietan eta nihon ez zuela deusik ikhasi eta hilla izanen zela. Erraten dio errotazaniak:

—Nahi balin banazu eman errota niretzat eta zure sotana, ni ganen naiz erregearen aintzinerat.

Gure aphezak emanen zituen hamar errota ere izan balitu. Erraten dio baietz sehurki. Eta ematen dio bere sotana.

Gure errotazaiña badoha bere etxerat. Erraten dio bere emazteari harilkatzeko etxean zituen hari guziak harilko baterat. Eta badoha biharamunian bere harilkoa harturik sotanaren azpian, bañian harilkoaren erditan in zuen marka bat ezpal tiki batekin eta badoha erregearenganat. Errege kontent zen ikhustia. Erraten dio aphezak:

—Horra zonbat bide den justu justua zeruraño. Ez balin bazare fida, ikhusazu zeonek. Nahi duzu jakin ere zenbat duzun balio? Gure Jaingo maitea ogoi eta hamar diru pezetan saldu zuten. Ez bide duzu harek bañion gehiago balio!

Errege gelditzen da soratua haren izpiritu handiaz.



—Hirugarren gauza: nahi duzu erratea zer duzun gogoan? Lehengo jaun aphez hura, bañian ez naiz hura eta zuk duzu gogoan nik orai erran zeikitzenak.

Errege hura arrituba zen aphez haren jakitateaz. Errotazain harek erraten dio nor den eta erregek erraten dio harek behar duela erretor bere jakitatea dela kausa. Ungi merezi duela. Eta bertze jaun apheza egortzen dute.

Noizetikano noizerat egin behar izaten zuen aphezak prediku bat. Eta egun hura ethorria zen. Badoha prediku tokirat eta erraten du «bertzeek bezala, bertzeek bezala» etc. etc. prediku tokiari joka oren batez atziki zituen. Ofiziuak finitu eta jende guzia koleran badohazi erregeenganat iyan zer aphez eman dioten, oren batez ez diotela bertzeikan erran «bertzeek bezala» bertzeik. Erregek erraten diote:

—Bertzeek bezela erran badu, franko egin du eta ungi kontent naiz.

Hainbertze jende etortzen zen plenta iterat non erregek erran baitzen bere portierari ethortzen ziren jendeak errenkura egiterat apheza-zen kontra, emateko preso. Hola izan zuen bakia.

Zonbeit egunen buruban deitua izan zen ingurutako herri baterat predikatzerat. Enbrazu handian zen gure errotazaina. Zer iten du? Badoha predikatzerat eta erraten du hasi bañion lehen:

—Ni entzuten nauena, saindu izanen da eta ni entzuten ez nauena, damnatua izanen da.

Hasten da españen ibiltzen, jotzen zubelarikan prediku tokia. Bañian nihork ez zuen deusik konprenitzen. Izituak zagozin elkharri beira. Emazteki zahar bat atzartzen da predikua finitzearekin. Begiak frotatzearekin erraten du:

—Zer prediku ederra in duen! Zer itz ederrak erran dituen!

Denak arritzen dire aditzeaz harek entzun zuela. Bertzeak isildu ziren eta gure jaun apheza bizi izan zen aberats handi, bere erretorkuarekin eta bere errotarekin eta bertze gaxua bizi izan zen pobre eta denetaz abandonatua. Orduan han nintzen.

## ZAPATAILLA ETA BERE HIRU ALABAK

Asko munduan bezala bazen zapatilla bat. Bazituen hiru alaba. Arras pobrea zen. Ez zuen jatekoa xoilki egiten bere aurrentzat. Ez zakien zer billaka. Bazuan tristeki kurri kurri. Errekontratzen du jaun bat. Galdetzen dio norat duan hola gogoetatuba. Erraten dio:

—Zuri erranikan ere ez dut probetxurik

—Ba, ba! Errazu!

—Badituz hiru alaba eta ez dut aski lan egiten heien azteko. Miseria dut etxean.

—Hori bertzerik ez baduzu, antolatuko gare. Emanen nazu zure alabetarikan bat eta nik emanen zaitut horrenbeste diru.

Aita horrek pena handia zuen holako tratua itia. Bañian azkenian erortzen da hortarat eta ematen dio bere alaba zaharrena. Jaun horrek erematen du bere palaziora eta han zenbeit denbora pasatu eta erraten dio gan behar duela biaia tiki batean. Utziko diozkala gako guziak. Denak ikhusiko dituela bañian gako bat badela, hartaz ez zerbitzatzeko. Malur izanen duela.

Gakoz ematen du andre gaztea eta partitzen da. Neskatxa hura badoha gela guzietarat. Denak ederrak atzematen ditu eta kurios zen ikhustia zer zen gako debekatu hartan. Sartzen da eta ikhusten du hainbertze gorputz hil. Pentsa itzi. Ikharaz uzten du gako erortzerat.

Badago izitua noiz ethorriko den jauna. Ethortzen da eta galdetzen dio iyan izan den gela debekaturat. Erraten dio baietz. Hartzen du eta ematen du kaxote batean, lur azpian. Doi doia ematen zioen jaterat eta jende aragia.

Zapatille harek diruak finituak, bazagoen tristerikan jaunak errekontratzen duenian orañion. Erraten dio bertze alaba ez zaiola laketzen, eman behar dioela bertze alaba. Laketzen zaioenian egorriko digoela eta emanen digoela horrenbeste diru.

Aitak ez zuen nahi bañian hain pobre zen non, diru piska bat izateko ematen dio bere alaba. Jaunak erematen du bere etxerat bertzea bezala. Zenbeit egunen buruan hari ere erraten dio in behar duela biaia txiki bat. Emanen diozkala etxeko gako guziak, bañian ez gateko holako geletarat. Ez ukitzeko gako hura.

Ematen du neskatxa hura gakoz eta badoha behar zituen jatekoak hari utzi eta. Neskatxa hura badoha gela guzietarat eta kuriosa beitzen gan



zen gela debekatuaren ikhusterat. Izitzen da ungi ikhustearekin hainbertze hil gela hartan non uzten beitu gakoa erortzerat eta zikitzen da. Gure neskata ikharatua zagoen zer behar zuen billakatu nausia ethortzen zenian. Heldu da eta lehenbiziko gauza galdetzen du iyan izatu den gela hartarat. Erraten du baietz eta erematen du lur azpirat bertze aizpa bezala.

Diruak finitu zituen gure zapatillak eta bazagoen tristeki ethortzen zaioenean berritz ere jauna. Erraten dio, emanen digoela diru hañitz nahi badu bere alaba utzi zenbeit egunentzat haren etxerat. Hiruak obekiago laketuko direla eta egorriko diozkala biga batean gibelerat. Aitak siñesten du eta ematen dio bere hirugarren alaba eta ematen dio jaunak dirua. Erematen du neskata hori bertzeak bezala.

Zenbeit egunen buruan uzten du gan behar duela biaia tiki batetan. Ematen diozka etxeko gako guziak erraten dioelarik gateko gela guzietara, bat ez salbo, erakusten digoelarik gakoa. Zarratzen dio athe kanpoko gako eta badoha neskata hura, badoha zuzen zuzena gela debekaturat, idekitzen du eta pentsa haren harrizia ikhustian hainbertze jende hil. Pentsatu zuen hillen zuela hura ere. Gela hartan baziren arma guzietarik. Hartzen du sabre bat berekin eta gordetzen du bere arroparen tartean. Badoha aintzineat eta atzematen ditu bere bi aizpak abantzu gosiak hillak eta jaun gazte bat igual. Hartatzen ditu ahal bezin ungi jauna ethorri artean.

Arribatzen da jauna. Galdetzen dio iyan izatu den gela hartarat. Erraten dio baietz eta ematean gakoak jaunari uzten ditu espres lurrerat erortzerat eta tarte artan jauna beitzitzen da biltzeko eta neskatak pikatzen dio lepoa. Atsegin hartu zuen. Fite badoha bere aizpen libratzerat eta jaun gaztea zeñia beitzen errege semea. Ekhar arazten du bere aita zapatilla, hau uzten du bere bi alabekin eta hirugarren alaba badoha bere jaun gaztiarekin. Ezkondu eta ungi bizi baziren ungi hil ziren.

*(«Petit Poucet» Bellevue andereak kondaturik)*

## BALIGUA GURE AITA ETA AGUR MARIARENA

Asko munduan bezala baziren jaun andre batzuek. Arras aberats aberatsak ziren. Jauna untzitako kapitana zen. Bazituzten bi mutiko tiki. Jaun hori arras karitatosoa zen: aste guzietan ethortzen zen gizon xahar bat gure aita eta agur maria erraterat eta jaunak ematen zigoen amonia. Jaun hura badoha untzitan eta gure gizon xaharra heldu da bere usaian eta andreak erraten dio:

—Ez du balio ethortzea gehiago. Nik erranen dut gure aita eta agur maria hori.

Eta egortzen du deus eman gabe. Pobre gaxo harek ez du ahanzten zoin egunez egorri duten deus eman gabe. Jaun kapitain harek izaten du egun batez denbora izigarri bat non, uste beitzuen denek galdu behar zutela. Bañian eskapatzen dire mirakuluz bezala.

Biaia in eta heldu da etxerat. Erraten du emazte hari izatu dituztela denbora tzarrak eta bizi zen kontent. Ez du ikhusten gehiago ethortzen lehengo pobre xahar hura. Erraten dio bere emazte hari iyan hil den. Erraten dio ez dakiela zer billakatu den.

Egun batez bazualarik pasaiyatarat atzematen du gizon xahar hura eta galdetzen dio nola ez den bada gehiago ethortzen haren etxerat. Erraten dio nola andreak erran zigoen holako egunetan, ez zuela balio gehiago gatea, erranen zuela berak gure aita eta agur maria hura. Erraten dio ethortzeko lehen bezala.

Badoha etxerat koleran eta kasatzen du bere emaztea erraten digoelarik:

—Ikhasen duzunian gure aita eta agur mariaren baligoa ethorriko zare etxerat.

Badoha beraz gan, gan, gan, eske, eliza guzietan arrastatuz eta aphezari galdetuz othoitz haren baligua, bañian hainbertze denboraz nihork ez zuen lagundu. Badabilla bethi belarra sortuba bere ganean, zikiña yarrian, errestan. Bazabillan bethi. Badohalarikan oihan batean, atzematen du fraide xahar bat. Erraten dio hari ere nola dabillan gure aita eta agur mariaren baligua jakin nahiz eta nihork ez digoela erraten eta harek ez dakien bada.

Gure fraideak erematen du berekin zerurat, handik ifernurat, gero purgatoriorat. Han ikhusten du su tiki tiki batentzat egiten oiui miñ



batzuek, su handia zutenek bañion gehiago eta erraten dio fraideak, gure aita eta agur maria batekin su ttikia duen hau ganen da zerurat, bañian nehork ez dio erraten eta horren sofrikariak dire hain miñak. Emazteki harek erraten ditu berehala eta salbatzen du arima hura. Fraideari millaka eskerrak eman eta abiatzen da bere etxe alde bethi eske.

Noizbeit arribatzen da. Galdetzen du karitatea. Neskatuak ematen dio. Galdetzen du orañion gab hartako leiorra. Neskatzak erraten dio ezetz. Bañian hala othoizten du zoko batean bederen utz dezan non badoha nausiari erraterat. Nausiak erraten dio:

—Gurea ere badabilla nonbeit.

Sar araz dezala sukalderat eta eman afaiterat. Neskatzak ematen dio. Muthiko hek han zabilzan haren ingurutan. Emazteki harek iten zioten begitarte harek eta urbiltzen ziren bethi harenganat. Neskatuak erraten diote haurreri ogerat gateko tenorea dela eta haurrek erraten diote emazteki harekin gan nahi dutela ogerat. Neskatuak ezetz. Haurrek baietz. Badoha nexkatxa nausiari erraterat zer pasatzen den eta nola emazteki hura zikiñak jana den. Nausiak erraten dio:

—Hola nahi badute, emazu emazteki hori maño batean, ungi salboña dadiela, emanen diozkatzu athorra eta gañeatiko arropa guziak garbiak eta emanen dituzu holako geletako ogean.

Egiten du nausiak erran bezala eta badohazi ogerat. Biharamunian, nagusia goiz jeiki eta badoha kurri bere pasaietaren iterat, haurrak orañion ogean zirelarik. Bide puska bat in duen onduan aditzen ditu ezkillak errepikaz (denbora hartan ezkillak beren beitarikan jotzen hasten ziren, zerbeit gauza espantagarriren anontzatzeko. Galdetzen du:

—Non da? Zer da?

Nihork ez zakien eta mundu guzia athetarat eta leiotarat atheratuak ziren. Badoha bere etxerat oroiturikan bezperan zer pasatu den bere etxean. Arribatzen da eta galdetzen du iyan haurrak jeiki diren. Erraten dio neskatzak ezetz. Badoha gela hartako atherat eta ikhusten ditu argi handi batzuek. Idekkitzen du athea eta ikhusten du gela guzia argitua. Ezagutzen du bere emaztea duela han, bañian hilla bere bi haurren erdian eta hekiek ere hillak. Pentsazue aita haren xangriña, ikhustea bere haurrak hillak.

Egortzen du bere neskato bat lasterka aphezen billa ez beitzakien zer billaka. Heldu dire aphezak. Suprenituak dire han pasatzen diren gauzez eta emazteki harek beitzuen liburu bat eskutan nahi zioten hura kendu, bañian nihondik ez zuten posible. Erraten diote senarrari iyan entsaiatzeko, iyan hari utziko digoen hartzerat. Urbiltzen da eta liburua

hartzen du batere bortxarikan gabe. Arritubak dagozi denak. Liburu hartan zen zer penak sofritu zituen etxetik egorri zutenetik eta zer gosta zitzaioen gure aita eta agur mariaren baligua ezautu arte.

Jaun hura prestua zen lehen ere eta karitatosoa bañian gauza hori ikhusiz geroz izan zen orañion prestuago bere etxeko neskatzak arroskoak beitzituen konbertitu, eta prestutu ziren arras.

Ni ere herri hartan nintzen ezkillak ari zirenian. Gan nintzen etxe hartarat, bañian ezin hurbildu nintzen gela hartarat hainbertze jende beitzen han.

*(Catherine Elizondo)*



## MUNDUA MILA PES

Asko munduan bezala baziren jaun andre batzuek. Arras aberatsak ziren. Bañian pena handi bat bazuten, haurrik ez izatea. Ari ziren bethi othoitzean Jainkoari haur bat izateko. Azkenian badute grazia hori bañian hekien haurra hain da ttikia non sortzean haren buruba heltzaur bat bezen handi baitzen. Etxeko jende guziak hartaz okupatuak ziren. Hala bizi izan zen zazpi urtetaradiño.

Egun batez mutilla bazuan idiekin landarat. Munduan-Milla-Pes-ek erraten diote gan nahi duela harek ere mutilarekin idien zaintzerat. Uzten dute gaterat. Ungi kontutzen du mutillak. Uri sorta batzuek asi eta antolatzen du aza tartetan ostoa baten azpian eta badoha lasterka parasol baten billa. Heldu da lasterka gibelerat eta ez du atzematen Munduan-Mila-Pes. Hari da oiuka. Zerbitzariak heldu dire etxetik. Heiek ere ari dire oiuka bazter guzietarat, bañian nihon ez Munduan-Mila-Pes. Azetarat ethorri baitziren idiak, pensatu zuten hekietarikan batek jan bide zuela aza ostuarekin batean. Orduan haren buruba sagar mandaburu bat bezin handia zuen.

Aita eta amak peñ handian ziren eta erraten diote mutilleri hiltzeko berehala idiak. Hiltzen dituzte eta egortzen neskatxak ithurriat tripekin. Asi direnien, ikhusten dute han dutela Munduan-Mila-Pes. Badohazi lasterka etxerat erraterat han dutela haurra. Heldu direnien gibelerat, atzematen dute tripa guziak janak ohoñ xakur batez.

Buraso gaxo hekiek ez ziren beñere kontsolatu beren haurra galdurik.

*(Catherine Elizondo)*

## HAURRA TROKATUA

Asko munduan bezala baziren jaun andre batzuek. Arras bere aisean ziren. Bañian ez zezaketen kontserba haurrik. Hainbertze izan zituzten eta denak hiltzen. Andrea berritz ere gertatzen da esperantzetan. Erditzen da ilhuntez batez mutiko eder batez. Bi gizon gaztek aditu zuten berri hori eta erraten dute elkarriz besta in behar dutela etxe hartarikan zikiro bat ebatsiz; ez zutela konturikan inen beren lan eta kontentamenduekin.

Badoha beraz mutiko hekietarik bat hameka orenak onduan etxeren ingururarat. Errekontratzen du emazteki zahar bat. Erraten dio:

—Norat zoazi mutil?

—Egia bezalakorik ez da. Banoa holako etxetarat. Andrea erdi beita, nahi dut baliatu, ez dute berdin kasurikan inen egun, zikiro baten ebaste-ko. Eta zu, norat zoazi?

—Ni ere etxe hartarat nua. Sorgina naiz, eta nik hill arazten diozkattet haur guziak.

—Eta nola iten duzu?

—Erreski. Haurrak egiten duenian urtzintz ez du nihork erraten Doministeko. Eta orduan ni haurraz nausitzen naiz.

Sorgin hura sartu zen duda gabe, nahi zuen bezala. gure mutilla bañion errexiago. Noizpeit hura ere sartu zen. Hari zen zikiruaren beres-ten, aditzen duenian haurrak in duela urtzintz. Erraten du gora gora:

—Doministekun, zikirorik ez badut izanen ere.

Badohazi ikhusterat nor zen han eta zer erraten zuen. Mutiko harek kondatzen du zer erran zigoen emazteki zahar batek. Pentsatzen duzen bezala ungi eman ziozkaten eskerrak eta beres zezan zikirorikan ederrena. Aita eta ama lorietan zagozin haur hura kontserbatuko zutela, bañian gaxuek ez zituzten denak ikhusi.

Debru bat ethorri zitzaioten. Hartu zuen haur hura eta ereman bide baten egirat eta han utzi. Karrosazain bat han pasatzean ikhusten du haur hura, hartzen berekin. Ezkondua zen eta haurrik ez zuten eta desira handia zuten baten izatea. Arras aisean ziren. Emaztea bozkariatu zen ikhustea haur eder hura. Eman zioten amaño on bati eta haur hura handitzen zen eta edertzen. Harritzeko zen.

Debru hura eman zen haur haren oge ttikian. Ama harek ematen zigoen bularra eta bertzearen kontrarat ez zen nigorat handitzen. Buraso hekiek penetan ziren holako haur bat izatea. Ez zakiten zer pentsa.



Hekien egiazko haurra espantagarria zen jakitatez. Karrosazaina eta bere andrea xoratuak ziren eta maite zuten beren haur bat bezala.

Amabi urtetarat ethorri zenian erran zioten beren aita eta amari fraide egiñ behar zuela. Karrosazaina eta bere andrea xangrintzen dire. Erraten zioten in zadiela soilki aphez, bañian ikhusi eta haren desira handia uzten dute berak nahi bezala. Partitzen da, beraz eta hemezortzi urte-tako eman zuen meza.

Han zelarikan egun batez, bi gizon pasatzen zirelarik bere egiazko aitaren baratziaren onduan, disputan hari zirelarik, hala asarratzen dire non batek bertzea hiltzen du eta botatzen jaun haren baratzerat. Aita hura jujatzen dute eta kondenatzen hiltzerat, harek hil duela gizon hura.

Mutiko fraide hura meza ematen hari da. Heldu zaio uso xuri bat eta erraten dio zer pasatzen den haren aitaren etxean, hartuko duela uso harek haren gorputza eta parti dadiela haren forman. Fraideak iten du gogotik harek erran bezala eta arribatzen da aita hura erematen zutelarik hiltzerat. Segitzen zuten jujek eta jende hañitzek. Galdetzen diote zer in duen. Erraten diote gizon bat hil duela. Galdetzen du iyan inen dioten fagoria hil bañion lehenago segitzeko gizona hil duen haren tonbarat. Erraten diote baietz.

Badohazi guziak. Fraide harek idek arazten du tonba. Pitz arazten du eta galdetzen dio bere aita irakutsiz iyan harek hil duen. Erraten du hillak ezetz. Hori erran eta berritz hiltzen da. Fraideak ez zuen nahi jakin nork hil zuen. Bazakien aski hola.

Aita harek nahi zuen fraidea berekin ereman bere etxerat bazkaite-rat, bañian ez zuen nahi egun hartan. Erran zigoen holako egunetan ganen zela. Pentsatzen duzuen bezala in zuten bazkari eder bat. Konbitatu zituzten beren lagun eta adiskide guziak bazkaltzerat heiekin. Deus ez zen falta. Arribatzen denian, emazteak mahainean eman bañion lehenago erran zigoen nahi liokela irakutsi bere haurra, nola hemezortzi urte artan bularretik azten zuen oranion eta nihorat ez zela handitzen, bethi sortzean bezala zagoela.

Fraide hura asten da othoitzean eta ikhusten du haur zelako hura debru baten itxuran gaten su eta karretan, etxiari puska bat erematen zigoelarik. Erraten dio amari ez xangrintzeko, debrua zuela han eta uru-sago izanen dela halako haurrik gabe. Mundu guzia espantitua zen fraide haren podoriez.

Bañian amak peña zuen orañion. Fraideak haren kontsolatzeko erraten dio bere bizia, nola hura zen egiazko haren semea, nola debru

harek ereman zuen bide bazter baterat eta nola izan zen bildua karrosazain batez eta hura bera zela fraide iña eta haren semea.

Denak soratuak ziren haren itzez. Ederki bazkaldu eta fraidea gan zen bere komenturat eta aita eta ama hekiek bizi izan ziren prestu aintzinean bezala. Ungi bizi baziren, ungi hil ziren.



## BI MANDOZAINAK

Asko munduan bezala baziren bi mandozain. Bakotxak bazituen zazpi mando. Bazoazin bere manduak kargatuak merkaturat. Egiten dute parigo bat eta galtzen zuenak galtzen zituen bere zazpi manduak. Irabazten du batek parigua, bainan ez bide zuzenez. Tronpatu zuen. Alere ematen diozka mandoak.

Galdu zuena familiako aita zen hurrez kargatua. Ez zakien nola in bere etxerat gateko, halako pena zuen gertatu zitzaioenaz. Zer egiten du? Etxerat gateko pasatu behar zuen zubi batetik. Badoha haren azpirat han pasatuko duela gaba. Gaberditan aditzen du bozaz leher. Sorginak heldu ziren akelarrerat. Batek fusta, bertzeak husta, han hari ziren dantzatan atabal soñuz. Ungi jostatu direnien erraten du batek holako etxetako etxeko andria zazpi urthe huntan ez dezaketela senda. Zernahi iten dute. Bañian ez dute sendatuko atzeman arte elizako athetan, arri baten azpian zapo batek agoan atxikitzen duen ogi benedikatua, etxeko andre hari jan arazi arte.

Gure mandozainak ungi ikasi zuen sorgin harek erran zuena eta gan zirenian handik, badoha bere etxerat. Ez dio erraten andreari mandoak galdu dituela. Piska bat beztitu eta badoha gan, gan, gan, etxeko andre eri haren etxea atzeman arte. Arribatzen da eta galdetzen du ostatu piska bat, biyaiyetan dabillala eta iyan utziko duten pausatzerat zenbeit egun. Erraten diote baietz.

Ikhasen du andria eri dutela eta zernahi xautzen dutela hura ezin senda araziz. Gure mandozainak erraten diote:

—Nahi duzube ikhus dezadan? Nik ere zerbeit inen dut naski.

Sar arazten dute. Ungi billatzen du andria eta erraten dio:

—Orroitzen zare orai duela zazpi urte nola botatu zinduen mesprezio batekin elizako athetan ogi benedikatua?

Erraten dio baietz.

—Geroztikan zapo batek han dauka bere agoan ogi hura eta ez zare sendatuko hura jan arte.

Senarra partitzen da kusian mandozainarekin harek erran bezala. Atzematen dute arri baten azpian zapo hura bere ogiekin. Hartzen diote. Erematen dute etxerat. Ungi garbitu eta ematen diote jaterat etxeko andreari eta hura jan orduko sendatua da. Pentsazue hekien bozkarigua.

Arras aberatsak beitziren, senharrak erraten dio galde dezala nahi duen guzia, izanen duela. Mandozainak erraten dio ungi kontent litakela zazpi mando balitu, hekiek galduz dabillala. Erraten dio etxeko jaunak ez dela deusik zazpi mando harentzat. Ematen diozka zazpi mando eder eta sehurik bertze zazpi erosteko handizki dirua. Ungi kontent zen gure mandozaina. Ez beitzuen urgullurik asi zen lehen bezala tratuan.

Ikhusten zuen maiz mandoak ebatsi ziozkan mandozaina, bañian bere hamalaur manduekin ez zen urusago. Eritasuna eman zitzaioten eta ethorria zen lauetarat eta handik laster denetaz gabetu zen. Badoha bertze mandozainarengan eta galdetzen dio nola egin duen bada mandoak izateko, hura lehen zen bezela dela. Erraten dio:

—Hua holako zubi azpirat. Nik han ikasi nikan non atzemanen nituen nere mandoak eta hik ere ikasiko duk naski zerbeit.

Badoha gure gizona. Gaberditan heldu dire sorginak harrabots hañitzekin, atabal eta tanburin soñuz. Ungi kontent ziren guziak. Iten dute dantza aldi bat eta erraten du batek:

—Holako etxekandre sendatu da. Norbeit ethortzen bide da hunarat, guk zer erraten dugun aditzerat. Behar dugu zubi azpi hori ungi billatu.

Badohazi guziak eta han atzematen dute gure mandozaina. Ez zitatek nihon gorde. Batek jo, bertzeak pusa, han ibili onduan, botatzen dute urerat eta han finitu zen gure mandozain tronpatzailea. Bertzea bizi izan zen lanian, aberats eta urus bere familiaren erdian.

Orduan bizi nintzen zubi haren muthurrean etxe txiki batean. Aditzen nituen arrats guziez eta aditu nituben mandozainaren plainoak.





## TARTARO

Asko munduan bezala bizi zen ama bat bere hiru semeekin. Ez ziren aberatsak bañian lanetik bizi ziren. Mutil zaharrenak erraten dio bere amari egun batez abantailla gehiago luketela gaten balitz mutil. Amak ez zuen nahi bañian azkenian uzten du.

Badoha gan, gan, gan. Arribatzen da etxe baterat. Galdetzen du iyan behar duten mutilik. Erraten diote baietz. Iten dituzte kondizioñak: jaunak emanen dingoela soldata handia, ehun milla libera. Bañian muthillak egin beharko dituela nausiak manatzen dituen guziak eta ez baditu iten, nausiak bizkarreko larruba ken urtearen buruban eta soldatik gabe egor. Mutillak erraten dio ungi dela, azkarra dela eta ariko dela lanian.

Biharamunetikan ematen dio nausiak lan hañitz. Egiten ditu aiseki. Azkeneko hillabetetan nausiak bortxatzen du gehiago. Egund batez egor-tzen du landarat hamalau erregu ogien ereiteko egun hartan. Mutilla badoha tristeki idi pare bat hartu eta. Heldu da noizpeit arratsean. Nausiak erraten dio:

—Iñ duk lana?

Erraten dio ezetz.

—Oroitzen haiz kondizionez? Behar haut bizkarreko larrua kendu.

Hura duk hire soldata.

Kentzen dio erran bezala eta egortzen deus gabe bere etxerat. Ama hura penatu zen ikhustea arribatzen hain mehe eta eri, deus dirurikan gabe. Kondatzen du zer pasatu den eta bigarren anaiak nahi du partitu berehala, azkar dela hura eta iñen duela harek bañion lan gehiago. Amak ez zuen nahi bañian utzi behar izan zuen. Badoha jaun beraren etxerat. Kondizione beretan sartzen da eta urthea abantzu zuelarik, egortzen du hura ere hamalau erregu ogien eraiterat.

Partitzen da goizean goiz bi idi parekin, bañian ilhuna ethorri zen harek dena erain gabe. Nausia loriatu zen hori ikhustearekin. Kentzen dio hari ere bizkarreko larruba eta egortzen du etxerat deus dirurik eman gabe. Pentsa azue ama haren xangrina bi haurrak ethortzea planta hartan.

Hirugarrenak nahi du partitu. Berehala segurtatzen du ama harek ekharriko duela dirua eta bere bizkarreko larruba. Badoha jaun haren etxerat. Erraten dio hari ere soldata handi ematen duela, bañian harek erran guziak itekotan, bertzenaz bizkarreko larruba ken eta deus gabe

egor urthearen buruban. Ungi ari arazi zuen lañian hamar hilabetez bañian orduan nahi zuen frogatu. Egortzen du landarat eta erraten dio behar duela hamalau erregu ogi erain arratseko. Erraten dio baietz. Artzen ditu bi idi pare. Badoha landarat. Egiten du ildo bat eta han botatzen ditu hamalau erregubak. Landaren inguruban egiten du bertze hildo bat hekien estaltzeko eta badoha ilhuneko etxerat. Nausia arrituba da. Galdetzen dio iyan erain duen. Erraten dio baietz. Dena lurrean dela. Posible duela segurtatzea. Nausia ez zen kontent. Beldurtu zen.

Biharamunian egortzen du hamasei hazienda buruekin holako landarat eta erraten dio sar arazteko hazienda hekiek geretarik eta athekarik ideki gabe. Gure mutillak hartzen du aizkora bat, bordiñ sahardi bat, aintzur bat eta badoha. Arribatu denian landa hartarat, hiltzen ditu denak bapanazka aizkorarekin, puskatzen eta burdin sahardiarekin landarat botatzen. Heldu da arratsean etxerat. Nausiari erraten dio, han zirela hazienda guziak landan, harek erran bezala. Ez zen nausia kontent bañian ez zezakeen deus erran. Biharamunian erraten dio gateko holako oianetarat eta ekhartzeko handik orga bat egur, bañian denak zuzen zuzenak. Badoha gure mutilla eta pikatzen du xara bat gaztain ondo, nausiak berak landa arazi zuena eta ungi ederra zena eta heldu da etxerat. Nausia, hori ikhusi eta, ez zezaken deus erran. Bañian ez zen kontent. Erraten dio biharamunian gan behar duela berritz ere idiekin eta ekharri orga bat egur, bañian denak makurrak, zuzenik ekhartzen balin bazuen, hanbat gaistoago arentzat.

Badoha mutikoa eta atheratzen du mahasti eder bat. Orga kargatu eta heldu da etxerat, nausiak hori ikhusi eta ez zezakeen deusik erran. Ez zakien zer pentsa. Egortzen du oian baterat. Han bazen tartaro bat. Harat gaten ziren jende eta alimale guziak jaten zituena. Ematen diozka nausiak hamar xerri eta ematen dio hamar egunentzat jatekoa erraten dingoelarik han aseko direla xerriak, ezkurrez hañitz beitzen, eta ethortzeko hamar egunen buruban.

Abiatzen da gure mutilla. Badoha gan, gan, gan. Errekontratzen du emazteki xahar bat. Erraten dio:

—Norat zoazi, mutil?

—Holako oihanetarat, xerri haukien asetzerat.

Erraten dio emaztekiak:

—Zuhur baduzu ez zeitela gan. Janen zeitu Tartaro izigarri harek.

Emazteki harek bazuen saski bat eltzaur buru gañean eta erraten dio:

—Ematen balin banauzkizu bi eltzaur garraituko dut Tartaroa.



Ematen diozka gogotik eta badoha aintzina gan, gan, gan eta atzematen du bertze emazteki xahar bat hari harilkatzen ari zena. Erraten dio:

—Norat zoazi mutil?

—Holako oihanetarar.

—Ez zaitela gan. Bada han tartaro bat izigarria. Janen zaitu segurki eta zure xerriak ere.

—Gan behar dut. Igual da eta garraituko dut ematen balin banazki-zu zure bi harilko oikiek.

Ematen diozka gogotik. Badoha aintzina eta atzematen du arotz bat. Harek ere galdetzen dio norat duan. Erraten dio:

—Holako oihanetarar, xerri haukien gizen arazterat.

—Bazuazi gibelerat. Bada han tartaro bat segurki janen beitzoitu.

—Ematen balin banazu gerren bat, garai nezake.

—Emanen zeitut gogotik.

Badoha gure mutilla eta arribatzen da oihan hartarat. Pikatzen dioz-kate xerrieri buztanak. Gordetzen ditu segurrian eta agertzen zaio Tartarua. Erraten dio nola ethorri den harat, jan behar duela. Erraten dio mutillak:

—Jan zak xerri bat, bañian ez nezakala uki.

Hartzen ditu bi eltzaur eta karraskatzen ditu bat bertzearen kontra eta erraten dio:

—Baditiat hemen bi bala. Haukietarikan batek ukitzen bahau, hilla haiz.

Tartarua izitu eta badago ixil ixilla. Xerri bat jan eta heldu zaio orañion eta erraten dio:

—Egiñ behar diagu parigo bat. Zeniek egiten dugun egur zamarik handiena.

Tartarua hasten da pika eta pika. Uzten du gure mutillak. Egin due-nian izigarri bat, hasten da bere harilkoarekin arbolen inguratzen eta erra-ten dio:

—Hik hokiek eta nik hauk guziak.

Eta badoha arrimatuz. Tartaruak uzten du oranion bera baiñon abi-lagoa zela orainon. Bere hamar egunak beitzituen, egiten du gabaz su handi bat, gerrena han gorritzen du eta Tartarua lo zagoelarik sartzen dio gerren hura bere begi bakarretik. Xerri buztanak hartu eta badoha oihan hartarik xerririkan gabe, zeren Tartaruak eguñian bat jan beitzigoen.

Bere nausiaren etxearen ingurutan bazen andre-basa bat. Gure muti-llak botatzen ditu ahal bezela xerrien buztanak basa artarat, bat ez salbo,

eta badoha lasterka nausiarenganat erraten digoelarik xerriak bozkariotan heldu zirela etxe alde.

—Hala berotuak ziren lasterka ethorritz, non basan sartu beitzizkit guziak. Bat nahi izan dut tiraka athera arazi, bañian buztana bertzerik ez zeit ethorri. Huna non dutan.

Badoha nausiarekin andre-basa hartarat, bañian ez zen nausi hura ere menturatu han sartzia hekiek handik atheratzeko. Tristeki gan zen mutillarekin bere etxerat ez jakiñez geihago zer pentsa. Hantxet kondatu ziozkan bere ehun milla liberak eta gan zen fierrik bere etxerat, bere ama eta anaienganat. Han bizi izan zen urus eta gizona gelditu zen ehun milla libera gutiagorekin. Baliatu zitzaioen beitzuen hañitz.



## SORGIÑA

Asko munduan bezala baziren jaun andre batzuek; nekazallak edo laborariak ziren eta aisean ziren. Bazuten mando bat eta gaten zen gizona traturat bere mandua arnoz kargatueta eta egoten zen zortzi bat egun kanpoan. Bethi ostatu berean jausten zen. Han baziren ama alaba batzuek. Egun batez mandoak kargatu eta partitzen da. Emaztea erdi beharra zuen. Orenaren beira zagoen, bañian galdea galdearen gainean beitzuen, bortxatua da partitzera.

Badoha eta arribatzen da ostatu hartarat. Merkatu eguna beitzen ez zuten haren gela gardatu bertzetan bezala zeren jende hanitz beitzuten eta ematen dute sukaldearen onduan zuten gela itsu batean. Ez zen oraino loharkatuba. Aditzen du ama zaharrak erraten bere alabari:

—Ez dakin? Hor dugun gizonaren emaztea erdi dun. Hua ikhusterrat iyan lo dagoen.

Gizonak hori aditu eta ematen da zurrungan. Neskatzak aditu eta zurrungan zagoela athe tartetik erraten dio bere amari.

—Ba, ba! lo dago.

Erraten dio amak orduan (pentsa azue iyan erne zagoen gizona!)

—Gan behar dinat haur sortu berri haren xarmatzerat.

Altxatzen du arri bat supazterraren aintzinean. Handik atheratzen du kasola bat zentan beitzen gantzudura bat. Eskoba bat hartu eta ungi arraskatzen du bere buruba erranez:

—Edoi guzien azpitik eta lahar guzien gañetik. Horen erdi bat bideko, bertze bat hango eta bertze bat hunarateko.

Hori erran orduko gana da. Ikhusi duenian gaten, atheratzen da gizona gelatik. Ikhusi zuen zer in zuen. Gantzutzen da hura bezala, bañian erraten du «edoien azpitik eta laharren azpitik ere», tronpaturik. Oren laurden bat harat gateko, oren erdi bat hango eta oren laurden bat hunat ethortzeko.

Arribatzen da bere etxerat bañian funditua. Laharrek xehatu zuten dena. Bañian igual zitzaioien. Ematen da bere emaztearen athe gibelian makil handi batekin eta istantean heldu da gatu xuri handi bat ñau ñau. Gizonak hori aditu eta, atheratzen da gordea zen tokitik eta bere makilarekin abantzu hil zuen gatu hura. Eta partitzen da berehala ostaturat bañian ez erreski lahar guzien azpitik. Arribatu zen halere emaztea bañion lehenago. Badoha laster bere ogerat.

Biharamunian jekitzen denian ez du ikhusten alaba bertzerik. Galdetzen du non den ama. Miñez dagoela. Pagatzeko hari. Ezetz, nahia-go duela ama ikhusi. Badoha harenganat eta atzematen du ungi eri. Egun hartaritan ez zen gehiago gan ostatu hartarat. Bere etxerat arribatu denian kondatzen dio bere emazteari zer pasatzen zen eta haurra nola salbatu duen. Bañian ez ziren fini hortan. Maluru maluruen gañian zuten. Hainbertze behi hiltzen zaiozkate eta zituzten alimale guziak igual. Miseria gorrian gelditzen dire. Ez zakiten zer billaka.

Gizon hura pentsaketan zabillan tristerik errekontratzen duenian emazteki xahar bat. Galdetzen dio zer duen eta kondatzen diozka bere penak, zenbat malur izan dituen hainbertze hazienda galdu dituela, erosi dituela bertzeak eta hek ere istantean hillen zaiozkala. Sorginek xarmatua dela.

—Hala bazare aski duzu ematea heian gaitzuru baten azpian xirigo benedikatua piztuba eta atzemanen duzu.

Iten du emazteki xahar harek erran bezala. Gordetzen da mañateraren azpian eta gaberditan heldu da gatuaren itxuran eta ematen da ixtaklok idiaren gañian erraten duelarik:

—Lehengoak ederrak, bañian haukiek ederrago.

Hori aditu eta gure gizona atheratzen da gordia zagoen tokitik eta bere makilarekin ez du uzten arras hilla bertzerik.

Hori iñagatik gure gizona deus erresurtsarikan gabe zen, ez ogi, ez arto, ez behi, ez xerri eta bere emaztea eta haurra gosiak. Badoha zerbeit iñen othe duen. Errekontratzen du jaun bat eta erraten dio:

—Zer duzu gizona hoin tristerik?

Erraten dio:

—Miseria horrek penatzen du hanitz.

—Hori bertzerik ez baduzu adituko dugu elkar. Nahi baduzu, emanen zaitut nahi duzun bezenbat diru, urthearen buruban phentsatzen baduzu eta neri erraten, debruak zerekin iten duen kalitza eta ez balin baduzu pentsatzen orduko, zure arima neretzat izanen da.

Gizona, dirua artu eta badoha kontent etxerat geruaz oroitu gabe. Bizi zen urus zenbeit denboraz bere emaztea eta haurrarekin bañian denborak urbiltzerat, tristatzen hari zen eta ez du erraten deus bere emazteari. Egun batez bazabillan urrun bere sekretua jakin nahiz, billa eta billa. Gabak atzematen du eta arrastatzen da bide gurutze batean gordea. Badakizue, bide gurutzetarat ethortzen dire sorgiñak elkharrenganat biltzerat. Arribatzen dire beraz hustan handik eta fusta hemendik, dantzian. Ungi jostatuta direniala hala, hasten dire berri kondan. Batek erraten du:



—Ez dakizue holako gizonak saldu duela bere burua debruari. Sehurki ez du pentsatuko debruak zerekin egiten duen kalitza.

—Ez dakinat nik ere. Erran nazan.

—Giristinoek igande egunean pikatzen dituzten beatzekin.

Gure gizona doi doia egotu zen agertu gabe bozkarioz. Argia ethorri orduko sorgin guziak gan ziren beren etxetarat. Gure gizona ere gan zen bererat. Ez zen gehiago triste. Bazagoen eguna noiz ethorriko zitzaioen.

Ethorri zenian badoha bide gurutze baterat. Han zagoen janeko bere jauna, debru hanitzekin ethorria, pentsatzen beitzuen ifernuko izanen zuela. Galdetzen dio:

—Badakik zerekin debruak egiten duen kalitza?

—Ez dakit. Entsaiautuko naiz. Giristinoek igandetan pikatzen duten beatzarekin.

Hori erran orduko debrua badoha bertze guziakin, su eta kar sistuka, ifernuko zolarat. Gure gizona gan zen bere etxerat eta bizi izan zen luze, urus bere emaztea eta alabarekin. Ungi bizi izan baziren, ungi hil ziren.

## AXERIA

Egun batez axeri bat bazabilan gosiak. Ez zakien zer pentsa. Ikhusten zuen egun guzietz artzain bat pasatzen bere artaldearekin eta bere gogoan in zuen behar zigoela ebatsi esnea eta gasna ase bat iteko. Bañian norbeiten laguntza behar zuen zerbeit iteko. Badoa otso batengana eta erraten dio.

—Otso! Otso! Behar diagu in besta bat holako artzainaren esniarekin edo gasnekin. Hi ganen haiz artaldea den tokirat, urrundik eginen duk uhur, uhur, uhur. Gizonak goizean goiz bere ardiak deitzi eta egortzen dik bere landarat xakurrarekin eta egoiten duk bera lanen egiten. Orduan iten dik gasna. Hi asten haizenian uhauka, zakurra asiko duk sangaz. Artzaiña denak utzirik ganen duk lasterka eta nik tarte hartan ebatsiko diat esnia eta partituko diagu ethortzen aizenian.

Otsoa gan zen akort besta in behar zutela. Iten du axeriak erran bezala. Zakhurra asten da sangaz otsoa urbil duenian bezala. Gizonak hori aditu eta, badoha denak utzirik eta gure axeria badoha eta ebasten du kaikuan zen gaztanbera. Zer egiten du orduan, otsoa ethorri bañion lehenago? Kentzen du puliki puliki gañia mehe mehia eta jaten du berak kaikuan zen guzia. Jan onduan bethetzen du ongarriz, ematen dio gañia gañian eta badago erran tokian otsoaren beira. Axeriak erraten dio, hura beitzen partitzaile:

—Gañia fiñena beita, hori autatzen duenak ez du hori bertzerik izanen eta bertzeak izanen du guzia. Berexak orai zer nahi dukan.

Otsoak erraten du ez duela nahi gañia, nahiago duela zolakoa. Axeriak artzen du beraz gañia. Eta ematen dio otso gaizuari kaikuba ongarriz bethia. Hori ikhusten duenian asarretzen da otsoa, bañian axeriak erraten dio ez dela haren falta, apahantziaz holakoa egiten duela artzain harek eta badoha axeria ungi aserik.

Bertze egun batez gosiak zagoen orañion. Ez zakien zer pentsa. Ikhusten zuen egun guzietz mutiko bat bere aitaren bazkariarekin pasatzen bide batean. Erraten dio zozo bati:

—Zozo! ez dakik zer in behar dugun? Behar diagu in bazkari on bat. Mutil bat pasatuko duk hemen instantian. Ganen haiz haren aintzinerat. Urbiltzen denian mutikoa hire artzeko, ganen haiz piska bat urrunago mainguka. Hola piska bat ibili onduan, mutilla kexatu eta pasatuko dik otharria hi lasterrago atzematoko eta orduan nik hartuko diat otharre



hura eta ganen nuk holako tokitarat eta han partituko diagu eta inñen bazkari on bat.

Zozoak erraten dio baietz. Mutiko hura pasatzean badoha zozua mutiko haren aintziñerat mainguka mainguka. Mutiko hura makurtzen denian, zozoa badoha igesi urruntxago. Azkenian mutiko hura kexatu eta pausatzen du bere otharria lurrean fiteago gateko zozoaren ondotik. Axeria erne zagoen baliatzeko otharriaz eta gan gabe erran tokirat badoha bere otharriarekin bere zilorat eta han ederki asetzen da, zozoaren partia ere janez.

Iten du bere beithan, ez duela deus onik egiñen gehiago han, otsoa etsai, zozoa ere, zerbeit gertatuko han egoten balin bazen. Eta iten du gan behar duela urez bertze alderat. Bazagoen ur bazterrian. Heldu da pasatzerat batelazain bat. Erraten dio:

—Ho! Gizon! ho! Nahi nazu pasatu ur hortan? Erranen zeizkitzut iru egia.

Erraten dio gizonak baietz. Iten du axeriak salto eta asten da:

—Erraten dute artoa ogia bezin ona dela. Hori gezurra. Ogia obia. Horra bat. Erraten dute ere: «zer gab ederra! Egunaz beziñ argi da!». Hori gezurra. Egunaz argiago. Horra bigarrena.

Eta erraten dio hirugarrena, urbildu zenian lurrari.

—O gizon! Gizon! Galtza txarrak dituzu bañian txarrak izanen dituzu ni bezalakoak pasatzen balin beituzu.

Orduan han nintzen ur hegian eta han ikasi nituen hiru egia hoik eta gehoztik ez ditut sekulan ahantzi.

*(The fox talks like a little child:  
haur tiki bat bezala mintzo da axeria)*

## OTSOA ETA ASTOA

Asko munduan bezala bazen asto bat. Bazuan kargatua, erreka batean, Nafarraz. Badakizube astoak izitzen direla hañitz otsoez, zeren otsoek hañitz maite beitate astoaren aragia. Bazualarik hala ikhusten du urrundik heldu dela otso bat. Ezin gorde ziteken nihon. Heldu da otsoa eta erraten dio astoak:

—Agur, agur otso jauna. Baldin egarri bahaiz, badiat Nafar ona edateko.

—Ez nuk ez egarri  
bañian ba gose arrigarri  
gaurko nere janari  
hire buru bearri.

—Otso jauna, baldin aski ona izaten bahaiz, meza baten entzuterat uzteko!

Erraten dio baietz. Badoha beraz gure astoa elizarat. Sartu eta bere zangoekin zarratzen du elizako athea barnetik eta han badago trankil. Otsoak berantetsi eta erraten:

—Ai ai! Hau mezaren luzia! Iduri du Erramuko eguna.

Astoak erraten dio:

—Otso zaharraren gazia  
hartzak pazientzia  
ni aingeruekin nihagok eta badiat gaurko bizia.

—Ai ai asto txarra mukitsu  
sobera sobera dakizu.

Berritz enekin ematen bazare mezarikan entzunen ez duzu.

Astoak erraten dio:

—Alagaien artalde  
xakurrik ere ez dute  
harat gaten balin bazare zikiro pare zinduke.

Otsoak etsitu eta gan behar izan zuen astoak erran artalderat. Ikhusi zuenian astoak gan zela, atheratu zen elizatik eta gan bere etxerat eta ungi kontu eman ez gehiago hurbiltzia otso tokietarik.



## MALBRUK

Asko munduan bezala baziren jaun andre batzuek. Haurrez karga-tuak ziren eta arras pobreak. Senharra gaten zen egun guzietz oihanerat egurketa bere familiarentzat. Emaztea esperantxetan handituba zuen. Oihanian zelarikan egun batez heldu zaio jaun bat eta erraten dio:

—Zer ari zare adiskidia?

—Egur iten familiaren azteko.

—Pobreak zarezte beraz arras?

—Ba, ba!

—Nahi baninduzu zure lehenbiziko haurraren aitabitxi in zuen legian, eman zintzakat dirua franko.

Erraten dio baietz, inen duela. Ematen dio diru hañitz. Heldu da etxerat. Emaztea erditzen da laster eta bazagozin ez jakinez nohat gaztia aitabitxiri, ez beitzakiten non egoten zen. Bera nonbeitikan agertzen da. Badohazi elizarat eta ematen dio izena Malbrok. Heldu zirelarik etxerat suntsitzen zaiote aitabitxi bere haurrarekin. Aita eta ama peñetan ziren nahiz bazuten haur hañitz. Bañian denborarekin istu zitzaioten pena.

Malbrok gan zen bere etxerat. Emaztea sorgiña zuen. Bazituzten hiru alaba. Malbruk txikia handitu zen fite hañitz. Zazpi urtetako gizon bat bezin handi zen. Erraten dio bere aitabitxik:

—Nahi huke gan hire etxerat?

Erraten dio:

—Ez naiz hemen nere etxean?

Erraten dio ezetz eta nahi badu baduakela hiru egunentzat harat.

—Hua holako menditarat eta handikan ikhusten dukan lehenbiziko etxea izanen duk.

Badoha mendirat. Ikhusten du etxea eta badoha. Atzematen ditu bere bi anaia athe gañean egur xehatzen hari direla. Erraten diote hekien anaia dela. Ez zuten nahi sinetsi. Sar arazten dute barnerat eta erraten du bere aita eta amari Malbrok dela. Arrituak dire halako gizon izatia zazpi urthetako. Lorietan pasatu zituzten hiru egunak eta erraten diote bere anaieri balitakela tokia haren aitabitxiren etxean hekientzat ere eta gan behar dutela harekin. Badohazi beraz hiruak.

Arribatu direnian sorgiña ez zen batere kontent. Erraten dio senharri:

—Ez dakiat nik hiru gizon hoikiek zerbeit inen geituzten. Ez nuk fida batere eta behar ditiagu hil.

Malbrukek ez zuen nahi bañian sorgiñak ez beitzioen bakerik ematen, erraten dio hiru egunen buruan hillen dituela. Zer egiten du Malbruk txikiak? Arratsetan hekien alabek ematen zuten buruan koruak eta Malbruk txikiak eta bere anaiek samuak. Malbrok txikiak? erraten diote behar dutela egin trukada. Hekien sanja dela orai koruak izateko. Neskak igual kontent, ematen diozkate. Gau batez badoha beraz Malbrok. Buruak ukitu eta ikhusi zuen samuak zituztela eta hiltzen ditu hiruak. Malbrok txikiak hori ikhusi eta atzar arazten ditu bere anaia. Hartzen ditu bere aitabitxiren zazpi leku egiten zituzten botak. Bere anaia hartzen ditu bere espalda gañetan eta badohazi gan, gan, gan.

Sorgiñak erraten dio Malbroki:

—Eman duk ungi kontu nor hil dukan. Ez nauk batere trankil zerbeit astokeria in othe dukan.

Badoha sorgiña eta ikhusten ditu bere hiru alabak hillak. Kolera gorrian zen eta ez zen erremediorik. Malbrok eta bere anaia arribatzen dire erregeren toki baterat eta ikhusten dute denak triste zirela. Galdetzen dute zer den. Erraten diote erregek bere hiru alabak galdu dituela eta nihon ezin kausi detzala. Erraten du Malbroke:

—Nik atzeman netzake.

Erraten diote hori erregeri. Laster ereman arazten ditu bere aintzinerat eta erraten diote hari ere atzemanen dituela. Partitzen dire hiruak. In dutenian bide puska bat, atzematen dute atxo xahar bat. Erraten diote:

—Norat zoazte hola?

—Erregeren hiru alaben atzematerat.

Erraten diote emazteki xahar harek:

—Zoazte erregerenganat eta galde zozube hiru ehun braza soka berri, pusader bat eta xilintxa bat.

Badohazi eta ematen diote erregek berehala galdetzen zutena. Badohazi emazteki xahar harenganat eta erraten diote atxo harek putzu hartan direla. Ematen da zaharrena pusadaren barnean eta erraten diote izitzen denian joko duela xilintxa. Barnaxko gan denian izitu eta jotzen du. Ekhartzen dute goiti. Bigarrena badoha eta barnaxago gan eta jotzen du harek ere izitzen beitzen. Sartzen da beraz Malbrok eta erraten diote:

—Nik tiratzen dutenian beheiti pusadera, orduan altxatuko duzube goiti.



Jausten da beraz eta ikhusten du noizpeit lur azpi hartan badela etxe eder bat eta ikhusten du andre gazte eder bat dagoela, suge handi bat lo altzuan. Ikhusten duenian Malbrok, erraten dio:

—Zoazi othoi hemendik, ez du hiru oren laurden bertzerik inen lo eta atzartzen bada, zu eta ni inak izanen gare.

Erraten dio:

—Igual da. Emazu puliki puliki atzarri gabe suge hori lurrean.

Ematen du eta erematen du andre gazte hori pusaderian. Tiratu eta badoha bertze gela baterat eta ikhusten du bertze andre bat alere ederra-go, leoin baten burua altzuan lo. Erraten dio harek ere:

—Zoazi hemendikan fite. Ez du oren erdi baten lua beizik. Atzartzen bada zurea eta nerea inã da.

Erraten dio Malbrokek:

—Emazu puliki puliki leoin horren burua lurrean atzarri gabe.

Iten du. Hartzen du Malbrokek eta pusaderian sartzten da harekin eta anaiek altxatzen dituzte biak. Eskribatzen dute berehala errege jaunari ethortzeko billa, atzeman dituztela bi alaba. Pentsatzen duzen bezala erregek egortzen du berehala karrosa bat heien bila eta iten ditu besta handiak. Erregek erraten dio behex dezan biyatarik zein nahi duen emaztetzat. Malbrokek erraten dio hirugarren alaba atzematzen duenian hura izanen duela emazte. Eta bertze anaiek ar ditzatela bi andre gazte heiek emaztetzat. Iten dute Malbrokek erran bezala eta partitzen da Malbrok bere andre beharraren billa.

Badoha gan, gan, gan. Ihiziki guziek ezagutzen zuten Malbrok. Bazabillalarik atzematzen du otso bat, potzo bat, miru bat eta xinaurri bat eta iten diote oiuhu Malbroki, erraten diotelarik:

—Norat hua Malbrok? Hiru egun huntan zikiro hau ezin partituz gaotzik ez akort izanez, bañian hik inen geituk partilla.

Badoha beraz Malbrok ikharetan, hura ere partituko dutela. Pikatzen du buruba eta ematen dio xinaurriari erraten dioelarik:

—Izanen duk hor jatekoa eta etxea.

Ematen dio miruari tripak eta potzuentzat eta otsoentzat egin zuen zikirua erditik. Utzi zituen denak arras kontent. Eta Malbrok badoha bere bidean ixil ixilla. Bide puska bat egin duenian xinaurriak erraten diote:

—Ez diogu Malbroki deus eman sari.

Eta otsoak iten dio oiuhu ethortzeko. Malbrok heldu da ikharetan haren sainja dela eta jan behar dutela duda gabe. Erraten dio xinaurriak:

—Deus ez haigu eman hain ungi partillak egin eta. Bañian nahiko dukanian xinaurri billakatu, askiko duk erratia «Jesus xinaurri»: xinaurri bilakatuko haiz.

Miruak erraten dio:

—Miru nahaukarian billakatu, erranen duk «Jesus miru» eta miru izanen haiz.

Otsoak ere erraten dio:

—Nahiko dukanian otso billakatu, erranen duk «Jesus otso» eta otso izanen haiz.

Eta potzoak ere igual.

Badoha aintzina lorietan. Oihanian zualarikan pika batek erraten dio:

—Norat hua Malbrok?

—Holako erregeren alabaren billa.

—Ez duk atzemanen erreski. Bertze ahizpak libratuz geroztik eremana duk itsaso gorritz bertze alde, irla baterat eta han etxe eder batean preso atxikitzen dik lehuak eta atheak halako xarreta txikiak ditzkek non xinaurriak bertzerik ezin sar beitätake etxe hartarat.

Malbrok berri hori jakiñik kontent zuan, atzemanen zuela bere printzesa. Badoha gan, gan, gan eta arribatzen da irla haren aintzinerat eta orroituz miruak errana, erraten du:

—Jesus miru.

Eta billakatzen da berehala miru.

Airatzen da eta badoha irlaradiño pikak erran bezala. Ikhusten du ezin sartu dela xinaurri bezala bertzerik eta erraten du:

—Jesus xinaurri.

Eta sartzten da tarte ttiki batetik. Soratua da ikhustearekin andre gazte haren edertasuna. Erraten du:

—Jesus gizon.

Andre gazte harek ikhusi duenian erraten dio:

—Zoazi hemendikan laster. Zure biziak egiña izanen du. Ethorriko da arima gabeko gorputz izigarri bat oren laurden bat gabe eta akabo izanen zare.

Erraten dio:

—Xinaurri bilakatuko naiz eta emanen zure paparuan baiñan ez sobra finki atzik in leher beinintzazuke.

Hori erran orduko arribatzen da mostrua. Ematen diozka epher eta uso bere janarizat eta berak jaten ditu suge eta zikinkeria batzuek. Erraten dio buruban miñ duela eta hartzeko martillua eta jo dezan



buruan. Martillua ezin altxa zezaken hain handia zen, bañian jo zuen ahal bezala.

Partitzen da mustroa. Sinaurria atheratzen da zen tokitik eta andre gazte harekin preparatu eta jaten dituzte epher eta usoak. Xinaurriak erraten dio:

—Behar diozu galdetu, peña handia izanen bazindu bezala, nola behar litaken in haren hiltzeko eta erranen diozu zeñen malurus zintazken hura hiltzen balitz. Gosiak hil litakela irla hartan preso.

Erraten dio andreak baietz.

Heldu da berritz ere mustroa eta erraten dio:

—Ai, ai, buruba! Ar zazu martillua eta jo nazazu finki.

Hari da andrea unatu arte eta erraten dio orduan zein malurus liteken hura hiltzen balitz. Erraten dio ez dela hilen. Segretu handiak jakin letzakela hura dakienak. Erraten dio:

—Nik ez nuke nahi shurki hiltzea. Gosiak hil nintake zu gabe irla huntan eta ez nuke deus abantaillik. Erran behar nazu zerk hil zintazken.

Erraten dio ezetz. Lehen ere emaztekiak galdu duela gizona eta ez dioela erranen.

—Erran dezakezu ba neri. Nori erranen diot. Ez dut eta nihor ikhusten. Nihor ez ditake ethor hunarat.

Azkenian, azkenian erraten dio beraz behar litakela hil oihanian den otso izigarri bat, haren barnean bada axeri bat, axeri haren barnean bada uso bat, uso harek badu buruan arroltze bat eta arroltze harekin kopetan jotzen banaute, hillen naiz. Bañian nork jakinen ditu hoik guziak? Nihork ez.

Printzesak erraten dio:

—Nihork ez, uruski! Ni ere hil nintake.

Badoha mustroa kanporat bertzetan bezala. Xinaurria atheratzen da. Pentsatzen duzuen bezala kontent sekretua jakinik. Biharamunetik partitzen da oihanerat.

Ikhusten du otso izigarri bat eta erraten du:

—Jesus otso!

Eta otso bilakatzen da. Badoha otso harenganat. Hasten dire kolpeka eta garrantzen du eta itotzen. Han utzi eta badoha andre gaztearenganat irlarat eta erraten dio:

—Badugu otsoa. Hill eta utzi dut oihanian.

Heldu da gero mustroa dioelarik:

—Ai! Ai! buruba! Jo nazazu fite buruba.

Jotzen du hunatu arte eta erraten dio printzesari:

—Hill dute otsoa. Ez dakit iyan zerbeit gertatuko zaitan. Ungi izitua nago.

—Ez duzu zeren beldurrik izan. Nik nori erran dezaket deusik? Nihor ez ditake sar hemen.

Partitzen denian, sinaurria ere badoha oihanerat. Idekitzen du otsoa eta ateratzen du axeri bat lasterka eskapatzen dena. Erraten du Malbrokek:

—Jesus potzo.

Eta bilakatzen da potzo. Ematen da hura ere lasterka. Atzematen du axeria. Kolpeka hasten dire eta itotzen du hura ere. Idekitzen du eta ateratzen da uso bat. Erraten du Malbrokek berehala:

—Jesus miru!

Bilakatzen da miru. Badoha usoaren atzematerat. Hartzen du bere aztapar izigarriekin eta kentzen dio burutik arroltze balios hura eta badoha fier bere andre gaztearen etxerat. Kondatzen dio in duela bere jokoa ederki eta erraten dio orai haren sainja dela, in dezala berak. Iten da berritz ere sinaurri. Arribatzen da gure mustroa oihuka, akabo dela, arroltzea hartu dutela usoari eta ez dakiela zer billakatu behar duen. Erraten dio martelluz jo diozan buruba. Erraten dio neskaxa gazteak:

—Zeren beldurra duzu? Nork atzemanen du arroltze hura? eta nola behar litake jo zure kopeta?

Erakusten dio erraten dioelarikan hola, neskaxa gazteak eskuan beitzuen arroltzea, jotzen du mustroak erran bezala eta erortzen da hil gohorra. Istant berean sinaurria atheratzen da kontentik eta erraten dio gan behar dutela berehala andre gazte haren aitaren etxerat. Idekitzen dute leiho bat eta gizon gaztea iten da miru eta erraten dio andre gazteari:

—Lot zeite finki nere lepoari.

Airatzen da eta arribatzen irlaren bertze alderat eta eskribatzen berehala errege jaunari egor zezan hekien billa berehala kusian. Erregek egozri zuen eta pentsa azube zer bozkarigoak eta bestak izan ziren korte hartan. Erregek nahi zuen berehala ezkont arazi bañian Malbrokek ez zuen nahi, behar zuela dotia ekharri. Erregek erraten dio irabazi duela aski jadaneko, bañian ez du nahi aditu hori eta partitzen da.

Badoha, gan, gan, gan bere aitabitxiren etxerat. Han bazen behi bat, adarrak urrezkoak zituena eta ekhartzen zituzten diamantezko fruituak. Mutil batek gardatzen zuen behi hura landan. Erraten dio Malbrokek:

—To! Ez duk aditzen nausia oihuka ari zaikala. Ua bada fite jakite-rat iyan zer nahi duen.

Mutila badoha siñetsirik. Nausiak egiten dio leiotik:





—Non habilla behiak utzirik? Ua fite. Ikhusten diat Malbrok han dabillala.

Mutikoa badoha lasterka, bañian behirik ez du atzematen. Malbrok gan zen fierrik bere behiaren ematerat bere andre beharrari, zeña hañitz kontent izan beitzen. Erregek nahi zuen ezkont zadien, aski aberats izanen zirela. Malbrokek ez du nahi orainion, behar dioela oroitzapen bat eman erregeri.

Partitzen da orainion bere aitabitxiren etxerat. Nahi zioen ebatsi ilhargi bat, zeinak argitzen beitzuen zazpi lekoetan. Aitabitxi Malbrokek edaten zuen arrats guziez barrika bat ur. Malbrok txikiak husten du barrika ur hura. Arratsa ethorri denian, Malbrok badoha edaterat barrikarat eta atzematen du utsa dela. Badoha emaztearenganat eta erraten dio ez duela ur sortik eta gateko berehala billa. Ez dagoela egarriak. Erraten dio emazteak ilhun dela, pitz dezala bere ilhargia. Pizten du eta ematen bere ximiariaren gainean tellatutan. Denak gan direnean ithurrirat, Malbrok txikia badoa ilhargi haren artzerat eta erematen du bere erregeri. Erraten dio soratua:

—Orai in duzu handizki. Ezkon zeite.

Bañian ez du nahi, behar duela bertze zerbeit ekharri orainion. Badoha beraz. Bazuen haren aitabitxik xirribika bat, zeinak aski zuen ukitzea zer nahi aire ederren jotzeko; eta aditzen zen zazpi lekoetan. Sartzen da bere aitabitxiren etxerat. Hartzen du xirribika eta uki orduko hasten da musika jotzen. Badoha Malbrok eta atzematen du bere semebitxia han.

Hartzen du eta ematen kaiola burdiñezko batian. Ungi kontent ziren jaun andreak. Erraten diote arratsean egosi eta janen dutela. Badoha Malbrok oihanerat egurketarat eta andrea ari zen egur batzuen xehatzen, bañian hañitz penatzen zen. Erraten dio Malbrokek:

—Athera nazu hemendik. Nik xehatuko zeizkitzut egur hoiek. Berdin arratsean hil behar nazube.

Libratzen du beraz. Zenbeit egur sehatu ondoan hartzen du lodien bat eta jotzen du Malbrokek emaztea eta hiltzen. Egiten du su handi bat, ematen du panderubaren barnean, egosten, hartzen du xirribika eta badoha etxe hartarik. Malbrokek aditu duenian xirribika, egiten du bere beitan:

—Nere emaztea ezin zagoken. Hil du duda gabe Malbrok eta bere loria niri erakusteko hartu du xirribika eta ez da gehiago kexatzen.

Arribatzen denian etxerat, badago loriatuba ikhustea hekien pande-rua suan dela, bañian urbiltzean ungi, ikhusten ditu ille handi batzuek. Atheratzen du piska bat gehiago eta ezagutzen bere emaztea dela han jadaneke erdi egosia. Pentsazube zer pena izan zuen.

Malbrok txikia gan zen erregeren etxerat. Ezkondu zen bere printzesa maitearekin. In zituzten besta handiak eta errege piska bat zahartu beitzen, eman zigoen bere korua Malbroki, ungi irabazia zuela. Eta bizi izan ziren denak urus. Bi anaiak in zituen errege ere.

*(Laurentine 35 urte. Bere amarengatik dauka)*



## LAUR KANTON

Bazen gizon bat arras aberatsa. Ezkondu nahia zagoen banian herri hartako neskatxek ez zuten nahi harekin ezkondu. Fama tzarra zuen. Egun batez ekhar arazten du mahastizain bat zeniak beitzituen hiru alaba eta erraten dio:

—Zure hiru alabetarik batekin behar dut ezkondu. Ez banaiz iten, hanbat gaixtuago zuretzat. Hill araziko zaitut.

Mahastizain hori badoha tristeki bere etxerat. Erraten diote bere bi alaba zaharreneri zer erran digoen M. Laur Kantonek. Erraten diote alabek ez direla schurki harekin ezkonduko. Inutil dela.

Aita badago tristeki alaba gaztena ethortzen denian. Erraten dio hari ere zer pasatzen den eta harek erraten dio:

—Aita ez zaitela trista. Ni ezkonduko naiz harekin eta ez zaizu deus gertatuko.

Badohazi beraz aita eta alaba. Ezkontzen da neskatxa hori. Aberatsa beitzen M.Laur Kanton, iten diozka arropa eder hañitz. Barrikaka zuen urhea. Neskatxa hura arras urus zen jaun harekin. Zenbeit denboraren buruban, erregek galdia egin zigoen gateko armadetarat. Bortxatua da partitzera. Erraten dio bere emazteari josta dadien ungi eta uzten dio diru hanitz. Emazteak erraten dio ezetz, etxean egonen dela nihor ikhusi gabe, hura ethorri arte.

Gan zen M. Laur Kanton korterat. Han zelarik martxant batek atakutzen du haren ero arazteko eta erraten dio ganen dela haren andrearen etxerat eta pariatzen ditu botikan dituen gauza guziak eta M. Laur Kantonek ehun mila libera, ez dela sartuko.

Badoha martxanta hura andre haren etxerat. Jotzen du athea eta erraten du jaunaren partez heldu dela letra batekin eta idekitzeko athea. Bañian ez diote idekitzen. Erraten diote bota dezala letra zilotik. Eta gau guzia athe hartan egon onduan inutilki, badoha oihanerat koleran, zituen guziak galdurikan. Ostikoka han ari zen.

Han pasatzen da emazteki xahar bat eta erraten dio:

—Zer duzu holako penetan izateko?

—Zoazi hemendik fite edo emanen zaizkizut bi bearrondoko.

Emazteki hura sorgina zen. Gizon hura urrikitzen da istant baten buruban ez entzutea emazteki xahar hura eta badohakio ondotik:

—Astian arras gaizki errezebitu zaitut, banian erran behar zaitut orai nere pena. Ditudan guziak galdu ditut parigo bat in eta M. Laur Kantonekin haren etxean sartuko nintzela, bañian gau guzia han egon naiz, bañian ezin sar ninteken.

—Hori bertzeik ez baduzu, deusikan ez da hori eta nik antolatuko dut hori.

Emazteki xahar hori badoha saski bat sahar artu eta. Jotzen du atea eta erraten du andrearen amaño dela eta idekitzeko. Idekitzen diote beraz. Andre gazteak irakusten diozka bere esposeko arropa ederrak eta biharamunekoak ere, bere urregate eta gañerateko edergallubak. Arropen altxatzen ari zelarik, sorgiñak hartzen du urre gatea andre gazte haren izenarekin zena eta ez du kasurik egiten andreak eta ez du eskas atzematen altxatzean zeren konfidentzia guzia beitzuen haren amaño zela erraten zuelakoan.

Sorgin hura badoha martxant harenganat eta ematen dio urregatea. Martxant harek ematen dio sari arropa denak berriak. Lorietan badoha martxanta M.Laur Kantonenganat eta urrundik irakusten dio urregatea. Pentsa azue zer kolera gure jaunak. Badoha berehala bere etxerat. Bidean zelarik egin arazi zuen kasa bat.

Jotzen du athea erraten duelarik nausia dela. Sartzen denian erraten dio bere emazteari aire bortitz batekin, doala berehala goiti eta eman dezala bere esposeko habillamendu guzia bere urreriarekin. Batere urreri eman gabe jausten da. Erraten dio iyan non duen bere urreri. Ezin atzeman izanez erraten dio, biharamuneko emanen diola. Erraten dio bera zaldi gañian eman eta, eman dadiela haren gibelean. Andre gazte harek pentsaturikan zerbeit, artu zuen diru hañitz berekin. Bide puska bat in dutenian, jausten dire. Ematen du bere emaztea kasa haren barnean eta botatzen du itsasorat.

Itsaso bazterrian bethi izaten beiti jendeak, kasa hura ikhusi eta, atzematen dute ahal bezala. Hasten dire joka ideki nahiz. Erraten dio barnetik:

—Puliki, puliki. Bada hemen jende bizia.

Ideki eta ematen diote sari ederra. Badoha ostatu baterat. Bestitzen da «ala jaun». Galdetzen du nor den eri handi hiri hartan. Erraten diote erregearen alaba, zazpi urte hartan, eta egun guziez gaten da lore eta belar biltzerat landetarat. Iten du dotorekin ezagutza eta behin badoha hekiekin erregeren etxerat eta erraten du bertze bati ilkitzean:

—Nik senda nezake andre gazte hori.



Erregek aditzen du hori eta erraten dio ethortzeko lehen bai lehen. Lehenbiziko bisitan ematen dio edaterat. Edan orduko igitzen du buruba. Ematen dio berritz ere edaterat eta jartzen da ogean. Hirugarrenean ematen digoenian edaterat iten du ogetik saltu. Pentsa azue zer bozkariguak ziren erregeren etxean.

Erregek ez zakien zer egin haren saristatzeko. Erraten dio ez duela deusik nahi herri hartako gobernamentua bertzerik. Eta iyan nor duen bere kortean. Erraten diozka izen hañitz eta Laur Kantonena ere. Gan denian bere palaziorat, ekhar arazten du bi jandarmen erdian M. Laur Kanton. Galdetzen dio zer in duen bere emaztea. Erraten dio ez dakiela. Irakusten dio gillotina, erraten digoelarik:

—Egia ez erratekotan horra zer izanen den zure sortia.

Orduan erraten dio beraz nola ethorri zitzaioen martxant bat haren tentatzerat. Nola in zuen parigua eta ethorri zitzaiola haren urregatearekin eta orduan koleran sartu eta bota zuela itsasorat kasa baten barnean eman eta.

Egortzen du martxant haren billa. Harek ere kondatzen dio bere iza-teak ez galtzeko, ezin etxean sartu eta, emazteki batek ekharri zigoen urregatea. Ez zuen erran nahi martxantak ere lehen kolpe egia. Mehatxuen onduan aithortu zuen. Ekhar arazten du sorgin hura zortzi jandarmen erdian eta erraten dio nola hartu zuen andre haren etxean haren urregatea. Erraten dio egia, denak nola pasatu ziren.

Eman araziak beitzituen gobernadoriak zazpi barrika elkarren ganean bolborez denak bethiak, eman zuten sorgina heien gañean eta eman zioten barrikeri azpitik su. Sorgina gan zen airetan su harekin eta ez zuten gehiago nehork ikhusi. Urkatu zuten ere martxanta. M. Laur Kanton belauniko zagoen gobernadoreren aintziñean barkamendu galdetz egin zuen gauza itsusiaz. Barkatu zigoen eta in zuen gobernadore eta egotu zen gobernantes. Ekhar arazi zuen bere aita eta bizi izan ziren ungi urus. Hori ez balin bada egia, hola gerta dadiela.

(*Mariño Amyot.*  
70 urtez goiti)

## ARREBA ETA ZAZPI ANAIK

Baziren jaun andre batzuek arras pobreak eta hurrez kargatuak. Bazituzten zazpi mutil. Piska bat handitu zirenia erraten diote bere amari obe dutela gan beren gisa, obekiago atheratuko direla. Amak peñ handirekin uzten ditu partitzerat. Hek gan onduan ematen du mundurat neska txiki bat. Piska bat handitu zenian gaten zen auzorat jostetarat.

Egun batez zerbeit haurkeria in eta erraten dio hauzoko emazteki harek:

—Zuk ere obekiago in ziñezake gatea zure anaiek in duten bezala.

Badoha haur hori bere etxerat eta erraten dio amari:

—Ama nik baditut anaiak?

Amak erraten dio baietz.

—Non ditut?

—O! Ganak norapeit.

Erraten dio neskak gan behar duela harek ere. Eman diozela oihal peza bat, zazpi athorren egiteko, eta berehala nahi duela gan. Amak pen handia zuen zazpi haur jadaneke kanpoan izaki eta bakarrak ere gan nahi izatea. Uzten du beraz gaterat neskatxa hura.

Badoha gan, gan, gan. Galdetzen du hiri batean iyan ezagutzen dituzten zazpi anaia elkharrekin lañian hari direnak. Erraten diote ezetz. Badoha mendi baterat. Han ere galdetzen du eta erraten diote zein etxetan egoten diren.

Sartzen da etxe hartarat. Ikhusten du lan guziak egitekoak direla eta ez dela nihor etxean. Iten ditu ogeak. Etxe guzia ematen du garbiki. Bazkaria prestatzen du eta gordetzen da hauts tokian. Anaiak arribatzen dire eta harrituak dire ikhustez lan guziak egiñak eta bazkaria prest, norbeit baditakela han abiatzen dire billa eta billa, bañian, ez dire amesten billatzea haustegia eta badohazi berritz ere lanerat.

Arratsa ethorri orduko iten ditu lan guziak neskatxa harek. Anaiak ethorri orduko prestatu zuen afaria eta gorde zen berritz ere austokian. Anaiak arrituak billatzen dute berritz ere etxean bañian ez dute deus atzematen. Badohazi ogerat eta neskatxa hura ematen da josten; eta josten du athorra bat eta erematen du bere anaia zaharrenari eta hola arrats guziez egiten zuen athorra bat eta erematen anaia bati. Ezin konpreni zezaketen nola gertatzen zen hori. Erraten zuten bethi es zirela loharkatuko bañian ogerat gan orduko loharkatzen ziren.



Anaia gazteenaren sanja ethorri zenian athorra izateko, erran zioten sehurki ez zela loharkatuko. Ogerat gan eta denbora puska baten buruban badoha neskaxa hura eta erraten dio, ustez eta lo zagoen:

—Zure sanja orai ethorri da orainion, nere anaia maitea.

Eta ematen hasten zaio athorra ogearen gañean noiz eta erraten be-tio:

—Nere arreba zare beraz zu!

Eta besarkatzen du. Kondatzen dio beraz nola aditu duenian bazi-tuela anaia nahi izan duela heien ganat gan hekien laguntzeko. Bertze anaia ere jeikitzen dire eta loriatzen jakitearekin beren arrebak egiten ziozkatela lan guziak. Bizi ziren hala denbora puska bat. Anaia gaten ziren egun guziez lanerat eta arrebak egiten zituen barneko lan guziak.

Anaiek debekatzen diote sekulan gatea auzoko holako etxerarat zer-nahi gertaturik ere. Banian egun batez, horri kasurikan egin gabe, beran-dutu beitzitzaioen lanian, gan zen lasterka etxe hartarat su piska baten billa, lasterrago iteko afaria. Arras ungi errezebitzen du emazte harek. Nahi ziguen eman eskas zuen guzietarik, bañian erraten dio suaz kontent zela. Emazte hura sorgina zen. Ematen dio belar paketa bat erraten dio-klarik emateko hura zangoen urean, deskantsatzen zuela hañitz.

Arrats guziez panderu handi batean zazpi anaiek batean zanguak garbitzen zituzten. Ematen du beraz belarra hur hartarat eta zangoak sartu ditzuzteneko billakatzen dire behi sei, eta zazpigarrena betroiñ.

Neskatxa gaiso haren pena ezin erran ditake. Behi gaxoek ere besar-katzen zuten bethi beren arreba bañian neskaxa harek maiteago zuen hañitz gehiago betroiñ hura. Egun guziez erematen zituen landa baterat eta han egoten zen heien kontutzen.

Egun batez han zagoelarik erregeren semea han pasatzen da eta arri-tua da han ikhustiaz halako neskaxa ederra. Mintzatzen zaio eta erraten dio harekin nahi duela ezkondu. Neskaxak erraten dio pobrea dela arras eta ez ditakela. Erregek erraten du baietz, baietz, igual dela, igual dela. Ematen diozka neskaxak kondizioñak: ezkontzen balin bada, sekulan ez hil araztea behi hekiek eta partikulazki betroiñ ttipi hura.

Promes ematen dio erregek. Ezkontzen dire. Erematen ditu bere behiak berekin eta ungi tratatuak ziren bethi. Esperantxetan gertatzen da printzesa hura eta erditzen da.

Errege kanpoan zen batez heldu zaio sorgin hura. Hartzen du bere ogetik eta botatzen du erregeren huntasunetan zen leize izigarri baterat eta ematen da sorgina bera printzesaren ogean. Errege ethortzen denian arras sendatua atzematen du. Erraten dio ez duela ezagutuko eta erraten

dio printzesak, sofrikarioek hala billaka arazi dutela eta sendatzeko laste-rgo behar duela hil arazi bettroin hura. Erregek erraten dio:

—Zin ez nazu egin arazi sekulan ez dutala hil araziko? Nola galde-tzen nazu hori?

Sorgiñak hura zuen bere etsaik handiena. Bakia ez beitzigoen uzten egortzen du mutilla behien billa. Atzematen ditu leze haren onduan dao-zila zazpiak marrumaz. Nahi zituen egorri etxerat bañian nihondik ez zezakeen eta aditzen du mutillak boza batek erraten:

—Ez dut neretzat penarikan, bañian nere haurra, nere senharra eta nere behi maiteak nork hartuko ditu?

Mutillak ezin erreusitu eta badoha erregeri erraterat zer pasatzen den. Errege bera badoha leze haren ondorat eta aditzen du boza hura. Fite botatzen du soka handi bat barnerat eta noiz eta ere iduritzen be-itzaio hartzeko denbora izatu duela, goiti tiratzen dute eta ezagutzen dute printzesa dutela. Pentsa erregeren bozkarigua.

Kondatzen dio bere senharrari zer egin zigoen sorgin harek lehena-go eta orai. Errege badoha sorgin haren ogearen aintzinerat eta erraten dio badakizkiela haren gaxtakeriak eta ez baditu berehala behi hekiek lehen bañion mutil ederrago iten orainion, labe gorritu batean erre arazi-ko duela.

Sorgin harek iten ditu mutil eder eta hala ere erregek erre arazi zuen labe gorritu batean eta haren hautsak botatu aireari. Errege bizitu zen urus bere andrearekin. Zazpi anaia ezkondu ziren korteko andreekin eta ekhar arazi zuten beren ama eta urus bizi izan ziren guziak.

*(Louise Lanusse)*



## ISTORIGO EGIA

Bithirin errian bazen laborari etxe handi bat. Egun batez arto zuriz-antzen ari zirelarik mutillak erraten du etxe alabari antzin-arrasteluba landan ahantzi duela. Erraten dio etxe alaba harek zoala billa. Mutillak erraten dio ezetz, sehurki ez dela tenore hartan abian kanporat. Hameka orenak pasatuak ziren. Neskatzak erraten dio:

—E bien! Ni ganen naiz.

Eta parigatzen dute zerbeit peesekeri, ganen dela eta ekharriko antzin-arrasteluba. Badoha eta arrastelubarekin heldu zelarik, gauerdijotzen du. Airetan hartua da izpirituez.

Badakizue gabaz hañitz podore gehiago dutela sorgiñek. Hala zelarik airetan, beren etxearen gañean pasatzean, botatzen du ximineatik bere arrasteluba erraten zuelarik:

—Horra non duzuen!

Neskatxa gaixo hura hala zabillalarik oroitu bazen hel itea Jainko maiteari utziko zuten, bañian ez zen oroitu Jondoni Salvatoreko kaperan pasatzean bertzerik erratea:

—Jauna salba nazazu.

Ordu berean izpirituek utzi zuten mendi haren puntan eta orañion ikhus ditake. Han berean dago. Egin diote beriñazko etxe bat eta eman aintzin-arrastelu bat eskuban.

*(Louise Amyot Lanusse  
Neska gaztearen etxea ikusia du amak  
bai eta Salvatoreko kaperan gaztearen gorputza)*

## HEREN SUGEA

Errege batek bazituen hiru seme. Asarretu ziren elkarrekin eta nahi izan zuen gaztenak gan etxetik. Diru hañitz hartu eta badoha. Ematen du arropa zahar bat nekazale bat bezala. Arribatzen da etxe baterat. Galdetzen du iyan behar duten mutilik. Erraten diote baietz, gana dutela mutilla bezperan. Behiak beharko dituela zaindu. Erosten du karta pare bat eta mailu izigarri bat ortzekin.

Biharamunian erraten dioten etxe nausiek ez gateko holako landetarat zeren Tartaroena beita. Behiek bethi harat gan nahi dutela eta ungi zaintzeko. Agintzen diote baietz. Badoha beraz bere behiekin. Behiak eskapatzen zaiozka landa debekaturat.

Heldu da berehala Tartaro bat eta erraten dio:

—Nola ausartatu haiz hunarat ethortzerat? Berehala behar haut jan.

Erraten dio gure mutillak:

—Istant bat, instant bat jauna, ez hola asarra. In behar dugu partida txiki bat kartetan.

Hasten dire beraz jokotan. Tartaruak uzten du erortzerat karta bat eta erraten dio mutillari bil dezala karta hura. Erraten dio mutillak in dezala berak botatu duen bezala. Usaia zuten Tartaruek hola egiteko eta baliatzen ziren memento hartaz hiltzeko jendeen. Tartarua bortxatua da beraz makurtzera atzemateko karta.

Gure mutillak hartzen du gordia duen mailua arropen azpian eta ematen dio halako kolpea buru gibelian non hiltzen beita. Biharamunian iten du igual bertze bati. Bazakien ez zirela hiru bertzerik.

Hirugarren egunian heldu da azkeneko Tartarua bertzeak bañion asarreago eta erraten dio nola ethorri den harat haren lurretarat. Eta behar duela gaztiatu. Erraten dio mutikoak:

—Hemeki! hemeki, ene adiskidea. In behar dugu partida bat kartetan eta gero ikhusiko dugu.

Tartaruak botatzen du karta eta erraten dio altxa dezala. Mutillak erraten dio ezetz. Botatu duen bezala altxa dezala. Azkenian Tartarua makurtzen da altxatu nahiz eta mutillak ematen dio kolpe bat mailuarekin bañian ez du arras hiltzen.

Badohazi Tartaruaren etxerat. Atzematen dute kusiñaria bazkariaren prestatzen hari zela. Irakus arazten ditu kozinariaz etxe hartako aberastasanak. Barrikaka zen urrea eta ziliarra eta bazen zernahi etxe hartan.



Baziren olanoak. Hiru. Finitzen du Tartarua eta egoten da etxe hartan nausi.

Zenbeit egunen buruan badoha pasaietara zaldi baten gañian. Mendi batean delarik ikhusten du andre gazte eder bat. Bera urbiltzen da haren-ganat eta erraten dio andre harek:

—Zoazi fite hemendik. Aski da bat jan dezan.

Galdetzen dio zer den eta erraten dio:

—Heren sugea ethorriko zait istantean nere jaterat eta zoazi hemendik.

Erraten dio ezetz, behar duela entsaiatu haren hiltzea. Horrekin batean aditzen dute Heren Sugea zeñiak erraten beitzuen:

—Nerea da hori. Utzi neretzat.

Mutillak preparatzen du bere martellua eta ematen dio kolpe on bat zeñiak hiru buru pikatzen beitziozka. Badoha sugea marrasketan. Andre gazte harek erraten dio:

—Egun batez bizia luzatu nazu. Bihar janen nau berdin.

—Ez, ez! Behar bada egun nik egin dutana, bihar norbeitek inñen du eta finituko Heren Sugia.

Badoha printzesa bere etxerat eta jaun gaztea Tartaruenerat. Biharamunian bestitzen da diferenki. Saindatzen du zaldia ere, hartzen du bere ezpata eta bere xakurra. Badoha mendi hartarat bererat. Atzematen du printzesa. Erraten dio sugea ethorriko dela laster eta akabo dela. Galdetzen dio muthillak iyan baduen kuraia. Erraten dio baietz. Ematen dio bere ezpata. Horrekin batean heldu da sugea. Mutillak bere malluz kentzen diozka gelditzen zitzaiozkan lau burubak eta printzesak pikatzen dio erran bezala buztana.

Mutillak han uzten du printzesa bañian hartzen diozka, zazpi arropa zeda soñian, hartzen du zazpitarik zazpi puska. Hartzen du ere sugen buru bakotxari eztena eta arropa puska bakotxetan trozatu eta altxatzen ditu beretzat. Printzesarekin ez zuen gan nahikatu. Badoha bere Tartaro etxerat eta printzesa bererat.

Erregek erran arazten bere erresuma guzian sugen hura hil duenak izanen duela haren alaba emaztetzat eta ematen ditu bazkari ederrak bere laguneri bere bozkarigua irakusteko eta egun hekietan egortzen du sugen hil zuen mutillak bere olanoetarikan bat erregeren etxerat, erraten zigolarik ekhar zezala erregeren mahainean zen platetarik oberenetarikan bat.

Iten du erran bezala. Ekhartzen dio bere etxerat. Bañian erregek segi arazten du olano hura hirugarren egunean bere jendez eta konbida arazten du olano haren nausia bere mahaiñerat. Agintzen du biharamuneko.

Ederki beztitzen da. Ez ditu ahanzten printzesaren zazpi arropa puskek bere eztenekin.

Mahaiñean zirelarik ikhazkin bat heldu da erraten duelarik hil duela sugen eta sariaren billa heldu dela. Erraten diote irakusteko frogak eta agertzen ditu burubak. Gure mutikoak horrekin batean irakusten ditu eztenak eta printzesaren arropa puskek eta printzesak ederki ezautu zuen hil zuena eta salbatu; eta erran zuen ikazkiña ikhusi orduko ez zela hura. Ezkondu ziren erregek erran bezela besta handiak inñez. Printzesak hañitz maite izan zuen mutil eder bat beitzen eta arras prestua. Gaten ziren Tartaruaren etxerat eta errege bera bañion aberatsago ziren gazteak.

Horiek guziak ikhusi nituen bañian ez ninduten niri deusikan eman.

*(Mariño Amyot  
Donibane Garazti)*



## ABENAN

Bazen errege bat osoki pusanta. Aditu zuen bazela oihan batean printzesa bat ezkantatua eta desira handia zuen hura beretzat izatea. Bazuen bere ingurutuan jaun gazte bat bertze guziak bañion maiteago zuena. Izena zuen Abenan. Erraten dio hari zer desira zuen eta har zezala nahi zuen erreximendua eta gan behar zuela andre gazte haren billa. Erraten dio ez duela erreximendu beharrik, ganen dela bere zaldien gañian, bere ezpata eta xakurra hartu eta.

Partitzen da beraz erran bezala. Bazoalarikan ikhusten du uso bat segadetan hartua, bele batek jaterat zuala. Badoha eta bere ezpatan pasatzen du belea eta ematen libertatea usoari. Badoha aintzinerat. Ur egi batean pasatzean ikhusten du arrañ bat uretikan kanpo. Hartzen du eta ematen urerat.

Badoha oraiñon aintzinerat. Ikhusten du billigarro bat egalak biyurtubak ezin airatuz dagoela. Badohakio, antolatzen diozka hegalak eta uzten du airearekin. Bazoan bethi gan, gan, gan. Arribatzen da jauregi baterat oihan tartetan. Sartzen da eta galdetzen du andrea. Neskatzak badagotzi jaun gazte hari beira. Andrea heldu denian erraten diote in dezaten beren lana aintzina. Ez dela pulit hola egotea beira jaun gazteari. Abenantez erraten dio nola den ethorria holako erregeren partez haren billa. Bere andre nahi duela egin. Erraten dio printzesak:

—Galduetan ethorri zare hunarat. Ezin hilki nintake jauregi huntarik. Tartaruen eta mustroen azpian naiz. Ito nintzakete athera banintz, beittitut eskas hiru gauza. Lehenikan badut holako itsasotan erreztun balios bat eta hura behar nuke.

Abenan partitzen da kuraia handirekin. Bazagoen uraren bazterrian tristeki noiz eta agertzen beitzazio arrañ eder bat ekhartzen zuelarik bere agoan erreztun bat eta erraten dio:

—Bizia salbatu beinauk egun batez ematen deat saria.

Abenan lorietan, badoha printzesarenganat. Erraten dio:

—Ungi da bañian ez da oraiñon aski. Behar nazu holako tokitarikan ekharri uso bat bizia.

Badoha berritz ere eta agertzen zaio bizia eman zigoen uso hura erraten dingoelarik:

—Ni naiz zuk behar duzun uso hura.

Badoha berritz ere printzesarenganat. Erraten dio:

—Ungi da bañian. Oraiñon gastuenak eskas dituzu ur gaztetzen duena eta ur hura gardatzen duen Tartaro izigarri haren buruba behar nazu ekharri.

Ematen dio anpolla bat betetzeko.

Abenan badoha tristerikan. Ez zakien nola in behar zuen. Pozuak erraten zigoen bidean harek lagunduko zuela Tartaroen hiltzen eta har zezala kuraia. Bazoazilarikan hola heldu zaio billigarroa. Kentzen dio eskutik anpolla, betetzen dio eta ematen. Ikhusten du harekin batean mustro izigarri bat bañian badu kuraia. Hasten dire kolpeka eta Abenan gaizua gelditzen da bitorios, pikatzen du buruba eta heldu da fierrik printzesarenganat.

Ur hura hartu eta printzesak ematen dio jauregi hartan zen jaun xahar bati. Berak ez zuen beharrik zeren izar bat bezin ederra beitzen. Deusen eskasikan ez beitzen jauregi hartan, andre gazte hura ematen da karrosa eder batean, lau zaldik erematen zutela, Abenan karrosaren sahetsean bere zaldi gañean segitzen zuen.

Arribatzen dira erregerenganat. Pentsa azue zenien kontent zen errege! Ezkontzen dire berehala. Erregek maite zuen bethi Abenan. Bere mahañian jar arazten zuen. Bertze jaunek hartaz jelsia handia zuten eta erraten diote erregeri Abenantez erran duela nahi izan balu izanen zuela andre gazte hura harek bañion lehenago eta holako gauza franko hala ez zirenak. Erregek koleran eman arazten du preso.

Zenbeit urteren buruban errege hiltzen da kolpez. Andre harek xan-grin handia zuen. Egotu zen lau urte batere hilki gabe bere palaziotik. Denek behar beittute fin bat egun batez ilkitzen da eta badoha presondegien gibelerat pasaietarat, handik nihork ez zuela ikhusiko. Han zagoelarik aditzen du boz bat erraten beitzuen:

—Non zare ene errege maitea? Zato nere atheratzerat presondegi izigarri hontarik. Nik zer in zaitut bada hola gaztigatzeko. Hola uzten balin banazu lasterrik akabo izanen naiz eta jadaneko harenbertze sofritu nuen zuretzat, zure andre hoin maite duzun horren ekhartzeko.

Printzesak hori aditu eta ez du dudarikan egiten bertzerikan ere Abenan han dela. Egiten dio oihiu:

—Abenant! Zu zare hor?

Erraten dio baietz. Printzesak ez zakien zer billakatu zen, hain urus zen bere jaunarekin non ez zen behin ere okupatu zer billakatu zer Abenan. Erraten dio berehala zer pena duen jakitea hoin malurus dela; egorriko diozkala etxerat gan orduko behar dituen gauza guziak, palazio



batean bezin ungi izan dadien. Errege hil dela eta han egon behar duela orañion urte bat. Banian ez griñatzeko. Deusen eskasik ez duela izanen.

Urtearen buruban erran bezala libratzen du eta hartzen bere errege eta bere jauntzat. Arras urus bizi izan ziren eta ungi irabazia izan zuen gure Abenan gaxuak.

*(Mariño Amyot  
Donibane Garazikoa)*

## DRAGON

Errege batek bazuen seme bat izena beitzuen Dragon. Banbosa zen ezin gehiago. Zituen diru guziak enplegatzen zituen eta orañion, ez aski izanez bere aitari galdetzen dio bere parte emateko. Aitak ematen dio kusian eta badoha laguntzat harturikan bere idurikako lagun bat soldadu izatua. Badohazi gan, gan, gan. Eta xahutzen dituzte istant batez beren diru guziak.

Bazuazilarikan oihan batean, ikhusten dute jauregi eder bat. Sartzen dire. Ikhusten dute mahaiña emana eta afari bat supera haren ganian. Ematen dire mahaiñean eta afaltzen. Nihor ez zaiote agertzen oranion. Badohazi goiti, ikhusi behar dutela etxea eta ogeak ere prest presta atzeman eta badohazi ogerat eta gau on bat pasatzen.

Biharamunian jeikitzen da Dragon. Idekitzen du leioa eta ikhusten baratze bat soragarria. Badoha beraz baratze hartarat, bethi nihor ikhusi gabe eta fiko azpi eder baten azpian pasatzean boz batek erraten dio:

—Ai, ai, ail zer miña iñ nazun eta iten nazun.

Itzultzen da alde guzietarat eta nehor ez ikhusten. Erraten du:

—Nor zare zu? Ez dut deus konprenitzen. Ager zaita.

Erraten dio bozak:

—Ez dut posible egun, banian bihar naski ikhusiko nazu. Banian hortako behar duzu ungi sofritu.

Agintzen dio zernahi sofrituko duela harentzat. Erraten dio bozak:

—Heldu den gabean iñen zeitiozte zernahi miñ. Banian ez duzu itzik erran beharko eta hori egiten baduzu ikhusiko nauzu bihar.

Hoik guziak erran zituzten soldadu lagun haren aitzinian eta ez zuen harek deus aditu. Badohazi etxerat eta atzematen dute bazkaria prest. Dragonek nahiko zuen gaba ethorria izatea jakiteko zer ikhusi behar duen. Badoha ogerat eta hameka orenak ondoan sentitzen du zerbeit heldu zaioe-la eta gorputz guzia zilakatzen diotela. Badago ixil ixilla boza ikhusi nahiz eta oilarrak kukuruku egiñ orduko deskantsatua izatu zen.

Badago argia noiz ikhusiko duen gateko fiko haren azpirat. Ez da harek nahi bezen laster ethorri. Badoha lasterka baratzerat eta ikhusten du fikoaren azpitik atheratzen neskatxa bat espaldetaraño. Erraten dio:

—Gan den gabean sofritu duzu ixil ixila, banian heldu den gabean gehiagokoak sofri araziko zaituzte. Ez dakit iyan posibleko duzun garraitzea deusik erran gabe.





Agintzen dio baietz gehiagokoak ere sofrituko dituela haren salbatzeko. Bethi bezala mahaiña prest atzeman zuen bazkaiteko eta afaiteko. Badoha ogerat eta heldu zaio bertze gabea bezala, bañian gehiago egiten diote miñ. Badago uruski deusik erran gabe. Oilarrak egiten du kukuruku eta uzten dute geldirik.

Argia ethorri deneko badoha baratzerat eta ikhusten andre gaztea belauetaradino agertua dela. Dragon ungi kontent salbatzeaz andre gazte eder hura, banion erraten dio tristeki:

—Deusikan ez duzu ikhusi orain arte. Doblezkakoak inen zeituzte.

Erraten dio:

—Badut kuraia denen sofritzeko zeren nahi beitzaitut athera arazi hortik.

Gaba ethortzen denian aditzen du biga heldu direla baten plazan. Bat mainguka, mainguka eta badakizue maingubak direla gaistuenak. Erraten du mangu horrek:

—Zer! Ezin mintza arazi duzu oranion gizon txar hau! Nik egin araziko dut ba!

Pikatzen diozka bi besoak, gero belauak eta gure Dragonek ez du deus erraten. Ungi sofri arazten dute bañian uruski egiten du oilarrak kukuruku eta libratua da. Iztua zagoen zer behar zuen billakatu besorik eta zangorikan gabe, bañian ukitzearekin ikhusten du atseginekin antolatuak dituela.

Ogean dagoelarik aditzen du arrabots handi bat. Badago itzik egin gabe, izitua, zer ikhusi behar duen noiz eta agertzen beitzaiore andre gazte hura erraten digoelarik:

—Salbatu nazu. Ungi kontent naiz zutaz, banian ez da aski. Behar dugu berehala partitu hemendik.

Badohazi hiruak gan, gan, gan. Arribatzen dire herri baterat. Andre gazteak ez zuen konbeni atzematzen gatea jaun hekien ostatu bererat. Biharamun goizian andre gazte hura jeikitzen da goiz. Badoha ostatuko nau-siarenganat eta erraten dio:

—Ethorriko da jaun gazte bat hunarat nere galdez. Erranen diozu gan naizela eta nahi balin banau ikhusi, datorla Laurkanton ithurriat, banian barurik eta han egoteko nere beira.

Gizon gazte hura biharamunean badoha ostatu hartarat eta erraten dio andre gazteak erran duena hari errateko.

Biharamunean berean badoha ithurri hartarat barurik, banian andre gaztea ez baitzen heldu orainion, ahantzirik eskua zarpan eman eta atzematzen zuen hur ttiki bat eta jaten du. Jan orduko loharkatzen da. Andre gaztea heldu da, ikhusten du lo dagoela. Erraten dio lagunari:

—Yan du zerbeit!

Eta erraten dio ethorriko dela biharamunian. Bañian othoi errateko ez deus jateko eta uzten dio fular eder bat. Atzartzen da Dragon, andre gaztea gan orduko. Erraten dio lagunak ethorri dela. Erraten dioela ez jateko deusik othoi eta irakusten dio fularra. Dragonek pena zuen zeren jan zuen eta nahiko zuen izan biharamunian.

Partitzen da beraz goizian goiz. Badago andre gaztearen beira eta hala beharra, eltxaur bat zarpan atzeman eta jaten du eta loharkatzen da berehala. Andre gaztea agertzen da eta atzematzen du lo. Erraten du biharamunian ere ethorriko dela. Bañian ez dezan deus jan eta uzten du bertze fular bat.

Dragon atzartzen da hura gan orduko. Pentsa azu zer pena zuen. Lagunak erraten dio erran duela ethorriko dela biharamunian ere. Bañian iteko in ahalak ez jateko. Badoha beraz hirugarren egunean deus jan gabe. Banian hala beharra, andre gaztea berantetsi eta sagar ondo bati hartzen dio sagar bat eta jaten. Loharkatzen da berritz ere.

Heldu da andre gaztea. Atzematzen du lo. Ematen dio lagun hari errestun bat emateko Dragoni erraten digoelarik hura nahi balin badu ikhusi atzemanen duela lau kuarteletako hirian. Jaun gazte hura penatzen da hanitz eta erraten dio bere lagunari:

—Jainkoak ziaikik noiz atzemanen dutan hiri hura eta obe duk hire alde gan.

Elkar kitatzen dute beraz. Dragon badoha gan, gan, gan. Arribatzen da mendi baterat. Han bizi zen gizon bat. Bazuen athe aintzinian ur benedikatua eta hartaz zerbitzatzen zena ungi errezebitua zen. Sartzen da beraz eta galdetzen dio iyan badakien non den lau kuarteletako hiria. Erraten dio ezetz. Banian badituela ihizki lurrekoak eta airekoak eta hekiek gidatuko dutela naski.

Egiten diote beraz sistu. Heldu dire alde guzietarik eta galdetzen diote eyan badakiten non den laur kuarteletako hiria. Erraten diote ezetz. Orduan erraten dio gizonak baduela anaia bat holako mendietan harek banion ihizki gehiago duena. Denak bere azpiko dituela harek.

Badoha beraz Dragon eta arribatzen da. Galdetzen dio gizonari iyan badakien non den laur kuarteletako hiria. Erraten dio ezetz. Banian badituela alimaliak zeñek jakiñen duten nihork jakitekotz. Iten diote sistu. Arribatzen dire alde guzietarik, ttiki, handi. Dragon ikharatua zen. Galdetzen diote bat banazka iyan badakiten non den laurkuarteletako hiria. Erraten diote ezetz.

Banian gizonak ikhusten du eskas duela ihizki bat. Hura zen arranoa. Egiten du sistu bat eta heldu da. Galdetzen du hari ere iyan badakien non



den laurkuarteletako hiria. Erraten dio handikan heldu dela. Gizon harek erraten dio behar duela beraz gidatu jaun gazte hura. Arranoak erraten du:

—Gogotik nahi baldin banau haragia eman, agoa idekitzen dutan aldi bakotxean.

Dragonek erraten dio baietz, gogotik. Erosten du beraz idi bat. Arranoak erraten dio izatzeko haren bizkarrerat. Gizona izatzen da beraz bere idiarekin eta agoa idekitzen duenean ematen dio idi puska bat. Ttitikuz zuan idia. Behar zuten itsasoa pasatu eta ez zen han zubirik.

Idia finitzen zaio itsasoaren erdian zirelarik eta bazen han arroka handi bat. Agoa idekitzen du eta ez beitzuen gehiago haragirik, zer iten du? Beldur beitzen utz zezan arroka haren ganean, pikatzen du bere gibelego aldetik puska bat eta ematen dio agorat. Arribatzen dire itsasoaz bertze alde. Arranoak han uzten du erraten dioelarik:

—Laukuarteletako hirian haiz. In zatzik hire aferak. Ni banioak nere etxerat.

Gizon gazte harek galdetzen du zer berri den hiri hartan. Erraten diote erregeren alaba dela espos egun hartan hiri hartan. Ez zen libro esposetako jendeak bertzerik elizan sartzea, banian diruarekin Dragonek irabazi zuen gardieno bat. Egonen zela elizako zoko batean.

Usaia zen hiri hartan manak erratea ezkontzeko mementoan. Hasi zenian erraten apheza, Dragonek erraten du bere zokotik atheratzean:

—Nik erreklamatzan dut zerbeit.

Badoha andre gaztearenganat. Ezagutzen du. Irakusten diozka erreztuna eta fularrak eta erraten dio andre gazteak hura izanen dela haren senharrak, ungi irabazia zuela, mainguka kurrutzen zuen oraiñion bere haragi puska eskas. Ezkontzen dire beraz. Bertze jaun esposa gan zen bere etxerat dena ahalkatuba. Bertzeak bizi izan ziren urus zeren biek hanitz sofritu beitzuten. Orduan han nintzen eta orai hemen.

*(Lamise Lanuse  
Donibane Garazj)*

## LANTERNA PODEROSA

Ama batek bazuen seme bat. Arras pobreak ziren. Mutiko hura gaten zen eskolarat eta egun batez errekontratzen du jaun bat eskolaratekoan eta erraten dio iyan ama ungi duen eta ematen diozka bortz libera. Badoha lasterka amari ematerat. Biharamunian igual ematen dio bertze bortz liberako bat, eta erraten dio amak, behar zaigoela galdetu nor den.

Galdetzen dio mutiko harek eta erraten dio jaun harek haren aitaren anaia bat dela Ameriketarik ethorria dena eta zenbeit egunen buruban ganen dela haren ikhusterat.

Erran bezela zenbeit egunen buruban badoha jaun hura. Ez zakien batere emazteki harek bazuela haren senharrak anaiarik Ameriketan. Eman zigoelarik diru hanitz erosteko bizitzeko behar zirenak handizki bizi izan ziren zortzi bat egunez. Erraten zigoen emazteki hari eman behar zigoela mutiko hura zenbeit denborarentzat. Berdin harekin ez zela deusetako. Karga bat zuela.

Azkenian, azkenian erraten du baietz. Banian pena hanitzekin. Karrosan sartzen dire jauna eta mutikoa eta badohazi gan, gan, gan. Mutil hura urrunago eta tristeago. Arribatzen dire oihanerat. Jausten dire karrosatik eta jaun harek altxatzen du harri lauza handi bat eta botatzen du mutiko hura zillo hartarat. Pentsa azue mutiko haren izialdura. Ez zen zilo hartan eskebelek bezik.

Ematen du ilhabete bat batzuetan gora gaten, noiz eta atzematen beitu emazteki xahar bat. Erraten dio:

—Non zabiltza haur maitia? Debruaren etxean zare hemen.

Kondatzen dio mutiko harek nola jaun batek tronpatu duen haren ama eta eman duela ilhabete bat harat ethortzeko eta iyan ez duen handikan ateratuko. Erraten dio baietz. Harek erranak ungi iten baditu. Erraten dio emanen duela oraino bertze ilhabete bat jausteko eta segituko duela antzinerat. Athe hanitz pasatuko dituela. Denak zerratzeko eta gateko holako markako bat atzeman arte. Hura idekitzen duenian erraten dio ez soratzeko. Han izanen direla gauza eder eta espantagarri hanitz.

—Urrea eta diamanta ez da eskas izanen han, banian emazu ungi kontu ez zaitela lot edertasun hekieri. Zoko batean ikusiko duzu lanterna erdoildu, errautsez bethe, zikin bat. Hura behar duzu hartu. Hura hartzen duzuneko hasiko zeizkizu oihuka «utzi lanterna». Erranen zaituzte zerenahi izigarrikeria, banian ez kasurikan egin eta ez buruba itzul gibelerat.



Handikan atheratzen zarenian, ganen zare kanpoko atherat. Banian han izanen da depruba. Ez du nahiko athea ideki. Galdetuko zeitu ehunetan lanterna. Bañian ez eman nihori lanterna hura. Hari galdetzen diozkazu guziak inen zaizkizu eta harek hilki araziko zaitu ere presondegi huntarik. Huna bertze kanifa ttiki bat. Hori ere zure manuen azpiko izanen da. Ungi zerbitzatuko zaitu. Bañian egizu ungi kasu ez gibelerat buruba itzul-tzia.

Mutikoa badoha atxo zahar harek erran bezala. Arribatzen athe markatu hartarat. Han sartu orduko soratua da hango edertasunez. Ungi gutzia zuen zerbeit hartzeko, bañian oroitzu emazteki zaharrak erranaz, badoha lanterna zaharraren billa. Atzematen du zoko zoko batean. Hura artu orduko hasten zaiozka oihuka uzteko lanterna hura. Zernahi erraten diote izigarrikerienetarik eta gure mutilla uruski eskapatzen da handik buruba gibelerat itzuli gabe. Atheak zarratzen ditu emaztekiak erran bezala, eta arribatzen da noizpeit athe dohatsu hartarat. Jotzen du erraten duelik idekitzeko. Errepusta ematen dio debruak:

—Lantern hor uzten balin baduk ba.

Mutilak erraten dio ezetz eta erraten dio lanternari:

—Lantern maitea! Idek nazak othoi athe hau hemendik ilki nadien.

Erran orduko athea idekitzen da eta erraten dio orainion:

—Egorrak debru zahar hori ifernuko zolara.

Badoha mutil hori bere amarenganat. Pentsa zazu zer atsegina ama gaxo harentzat. Ez dio erraten bere lanternaz deusik, bañian erraten dio nola zen depruba jaun hura eta sofritu duela hañitz hura ?tziz geroz eta eri beitzen, ematen da ogean, bere lanterna ximinea zokoan.

Hura etxerat arribatu zen egunian erregek krida arazi zuen holako handitasuneko otharrian zeiniek sagar gutiago sartuko beitzuen, hura izanen zela haren alabaren senhar.

Erraten dio ama harek bere semeari eta erraten dio ama gan eta bere lanternari:

—Nere lanterna maitea: in nazak holako handitasuneko otharria, sagar bat soilki barnean bethe dezan.

Erran orduko ina da. Egortzen du bere amarekin. Erregek ikhusi eta zeñien pobrea zen emazteki hura erraten dio ez dela aski. Orainion behar dela izan erregek bezinbat armada. Ez beitzuen nahi holako gizon pobre bati eman bere alaba. Amak hori erraten dio semeari. Semeak berritz ere lanternari erran eta izan zituen armadak. Errege harek zituen inguru hartako handienak.

Erraten dio orainion erregek ez dela aski. Behar duela izan erregek bezinbat diru eta biharamunian igual kondatzen du erregek bezinbat eta ezkontzen da azkenian errege haren alabarekin. Iten dituzte besta ederrak eta zenbeit egunen buruan erraten dio gure mutikoak bere lanternari:

—Ene lanterna maitia, eginzak erregeren jauregiaren sahetsean bertze bat hori banion ederragoa biharamuneko.

Mundu guzia espantitua da ikhustean halako jauregia. Erregeren alaba bere senharrarekin badoha han egoterat. Jaun horrek in arazi zuen armario eder bat han emateko bere lanterna eta nihori ez zioien ematen hango gakhua ez eta bere emazteari ere. Eta nahi zituzten guziak bazituzten nihork jakin gabe nola.

Ihizian ibiltzen zen maiz. Egun batez presan zualarik horra, ahanzten du armarioan bere gaxoa. Neskatxa bat arras kurios beitzen jakitea zer zen han, idekitzen du armari hura ikhusteko zer zen eta harritzen da ikhustea han lanterna zahar hura. Zarratzen du armarioa eta ez kontu egiten gehiago. Bañian instant baten buruan pasatzen da karrikan gizon bat oihuka «lanterna zaharra berrian truk! lanterna berrian zaharra truk!»

Neskatxa harek aditzen duenian oroitzen da lanterna zahar hartaz eta erraten dio baduela harek bat eta badoha jaunaren armarioar. Hartzen du lanterna zahar hura, ematen dio gizonari berri batean truk eta ematen du armarioan. Debru harek atsegin hartu zuen lanterna hura izatia eta erraten dio:

—Behar nauk lanterna, jauregi hori eman itsasoaz bertze alde, barnean diren jendekin.

Erran orduko jauregia suntsitua da. Erregeren alabaren senharra ethorri denian ihizitik ez du atzematen bere etxerik. Berehala pentsatu zuen zer gertatu zen. Badoha bere erregerenganat eta hura koleran, zer egin duen haren alaba. Egin arazten du toki ttiki bat lau murrue tartean eta han eman arazten mutiko hura. Gaizuak ez zakien zer pentsa noiz eta oroitzen beita emazteki zahar harek eman ziola kanifa ttiki bat. Erraten dio kanifa hari:

—Ene kanifa maitea! balin baduzu podorerik, athera nazazu hemendik ikhus dezadan non den nere emazte maitea.

Kanifak erraten dio baietz. In araziko duela uso. Egiten da uso eta eskapatzen bere kasotetik. Badoha gan, gan, gan, uso gaxo hura, eta noizpeit arribatzen da itsasoaz bertze alde. Badoha palazio baten aintziñeko arbola gañetarat. Bazakien han zela haren emaztea eta bazabillan arbola batetik bertzerat noiz ikhusiko zuen bere emaztea. Aphur handi baten buruan ematen da leioan.



Gure usoa badohakio laster barnerat. Bazuen podoria gizon egiteko. Iten da gizon eta bere emazteak ezagutzen du. Pentsa hekien loria. Bazuten zer erran batek bertzeari. Emazteak erraten dio nola duen jaun bat etxe haren nausia eta pertsekutatua dela harekin ezkontzeko. Bañian ez duela nahi in. Senharrak erraten dio:

—Galdetuko habenian sarri iyan bada ez dunan nahi harekin ezkondu, erranen dion baietz nahi balin bahau eman hik galdetzen dionana. Eta galdetuko dion lanterna zahar bat. Ematen habenian, emanen dun trabatik kentzeko bezela oge azpian eta ni han gordia izanen naun.

Iten du bere senharrak erran bezala ethortzen zaioenian jaun hura (debrua zen!). Uste beitzuen bethikotz kasotean zela jaun hura, ez zuen kasurik iten lanternari ez zuela nihoren beldurrik. Andre harek erraten dio beraz ezkonduko dela harekin, nahi badio eman lanterna zahar hura. Debruak erraten dio emanen dioela gogotik lanterna zahar hura. Ekhartzen dio beraz. Emazteak ematen du oge azpian eta gure jaunak hartzen ungi gogotik eta erraten dio fite:

—Ene lanterna maite maitea, egorrak debru izigarri hori sekulako ifernuko zolarat. Ez dadiela gehiago handik athera.

Lanternak erraten dio baietz:

—Inen diat segurki. Aspaldian hi zerbitzatu nahia, iten nikan hura.

Eta egortzen du debru hura su eta karretan marrasketan ifernuko zolarat. Galdetzen dio orainion lanternari ereman zetzan lehengo tokirat bere jende guziekin. Erran orduko eremanak dire eta han bizi izan ziren ezin izan urusago.

*(Louise Lamusse)*

## DOTORRA BERE BURUBAREN KONTRA

Baziren, asko munduan bezala, aita seme batzuek. Fortuna bazuten. Aitak egorri zuen semea dotorre iterat. Bere estudioak finitu eta ethorri zen etxerat. Bañian ez zen herrietan ibiltzen. Aita hura konbidatua izan zen bazkari handi baterat eta arrain jaten ari zelarik iresten du ezhur bat eta han zagoen ito ordian.

Badoazi bazter guzietara dotorketarat. Heldu dire bañian nihork ez du bonurrik hari kentzeko ezhur hura. Bethi jaun harek iten zuen keinu bat eskuz, erran nahi beitzuen ekhar arazteko haren semea. Noizpeit konprenitu zuten. Ethortzen denian, egortzen du mundu guzia kanporat. Erraten dio bere aitari:

—Zer aita! Ez dakizu bada nik ez dakitala sendatzen ardi pikorrekin bertzerik nere eriak?

Aita hura ematen da hala irriz non ezhur hura botatzen du. Mundu guzia harritzen da, zer jaun habilla eta jakiña zen hura. Eta gehoztik haren fama hala gan zen non mundu guziak hura nahi beitzuen miriku; eta sendatzen zituen geroztik bere eriak ardi pikorrek iriñian pasatu eta hekiek emanez erieri.

Lehen aberatsa beitzen, pusanta in zen. Ungi bizi izan bazen ungi hil zen.

*(Frantsen Belzaiji)*



## DEBRUAREN ADINA

Baziren jaun andre batzuek. Pobreak ziren. Gizon hura bazagoen bide kurutze batean tristerik. Heldu zaio jaun bat eta erraten dio zertako den hain triste. Erraten dio bizitzekorik ez beitu. Erraten dio:

—Emanen zaitut nahi duzun bezinbat diru pentsatzen baldin baduzu debruaren adiña holako denboretako.

Gizona badoha kontent. Erematen du bizi urus bat bere emaztearekin. Deusen eskasik ez zuten. Handieñian bizi ziren. Bañian denborak gan eta denborak ethorri, gizon hura oroitu zen ez zela batere oroitu debruaren adiñaz. Gogoetatzen da. Emazteak galde egiten dio zer duen bada, iyan ez den bada urus. Deusen eskasik ez dutela. Zertako den beraz triste.

Erraten dio nola aberastu zen eta zer kondizione egin zuen jaun batekin. Emazteak erraten dio:

—Hori bertzerik ez baduzu ez da hori deusik. Sartuko zare barrika bat eztitan. Handik lekora lumazko bertze batean eta hala jauntzia ganen zare bide gurutze baterat eta egonen zare han debrua ethorri arte. Emanen zare laur paten gainean eta hala ibilliko kurri haren ingurutan. Pasatuko zare ere haren istape tartetan.

Gizonak egiten du emazteak erran bezala. Heldu zaio debrua eta urruntzen da harenganik eta gure gizona badohakio ondo ondorat. Debrua ikharaturikan erraten dio:

—Baditut horrenbeste urte eta ez dut orainion ikhusi holako alimale izigarririk.

Gure gizonak aski aditu zuen. Gan zen lasterka bere etxerat. Erran zigoen emazteari ez zutela gehiago deusen eskasik izanen. Harek erran bezala sorgiña balin bazen ere in zuela eta ez zela gehiago debruaren beldur.

Bizi izan ziren aberats eta urus eta ungi bizi izan baziren ungi hil ziren.

*(Frantsun Beltzagi  
Cerquand-ek kondatzen du Ligiko zubiaren ipui bat:  
Debruaren izena asmatu behar da)*

## HAUR IPUIAK



## BI BELE

Asko munduan bezala baziren bi bele. Batek zuen buztan luze bat. Bertzeak buztan ttiki ttiki bat. Buztan ttikia zuen harek izan balu luzia, nere istorigoa izanen zen luzia, bainan laburra beitzuen, nere istorigoa ere izanen da laburra.

Errege batek bazituen hiru alaba. Beztitu zituen gorritz. Nahi duzu berriz?

## AMATXI LAMINAREN ERREGINA

Baziren asko munduan bezala jaun andre batzuek haurrez kargatuak eta arras pobreak. Emazteak ez jakinez gehiago zer in erraten du ganen dela eske. Badoha gan, gan, gan. Arribatzen da lamiña herrirat. Han kondatu eta zenbat haur dituen, denek ematen diote karitate hañitz. Kargatua zen.

Lamiña erregiñak ere ematen dio ogoi liberako urre bat eta erraten dio iyan emanen digoen erditzen denian haurra altxatzeko bere amaren legian eta emanen digoela, hori nahi badu, diru hañitz. Erraten dio iña duela jadaneko amatxia bañian erranen digoela bere senharrari.

Erraten dio erregiñak datorrela zortzi egunen buruban erreputarekin. Arribatzen da ahal bezala etxerat bere kargaz ungi hunatua, non senharra arritu beitzen hanbertze ekhartzea. Kondatzen dio zer pasatu den lamiñen erregiñarekin. Senharrak erraten dio sehurki hura iñen dutela amatxi. Eta badoha zortzi egunen buruban erraterat erregiñari. Erraten dio andre harek ez gaztiazeko noiz erditzen den, jakiñen duela berak eta ganen dela.

Zortzi egunen buruban erditzen da emazteki pobre hura alaba batez. Lamiña arribatzen da erran bezala mando bat urrekin. Bataiatzetik heldu zirelarik amatxi eta haurra airatzen dire eta burasuak kontsolatzen dire bertze haurrekin, pentsatuz urus izanen zela erregiñaren etxean.

Erregiña harek erematen du mendi zokoan zuen etxe batera. Bazuen jadaneko bertze alabixi bat, xakur ttiki bat izena beitzuen Arrosa eta eman zigoen azkeneko haur horri izena Bellarros eta doatu zuen kopetaren erdian diamanteko bista batez. Arras ederra zen. Handitu zen mendi zoko hartan potzo harekin jostetan eta erraten dio egun batez iyan ez duen erregiñak bertze zenbeit jauregi. Unatzen dela bethi han. Xakurrak erraten dio baietz, baduela erregebide baten ondoan bat, ungi ederra; eta erraten dio errateko amatxiri. Potzuak erraten dio beraz amatxiri nola unatzen den Bellarros eta iyan ez luken nahi jauregiz sanjatu. Erraten du baietz eta badohazi.

Han zaozilarik egun batez, Bellarros galerian zelarik, pasatzen da errege seme bat zeina zoratu beitzen Bellarrosen edertasunaz. Erraten dio beiratzeko oraiñion othoi eta iyan ez duen gan nahi harekin. Erraten dio ezetz, amatxiri behar zaiola erran. Eta potzoak erraten dio sahetsetik ezetz:



—Ni gabe ez da nihorat ganen.

Erraten dio errege harek artuko duela hura ere gogotik, bañian nola izanen dituen. Erraten dio potzoak:

—Arratsetan ematen beitiot amatxiri edari on bat lo ungi egiteko, uste gabez bezala emanen diot baso erdiaren plazan, osua eta ez beitu posibleko gehiago zutitzea athearen zarratzerat gateko, bertzetan iten duen bezala, ni ganen naiz gakoa hartu eta zarratzerat. Inñen dut alegietan eta turnatuko diot gakoa, athea idekia utzirik eta ethortzen zarenean sartuko zare. Ez du deus adituko, lo oñian izanen beita.

Errege semeak erraten du ethorriko dela gaberditan bere karrosa bolantiarekin. Arratsa ethortzen denian Arrosak ematen dio amatxiri edari hartarik basua mukurru mukurru. Amatxik erraten dio:

—Zer? Zer, haurra?

Erraten dio Arrosak:

—Obekiago egiñen duzu lo, amatxi.

—Arrazoña duzu.

Eta dena edaten du. Bañian ezin xutitu zeiteken gehiago athearen zarratzerat gateko, hala pisutu zuen! Arrosak erraten dio:

—Amatxi, nik zarratuko dut egunguan athea. Zaude hor berian.

Ematen dio gakoa. Arrosak ibiltzen du gakoa ziluan, zarratu balu bezala eta ideki utzi eta, ematen dio gakoa eta sartzen du zarpan. Ogerat gaten da. Arroza eta Bellarros ez ziren ogerat gan batere. Gaberditan heldu da errege seme hura bere karrosa bolantiarekin. Sartzen dire Arroza eta Bellarros eta badohazi jaun gazte haren etxerat. Biharamunian Arrosak erraten dio:

—Bellarros! ez haiz atzo bezin eder. Ungi beiratu eta itsusia atzematen haut egun.

Bellarrosek erraten dio:

—Amatxik kendu bide nau bista diamant hura.

Erraten dio Arrosari:

—Gan behar duk amatxirenganat eta galdezok eman nazan eman ninduen bista hura.

Arrosak ez zuen gan nahi. Izitzen zen bañian Bellarrosek hala othoizten du non bere arropa zilarra utzi eta partitzen da. Arribatu denian mendirat hasten da amatxiri oihuka!

—Amatxi! Amatxi! Emoza Bellarrosi bere bista ederra. Bertzenaz sekulako asarre izanen naiz zurekin eta ikhusiko duzu zer gertatuko zezun.

Amatxik erraten dio:

—Zato! Emanen zaitut gosaiterat.

—Ez! Izitzen naiz. Joko nazu.

—Ez, ez, ez! Zato bada fite.

—Emanen diozu beraz Bellarrosi bere bista.

Erraten dio:

—Ba, ba. Badu jadaneko.

Badoha beraz. Erregiñak garbitzen diozka zangoak zukatzen eta ematen du bere belursako lumatxaen gañean eta ematen dio xokoleta hartzerat. Erraten dio amatxik, badakiela non den Bellarros eta zoin egunez ezkonduko zen eta errateko amatxiren partez ez okupatzeko ez bere tuuletaz, ez eta ere mahañeko behar ziren gauzez. Arribatuko zela hura goizetik.

Partitzen da beraz Arroza, eta Bellarros egoten zen hirian zoularik, aditzen du bi andrek zer erraten zuten bi jaunekin:

—Zuen anaiak zer emazte hartu behar ote du? Ez gu bezalakoa duda gabe, zeren gordia atxikitzen du. Zer ikhusiko othe dugu?

Potzo tikiak erraten diote:

—Zubek ez bezalakoa, ezpain handi izigarriak. Ikusiko duzue bai.

Hori aditu dutenian jaun errege hek nahi zuten potzu gaixo hura beren ezpatetan pasatu. Ez zen erreski arribatu Bellarrosarenganat haren etxean gordetzeko. Kondatzen du zer pasatu den. Bellarrosak ematen diozka edari onak edaterat eta errebenitzen da. Erregek kridatzen du potzu harek patak pausatzen dituen tokian tu iten duena hila izanen dela. Emateko kontu.

Ezkontzeko eguna ethorri zenian erregiña arribatu zen. Ekharri zuen espos eguneko arropa diamantezkoa. Biharamuneko urrezkoa eta hirugarren eguneko zillarrezkoa. Pentsa zazue zein ederra zen bere bista diamantarekin eta arropa diamantarekin. Ezin beira zitzaioen. Amatxik erran zigoen han izanen zituela bere koñatak. Bañian ez heien beldur izateko. Ez zirela hurbiltzen haren edertasunari.

Ilki zenian espos egunian ezin beiratu zioten bere koñatek, hala distiratzen zuen. Erran zuten elkarri:

—Arrazoña zuen potzoak, errateko ederra zela andre hura.

Hiru egunez pasaiatu zen Bellarros eta mundu guzia soratua zen haren edertasunaz. Amatxi, bestak pasatu eta, gan zen bere etxerat. Arrosak ez zuen nahikatu kitatu Bellarros. Amatxik erran zigoen Bellarrosi nola burraso pobretarik atheratzen zen. Harek lagundu zituela denboraz. Bañan gaur gehiago akabatuak zituztela harek emanak



Bellarrosi. Eman zioten bizitzekoa ausarki deneri. Berak izan zituen lau haur, bi muthil eta bi neska.

Eta ungi bizi izan baziren, ungi hil ziren.

*(Laurentine  
bere amaren ganik)*

## UME XURTXA

Bazen neskaxa gazte bat mundutikan urrun bera bizi zena saildutasunian. Egun guzietan uso batek ekhartzen zigoen bere nurrimendua. Egun batez ikhusten du neskaxa bat bi jandarmek erematen zutela preso edo hiltzerat. Umesurtsa harek iten du bere baitan:

—Ni bezala bizi izan bazen ez zuten eremanen preso!

Eta horren gañean izan zuen urgullusko pentsamendua eta egun hartarik ez zitzaioen ethorri gehiago usua bere jatekoarekin.

Badoha aphez baten mintzatzerat. Kondatzen dio zer pasatu den eta noiztik ez zuen gehiago errezebitzen bizitzekoa. Erraten dio aphez harek punitua izatu dela bere pentsamenduaz eta behar duela ikhusi hiru haur mundurat ethortzen eta hekien dohañak zer diren.

Lehenbizikoa izan zen erregiña baten haurra. Galdetu zigoen andre hari haren gelan egotea, zernahi zokotan igual zitzaiola, iyan utziko zuen. Erraten dio baietz.

Erditzen denian erregiña hura, egiten du mutil bat. Haur harek ekartzen zuen lepuan kordoña xuri bat eta konprenitu zuen umesurtsa harek, hemezortzi urtetan gillotinatua izanen zela.

Ikusten du bertze emazte baten erditzia. Eman zuen mundurat bertze bat kordoña gorri batekin eta ikhusten du gaizki turnatuko zela haur hura eta galduko zela. Ikhusten du irugarren bat, muthiko bat zen. Harek zuen kordoña urdiñ bat, erran nahi beitzuen arras prestua izanen zela. Hoikiek ikhusi ondoan erretiratu zen umesurtsa hura erreginaren etxerat. Han bizi zen urus okupatzen zelarik haur hartaz arras. Gozatzen zuelarik erraten zigoen maiz aire penatu batekin:

—Gaixo haurra!

Ama harek erremarkatu zuen hori eta egun batez erraten dio:

—Iduri duzu haur hori arras malurus dela. Hala egiten duzu, begitarte egiten diozuñian iduri malurus dela edo zerbait gertatu behar zigoela.

Hori erran zigoen behin bañion gehiagotan eta adiñak urbiltziarekin umesurtsa harek erraten dio erregiñari zer gertatu behar zaioren hemezortzi urtetan. Pentsazue zer pena erregiña harentzat. Erraten dio bere senharrari eta aita eta amak erraten diote beren semeari zeñak erraten beitu gan behar duela berehala etxetik.





Badoha beraz gan, gan, gan bertze herri baterat eta beitzuen eskola, plazatzen da botika handi bat zen etxe batean. Zer nahi saltzen zuten eta prestua beitzen mutiko hura maitatzen dute. Gau guzietz aditzen zuten kanporat gaten bañian ez zakiten norat. Jaunak, kurios beitzen, iten du botikaren gañean zillo bat, zeren harat ere gaten beitzen.

Gabaz ikhusten du hartzen duela xirio bat eta ematen duela xirio haren baligua gora gora kondatuz kontuar zilotik barnerat. Xirio hartu berekin, belaunikatu eta gaten zen aski urrun zen kaperata batetarañion, bethi igual belauniko. Jaun harek segitzen du hala zortzi egunez. Igual egiten du bethi muthikoak eta zortzigarren egunean jaunak ikhusten du kaperako athe zilotik aingeru bat jausten eta botatzen gathe bat gure muthilari eta airetan erematen zuela. Istant baten buruban jausten da eta badoha bere nagusiaren etxerat. Jaun harek erraten dio denak ikhusi dituela eta muthikoak erraten dio ere haren penitentzia ere akabo dela eta bere etxerat gan behar duela.

Jaun harek ez du utzi nahi. Erraten dio:

—Ganen zare nahi baduzu gero, bañian behar duzu lehenbizi nere alabarekin ezkondu.

Erraten dio badituela aita eta ama, eta hekeri erran gabe ezin egin ditakela, bañian hekiek nahi balin badute gogotikan harek nahi duela. Partitzen da beraz berehala bere etxerat. Pentsa azue errege eta erregeña-ren bozkarigua. Bethi ikharetan zaozin noiz aditu behar zuten beren seme maitea urkhatua izatu zela. Ez zakiten zer egin atseginez. Erraten diote nola egin duen penitentzia eta duda gabe barkatu dingoela Jainkoak eta nola nahi duen haren nausi izatuak ezkont arazi bere alabarekin. Iten dire beraz eta denak urus bizi eta ungi hil.

*(Louise Lannusse)*

## GOAZAMA ETA ALABA ORDIA

Bizi ziren batean aita eta alaba bat. Alabak erraten zigoen bere aitari ezkontzadiela. Aitak erraten zigoen:

—Zertako? Malurus zintazke eta.

—Iguale zait. Nahiago zeitut urus ikhusi.

Eta zonbeit denboraren buruban ezkontzen da. Andre harek erraten dio bere senharrari iyan uzten digoen podoria neska haren ganean iteko nahi duena. Senharrak erraten dio baietz eta ez zen gehiago batere okupatzen. Ez zuen ere sekulan ikhusten.

Andre harek erraten dio neska hari, harek erraten diozkan guziak egiten baditu, ungi atheratuko dela.

Errege bizi zen jende hekien etxearen sahetsean, eta arrats batez erraten dio bere goazalabari ematen diolarik erregearen etxeko gakoak, gan behar duela gabaz holako tenoretan erregeren gelarat eta hura atzari gabe ekharri behar diguela haren gerrikoa. Alaba ez zen sobera kontent, banian hala ere badoha eta nihork ikhusi gabe heldu da bere etxerat gerrikoarekin.

Biharamunian erraten dio goazamak bere alabaordekoari gan behar duela oranion eta ekharri behar duela erregeren muntrako gatea. Hartzen ari zelarik errege igitzen da bere ogean eta neskatxa izitueta badoha lasterka eta galtzen du bere zapata erregeren gelako athean.

Zenbeit egunen buruban aditzen dute erregek kridatu duela ibilliko dela etxez etxe zapata batekin eta hura ungi duena izanen dela haren emazte. Errege badabilla beraz etxe aberatsetan lehenbizi. Banian erran zuen ganen zela etxe denetarat. Gan zen beraz jaun bigarrean ezkondu zenaren etxerat ere, urbil beitzuen. Banian bere segidakoe erraten zioten zertarat ganen zen harat. Jende pobreak zirela. Erregek gan nahi du hala ere. Atzematen du andre hura eta erraten dio pobreak direla eta ahalke dela errezebitzea errege bere gelan.

Han zuen ederki bezitua bere alabordekoa, zapata bat bakharra soñian. Soragarria zen edertasunez eta erregek arras bere gustukoa atzeman zuen. Ezkontzen dire berehala. Ereman arazten du berekin bere aita eta goazama. Bizi ziren urus eta goazamari zuen zor neskatxa harek bere ethorkia.

Ungi bizi izan baziren ungi hil ziren.

*(Louise Lannusse)*



## JAUNDEKO

Asko munduan bezala eta izanen diren bezala baziren ama seme bazuek. Bazuten fortuna piska bat. Mutiko harek ez zuen nahi izatu deus aditu. Mariñel eskolarat gan nahi zuela. Amak uzten du beraz iterat. Errezebitua izaten denian mahistru, amak ematen dio untzi bat, kargazoñ balios bat, eta badoha.

Mutikoa arribatzen da hiri baterat eta han zelarik ikhusten du gizon multso bat ungarri meta baten ganean ari zirela tira handik, tira hemendik bulto bati. Urbiltzen da eta ikhusten du gizon hil bat dutela. Galdetzen du zer ari diren hola, zertako ez duten enterratzen. Erraten diote zorrak utzi dituela eta usteldurikan ere ez dutela enterratuko. Galdetzen du Jaundekok:

—Eta norbaitek pagatzen baditu haren zorrak enterratuko duzube?

Erraten diote baietz. Jaundekok krida arazten du hiri hartan gizon harek zor zuena ager dadiela. Pentsatzen duzuen bezala agertu zen hañitz deusikan hartzeko ez zutenak ere. Gure Jaundekok saltzen du bere kargazoña eta ez aski izanez orainion saltzen du bere untzia. Heldu da etxerat. Kondatzen du amari zer in duen. Ama asarre zen ez zirela hola egiñez aberastuko eta gan nahi beitzuen berritz, amak erosten dio untzi txiki txar bat eta ematen dio kargatzat breia, istupa, arresña eta badoha.

Bere bidean zoalarik errekontratzen du untzi handi bat eta hango kapitanañak erraten dio behar dioela erosi andre gazte bat. Xarmanta dela. Jaundekok erraten dio ez duela dirurik. Bainan erraten dio (bertze untziko mahistruak anglesak ziren) bere kargazoña eman ziozala bederen. Jaundekok erraten dio ez dela baliosa. Erraten dio zer den eta mahistru anglesak erraten dio preseski arras baliosa dela hura hekientzat eta egiten dute trukada.

Gure Jaundeko badoha bere amaren etxerat eta orainion ama asarreago, zerekin kargatuko zioen untzia. Ez zuela harek deusik. Ezin eman ziozakela gehiago. Aberasteko plazan, pobretuko inen zela eta obe zuela etxean egon.

Zenbeit egunen buruban ezkontzen da andre gazte, mahistruak eman zioenarekin eta penetan beitzen Jaundeko kargarik ez izanez, erraten dio bere emazteak ez zuela kargarikan behar. Ematen dio bandera bat eta fular bat eta erraten dio bere erreztuna ematean, duala Portugaleko

arradarat eta tiratzeko hiru peza eta ethortzen diren jenderi errateko errege ikhusi behar duela eta duela izena Mari Madalena.

Badoha gure Jaundeko. Arribatzen da Portugaleko arradarat eta tiratzen du hiru peza kolpe. Mundu guzia arritzen da aditzearekin arrabots heiek. Errege bera heldu da untzi hartarat. Galdetzen du nola ausartatu den tiratzera. Nihor ez dela gehiago libro. Erraten du ekhartzen dituela harek Mari Madaleñen berriak eta irakusten diozka bandera, haren portretarekin eta fularra. Erregek ez zakien non zen bozkarioz eta erraten dio gan behar duela berehala haren billa.

Bazuen erregek berekin jeneral zahar bat zeinak nahi izan beitzuen ezkondu Mari Madaleñekin. Bainan ez zuen nahikatu eta erraten dio erregeri iyan ez luken posible harek ere gatea lasterrago in lezaketela. Erregek erraten dio doala nahi badu. Eta partitzen dire.

Itsasoen zirelarik erraten dio egun batez jeneral zahar harek:

—Beira zazu Jaundeko zer arraiñ ederra den hemen.

Beiratzen du Jaundekok eta ez deus ikhusten. Erraten dio jeneral zaharrak:

—Burua beheiti zazu eta beira horrarat.

Eta horrekin batean botatzen du urerat. Badoha jenerala aintzina. Andre gazte hartu eta, badoha erregerenganat. Siñits arazten diote ito dela Jaundeko eta nahi zuen berritz ere ezkondu Mari Madalenekin, bainan nihondik ez du nahi, jadaneko ezkondua dela eta halako pena zuen Mari Madalenek non egotu beitzen zazpi urte bere gelatik ilki nahi gabe. Aitak hala dezidatzen beitzuen ere, jeneral harekin ezkontzia, dezidatzen da beraz egiterat.

Goazen orai Jaundekorenganat. Gaizua bazagoen zazpi urte hartan arroka baten ganean lapak janez eta ur gazia edanez. Heldu zaio axeri bat eta erraten dio:

—Ez dakizu Jaundeko? Bihar da espas Portugaleko erregeren alaba. Zer eman ziñezake harat gateko?

—Orai nituzken guziaren erdia eta gero izan netzazken guzien erdiak.

Axeriak hartzen du eta erematen Portugaleko erregeren etxeko atxerat eta han uzten du. Jaundekok galdetzen du iyan behar duten mutillik. Erraten diote baietz, izanen dutela lana harentzat ere. Eztaiak behar dituztela etxean.

Filiak ezagutzen du Jaundeko. Badoha lasterka erraterat erregeriari. Ez du nahi sinetsi, itoa dela. Neskatxak berritz ikhusi ondoan finkatzen dio baietz, hura dela eta printzesa harek bakia izateko badoha ikhusterat



eta fite segurtatzen da hura dela, ikhusiz harek emanikako erreztuna ere. Botatzen da haren besuetarat eta ereman arazten du berekin erregerengana. Erregek erraten du igual eginen dituztela bestak.

Mahaiñean zirelarik erregek erraten dio Jaundekori konda dezala zerbeit. Jaundekok erraten dio baietz, bañian ateratzen du bere ezpata eta ematen mahañaren ganean erraten duelarik:

—Itzik erraten duenak jakiñen du nere ezpataren berri.

Hasten da kondatzen nola salbatu zuen gizon baten gorputza, bere zituen guziak saldu eta haren zorra pagatuz. Nola gero in zuen trukada andre gazte baten salbatzeko bere karga guzia emanetz. Gero nola izan zen trahitua bere lagun batez eta urerat aurtikia eta bizi izatu zela lapaz eta ur gazia edanez. Hori aditu zuenian erregek har arazten du jeneral zahar hura eta erre arazten du berehala plazaren erdian. Erregek ematen diozka bere zituen aberastasunak eta bizi ziren arras urus.

Urte baten buruan izan zuten mutiko eder bat eta horra nun heldu zaion axeria eta erraten dio aginduen billa heldu dela. Hasten dire denen erdia aparte ematen. Baziren bi suburdin: bat emana zen sahetserat eta denak berdin. Finitu zuenian partilla egiten, erraten dio axeriak badela orainion zerbeit. Erran zioela ere izanen zituenen erdiak emanen ziozkala. Oroitzen da beraz bere haurraz. Hartzen du bere ezpata erditik iteko noiz eta axeriak bere pataz kentzen beitió ezpata. Aski dela. Ikhusten duela zer gizon fiña den hura eta ez duela deusikan nahi. Hura dela salbatu zuen arima hura zorrak pagatuz. Zeruan dela orai hari esker eta haren plaza eta haren familia guziaren plaza zeruan prest atxikiko duela. Hori erran eta airatzen da uso baten forman.

*(Laurentina bere amarenganik)*

## ERREGE ETA BERE HIRU ALABAK

Asko munduan diren bezala eta garen bezala, bazen errege bat; bazi-tuen hiru alaba. Bi zaharreneri ari zen bethi gauza eder ekhartzen. Ez zen batere okupatzen alaba gaztenaz. Bizkitartean hura zen ederrena eta maitagariena. Bethi bazabilan errege feriaz feria eta bestaz besta eta denetarik zerbeitekin ethortzen zen bere bi zaharrentzat. Egun batez bazuaririk besta baterat erraten dio bere alaba gazteenari:

—Behiñ ere ez zaitut deusik ekhartzen zuri. Erran nazu bada zer nahi zinduken eta izanen duzu.

Erraten dio aitari:

—Ez dut eta deusen beharrik.

—Ba, ba! Ekharri nahi zeitut zerbeit.

—Orduan ekhar nazu lore bat.

Badoha. Ari da eros eta eros, batean xapel bat, bertzean arropa gai eder bat, bertzean lepoko bat. Heldu zen etxerat eta pasatzean jauregi eder baten aintzinean ikhusten du baratze bat dena lorez bethia eta erraten dio bere buruari:

—Nere alabaren loria ahantzirik beininduan, hemen izanen duk ausarki.

Hartzen du beraz eta hartu orduko boza batek erraten dio:

—Nork eman hau permisionea loria hartzeko. Hiru alaba beitätuk, urtea bethe orduko ez balin bahaiz heldu hekietako batekin, non nahi errea izanen haiz hi eta hire erresuma guzia.

Badoha errege hura etxerat. Ematen diote zaharreneri beren presentak eta gaztenari ere bere buketa. Ungi erremesiatzen du bera aita. Zenbeit denboraren buruban errege hura tristatzen da. Alaba gehienak erraten dio zer duen. Erraten dio nola ez balin badu alaba batek gan nahi holako tokitarat urtea bete gabe, errea izanen dela. Alabak erraten dio:

—Nere gatik errea izanen zare. Ez dut gan nahi harat. Antola zeite bertzekin.

Bigarrenak ere galdetzen dio:

—Goguetatua atzematen zaitut aita. Zer duzu?

Erraten dio nola engaiatua den urtea bethe gabe alaba bat egortzera holako tokitarat, bertzenaz errea izanen dela. Erraten dio harek ere:

—Antola zeite nahi duzun bezala, bainan ez konda nire ganean.

Alaba gaztenak erraten dio zenbeit egunen buruan:



—Zer duzu aita, hoin triste? Zerbeit pena egin zaituzte?  
Erraten dio haren buketaren billa gan zenian boza batek erran zioe-  
la hiru alabetarika bat behar zuela urtea bete gabe eta ez zakiela zer egin.  
Bertzenaz erran zioela erre izanen zela. Erraten dio alaba horrek:

—Aita ez zaitela griña. Ni ganen naiz.

Eta partitzen da berehala. Karrosa baten barnean sartu eta arriba-  
tzen da jauregiat. Sartzen da eta aditzen du musika alde guzietarik eta ale-  
grantzia. Bizkitartean ez zuen nihor ikhusten. Bere xokoleta atzematen  
du prest. Bazkaria igual. Badoha ogerat. Ez du orainion nehor ikhusten.

Biharamunian, goizian, boza batek erraten dio:

—Zarratzatu begiak. Zure altzuan nahi nuke egon istant bat.

—Zato, zato! Ez naiz izitzen.

Agertzen da beraz suge izigarri bat. Nahi ez zuelarik andre gazte  
harek egin zuen mohimendu bat. Istan baten buruan badoha sugea eta  
bizi zen ederki andre gazte hura deusen eskasika gabe. Bozak erraten dio  
egun batez iyan ez zuen gan nahi bere etxerat. Erraten dio ungi dela han.  
Ez duela gogorik. Erraten dio baietz, nahi badu gan ditakela hiru egu-  
nentzat. Ematen dio erreztun bat eta erraten dio:

—Hori mudatzen balin bada, penetan izanen naiz eta odoletan ema-  
ten bada, malur handitan izanen naiz.

Partitzen da andre gaztea bere aitaren etxerat. Aita kontent zen  
hanitz. Ahizepek erraten diote urus behar duela han izan. Lehen bañion  
ederrago dela, iyan norekin den han. Erraten diote, suge batekin. Ez  
zuten nahi sinetsi.

Hiru egunak pasatzen zaiozka amets bat bezala eta ahanzten du bere  
sugea. Laugarren egunean erreztunari behirutzen dio eta ikhusten du  
mudatua. Ukitzen du erriz eta odoletan ematen da. Hori ikhusi eta bado-  
ha lasterka aitarenganat erraterat badohala.

Arribatzen da jauregiat eta atzematen du triste tristea. Musikak ez  
ziren hari. Denak paratuak ziren. Iten dio sugeari oiuhu. Azor zuen izena  
eta andre gazteak Fifine. Ari da bethi oiuka bañion nihondik ez zen ageri  
Azor. Etxe guzia billatu onduan, zapatak kendu eta badoha baratzerat,  
han ere oihuka.

Atzematen du lur edo toki piska bat ormatua baratzean. Berehala  
egiten du su handi bat toki hartan eta handik atheratzen da Azor sugea.  
Erraten dio:

—Ahantzi ninduzun beraz. Ez bazindu su hau egin, akabo nintzen.

Fifinek erraten dio baietz ahantzi zuela, erreztunak oroit arazi duela.  
Azorrek erraten dio:

—Banakien ba zer gertatuko zen. Hartako eman zintudan erreztu-  
na.

Etxerat ethorri eta atzematen du lehen bezala etxea alegrantzietan,  
musikak hari ziren bazter guzietarik. Handikan zenbeit egunen buruan,  
Azorrek erraten dio:

—Ezkondur behar duzu nerekin.

Fifinek ez du deus erreputarik ematen. Galdetzen dio hola hiruetan  
eta bethi badago ixil ixilla. Etxe guzia tristatzen da orainion eta ez du  
gehiago jatekoa prest atzematen. Berritz ere galdetzen dio Azorek iyan  
nahi duen harekin ezkondu. Ez du erreputarika ematen orainion. Eta  
hola bazagoen ilhupian zenbeit egun deusik jan gabe eta erraten du bere  
baitan zer nahi gostarika ere erran behar dioela baietz. [Sugeak berritz  
galdetzen dionean iyan harekin ezkondu nahi duen erraten dio]:

—Sugearekin ez, bainan gizonarekin bai.

Hori erran eta musikak abiatzen dire lehen bezala eta erraten dio  
Azorrek behar duela gan bere aitaren etxerat mintzaterat aphezak eta behar  
diren gauza guzien preparaterat. Biharamunian izanen direla espos.

Badoha neskatxa erran bezala. Erraten dio aitari ezkontzen dela  
sugerekin biharamunian eta iyan denak prestatuko dituen hartako. Aitak  
erraten dio baietz. Bañian pena zuen. Aizepek galdetzen diote ere norekin  
den espos eta arritubak dire aditziarekin sugerekin in behar duela. Fifine  
badoha bere etxerat. Azorrek erraten dio iyan zer nahiago duen etxetik  
elizarat suge ala elizatik etxerat. Fifinek erraten dio:

—Etxetik elizara suge.

Azorrek erraten dio nik ere bai.

Karrosa eder bat heldu zaiote atherat sugea han ematen da; Fifine  
haren saietsean eta arribatzen dire errege aitaren etxerat. Erraten dio  
sugeak zarratzeko athiak eta erridabak nihork ez dezan ikhus. Erraten dio  
Fifinek:

—Ikhusiko zaituzte ordean jaustean.

—Iguale da. Zarra zazu.

Badoha bere aitarenganat. Heldu da aita hura bere korte guziarekin  
sugearen billa. Idikitzen du athea eta nor da arritua? Mundu guzia.  
Sugearen plazan da jaun gazte xarmant bat. Badohazi denak elizara.  
Handikan lekora zuten bazkari eder bat erregeren etxen. Bañian jaun  
esposak erraten dio bere andreak ez dutela behar batere besta egin.  
Badutela afera handi bat itekoa etxean. Bertze egun batez ethorriko dire-  
la besta egiterat. Erraten dio hori bere aitari eta badohazi aintziniaratz  
beren etxerat.



Han arribatu direnien jaunak ekhartzen dio saski handi batean suge larru bat eta erraten dio:

—Inen duzu su handi bat eta gaberdiko lehenbiziko orena aditzen duzionian, botatuko duzu suge larru hori su hartarat. Behar du horrek erre eta behar duzu botatu horren autsa hamabigarren orena jo gabe kanporat. Hori iten ez balin baduzu sekulako malurus izanen naiz.

Erraten dio andreak inen dituela segurki in ahal guziak ungi egiteko. Asten da gabardi bañion lehenago su egiten. Lehenbiziko orena aditu orduko, botatzen du bere suge larruba eta bi gerren artu eta igi eta zirika hamar oren jo orduko errea du. Pala bat artu eta botatzen du autsa kanporat, hamabiak finitzearekin. Orduan erraten du boza izigarri batek:

—Madarikatzen haut hoin abilki eta artoski in dunan gauzarentzat.

Horrekin batean heldu zaio bere senharra. Ez zakien non zen. Bozkarioz besarkatzen du eta ez daki nola erran bere emazteari zer ungi in dioen, orai ez duela deusen beldurrik. Ez balu harek erran bezala egin, hogoi ta bat urterentzat eskantatu izanen zela berritz. Orai akabo zela eta ganen zirela trankil aitaren etxerat besta egiterat.

Badohazi biharamunian. Ungi jostatzen dire. Badohazi beren jauregirat beren gauza ederren billa, ez beitzuten gehiago nahi egon mendi zoko hartan. Kargatzen dituzte karruak eta xarretak gauza baliosez eta badohazi erregeren etxerat han bizitzerat. Andre gazte harek beittitu laur haur, bi mutil eta bi neska, ahizpek jelosia handia beitzuten, aitik egorri zituen etxetikan kanporat. Erregek eman zioen bere korona bere suiari. Jadaneko errege semea zen.

Ungi bizi baziren ungi hil ziren.

*(Laurentine)*

## ERREGE ETA BERE HIRU SEMEAK

Asko munduan bezala garen eta izatu eta izanen garen bezala, bazi-ren errege, bere andrea eta hiru mutiko. Jaun errege badoha egun batez ihizirat eta atzematen du Tartaro bat eta ekhartzen bere etxerat. Ematen du estaulia batean preso eta tronpeta soñuz erran arazten du kortea bil dadien biharamunian erregeren etxerat. Behar duela eman bazkari handi bat eta haren ondotik erakutsi alimalia bat, beñere ikhusi ez duten bezalakoa.

Biharamunian hari ziren erregeren bi semeak pillotan, estaulia Tartarua zenaren kontra. Pilota sartzen zaiote estaulian. Badoha mutiko hekietarikan bat Tartaruari erraterat, bota diozala othoi pillota. Erraten dio baietz libratzekotan. Erraten dio baietz eta botatzen dio istant baten buruan berritz ere pillota. Badoha Tartaruarenganat. Galdetzen dio berritz ere. Tartaruak erraten dio libratzekotan emanen dioela. Erraten dio mutikoak baietz.

Pillota hartu eta badoha. Hirugarren aldian ere badoha pillota. Banian Tartaruak ez dio eman nahi, libra dezala lehenbizi. Erraten dio muthikoak ez duela gakorik. Tartaruak erraten dio duala bere amarenganat. Erran diozala billa diozan beharri eskuina, min duela eta amak izanen duela gakoa ezkerreko zarpan eta ar diozala.

Badoha mutikoa Tartaruak erran bezala. Artzen dio amari gakoa eta libratzen du Tartarua. Libratzen duenian erraten dio:

—Zer inen dut orai gakoa? Xahu naiz!

Erraten dio Tartaruak:

—Zoazi berritz ere amarenganat. Errozu ezkerreko beharrian min duzula, billa dezan. Eta sartuko diozu gakoa zarpan.

Eta erraten dio Tartaruak izanen duela laster haren beharra eta askiko duela hari oiuhu egitea. Bethi zerbitzatuko duela. Mutikoak iten du Tartaruak erran bezala gakoaren turnatzeko.

Mundu guzia bildu zen bazkaiteko. Ederrik jan dutenean erregek erraten diote gan behar dutela gauza kurios haren ikhusterat. Ereman arazten ditu guziak estaulirat. Atzematen dute utsa. Pentsa azube erregeren ahalkia eta kolera. Erraten du hura libratu duenaren bihotza nahi lukela jan erdi errea, gatzik gabe.

Zenbeit denboraren buruan bi anaiak asarratzen dira amaren aintzian eta erraten dio batek:



—Aitari erranen zioat Tartaruaren aferá.

Amak hori aditu duenian izitzen da bere semiarentzat eta erraten dio ar dezala nahi duen bezenbat diru eta fordelisa, zeñekin bazter guzietan ezagutua izanen beitzen erregetzat.

Badoha beraz Petit Jorge, gan, gan, gan. Enplegatzen eta xahutzen ditu bere diru guziak. Ez zakien gehiago zer egin. Oroitzen da Tartaruaz. Iten dio berehala oiñu. Heldu zaio. Erraten dio Petit Jorgek bere desgrazia, ez duela gehiago sosik, ez dakiela zer billaka. Erraten dio Tartaruak bide piska bat egin eta arribatuko dela hiri baterat. Han badela errege bat. Duala haren etxerat eta hartuko dutela baratzezaintzat. Athera ditzala baratzean diren gauza guziak eta biharamuneko ederrago izanen direla. Sortuko direla ere hiru lore ederrak. Gogotik eremateko hiru erregeren alaberi. Ederrena emateko gaztenari.

Badoha erran bezala. Arribatzen da erregeren etxerat. Galdetzen du iyan behar duten baratzezaiñik. Erraten diote baietz segurki. Badoha baratzerat eta atheratzen ditu aza eder batzuek eta foru ederrak ere. Erregeren alaba gaztenak ikhusi eta erraten dio aitari eta aítak erraten dio:

—Utzagun. Ikhusiko dugu zer iñen duen.

Biharamunian ikhusten dute egiazki aza eta foru batzuek, behin ere ikhusi ez zituzten bezalakoak. Erematen du andre gazteeri lore bana. Zaharrenak erraten du baduela baratzezainak ekharria lore bat parerikan gabea. Bigarrenak erraten du harek ere baduela orainion ikhusi ez duen beziñ ederra eta erraten du gaztenak, harena orainion hekiena bañion ederragoa dela. Aithortzen dute bertzeek ere.

Andre gazten harek arras bere gustukoa atzematen zuen baratzezaiña. Egun guziez erematen zioen bazkaria. Zenbeit denboraren buruan erraten dio harekin behar lukela ezkontu. Mutillak erraten dio ez dela posible. Erregek ez duela nahiko holako ezkontza. Erraten dio neskatxak ere:

—Ba egiazki ez du balio ere. Zortzi egunen buruan sugeaz jana izanen naiz.

Zortzi egunez ekhartzen dio bazkaria. Bezperan erraten dio azkeneko aldian ekhartzen dioela biharamunian jana izanen dela sugeaz. Hamar orenetan ganen dela. Erraten dio mutikoak ezetz, ezetz, ekharriko dioela orainion. Petit Jorgek erraten dio, ez dela jana izanen. Norbeitek lagun-duko duela.

Biharamunian Petit Jorge badoha zortzi orenetan Tartaruari oiñu egiterat. Erraten dio zer pasatzen den. Tartaruak ematen dio zaldi eder bat, beztimenta ederrak, ezpata bat. Erraten dio duala holako tokitarat,

idek dezala karrosako athea bere ezpataz eta kenduko diozkala bi buru sugeari.

Badoha Petit Jorge erran tokirat. Atzematen du andre gaztea karrosaren barnean. Erraten dio idekitzeko athea. Andre gazteak erraten dio ez dezakela idek. Badirela zazpi athe eta doala handik. Aski dela bat jan dezan. Petit Jorgek bere ezpataz idekitzen du athea eta jartzen da andre gaztearen sahetsean. Erraten dio min duela beharrian; billa diozala eta mozten diozka, zazpi arropa beitzituen, zazpi puska andreak ikhusi gabe.

Horrekin batean heldu da sugea. Erraten du:

—Baten plazan baditut hiru jateko.

Petit Jorge saltatzen da bere zaldiaren gañerat eta erraten dio:

—Ez duk ukituko eta ez izanen bat ere xoilki.

Hasten da kolpeka eta bere ezpataz kentzen dio buru bat eta zaldiak bere zangoekin bertze bat. Sugeak galdetzen dio kartear biharamun arte. Petit Jorgek uzten dio. Andre gazte hura lorietan dago. Nahi du jaun gazte hura berekin ereman etxerat, baiñan nihondik ez du nahi. Ez duela posible. Bella bat egiña duela Erromarat gateko. Banian erraten dio bihar ethorriko dela haren anaia eta iñen duela zerbeit harek ere.

Andre gaztea badoha etxerat eta Petit Jorge bere baratzerat. Heldu da eguerditan Petit Jorgen bazkariarekin. Erraten dio:

—Ikhusten duzu nik erran bezala gertatu dela, ez zaituela jan.

—Ez, bañan bihar janen nau. Nola nahi duzu bertzela.

—Ez, ez! Bihar ere ekharriko nazu bazkaria. Zerbeit laguntza ethorriko zaizu.

Biharamunian Petit Jorge badoha zortzi orenetan Tartaroren-ganat eta ematen dio zaldi berri bat, manto diferent bat eta ezpata eder bat. Arribatzen da hamar orenetan andre gaztearenganat. Erraten dio idekitzeko athea. Bañan erraten dio niondik ez duela posible. Hamalaur athe baditueta eta ezin idek dezakela. Dohala handik. Aski dela bat jan dezan. Pena duela hura han ikhustia.

Bere ezpatarekin ukitu orduko idekitzen ditu hamalaur atheak. Jartzen da andre gaztearen aldean. Erraten dio billa diozan beharri gibelian zer duen, miñ ematen dioela. Eta denbora hartan pikatzen diozka hamalaur arropa soñian zituenen piska bana. Hori egin orduko heldu da sugea lorietan diolarikan:

—Ez bat, ez! Bañan hiru jan behar ditut.

Petit Jorgek erraten dio:

—Ez eta ukituko bat ere.



Iten du salto bere zaldiaren gañerat eta hasten da kolpeka sugerekin. Zaldiak iten zituen salto batzuek izigarriak. Hañitz aritu eta azkenian Petit Jorgek garraitzen du eta kentzen dio buru bat. Zaldiak bertze bat bere zangoekin. Sugeak galdetzen du karteer biharamun arte. Petit Jorgek ematen dio eta badoha sugea.

Andre gazteak nahi du jaun hura berekin ereman etxerat bere aitari irakus diozan. Banian nihondikan jaunak ez du nahi. Erraten dio Erromarat gan behar duela. Egun hartan berian behar duela partitu. Bella iña duela. Bañian egorriko dioela bihar bere kusiña, hanitz ardita eta deusek izitzen ez duena. Andre gaztea badoha bere aitaren etxerat. Petit Jorge bere baratzerat. Aita hura loriatua da. Ez dezake deus konpreni.

Badoha orainion andre gaztea bazkariarekin. Baratzezainak erraten dio:

—Ikhusten duzu heldu zarela egun ere nik erran bezala. Bihar ere igual ethorriko zare.

—Nahi nuke bada.

Biharamunian Petit Jorge badoha zortzi orenetan Tartaroarenganat. Erraten dio badituela orainon hiru buru sugeak kentzekoak eta baduela haren laguntza handiaren beharra. Tartaruak erraten dio:

—Ago trankil, ago. Garraituko duk.

Ematen dio bestimenta berri bat bertzea banion ederragoa. Zaldi fierrago bat. Xakur bat izigarria, ezpata bat eta anpulla bat ur usainonekin. Erraten dio:

—Sugeak erranen beitu «ail balin banu su pindar bat agotik eta buztana tartean, erre eginzaket hi, hire andre hori, hire zaldia eta potzu hori», hik erranen diok orduan «eta nik banu usainona suhurretan, ken eginzaket buru bat, zaldiak bertze bat eta potzuak bertze bat». Emanen diok anpolla hura andre gazteari. Atxikiko dik bere paparuan eta hik hori erratearekin batean, botatuko hau bisaiaiat zaldiari eta xakurrari.

Badoha beraz beldurrikan gabe zeren Tartaruak eman beitzioen segurantza. Arribatzen da beraz karros hartarat. Andre gazteak erraten dio non dabillan bada, sugeak ez duela tardatuko. Aski dela hura jan dezan. Erraten dio idekitzeko athea. Erraten dio ez duela posible, beituela hogoi eta bat athe.

Jaun gazte harek ukitu eta bere ezpataz idikitzen dire. Jaun gazte harek erraten dio ematean anpolla:

—Sugeak erraten duenian «banu su pintar bat burutik eta buztanerat artean erre nindukela» nik erranen diot «banu ur usaiñon sorta bat sudur azpitan», zure anpolla hartu eta botatuko nazu.

Memento berian beharria billa arazten dio eta billatzen hari delarik kentzen diozka ogoi eta bat arropa beitzituen, puska bana. Horrekin batean heldu da sugea erraten duelarik lorietan:

—Baten plazan lau behar ditut jan.

Erraten du jaun gazteak:

—Ez eta bat ukituko ere.

Egiten du salto bere zaldi fierraren ganeat eta ari dire kolpeka behiñ ere bañion azkarkiago. Zaldiak egiten zituen salto batzuek etxea bezin handiak. Suge errabiatzen ari zen. Erraten dio:

—Balín banu su pintar bat burutik buztana tartean, erre inzaket hi, hire andrea, zaldi hori eta xakur izigarri hori.

Erraten dio jaun gazteak:

—Nik balin banu ur usaiñona sudurretan ken inzaket buru bat, zamariak bertze bat eta xakurrak bertze bat.

Hori erraten ari zelarik, andre gazteak altxatu eta idekitzen du anpolla eta botatzen du ederki behar zen tokirat. Jaun gazteak kentzen dio bere ezpataz buru bat, zaldiak bertze bat, xakurrak bertze bat eta horra non sugea akabatzen duten.

Jaun harek hartzen ditu zazpi mihiak berekin eta botatzen buruak. Pentsa azue andre gaztearen loria. Nahi du berehala gan bere aitarenganat bere salbatzailearekin. Aitak ere behar dituela eskerrak eman. Hari duela zor bere alaba. Bañian jaun gazteak erraten dio nihondikan ez duela posible, bere kusiñetarat gan behar duela Erromarat. Hala iña dutela bella eta hunaratekoan ganen direla hiruak haren aitaren etxerat. Andre gazteak pena du bañian badoha denborarik galdu gabe erraterat aitari zer pasatzen den.

Aita kontent zen hañitz zeren arras destruitua beitzen sugea eta erran arazten du herri guzian sugea hil duena ager dadiela bere frogekin.

Andre gaztea badoha berritz ere bazkaria erematerat baratze zainari. Erraten dio:

—Nik egia erraten nuen beraz ez ziñela jana izanen. Zerbeittek hil du beraz sugea!

Kondatzen dio zer pasatu den.

Horra beraz, zenbeit egunen buruan agertzen da ikazkin beltz bat zeniak erraten beitu harek hil duela sugea eta heldu dela sariaren billa. Andre gazte harek ikhusi duenian ikhazkin hura erraten du berehala ezetz. Segurki ez dela hura, jaun kaballera eder batzuek zirela eta ez gizon peste halako bat. Erakusten ditu ikazkiñak suge buruak eta erregek erra-



ten du egiazki hura behar dela izan. Erregek hitz bat duela eta ezkondu behar duela harekin.

Andre gazte harek ez zuen nahi nihondik. Aitak bortxatzen zuen ez zela bertzerikan ageri. Bañian alabak ez beitzuen nahi, eta luzatzeko erran arazten du herri guzian, sugea hil duena, kapable izanena dela egiteko berze zerbeit ere eta holako egunetan bil deitezala jaun gazte guziak.

Emanen duela ezkillar dorretik zerbeitetarik dilindan erreztun diamanta bat eta zamaria haren azpitik pasatzean sartzen duenak ezpata erreztunian izanena dela haren alabaren senhar.

Alde guzietarik heldu dire jaun gazteak. Gure Petit Jorge badoha Tartaruarenganat. Erraten dio zer pasatzen den. Haren beharretan dela. Tartaruak ematen dio zaldi eder bat, bestimendu super bat eta ezpata fin bat. Hala bezaitu eta badoha Petit Jorge. Bertzeak bezala presentatzen da. Andre gazteak ezagutu zuen berehala eta erran bere aitari. Eta badu zoriona bere ezpata sartzeko erreztunian, banian batere arrastatu gabe badoha aintziniat bere zaldiaren galupa guzietan.

Errege eta bere alaba balkonean zagozin jaun heiek guzieren beira. Ikhusi dutenean aintzinarat duala andre gazteak erraten dio aitari:

—Aita! eginiozu oihi.

Aitak erraten dio aire hasarre batekin:

—Aintzinarat dua ez beitu aparantziak zure gutziazirik.

Eta botatzen dio bere lantza eta sartzen zaio aztalatik eta bethi bazoan aintzinarat. Pentsa zazu zer pena andre gazte harentzat.

Biharamunian badoha baratzezainaren bazkariarekin. Ikhusten dio aztala arrimatua. Galdetzen dio zer duen. Andre gaztea zerbeitetaz dudatzen zen. Erraten dio aitari nola baratzeziña aztala arrimatua zen eta behar dioela galdetu zer duen. Hari erran dioela, ez duela pitsik. Erregek ez zuen gan nahi, zer nahi zuen atheratu baratze zain hartarik. Bañian alabari atsegin egiteko gan behar izan du. Badoha. Galdetzen dio zer duen zangoan. Erraten dio elorri beltz bat sartu zaiola. Errege koleratzen da, ez dela haren baratzean elorri beltzik, gezurra erraten dioela. Alabak erraten dio:

—Errozu irakusteko.

Irakusten dio eta estonimenduekin ikhusten du oranion han duela haren lantza. Erregek ez zakien zer pentsa. Baratzezain harek tronpatu zuela. Bere alaba hari eman behar izatia! Bañian Petit Jorgek irakusten dio bere paparu ideki eta bere fordelisa. Erregek ez zakien geihago zer erran. Alabak erraten zioen hura zela haren salbatzailla eta harekin bertzeik ez dela ezkonduko.

Petit Jorgek galdetzen dio erregeri ekar araz detzan herri hartako bortz dendaririk famatuenak eta bortz karnazer. Erregek ekhar arazten ditu. Petit Jorgek erraten diote dendarieri iyan egin duten behin ere arropa berririk puska falta. Erraten diote dendariek ezetz. Ekhar arazten ditu andre gaztearen arropa eder guziak. Kondatzen ditu bere puskak eta ematen diote dendarieri irakusterat iyan hala eman zituzten andre gazte hari. Erraten diote ezetz segurki.

Badoha karnazerrenganat. Erraten diote iyan ikhusi duten sekulan alimiliarik mihirikan gabe. Erraten diote ezetz. Billa detzatela beraz suga haren buruak. Ikhusten dute mihirikan ez dutela eta orduan atheratzen ditu mihiak.

Erregek, hoik guziak ikhusi eta, ez du geihago deus erratekorik. Ematen dio bere alaba. Petit Jorgek erraten dio behar duela konbidatu haren aita esposetarat, bañian andre gaztearen aitaren partez, eta behar dioela zerbitza arazi ardi baten bihotza erdi erria, gatzik gabe.

Egiten dituzte besta ederrak. Ematen dute bihotz hura aita haren aintziniat. Pika arazten diote berari eta hañitz damutu zen hortaz eta erran zuen bere semeak:

—Horren beira nagoen.

Erraten dio:

—Ai aita gaixua! ahantzi duzu ote nola erran zinduen, Tartarua libratu zuenaren bihotza janen zinduela erdi errikerik eta gatzik gabe ere. Ez da hori nere bihotza. Ardi batena da. Iñ dut hori zuri oroitarazteko zer erran zinduen eta nere burubaren ezagut arazteko.

Besarkatzen dute elkar. Kondatzen diozkate elkarri beren berriak eta zer zerbitzuak egiñ ziozkan Tartaruak. Aita hura erretiratu zen kontent bere etxerat eta Petit Jorge bizi izan zen arras urus bere andre gaztearen eta erregeren etxean. Ez zuten deusen eskasik izatu bethi han beitzuten Tartarua beren zerbitzuko.

(Laurentine)





## EZKABI FIDELA

Asko munduan diren bezala eta garen bezala baziren ama seme batzuek. Arras pobreak ziren. Seme harek gan nahi du norapeit, obekiago atheratuko dela, ez dela bizitze bat hala. Amak pena du bañian zer in? Obekiago izateko bere semea uzten du gaterat. Badoha gan, gan, gan, Oian batean ikhusten du jaun bat. Galdetzen dio non dabillan. Erraten dio etxean banion obekiago izan nahiz hilki dela zerbeiten iteko. Erraten dio jaun harek iyan nahi duen haren mutil gan. Erraten du baietz. Badohazi beraz eta arribatzen dire toki eder baterat. Han sartu eta jaunak ematen diozka etxeko gako guziak, behar duela gan biaiá batean. Ikhus dezan etxea, guzia. Atzemanen dituela behar dituen guziak jateko eta harta detzan haren zaldia estaulian.

Badoha jauna. Gure muthikoak etxe guzia ikhushi ondoan badoha estaulirat. Bazen zaldi hanitz eta denen erdian bazen behor xuri bat. Erraten dio:

—Ai ai Fidel! Libra nazak othoi hemendik eta kanporat eman. Ez zaik urrikituko.

Fidel badago nondik heldu den boza hura. Istant baten buruan erraten du behor xuriak:

—Urbil zaite behor xuri hunen ondorat. Hura mintzo zaitzu.

Urbiltzen da Fidel eta erraten dio ezin libra dezakela. Nausiak ez dioela bertze lanikan eman iterat eta ez duela segurki holako lanik egiñen. Behorak erraten dio:

—Hua goiti eta ekharrak kasola bat eta nik piza iten dutenean garbituko haiz eskubak eta buruba.

Fidelek iten du behor xuriak erran bezala eta harrítua da ikhustia bere eskuak hala distiratzten. Erraten dio ez duela nahi hala bizi bañian buruba gordetu eta atxikiko zuela. Behorak erraten dio garbi detzala eskuak urian eta izanen dituela lehen bezala.

Denbora hanitz pasatzen da hola. Ez da sekulan heldu nausia eta behorak erraten dio egun batez:

—Fidel badakik zenbat denbora den hemen haizela?

Erraten dio:

—Ez dakit. Sei hilabete naski.

Erraten dio behorak badirela sei urthe pasatuak eta nausia ethortzen balin bada zazpi urte pasatu eta hura ere eskantatua izanen dela, hekiek diren bezala eta nausi hura debrua dela.

Hoik guziak aditu onduan, Fidel izitzen da eta iten du obe duela iñ behor xuriak erraten duen bezala, haren bizkarrerat hizatu eta gan ihesi handik. Badohazi beraz biak. Bide puska bat iñ eta behorak erraten dio iyan ez duen deusik ikhusten gibelean. Erraten dio baietz. Ikhusten duela gauza izigarri bat, banian edoietan. Izigarria dela. Behorak ematen dio lurrari ostiko bat bere zangoekin eta erraten dio:

—Lurra! Hire medioz, hori den tokian bruma bat izigarria forma dadiela!

Badohazi aintzineat orainion. Erraten dio berritz ere behorak:

—Beira zak iyan ez dukan deusikan ikhusten.

Fidelek erraten dio:

—Bai! Ikhusten dut orainion gauza izigarri hura gure ondotikan laster heldu da. Atzemanen gaitu.

Erraten du behorak horrekin batean lurrari ostiko bat ematean:

—Hura den tokian in dezala arria eta barazuza jauts ahala.

Badohazi urrunago eta erraten dio behorak orainion:

—Beirazak iyan ez dukan deusik ikhusten.

Erraten du:

—Bai! Hemen da orai ere mustro izigarri hura. Bañian akabo gare orai. Ezin eskapatuko gare. Arras urbil da eta laster egiten du.

Jotzen du behorak bere zangoz lurra eta erraten du:

—Horren aintzinian forma dadiela arribera bat eta hor ito dadiela sekulakotz. Eta ikhusten dute itotzen.

Behorak erraten dio:

—Orai ganen haiz holako tokitarat. Han duk errege. Galdetuko duk iyan behar duten baratzezainik. Erranen haute baietz. Han egoenen haiz deusikan ari gabe. Berak iñen dituk lanak. Egun guziez sortuko beire hiru lore eder baratze hartan, eremanen dituk erregeren hiru alaberi. Banian emanen diok bethi gaztenari ederrena.

Usaia zen baratzezainari bazkaria erematea eta erregeren alaba gaztenak erematen zioen egun guziez. Lehenbiziko egunetik gustatzen zitzaioen andre gazte hari. Erraten dio egun batez harekin behar duela ezkondu. Mutikoak erraten dio ez ditakela holako mutiko ez deus batekin. Ez duela behar pentsatu ezkontzia; ez geihago holako ametsik egiteko.



Eritzen da andre gazte hori. Aitak ekhar arazten du mirikua zeniak erraten beitu poltsua billatu eta ez dioela deus eritasunik atzematen eta amoren miña duela. Mirikua badoha erraterat erregeri. Aita badoha bere alabarenganat eta erraten dio mirikuak erran dioela ez dela eri handi. Erraten dio alabak haren sendatzeko behar dela ekhar arazi baratzezaina eta harek emanez salda sendatuko dela. Aitak ekhar arazten du berehala, garbi arazten eta beztitzen ungi eta erematen dio salda.

Bazen korte hartan amaño zahar zahar bat. Sorgina zen eta beitzaien zer erran zuen mirikuak, badoha andre gazte eriaren gelarat eta han gorde zen baratzezaina ethorri bañion lehenago, aditzeko zer erraten zuten. Andre gazteak erraten dio, bai, eta harekin bertzeik ez dela ezkonduko. Harek errana gatik mutikoak erraten dio ezetz, ezetz, ez duela nahi aipatzia ere. Amañok aditu zuen nola pasatu zen eta kondatzen du berehala erregeri.

Andre gaztea sendatzen da eta badoha erematerat Fideli bere bazkaria. Usaia zuen Fidelek lehenbiziko kullida zopa ematea potzuari. Ematen dio egun hartan ere eta jan orduko, potzua erortzen da hil gogorra. Andre gazteak, hori ikhusi eta badoha bere aitari erraterat. Aitak ekhar arazten du zakur handi bat. Ematen dio zopa hartarik eta jan orduko erortzen da hilla. Pentsa azue andre gazte haren kolera! Har arazten du amaño zahar hura eta erre arazten.

Badoha Fidelen ganat, baratze zolan zen etxe ttiki baterat eta han ikhusten du buruhas; iduzkiak bezala distiraten zuen. Soratua zen. Erraten dio andre gazte harek ezkondu behar duela harekin. Bakia ez beitzioen uzten, aitak erraten dio harekin nahi balin badu ezkondu in dadiela bañian ez dioela deusikan emanen. Gan beharko duela mendi zoko baterat bere senharrarekin. Han baduela etxe bat eta han egonen direla arras. Ethorriko direla zortzitik egun baten pasatzerat.

Andre gazte hari, denak igual zitzaiozkan eta badohazi. Dirurikan ez beitzioten erregek eman, Fidelen ille puzka baten saltzerat gaten zen noiztenka eta zillargiñak erraten zioen haren etxean ez litakela aski diru, harek ekhartzen zuen urrearen pagatzeko. Eta bizi ziren hala, arras urus.

Egun batez aditu zuen Fidelek erregek bazuela gerla handi bat egiteko eta erraten dio bere andreari, duala bere aitarenganat, erraterat gan nahi dela hura ere gerla hartarat. Badoha andre gazte hura aitari erraterat bere senharraren mandatua. Bañian aitak erraten dio zertako duen halako gizona. Harek ez zuela sekulan lurpekorikan bertzerikan hil eta badaukela bere etxean. Alabak erraten dio hura ere haren suia dela. Aitak erraten dio:

—Datorla beraz holako egunetako.

Fidel badoha erran bezala. Galdetzen dio erregeri zaldi bat eta ezpata bat. Ematen dio erregek zaldi oker eta maingu bat. Ez zen kontent Fidel. Bañian hasten da gan nahiz. Bide piska bat in orduko sartzen zaio zaldia basan eta nihondikan ezin athera zezaken. Hala ari zelarik heldu zaio bere behor zuria. Ematen dio zaldi eder bat, ezpata bat eta lantza bat eta erraten dio ikhusiko zituela bere koñiatak kanpatuak, hiriz kanpo, ez hekiekin arrastatzeko, gateko zuzen hirirat. Atheak zarratuak izanen zirela, bañian bere lantzaz ukitu orduko porroskatuak izanen zirela eta galdetuko ziotela bakia.

Iten du erran bezala. Badoha hirirat zimiztaren pare zaldiaren ganean eman orduko, kasurik egin gabe bere koñateri eta bere ezpataz ukitu orduko, atheak puskatzen dira. Sartzen da hirirat eta mundu guzia atheratzen zaio eta iten milla besta. Erraten diote ez dutela nahi gerla geihago, emanen diotela tresoreko gakoak eta paper guziak. Eta badoha handik ohore guziekin.

Heldu delarik gibelerat erraten diote bere koñateri badoazkela gibelerat, gerla fini dela. Eta badoha oraiñon aintzinerat. Arrastatzen da bere zaldi zaharra utzi tokian. Egortzen du bere zaldi ederra bere puskekin eta Fidel badago han bere zaldia ezin atheratuz basa hartarik pasatzen diren bere koñatak. Trufatzen dire hartaz iyan han pasatu duen denbora guzia. Erraten du baietz. Bertzeak badohazi aintzinerat eta noizpeit hura ere arribatzen da erregeren etxerat. Uzten du han zaldi zahar hura eta badoha bere etxerat. Ez dio erraten bere emazteari zer pasatu den eta bizi ziren bere zilloan.

Errege zahartzen ari zen eta bista galtzen du arras. Norbeitek aditu arazi zioen bazela ur bat gatzetzen zuena eta beste bat bista ematen. Erraten diote hori bere sueri eta erraten diote behar luketela gan. Hola ez duela hanitz irauenen. Eta badohazi biak. Beren emazteek gatean ematen diote sagar urre bana. Badohazi urrun banian deus ez dute atzematen. Unatu eta arrastatzen dire hiri eder batean. Hartzen dute emazte bana eta bizi ziren arras beren gusturat.

Fidelek ikhusi ondoan bere koñatak ez zirela heldu gibelerat erraten du bere emazteari gan behar duela iyan harek obekiago atzemanen duen haren aitak behar dituen urak. Badoha erregeri deusik erran gabe. Badoha urrun urrun. Atzematen du emazteki zahar zahar bat. Erraten dio non dabillan. Erraten dio nola nahi lukeen ur itsuen argitzekoa eta zahar gatzetzekoa. Hekiek atzeman arte ez dela ganen bere etxerat.

Atso harek erraten dio:



—Ikhusiko dituzu zureganik urbil bi alimale kolpeka eta belar hilla piztuko duena bilduko duzu eta egos araziko eta ur hura gardatuko duzu zuretzat.

Mutiko hura badoha piska bat eta ikhusten ditu bi sumandil kolpeka ari direla hain finki non batek bertzea hiltzen baitu. Bizi zenak hartzen du belar izpi bat, ukitzen hilla dena eta pizten du. Biltzen du Fidelek belar hartarik eta badoha atso harenganat. Ematen dio atso harek bi anpolla erraten dioelarik hekiek direla itsuen argitzekoa eta zaharren gaztetzeko urak. Ez dituela hekiek behar saldu dirutan, bañian in trukada bi sagar urretan. Hiri hartan berean dituela bere koñatak eta hekieri emanen dioela ur hura.

Badoha Fidel hirirat eta sartu orduko ari da oihuka:

—Nork nahi du ur itsua argitzen duena eta zaharrak gaztetzen?

Bere bi koñatak agertzen dire eta erraten diote behar luketela ur hekietarik. Galdetzen diote zenbatetan salduko dituen. Erraten diote ez dituela saltzen bañan bakarrik ematen sagar urretan truk. Jaun hekiek gogotik iten dute trukada. Bañian in nahi dute esperientzia kusian. Ek hartzen dute xakur itsu zahar bat eta berehala gaztetzen da. Pentsazue zeñien kontent ziren.

Beren ur poderosarekin badohazi erregerenganat eta arras ungi ur harek gaztetzen du eta argitzen. Erregek nahi ditu egin besta ederrak. Konbidatzen ditu bere adiskide ingurutako guziak. Fidel arribatu zen bere etxerat. Ez dio deus erraten bere emazteari.

Aditu duenian bestak egin behar dituela erregek egortzen du bere emaztea galdetzerat erregeri iyan ez lukeen nahi, duazin hek ere. Inen dutela laguntza, bata egur pikatzen eta bertzea mahain zerbitzatzen. Ez zuen batere gan nahi andre gazte harek. Erraten zioen bere senharrari nahiago zuela ehunetan bere etxean egon bañian senharrak egortzen du bortxaz, han behar dutela egun hartan.

Badoha beraz emazte gaxua bere buruaren kontra. Erraten dio aitari iyan ez luketen hekien beharrik besta in behar duten egunetan. Aitak erraten dio ezetz. Badirela aski jende. Jeneral zahar batek sahetsetik erraten dio:

—Zertako ez duzu uzten ethortzerat?

Orduan erraten dio erregek:

—Zatozte beraz holako egunetan.

Badohazi Fidel eta bere emaztea. Bazkaiten hari zirelarik jeneral zaharrak erraten dio Fideli iyan ez dakien bada harek ere zerbeit kondatzeko. Erraten dio baietz, balukela; bañian bat bañion geihago ez litazke-

la kontent harek erran lezakenarekin. Orduan erraten du erregek bere ezpata mahain ganean pausatu eta:

—Nere ezpataren puntak jakinen du mintzatuko denaren bihotzaren berri.

Hasten da beraz Fidel erraten nola gerlarat gan zen zaldi zahar maingu eta oker batekin, bañian hala ere iyan nork ekharri zituen tresoreko gakoak eta paperak. Erregek erraten dio behin ere ez dituela orainon ikhusi. Bethi beira dagoela. Fidelek atheratzen ditu paperrak eta ematen erregeri. Ematen dio ere tresoreko gakoak eta segurtatzen da egiazkoak direla. Kondatzen du igual nola saldu duen bi sagar urretan truk ur baliosa. Horrekin batean bere emaztea altxatu eta erraten dio:

—Non dituk hik, sagar urrezkoak?

Lehenbiziko hitza harek erran beitzuen Fidelek hartzen du ezpata erregerena eta botatzen du bere emaztea hilla. Errege penatua zen hori ikhustiaz, bañan erraten dio Fidelek:

—Ez hortaz inketa! Kendu diotan bezala bizia emanen diot berritz.

Hartzen du anpolla hilaren piztekoa eta frotatzen diozka foltsuak eta ethortzen da berehala bizirat. Mundu guzia espantitua da harek egiten dituen abileziez eta jadaneko in dituen. Erregek erraten dio irabazia duela jadaneko haren korua, bañian behar duela sendatu ezkabia izigarri hura. Emaztea altxatzen da eta kentzen dio zuen mokanesa burutik eta irakusten bere senharraren buru distiranta erraten duelarik:

—Horra nolakoa den nere senharraren ezkabia.

Erregek erraten du haren buruan distiratuko duela ederki koruak. Badoha billa eta pausatzen dio buru balios haren ganean. Egortzen ditu bertze bi suiak lehen Fidel zen toki deserturat bere bi alabekin eta Fidel eta bere andrea bizi izan ziren hanitz errege zen bañion aberatsago bere buru baliosa zela medio.

Ungi bizi beitziren, ungi hil ziren.

(*Laurentine*)



## ASTO LARRU

Asko munduan bezala baziren errege bat eta erregiña bat. Heldu zaiote egun batez neskata bat plazatu nahiz. Galdetzen diote izena. Erraten du Fidel. Erregek erraten dio:

—Zure izena bezalakoa zare?

Erraten dio baietz. Eta egoten da han zazpi urte. Nausiak eman ziozkan gako guziak, tresorarentzat ere. Egund batez jaun andreak kanpoan zirelarik badoha Fidel ithurrirat eta heldu zelarik ikhusten ditu zazpi ohoin etxetikan ilkitzen. Pentsa azue nola zen neskata gaixo hura. Badoha zuzen tresorerat eta ikhusten du erdia banion geihago eskas dela. Ez zakien zer billaka. Ikharatua zagoen.

Errege eta bere andrea ethortzen direnian erraten diote zer pasatzen den. Banian ez dute nahi siñetsi eta botatzen dute preso. Han badago urthe bat. Erraten zuen bethi ez zela faltadun banian ez zuten sinesten eta erregek kondenatzen du hiltzerat eta egortzen du lau gizonekin oianherat hiltzerat, erraten duelarik haren bihotza ekar diotzaten.

Badohazi bañian gizon hekiek pena zuten neskata hura hiltzea; arras pullita zen eta erraten zioten inoxenta zela ohointza hartaz. Erraten diote gizonek:

—Ez bazine geihago ethortzen gure lurretarat utz ginzazuke bizia.

Agintzen diote sekulan ez dela agertuko alde hekietarat. Gizonek ikhusten dute asto bat eta erraten diote haren bihotza eremanen diotela erregeri. Neskatak erraten diote:

—Nihork ez nazan geihago ezagut, larru zazube othoi asto hori eta ez dut horren larruba geihago sekulan kenduko soiñetik.

Gizonak badohazi erregerenganat eta neskata, gerize bat nahiz badoha ilhunian. Atzematen du etxe eder bat. Galdetzen du iyan behar duten antzara zaintzallerik. Erraten diote baietz. Ematen dute antzarekin eta erraten diote egun guziez hekiekin beharko duela ibilli eta gateko holako landetarat.

Goizian goiz gaten zen eta arratsean berandu ethortzen. Erregeren etxe bat zen. Ama semeak bizi ziren. Bañian asto larruk ez zuen nihor ikhusten erregiña bertzerik.

Denbora hañitzen buruban, agertzen zaio egund batez atso xahar bat. Iten dio oihu:

—Fidel! In duzu aski penitentzia. Errege semeak eman behar beitu-tu besta eder batzuek, gan behar duzu hekietarat. Egund arratsean galde-tuko duzu permisionea andreari eta erranen diozu emanen diozkatzula hango berriak. Utz zaitzala gaterat piska bat. Eta horra hur bat. Hortarik atheratuko dire zuk behar dituzun arropak. Eta hori hautsiko duzu besta den tokirat gatean.

Arratsean galdetzen du beraz andreari permisionia gateko erregek ematen duen bestaren ikhusterat, istant bat xoilki. Ethorriko dela kusion erraterat han zer ikhusi duen. Andreak erraten dio baietz.

Arratsean badoha beraz. Bidean hausten du bere hurra. Handik atheratzen da arropa zilliarrezko bat. Hura soñian ematen duenian badoha, eta hura sartu orduko mundu guzia hari beira soratuba da. Erregeen semeak ez du uzten istant bat. Ari dire dantzan bethi batean. Bertze andre gazteri ez du erregek batere kasurikan egiten. Freskamenduak hartzen dituzte ederki.

Erregeri bere lagun batzuek oihu egin eta ereman arazten dute eta tarte hartan gure Fidel eskapatzen da etxerat. Erraten dio erreginari nola andre gazte bat ethorri den eta mundu guzia soratu duen eta partikulazki, errege ez dela hartaz bertzerik okupatu. Banian eskapatu zaiola.

Heldu denian semea etxerat, amak erraten dio:

—Eskapatu zaik beraz hire andre gaztea. Ez zikan aparantziaz hire gutiziarik.

Erraten dio amari:

—Nork erran zaitu hori?

—Astolarruk, ikhusterat nahi izan beitu ethorri.

Errege seme hura badoha Fidel zen tokirat eta ematen diozka bi ostiko bere pantuflarekin, erraten dioelarik:

—Geihago ethortzen balin bahaiz, han berian hillen haut.

Biharamunian badoha Astolarru antzarekin. Agertzen zaio berritz ere atxoa. Erraten dio gan behar duela arratsean era balerat. Andreak emanen dioela permisionea.

—Horra heltzaur bat.

Hor izanen duela behar duena beztitzeko eta erregek galdetuko dioela nola duen izena. Eta erranen dioela: «Braf le mandufle». Arratsean galdetzen du permisionea etxeko andreari. Ematen dio, bainan harritua da. Erraten dio:

—Ez dakin zer erran hauen erregek. Atzematen balin bahau han, hillen abela han berian.

—Ez naiz beldur. Ez nau segurki atzemanen.



—Hua beraz.

Badoha bidean. Hausten du bere heltzaurra. Atheratzen zaio arropa bat urrezkoa. Sartzen da errege. Heldu zaio milla konplimentuekin. Erraten dio nola gan zen bada bezperan hari deusik erran gabe. Ungi penatua izan zela. Ungi jostatzen dire. Erregek ez du begirik harentzat bertzerik, galdetzen dio nola duen izena. Erraten dio «Braf le mandoufle». Ungi hartzen dituzte freskamenduak eta lagun batzuek oihu in eta badoha hekietarat eta eskapatzen da bere andre gaztea.

Astolarru badoha erraterat erreñari ethorri zaiocela erregeri bezperako andre gaztea, bezperan banion ederrago orainion. Banian eskapatu zaiocela orainion bestaren erditan. Badoha bere antzaretarat. Heldu da errege etxerat. Amak erraten dio:

—Ethorri da beraz zuk maite duzun andrea! Banian harek ez zaitu hanbat maite gan denaz geroztik funts hortan.

—Nork erran zaitu hori?

—Astolarruk!

Badoha harenganat eta ematen diozka bi ostiko bere pantuflarekin eta erraten dio, malur harentzat gaten bada berritz harat, hilen duela han berian.

Biharamunian badoha bere antzarekin. Heldu zaio berritz ere emazteki xahar hura. Erraten dio galde dezan arratseko berritz ere permisoña, gan behar duela dantzarat. Ematen dio melokoton bat, han izanen duela behar duena beztitzeko. Badoha beraz andereari galdetzerat iyan utziko duen bezperan bezala gaterat bestarat. Erraten dio:

—Ba, ba! Utziko zaitut, banian ez zare beldur erregek atzematea. Erran du hilen zaituela gaten balin bazare.

—Ez naiz izitzen zeren segur naiz ez nauela atzemanen. Atzo ere billatu nau banian ez atzeman.

Badoha beraz. Idikitzen du bidean bere melokotoña eta atheratzen du arropa bat deña diamantezkoa. Lehen ederra balin batzen, pentsa azue ora! Distiratzten zuen iguzkiak bezala. Errege bozkariotan sartu zen hura ikhustearrekin. Soratua zen. Ez zuen hari nahi dantzan. Beren aisian jarri ziren fofil eder batzuetan; eta freskamenduak aintzinian, mintzuan pasatu zuten hainbertze denbora. Erregek galdetzen dio eman diozan ezkontzeko itza. Andre gaztiak ematen dio bere itza ezkonduko direla elkharrekin eta erregek ematen dio bere erritik kendu eta bere erreztun diamanta.

Bere lagunek egiten diote oihu bat, duala laster gauza balios baten ikhusterat. Badoha bere andre gaztea utzirik eta mementu hartaz balia-

tzen da eskapatzeko bere etxerat. Badoha etxeko andeari kondatzerat zer pasatu zen, nola andre gazte hura arribatu zen arropa diamant batekin eta mundu guzia soratua zen haren edertasunaz.

Ezin beiratu zitzaioen, hala distiratzten zuen. Erregek ez zakien non zen bozkarioz. Itzak eman dituzte elkharri ezkontzeko eta erregek eman dio bere erreztun diamanta, banian pullitena. Egun ere ihesi gan zaio.

Heldu da da instantian erregeren seme hori. Amak erraten dio:

—Ez dik, ez dik hire gutiziarik. Ihesi gan zaik hire diamantarekin. Norat ganen haiz haren billa? Ez dakik non egoten den ere. Non galdetuko duk andre gazte bat izena duena «Braf le mandoufle»? Eta eman hau itza ezkontzeko ere, banian ez dik hire gutiziarik hola egiten duenaz geroz.

Gure jaun erregek ez zioen galdetu bere amari nork erran zioen. Oferat gan zen eri zela eta hala, Astolarruk ez zituen izatu bi ostiko arrats hartan. Erreginak pena zuen hañitz, bere seme ikhustea hala eri. Bethi haren buruba billa zabillan jakiteko nor ahal zitaken. Erraten dio bere semeari:

—Gure astolarru ote da zure andrea. Horrek nola jakinen zuen bertzela elkharri emanak ziñatela eta erreztuna ere eman ziñoela? Ungi urbil behar zuen izan zuen ganik. Ikhusi duk?

Erraten dio ezetz eta badago gogoetan. Amak erraten dio arras bisaia ederra duela bere astolarruaren azpian eta amak erraten dio ekhar arazi behar duela eta ikhusiko duela berak. Salda harek emanik hartuko duela. Ekhar arazten du astolarru sukalderat. Salda prepara arazten dio bere semearentzat eta astolarruk ematen du ogiaren barnean, erregek eman zioen erreztuna. Andreak ederki bezi arazi eta badoha erregeren aintzinerat.

Erregek ikhusi eta dudetan zen orainion eta edaten zuen bere salda. Ogia eman duenean agorat atzematzen du zerbeit eta ungi harritzen da atzematearekin bere erreztuna. Ez zen gehiago eri. Badoha lasterka bere amari erraterat bere bozkarigua, atzeman duela bere andrea. Berehala nahi du ezkondu.

Ingurutako errege guziak konbidatuak dire. Egiten dituzte besta eder batzuek eta bazkaien ari zirelarik denek erraten zuten zerbeit berri eder. Erraten diote andre esposari ere iyan ez dakien bada zerbeit harek ere. Erraten du baietz banian ezin erran ditazkela harek dakizkienak. Mahain hartan denak ez litazkela kontent. Bere senharrak erraten dio mintza dadiela hausarki. Kentzen du bere ezpata eta erraten du:

—Itz egiten duena ezpata huntaz pasatua izanen da.



Erraten du beraz nola neskatxa pobre bat gan zen sehi errege baten etxerat. Nola han egotu zen zazpi urte. Hañitz maitatu zutela eta eman konfidentzia guzia tresoretako gakoak eman artiñon. Egun batez errege eta bere andrea kanpoan zirelarik ohoñak sartu eta ebatsi zuten kasik tresor guzia. Erregek ez zuen sinetsi nahikatu ohoñak ethorri zirela. Eman zuen neskatxa preso urte batez eta denboraren buruan egorri zuen hiltzerat erraten ziotelarik bere burreberi ekhartzeko haren bihotza etxerat. Burreba hekiek errege banion obeak izan ziren. Sinetsi zuten inozent zela, asto bat hil eta ereman zuten haren bihotza erregeri.

—Eta horra. Ni naiz errege haren sehia.

Erraten du jaun esposak:

—Nor ote da errege hura? Nere osaba hau?

Andreak erraten dio:

—Ez dakit iyan zure osaba den, bañian jaun hori da.

Jaun esposak hartzen du bere ezpata eta hiltzen du han berean erraten diolarik bere emazteari ez duela haren beldurrikan izanen geihago.

Bizi ziren hañitz urus. Zenbeit denboraren buruban izan zituzten bi haur, mutil bat eta neska bat. Zazpi urte in zituenean zaharrena hil zen erraten ziotelarik bere aita eta amari zerurat zuala hekien plaza egiterat. Zortzi egunen buruan hiltzen zaiote bertze haurra ere eta erraten diote hura ere zerurat duala eta tokia prest atxikiko diotela hekieri ere. Ethorriko direla laster hekienganat eta erran bezala, urte baten buruan justu justuba hil ziren jaun andreak eta gan zerurat jaun andreak.

(*Laurentine*)

## ANDERE USOA ETA BERE ORRAZIA

Asko munduan bezala baziren ama seme batzuek. Arras pobreak ziren. Seme harek nahi izan zuen ama utzirik gan, sobra malurus zirela hala. Badoha beraz gan, gan, gan. Oihan baten barnean atzematen du jau-regi bat. Sartzen da han. Galdetzen du behar duten muthilik. Agertzen zaio Tartaro bat eta erraten dio non dabillan, lurreko xinaurria. Erraten dio etxean arras pobre izan eta nahi zuela lanian hari obekiago izateko. Tartaruak erraten dio:

—Zeren egia erran dukan uzten haut bizia, lurreko xinaurria, eta zenbeit egunen buruban ganen haiz hemendik. Ethorriko dituk hiru andre gazte nere baratzeko urerat mañatzerat. Hekiek utziko ditizkek beren uso arropak harri handi baten gañian eta hartuko duk erdian izanen den uso larruba. Ilkiko dituk bi andre gazteak uretik eta hartuko ditizkek bere larrubak. Urean geldituko denak galdetuko hau bere larruba bañian ez diok emanen agindu arte lagunduko hauela bethi.

Biharamunian ikhusten du gure muthikoak andre gazteak urean direla. Badoha eta egiten du Tartaruak erran bezala. Hartzen du hiru larrueta-rik erdikoa. Bi andre gaztek hartzen dute beren larruba eta hirugarrenak galdetzen dio eman diozela berea. Mutikoak ez dio eman nahi haren agintza gabe. Andre gazteak ez dio itz eman nahi. Erraten dio orduan ez diocela emanen batere. Andre gazteak erraten dio konda dezala haren ganean. Ematen dioela bere itza eta datorla biharamunian haren aitaren etxerat. Hartuko duela mutil. Holako tokitan egoten direla.

Mutilla badoha beraz biharamunian eta atzematen du etxe eder hura bañian oihan baten barnean. Galdetzen dio iyan behar duten mutillik. Erraten diote baietz bañian lan hañitz iñ beharko duela. Biharamunian, goizean erraten dio oihan baterat ereman eta:

—Behar dituzu haritz hau guziak atheratu errotarik, xehatu, eman lodiak alde baterat, mehiak bertzerat eta erruak bertzerat, denak elkharrekin, bakotxa bakotxarekin. Gero irauliko duzu, arratuko, ogia erainen, pikatuko eta ekharri beharko nazu egun erditan, talo bat ogi hartaz egina.

Bertzenaz hila izanen dela. Muthikoak erraten dio:

—Ensaiatuko naiz.

Badoha oihanerat eta han zagoen gogoetan. Hameka orenak ziren. Agertzen zaio andre gaztea. Erraten dio:



—Zertako zaude hola triste. Ez zaitut agindu lagunduko zaitudala. Begiak itsu zatzu. Bañian anbat gaixtoago idekitzen balin badituzu.

Botatzen du orraze bat eta erraten du:

—Orrazea! Hire podorez atheratzik haritz guziak errotik. Pikatzatzik lodiak, eman batean. Mehiak igual eta erruak ere.

Erran orduko iñak dire. Botatzen du bertze orraze bat eta erraten du.

—Orrazea hire podorez itzulzak lur hau, arra eta erain ogia.

Erran orduko iña da. Botatzen du bertze orraze bat eta erraten du:

—Orrazea, hire podorez, ogi hortaz pikatu eta inzak opil bat.

Gure mutila kurios zen ikhusteko zer pasatzen zen. Bañian erraten dio andre gazteak:

—Malur zuri eta neri idekitzen balin beitutzu. Ez da deusik iña izanen.

Ez ditu idekitzen eta opilla erria da. Egunerdi jotzerat zuan. Erraten dio:

—Zoazi laster! Ez duzu denborarik galtzeko.

Badoha mutilla erregerenganat. Erematen dio opilla. Errege arritzen da mutill abilla dela hura eta nahi du segurtatu. Leiotik beiratu eta ikhusi ondoan oihan handi hura atheratua izatu dela, estonitua da. Egortzen du mutilla eta badoha bere andreari erraterat. Andreak erraten dio emateko kontu iyan ez den haren alabarekin akort. Erraten dio jaunak:

—Nola nahi duzu? Ez dute elkar sekulan ikhusi.

Jaun hura debrua zen. Andre gazteak erraten dio aitak egorriko duela erreztun galdua duen baten billa urrun, arribera baterat. Erranen dioela hartzeko ezpata bat hainbertzeren erdian, bañian har dezala sabre zaharra bertzeak utzirik.

Erraten dio biharamunian emazteak erranik behar duela egorri erreztun holako arriberan galdua zuenaren billa. Egortzen du beraz eta erraten dio behar duela berexi ezpata bat. Izanen duela han arraiñ gaxtua franko garrartzeko. Muthikoak erraten dio ez duela nahi ezpata hekietarik. Askí duela sabre zahar hura, zikiñetan ibiltzen dena. Eta badoha.

Arribatu denian erriberaren ondorat, han zagoen nigarrez, ez jakiñez zer egin. Andre gaztea heldu zaio eta erraten dio:

—Zer, nigarrez ari zare! Ez zitut nik erran lagunduko zaitudala bethi? Hameka orenak ziren. Erraten dio andre gazteak:

—Behar nazu puskatu sabre horrekin eta puska guziak urerat botatu.

Mutilak ez du nahi nihondik. Erraten dio:

—Nahiago dut hemen berean hil eziñez eta zu sofri arazi. Andreak erraten dio:

—Ez da deus nik sofrutuko dutana. Iñ behar duzu berehala. Tenorea badoha hola hola.

Mutil hura ikharetan da. Lotzen da bere sabrearekin. Botatzen ditu puska guziak urerat. Bañian hor gelditzen da erri pikiñaren puska bat, mutiko haren zapatetako itzean. Andre gaztea atheratzen da uretik eta erraten dio:

—Ez dituzu denak urerat botatu. Erri pikiña falta dut.

Billatu eta ikhusten dute zango azpian zuela, itzetan geldituba. Andre gazteak ematen dio erreztuna eta erraten duala fite, tenoria pasatu gabe. Egun erditako erregeri eman behar zioen. Arribatzen da uruski. Andre gaztea etxean sartzean atea zarratzen du indar guziekin eta ematen da oiuka:

—Ai! erri pikiña lehertu dut!

Eta sinets arazi zuen han egiñ zuela.

Errege kontent zen. Erraten dio behar duela biharamunian ezi garaño bat eta hiru behor gazte. Mutikoak erraten dio entsaiatuko dela. Jaunak ematen dio makil izigarri bat. Andre gazteak erraten dio arratsean:

—Aitak erran zituen garaño hura nere aita izanen da. Joko duzu zure indar guziez zure makhil izigarri horrekin sudur printzetan. Piza eskapatuko zaio eta garraitua izanen da. Lehenbiziko behorra, nere aizpa zaharrena izanen da. Joko duzu bularretan zure iñahalekin. Hari ere piza eskapatuko zaio eta bentzutua izanen da. Ni azkenik ethorriko naiz. Iñen duzu alegietan ni jo eta joko duzu zure makillarekin lurra. Nik ere iñen dut piza eta garraituba izanen naiz.

Biharamunian iten du mutillak andre gazteak erran bezala. Garaño heldu da gogotik. Fierra zen bañian gure mutillak sudur printzetan jo eta, piza in eta bentzutua izatu zen. Igual iten du behorarentzat. Jotzen du bere makil izigarriarekin bularretan. Hak ere iten du piza. Eta hirugarrena ethortzen denian iten du alegietan hura jo, lurra jotzen du. Egiten du piza eta denak gan dire.

Biharamunian nausia ikhusten du ezpañak hantuak, bisaia guzia keldarra bezin beltz, andre gaztia ere bularretarikan minez. Gaztena ere arras berandu jeiki zen bertzek bezala egiteko. Nausiak erraten dio ikusten duela arras baliosa eta abila dela eta nahi dioela eman bere alabetarikan bat emazte, bañian behar duela beresi begiak zarratu eta. Andre gazteak erraten dio:

—Beresiko duzu zuri bigarrena eskua emanen zaituena eta manera guzietarik ezagutuko nazu zeren erripikiña eskasa atzematen beituza. Emanen dut bethi hori aintzinerat.



Biharamunian nausiak erraten dio:  
 —Hemen gaituk orai. Beresiko duk zoin nahi dukan bethi begiak zarratuak.  
 Zarratzen du beraz eta alaba zaharrena urbiltzen da.  
 Ematen dio eskuba. Erraten dio erregeri:  
 —Pisua da eta pisuegia neretzat. Ez dut hau nahi.  
 Bigarrena urbiltzen da. Ematen dio eskuba eta ezagutzen du berehala erri pikiña eskas. Erraten dio erregeri:  
 —Hau da nik behar dutana.  
 Ezkontzen dire berehala. Pasatzen dituzte hola zenbeit egun. Erraten dio bere andreak:  
 —Obe dugu hemendikan gan iesi. Bertzenaz hillen gaitu aitak.  
 Arratsean partizen dire beraz hamar orenetan eta andreak gazteak iten du tu bere gelako athe aintzinean erraten dioelarik:  
 —Tuba, hire medioz, hi mintzatuko haiz nere orde.  
 Eta badohazi ungi urrun.  
 Aita badoha gaberdi ondoan jaun andre hekien gelako atherat eta jotzen du athea. Ez diote erreputarikan ematen. Jotzen du finkiago eta orduan tuak erraten dio:  
 —Tenore huntan ez da nihor sartzen gela huntan.  
 Aitak erraten du:  
 —Nik sartu behar dut.  
 —Ez da posible, dio bethi tuak.  
 Aita asarratzen da bethi eta gehiago. Oren batez tuak atxik arazi zuen hala athean. Azkenian, ezin bertzela egiñez athea autsi eta sartzen da barnerat. Zer da haren kolera izigarria ikhustean gela utsa! Bafdoha bere andrearengat eta erraten dio:  
 —Ez hintzen hi tronpatu! Elkhar ungi ezagutzen zuten eta ungi akordatzen. Biak iesi ganak ditun. Bañian ez dinat uzten hola. Banigoan ondolik eta atzemanen ditinat goiz edo berant.  
 Partitzen da beraz. Gure jaun andreak urrun ganak ziren. Bañian andre gaztea bethi beldurrian zagoen. Erraten dio bere senharrari:  
 —Orai atzematzen posible gintuzke. Nik ez dezaket gibelerat beira. Bañian zuk iyan ikhusten duzun zerbeit.  
 Erraten dio jaunak:  
 —Bai! Gure ondotikan heldu da gauza izigarri bat, behiñ ere ez dut ikhusi halako mustrorik.  
 Andre gazteak erraten du botatzean orraze bat:

—Orrazea! Hire medioz forma dadiela nere aitaren aintzinian dena sasi eta dena berho eta nere aintzinian bide eder bat.  
 Iten da harek nahi zuen bezala. Iten dute bide puska handi bat. Erraten dio orainon andre gazteak:  
 —Beira zazu othoi iyan ikhusiko duzun orainon zerbeit.  
 Senharra badabila, beira gibelerat. Ez du deusik ikhusten bañian hedoietan ikhusten du zerbeit gauza terrible. Erraten dio bere andreari eta erraten du andreak harturikan bere orrazea:  
 —Orrazea, hire medioz hori den tokian forma dadiela bruma, harria eta galerna izigarri bat.  
 Hek nahi bezela gertatzen da. Egiten dute bide puska bat eta erraten dio andre gazteak:  
 —Beire zazu iyan ikhusiko duzun deusik.  
 Jaunak erraten dio:  
 —Orai akabo gare. Hemen dugu gibeletik gure gainian. Balia zait zure podoriaz.  
 Botatzen du berritz ere berehala orraze bat eta erraten du:  
 —Orrazea, hire medioz forma zak nere aitaren eta gure tartean arribera bat izigarria eta han ito dadiela sekulako.  
 Hori erran orduko ikhusten dute ur handi bat eta itotzen beren etsaia eta aita. Erraten du andre gazteak:  
 —Ez gare orai geihago haren beldur. Bizituko gare trankil.  
 Iten dute bide puska handi bat eta arribatzen dire leku batetarat zeinetan andre gaztea ez beitzitaken sar.  
 Erraten dio bere senharrari:  
 —Ez dut posible aintziñatzea gehiago. Girstiño lurra da hori. Ezin sar ninteke. Behar duzu gan lehenbizi. Behar duzu gan aphez baten billa. Behar nau bathaiatu eta gero ethorriko naiz zurekin. Bañian eman behar duzu ungi kontu. Norbeittek musu ematen balin bazaitu arras ahantziko nazu. Ungi emazu kontu horri eta ez zuk ere musu eman nihori.  
 Agintzen dio ezetz bere andreari.  
 Badoha gan, gan, gan. Arribatzen da bere errirat eta han sartzearekin matanta zahar batek ezagutzen du. Heldu zaio gibeletik. Ematen diozka bi musu. Akabo da. Ahantzten du bere andrea, behin ere ikhusi ez balu bezala, eta badago han ungi libertituz eta bere atsegiñak ungi artuz. Andre gazteak ikusirikan ez zela sekulan bere jauna [heldu], arribatu zitziola zerbeit, ez zuela haren ganean kondatu behar gehiago, artzen du makila ttiki bat eta lurra jotzean erraten du:





—Nahi nuke hemen berean iten balitz ostatu eder bat behar diren zerbitzari eta ganeatiko guziekin.

Bazen baratze eder bat aintzinian eta emana zen athean «ostatu huntan ematen da jaterat pagatu gabe».

Egun batez jaun hura badoha ihizirat bere bi lagunekin eta oihanian zabiltzalarik erraten dute batek bertzeari:

—Ez gindikan ezagutzen lehen ostatu hau. Gan behar diagu ikhusterat. Pagatu gabe ere jan ditake.

Beraz badohazi. Andre gazteak ezagutzen du berehala bere senharra banian gizonak batere ez. Ederki errezebitzen ditu. Jaunak hain kontent dire hartaz non galdetzen beitu batek iyan ez luken utziko gabaren pasaterat harekin. Andre gazteak erraten dio baietz. Bertze batek erraten dio:

—Nik ere nahiko nuen bada.

Andre gazteak erraten dio beraz:

—Eta zu bihar, nahi balin baduzu, segurki.

Eta bere senharrak erraten dio:

—Eta ni, etzi beraz?

Erraten dio andre gazteak baietz. Gelditzen da beraz jaun gazte hekie tarikan bat. Arratsa pasatzen du agramendu hanitzekin eta ogerat gateko tenoria ethorri denian, andre gazteak erraten dio:

—Txikia zinenian izatu zare aphez mutil eta prudatzen zintuzten. Usain hori ez zait gustatzen. Oferat ethorri banion lehen behar duzu orraztatu. Horra orraze bat eta pruda guzia kentzen duzunian ethorriko zare oferat.

Gure jauna hasten da orraztatzen banian sekulan ezin ken dezake bere pruda. Ken ahala ethortzen zitzaioen berritz. Non andre gaztea jekitzen denian orainion orraztatzen ari zen. Erraten dio muthikoak:

—Zer? Jekitzen zare ni ethorri gabe?

—Ez duzu ikhusten argia dela? Ezin egon nintekeen gehiago; jendeak ethorriko dire.

Gure jaun gaztea badoha bere etxerat gehiagokorik erran gabe. Atzematen du lagun gaba pasatu behar zuena andre haren etxean. Erraten dio:

—Kontent haiz? Ungi jostatu haiz?

—Ba, ba! Ederki segurki. Neri bezin laster pasatzen balin bazaik denbora, ungi jostatuko haiz.

Badoha beraz etxe hartarat. Andre gazteak ematen dio ungi afaiterat. Afaldu orduan erraten dio:

—Ogerat gan banion lehenago behar dituzu zangoak garbitu. Hor izanen da panderu bat ur. Ungi garbiak izaten dituzunian ethorriko zare ogerat... Bat garbitzen du bere ustez. Bertzea garbitu orduko, lehen oiña beltza eta zikiña du. Berritz ere garbitzen du eta zikiña atzematen ungi garbitua zuen zangoa. Hola hola ari zen hainbertze denboraz non andre gaztea jekitzen beita. Erraten dio jaunak:

—Zer? Jekitzen jadaneko, ni ethorri gabe?

—Zertako ez zare bada ethorri argia banion lehenago? Ni ezin egon naiteke gehiago ogean. Argia da eta jendeak hasiko dira.

Jaun gaztea erretiratzen da bertzea bezala. Orain senharraren sainja da. Bertzeak banion obekiago zerbitzitzen du orainion. Deus ez zen eskas haren afarian. Ogerat gateko tenoria ethorri denian badohazi andre gaztearen gelarat. Ogerat gateko prest direnian andrean erraten dio hiltzeko argia. Hiltzen du eta berehala pizten da. Hiltzen du berritz ere eta piztua da hil orduko. Gau guzia hola pasatzen du athorra has argi hura ezin hilez.

Argi ethorri denian andre gazteak erraten dio:

—Ez nazu beraz ezagutzen? Ez zare oroitzen nola utzi zinduen zure emaztea aphez baten billa gateko?

Hori erran orduko jotzen du bere buruba eta erraten du:

—Xoilki orain orotzen naiz hoik guzietaz. Orain arte behiñere emazterikan ez banu bezala nintzen. Zer urrikiak ditudan! Bañian ez da nere faltarik. Bizkitartean ez nuen hola nahiko eta matanta zahar batek artu nintuen bi musu nik konprenitu gabe.

—Igual da. Orain hemen zare eta in duzu aski penitentzia. Zure lagunek ere in dute. Bat aritu da gau guzia burutik pruda kentzen eta bertzea zango garbitzen eta ez dute zuk baño gehiago nerekin in lorik. Orain gan behar duzu zure errirat eta handik ekhar arazi behar duzu aphez bat. Bataiatuko nau eta orduan ganen gare zure herrirat.

Senharra badoha eta heldu da aphezarekin. Bathaiatzen du eta partitzen dire. Herrirat arribatu direnian bere makillaz lurra ukitu eta erraten du:

—Hemen izan dadiela jauregi eder bat barnean behar dituen gauza suberte guziekin, baratze eder bat etxearen aintzinean.

Erran orduko egiña da eta han bizi izan ziren hanitz aberats eta urus mutikoaren ama zaharrarekin.

Ungi bizi izan baziren, ungi hil ziren.

(*Laurentine Kopena*)



## NESKATXA GAZTEA MESPRETXTUBA

Asko munduan garen bezala baziren ama bat eta bere alaba. Arras pobreak ziren eta erraten dio alabak plazatu obeko duela zerbeit iteko bere amarentzat. Amak nihondik ez du nahi. Zer billakatuko den hura gabe. Nahiago duela pobre izan harekin ezinez eta aberats baxharrik. Neskakxa gelditzen da.

Dendarigoan ibiltzen zen eta laster, hor ama eritzen zaio eta laster hiltzen. Neskakxa gaixo harek pena handia zuen eta gaten zen igual lanerat kanporat. Egun batez, etxe batean zelarik heldu da kanpoko norbeit eta erraten diote:

—Zer! Neskakxa hori hemen duzue lanian? Mundutiara eta behar ez den bat da. Ez duzube behar geihago ekharri lanerat.

Arratsean ematen diote jorna eta erraten ez dutela geihago haren beharrik izanen. Badoha bertze etxe baterat eta han igual heldu dire jende batzuek eta erraten dute gisa berian:

—Neskakxa hau duzue lanian? Fingaixtoko neskatxa bat da. Ohoña ere da eta ez geihago ekhar araz.

Ematen diote arratsean jorna eta erraten ez dutela geihago haren beharrik. Nihork ez zuen geihago galdetzen eta gosiak zagoen bere etxean. Karitatez eta miserikordiaz hauzoko jende batzuek ereman arazten dute behar gabe lanerat, pena ematen izanez. Eta harat ere badoha norbeit eta erraten du:

—Arritzen naiz hemen ikhustea neskatxa hori. Deus guti du balio. Nola duzube hemen?

Erraten diote:

—Karitatez ekharria, laguntza iteko.

—Ez ekhar araz geihago. Ohoña da eta mundutiarra ezin geihago.

Bere jorna eman eta egortzen dute ez dutela geihago haren beharrik. Neskakxa gaixo hura miseria handian zen. Jan nahi balin bazuen eskatu behar zuen eta ematen da eske eta mundu guziak hain zuen iguñ non ikhusten zutenian tu iten zioten.

Heldu da biaia batetik untzitako mahistru bat. Bere lagunekin libertitzen ari zelarik neskatxa harek galdetzen dio karitatea. Bere lagunek erran eta neska txar bat zela eta iteko tu, egiten du bertzek bezala.

Gure mahistruba badoha biaietan eta artua da tenpesta izigarri batez, galerna eta uria jauts ahala hari da. Ikharan zaozin guziak.

Mahistrubak egiten du botu bere othoitzen erditik eskapatzen balin bazen, ezkonduko zela neskatxa mundutiarenarekin eta mespresatuena-rekin. Denbora berehala edertzen da. Iten du biaia bat hanitz urusa eta ekhartzten dioena diru hanitz. Lurrerat ethorri denian ahanzten du bere botua eta ungi libertitzen da.

Berritz ere neskatxa harek berak galdetzen dio karitatea eta lagunek erran eta neska txar bat zela, tu egiten diotela, harek ere iten du.

Berritz ere badoha untzitan eta lehen banion handizkiago hartua da denbora izigarri batez. Aize handi eta zimizta izigarri batzuek, bertzerik ez zen ikhusten. Denak ikharatuak othoitzean ari ziren. Mahistrubak egiten du berritz ere beilla ezkonduko dela arribatzean etxerat neskatxa mundutar handienarekin eta pobreenarekin. Eta urriki du ez lehenago bere botua atxikia izatea eta erraten du bere burubari, atxiki izan balu ez zuela naski halako denborak atzemanen. Banian orai deusek ez zioela ahantz araziko bere agintza.

Edertzen da kusian denbora eta biaia hartan bonur handia du eta irabazten nahi bezenbat diru. Etxerat ethortzen denian berritz ere ikhusten du neskatxa hura. Lagunek iten diote tu. Bañian erraten du ez duela egiñ nahi harek. Ezkondu in behar duela harek. Lagunak ematen dire karkallian irriz. Mahiñela badoha bere amaren etxerat eta erraten dio ezkontzen dela. Amak erreputa:

—Ezkontza ona eta aberatsa iten balin baduk, ederki.

Semeak erraten dio:

—Ez da batere aberatsa. Holako da.

Ama ez zen kontent. Erraten dio utz dezan, neska txar bat dela hura. Erraten du igual dela, hura bertzerik ez duela izanen. Laguneri galdetu zioten non egoten zen. Irakutsi zioten etxe zahar bat. Gure mahistruba badoha arratsean. Jotzen du athea. Neskakxak dio:

—Zer da hor?

Gizonak dio:

—Idek azu athea. Ni naiz.

Neskakxak:

—Ez dut idekitzen atherik. Ogean naiz.

—Igual da. Idekazu.

Neskakxak:

—Ezet, ez dutala egiñen.

Gizonak:

—Austen dut athea.

—Izu nahi duzuna banian ez dut idekitzen.



Austen du erran bezala eta sartzen da. Ikhusten du neskatxa hura lasto puska baten ganean bere arropez estalia. Mutikoak erraten dio haren ondorat gan nahi duela. Erraten dio:

—Hillen nazu nahi balin banazu banian ez zare ethorriko nereganat.

Hola aritu ziren luze. Mutillak erraten dio eman diozan ezkontzeko itza beraz. Neskatxak erraten dio:

—Nondik nahi duzu ni, holako pobrea, eta zu hoin aberatsa ezkont gaitezen.

Jaunak erraten dio baietz iñen direla. Neskatxak ez du nahi sinetsi eta jaunak erraten dio itz ematen balin badio ganen dela handik. Neskatxak gatea gatik erraten dio beraz baietz. Badoha mutikoa.

Biharamunian badoha aphez batenganat. Erraten dio zer pasatzen den. Ematen diozka berrogoi milla libera eta erraten dio diru hortaz egiñ ditzala xato eder bat eta eskas balin bazen forni zezala, harek gero pagatuko zuela bertze biaiñan. Neskatxa hura ere badoha aphez hareganat. Lehenago ere lagunduba eta kotsolatua zen aphez hartaz.

Erraten dio aphezak nola eman diozkan jaun mahistru batek berrogoi milla libera hari emateko, xato bat iñ zezan eta beretzat eskas zituenak ere. Jaun aphezak erraten dio hura okupatuko dela xato hartaz eta egiñen dituela neskatxak eskas dituen puska guziak.

Badoha mahistruba eta egiten du biaiñ bat desira ahal bezin urusa. Denbora ederrikan bertzerik ez zuen izatu. Diru hanitz ekharri zuen eta ezkondu zen arribatu eta kusian.

Ama eta haurrideak gan ziren esposetarat eta zenbeit denboraren buruban mahistruak gan nahi izan zuen bertze biaiñ batean. Bere xatotikan gan zen bere andrearekin bere amaren etxerat eta erran zioen:

—Zurekin obekiago izanen da nere emaztea eziñez eta bera, gure etxe berrian. Bethi iñen diozkazube arropak gradu berrian, emanen jaterat handieñian eta ungi hartatuko.

Partitzen da jaun hura untzitan. Maiz eskribatzen du bere emazteari. Baiñian zer iten dute amak eta alabak mahistruba partitu orduko? Kentzen diozkate andre hari soinian dituen arropa ederrak, ematen zahar batzuek, espalakoin batzuek lastua barnean eta egortzen dute antzara zain ogi beltz puska bat eman eta. Erraten diote elkharri behar duela sistapur zama bat eta behar duela iruten ari, egonez antzarak zaintzian. Neskatxa gaxo harek ez du deus erraten eta partitzen da antzara tropa batekin. Arratsean heldu da laur ardatz arirekin eta sistapur paketa batekin eta egiten du egun guziez igual. Ez diote erraten senharrak eskribatzen duela ere xoilki.

Mahistru harek iten du biaiñ bat ederra gogotik. Bazuen zerbeit beldur bere amaren eta arrebaren ganean eta bere burubarekin egin zuen behar zuela arribatu isil isilla ikhusteko nola tratatzen zuten bere emaztea. Heldu da beraz jaun estranjer bat bezala kapitain arropan. Erraten du urrundik heldu dela eta han nahi lukeela hekien hotelian pasatu zortzi egun.

Ederki errezebitzen dute amak eta arrebak eta erraten beres dezala zein gela nahi duen. Jauna arrastatzen da bere esposeko gelan. Ilhutzian heldu dire antzarak kanka kanka oihuka eta hekiekin neskatxa bat. Galdetzen du jaun harek usaia duela hartzeko hola ethortzen denian neskatxa mundutarren bat berekin eta iyan emanen dioten. Erraten diote baietz, neskatxa hura bezin bat ez dela izanen eta emanen diotela.

Badohazi erraterat antzara zaiñari. Erraten diote ez duela segurki gan nahi harek. Erraten diote kesaka baduela urria eta hekiek gogotik gan litazkela banan hura beresi duela eta bortxaz botatzen dute jaun hura zen gelarat.

Jaun harek galdetzen du afari eder bat, hala usatzen dela. Zerbitzatzen diote handienian. Neskatxa antzara zain hura tristeki zagoen mahaiñaren aintzinian. Ez zuen deus jan nahi. Bortxatzen du jaun harek eta bethi erraten zioen ez zela gose, jan duela bere usaian. Iyan bada zer jan duen galde egiten dio. Ogi beltz puska bat goizian berekin eremana. Berritz ere erraten dio jan dezala gauza on hekietarik. Erraten dio ez duela deusen beharrik eta hari eginen dioen atsegin handiena litakela handikan uztea gaterat bere antzaretarat. Jaun harek erraten dio:

—Ez dakizu beraz zertarat ethorri zaren hunarat? Nerekin ogerat behar duzu.

Neskatxak erraten dio:

—Puskatuko nazu hemen berean ni, zure ogerat ganen naizen banion lehenago. Nik badut senhar bat eta hari fidel nahi dut egon.

Eta kondatzen dio jaun harek galdetu eta, nola zen arras pobrea eta nihork maite ez zuena, jaun aberats batek nola nahi izan zuen harekin ezkondu. Zein ona izan zen harentzat. Biaiñan partitu eta utzi izan zuela, ungi izanen zela pentsatu eta bere amaren etxean eta ez zuela gehiago bere senharraren berririk. Erraten dio jaun harek:

—Ezagut zenezake zure senharra?

Erraten dio baietz.

—Badu zerbeit marka?

Erraten du neskatxak:

—Bai. Badu bi bularren erdian kalitx bat hiru ilekin.



Jaun harek idekitzen du bere athorra eta irakusten bere sorseñallia. Neskatxa hura hala bozkariguak sesitu zuen non erortzen da flakutua. Jaun harek beitzakien gela hartako berri, armariuak puskatzen ditu handik artzeko edari finak erremeti arazteko bere andrea. Noizpeit iten da eta pasatzen du gau ezti bat bere senharrarekin.

Biharamun goizian antzarak heldu dire athe aintzinerat kuak kuak eta etxeko andrea eta bere alaba heldu dire jaun horren atherat erraten dutelarik iyan ez zen aski gozatu orainion. Partitzeko tenoria dela bada. Ahalkegarri bat dela tenore hartan orainion ogean izatea. Jauna jekitzen da eta erraten dio bere amari:

—Zer, ama! Hola behar zenduen beraz tratatu nere emazte maitea!

Hain koleran zen, bere emazteak ez balu othoiztu barkhatzea, joko ere zituen. Emazteak gibelatu zuen. Egorri zituen ama alabak etxetik kanpo eta bizi izan ziren jaun andreak urte hañitzez urus eta kontent. Ungi bizi izan baziren, ungi hil ziren.

*(Laurentinen ahizpa)*

## LIBURU TZARRAK

Asko munduan bezala baziren ama alaba batzuek. Arras pobreak ziren. Egun guziez gaten ziren oihanerat. Alabak erraten dio amari:

—Hau da bizia. Bethi oihan huntan otsoak bezala eta zertako? Artua izateko janarizat bakharrrik.

Amak erraten dio:

—Urus behar huke izatea artua ere; denek ez ditzen izaten.

Ama hura eritzen da. Alaba bera gaten zen oihanerat eta bere afe-retarat. Bañian ez zezaken aski egin. Miseria gorrian ziren. Margarita zuen izena alabak. Egun batez bazuan oihanerat eta atzematen du brazelet bat. Ekhartzen dio bere amari iyan zer inen duten. Amak erraten dio:

—Altxatu, jabia atzeman arte.

Hain beharrian ziren, amak erraten dio duala holako andrearen etxerat. Eta erran diozala iyan emanen dioten sokorri piska bat. Ungi beharretan direla. Ama arras eri duela. Badoha eta erraten dio. Andre hura bera heldu da kusian ikhusterat eta hala bihotza hautsi zaio ikhustean hekien pobretasuna, ematen beiti berrogoi libera. Amak erraten dio Margaritari:

—Hua berehala karnizeriarat. Salda ungi hartu nahia naun.

Badoha bainan ama bethi eta gutiago zoan. Andre heldu da berritz ere ikhusterat eta erraten du pena bat baduela. Senharrak ekharri zioela brazelet eder bat eta ez dakiela non, galdu duela. Amak erraten du:

—Margaita, ekharan fite atzeman huen brazelet eder hura. Andrearena behar din izan.

Ekhartzen du eta andre hura bozkariatzen da ezagutzearekin harek galdu zuena zela. Ematen diozkate ehun libera erratean milla merezi lituzketela, hala miseria sofritu eta hura han zutelarik eta hura saldu eta izanen zutela bada dirua.

Ama gaxo hura arras arras flako zen. Andre harek ezagutzen du hil behar duela eta erraten beiti zer griñak dituen bere alaba bakharrrik uzteaz erraten dio andre harek ez griñatzeko geihago, hura okupatuko zela hartaz eta ez zuela deusen eskasik izanen.

Hiltzen da emazteki hura. Egiten dute enterramendu eder bat. Andre harek pagatu zuen. Eta artzen du berehala Margaita bere etxe-



rat. Hañitz maitatu zuen eta ez zuen behin ere uzten ilkitzerat bera. Berekin ilkitzen zuen bethi.

Banian hala ere in zuen gizongai bat eta arrats guziez ikhusten zuen ixilik. Ganix zuen izena. Liburu tzar saltzaille zen. Nihork ez zuen maite hartako. Ganixek nahiko zuen egon Margaitarekin banian Margaitak ez zuen nahi ikhus zezaten. Egun batez andrea eta jauna arratsaren pasatzerat zoazilarik erraten dio Ganixi datorla eta poliekin izatuko duela bere gelarat. Eta hola iten zuen andrea kanporat gan beharra zenian.

Zenbeit denboraren buruban gizendua zen. Eta norbeitek ideki nahi ziozkan andreari begiak eta erran zioten esperantzeta zela. Andreak ez du nahi sinetsi. Ekhar arazten du Margaita bere sozietateko jenden aintzinerat eta erraten dio:

—Behar nazu erran egia bat. Erran naute esperantzeta zarela. Egia da?

Erraten dio baietz. Eta erran diozala beraz nor duen gizon gaia. Erraten du: Ganix. Andrea penatzen da hanitz eta erraten dio ekhar arazteko. Heldu da eta erraten du ezkont litakela gogotik. Andreak erraten du mintzatuko duela holako apeza, eta horrek erraten duena iña izanen dela. Badoha andrea eta aphezak erraten dio uzteko ezkontzerat banian liburu tzar guziak erretzekotan. Ganixek ematen du itz baietz. Ezkontzen dire eta zenbeit denboraren buruan Margarita erditzen da seme batez. Denak loriatuak ziren. Bañian emagiñak erraten diote:

—Haur hau gaizkiko izanen duzube. Ohoñ handi bat izanen da eta ebatsiko du aphezen nausiar bere muntra.

Ez ziren geihago halako bozkariotan. Margaitak erraten du:

—Eman behar dugu berehala amañotan. Han egonen da zazpi urthe izan arte.

Gero emanen zuela eskola handi batean, urrun eta hala, apenaz izanen zela ohoña. Iten dute erran bezala. Ogoi urte izan zituenian, eskribatzen diote Margaitari egortzen diotela bere semea, ebatsi duela aphezpikuari bere muntra pasaietarat zoazilarik bere lagunekin. Ama penatzen da hanitz eta etxeko jaun andreak eta bere aita ere. Amak hala sentitu zuen afrontu hori non eritzen beita eta handik laster hiltzen.

Aitak erraten dio bere semeari utz dezan bizio tzar hori eta eman dadiela bide onian. Ez du deusik entzun nahi. Erraten dio txikitik duela bizio hori eta haren liburu tzarrak direla kausa. Harek pozoñatu

duela haren bizia. Aitak erraten dio duala beraz ez balin badu nahi sendatu. Partitzen da eta ez zen aditzen haren ohoñtza itsusiez bertzerik mintzatzen. Eta in zuen hainbertze non, laster aditu beitzen urkatu zutela. Aita hala tristatu zen non hil beitzen fite. Jaun andre on hek bizi izan ziren bethi urus, zeren onak izatu beitziren beren bizi guzian.

*(Marie Louise)*



## ZORRIA

Errege batek bazituen hiru alaba. Erraten dio gaztenari, billa diozan, baduela beharri ondoan zerbeit. Bilatzen dio eta atzematen dio zorri tiki bat. Erraten dio aitak:

—E bien! Zer da?

—Deusik!

—Ez duzu egia erraten. Bada zerbeit.

Eta erraten zioen Fifinek ez zuela deusik atzeman. Aita asarretzen da hainbertze, bazela zerbeit, non erraten beitiu bazuela zorri tiki bat, bañian beratz tartean sartua duela. Kentzen dio eta ematen du eltze batean. Hala handitzen da zorria non eltzia zarta arazten beitu. Ematen dute pipota batean eta zenbeit egunen buruan zarta arazten du hura ere.

Erregek ekhar arazten ditu lau karnazer. Erraten diote hiltzeko bestia hura eta larru dezaten. Iten dute. Erregek ematen du larru hura idortzen leiotik eta krida arazten du zeniek ezagutzen beitu zeren larrua den dilindan, posibleko duela bere alabetaritan bat bere emaztetzat. Alde guzietaritan gizonak heldu ziren, bañian nihork ez zuen ezagutzen larru hura.

Jaun bat agertzen da urrerian sartua eta erraten du:

—Hori da zorri baten larruba, eltze batean eta pipota batean azia.

Erregek erraten dio baietz. Egia dela eta datorla nahi duenian alabaren beresterat. Erraten du ganen dela etzi.

Errege zoratua zen. Erraten zuen ez balu pentsatu ere emanen zioela gogotik bere alabetarik bat.

Erregek prepara arazten du bazkari eder bat. Egortzen du Fifine saiarat arno zaharketarat eta estauliatikan pasatzean behor xuriak erraten dio:

—Ai Fifine! Gardia zuri! Zubekin bazkaldu behar duen jauna, debrua da eta zu berexiko zaitu. Aitak nahiko zaitu dirua eman partitzean, banian ez duzu hartuko. Erranen diozu ez duzula nahi behor zuria bertzerik. Eta emazu ungi kontu aita asarretzen bada ere. Erranen duzu bethi ez zarela ganen behor zuria gabe.

Fifine tristatua da arras. Ez da beztitzen ere batere mahañian emateko eta haren ahizpak emanak ziren pinpiriñak bezala. Jaun hura heldu da eta errege kolera sartzen da ikhustean bere alaba maitena ez dela beztituba eta erraten dio nola ez den bada beztitu. Fifinek erraten dio:

—Ezkundu behar balin badut, igual gustatuko dut jaun huni nere arropa simple hauekin.

Eta hala gustatu zen ere. Jaun harek erraten du hura beresten duela. Ezkontzen dire. Besta ederrak iten dituzte. Badoha andrea ogerat eta debrua pasatu zuen gaba jarririk, buruba pausatua burdiaren kontra.

Biharamunian behar zuten partitu. Aitak erraten dio Fifinek ar dezala nahi duen bezinbat diru tresoretik. Fifinek erraten dio ez duela diru beharrik, haren senharrak baduela franko. Banian eman behar dioela estaulian duen behor xuri hura. Aitak erraten dio ezetz. Haren amak utzia duela hil zenian harentzat eta ez dioela emanen. Alabak erraten dio:

—Ez naiz beraz ganen nere senharrarekin. Duala bera.

Aitak ikhusi duenian hori, erraten dio ar dezala beraz. Partitzen dire. Senharrak erraten dio eman dadiela haren karrosaren gibelian, banian behor xuriak errana zioen jadaneko ez egoteko gibeletik. Aintzinian behar zuela bethi eta errateko senharrari haren zaldiak bezin laster ganen zela haren behorra. Senharrak ikhusriran ez zuela posible gan araztia gibelian, uzten du beraz aintzinian eta badohazi simista bezin laster bat eta bertzea.

In dutenian bide hañitz behorak jotzen du lurra eta iten da bi erdi eta erraten du:

—Sar hadi hor zazpi urterentzat.

Eta debrua han sartzen da bere karrosarekin. Badohazi aintzinerat eta erraten dio:

—Fifine! Zazpi urtez bakia izanen duzu.

Erraten dio:

—Ez beita pulit andre gazte bat ibil dadien hola bakharrik, horra printze arropak.

Eta Fifine beztitua da ala gizon. Badohazi aintzinerat. Behorra eta Fifine unatzen dire bethi kurri ibiltzeaz eta xato baten aintzinian pasatzean erraten dio behorak:

—Arrastatzen bagiñe hemen! Bada hor jaun gazte bat bere amarekin bizi dena. Ezkonduko zare horrekin.

Badohazi eta printzeak erraten diote iyan hartuko duten zenbeit denborarentzat pentsiondar. Erraten diote baietz, atseginekin. Xoragarria zen pullitez. Gure printzeak berak artatzen zuen bere behorra eta etxeko seme harek erraten dio bere amari:

—Amets in dut. Iduritzen zait printze hori neskatxa dela.

Amak erraten dio:

—Nondik nahi duzu? Ez da segurki hala. Eta frogatzeko, errozu bihar, iyan nahi duen ethorri zurekin ferietarat. Eta neskatxa baldin bada,



arrastatuko da arropa ederren aintzinian. Eta mutilla baldin bada, ez du kasurikan eginen.

Behor xuriak erraten dio printzeari zer erran behar dioten eta emateko ungi kontu ez arrastatzeaz arropa ederren aintzinian eta duala sispas, sabre eta pistoletak diren tokitarat eta han gustu hartzeko.

Jaunak gomitatzen du biharamuneko. Printzeak erraten du baietz atsegiñekin. Badohazi beraz eta erematen du jaun harek zuzen zuzena arropa andrenak ziren tokirat eta erraten dio printzeak:

—Utzatzigun hokiek emaztekieztat.

Eta erraten dio irakustian sabre eta sispak ziren toki bat:

—Goazen harat, han obekiago jostatuko gare.

Heldu dire etxerat eta erraten dio bere amari:

—Ez du kasurikan egin arropari eta pistolet eta sispekin egotu gare.

Erraten dio orainion bere amari biharamunian:

—Ama! Amets egin dut gure printzea neskata zela.

Amak erraten dio:

—Zoazi holako liño pezen ikhusterat eta printzeak ikhusten duenian zure zaldia funditzen duela liño peza hura, erranen zaitu kontu emateko funditu gabe eta hortarikan señaile izanen da neskata dela.

Behor xuriak erraten dio bere printzeari zer in arazi gogo dioten eta bere zamariari zankuaz xahu araz diozan liño hanitz. Jaun gazte harek gonbidatzen du ikhusterat gaterat liño peza eder bat harekin. Erraten dio printzeak baietz. Partitzen dire eta printzearen zaldia egiten zuen jaun haren zaldia banion malur gehiago eta jaun gazte harek gibelatu behar izan zuen gatetik denon funditzerat.

Heldu da etxerat eta erraten dio amari:

—Ez da ez neskata zeren landa guzia fundituko zuen utzi banu.

Biharamunian iten du berritz ere amets neskata dela. Erraten dio bere amari eta amak erraten dio:

—Zoazte mañatzerat elkharrekin eta neskata balin bada ez da segurki mañatuko.

Behorak erraten dio bere printzeari zer erran behar dioten eta duala mañatzerat, billuz dadien berehala eta hura ganen dela jaunaren garainoaren ganerat eta lepoa tinkatuko diola hainbertze non ethorriko diren biak lasterka heien apartatzerat eta ez direla mañatuko.

Biharamunian jaun harek erraten dio iyan nahi duen mañatzerat gan harekin. Printzeak erraten dio baietz, gogotik. Badohazi eta printzea billuzten da laster laster athorra has eman arte. Eta orduan behorak artzen du garañua lepotik eta itotzerat zuan mihia bi berga atheraturik, bi

jaunak ez balietz ethorri hekien apartatzerat. Uzten dute beren mañua eta heldu dire etxerat eta erraten dio bere amari, segurki mutikoa dela athorra has eman zela berehala batere ahalgerik gabe.

Eta erraten dio berritz ere gaba pasatu eta in duela amets neskata zela. Amak erraten dio gan behar dutela sagardiarat eta lore hañitz erortzen bazitzaioen ganerat neskata izanen zela. Behor xuriak prebenitzen du printzea zer in gogo duten.

Biharamunian erraten dio jaun gazteak iyan nahi duen ikhusi hekien sagardia. Erraten du baietz. Harat gan direnion, sagar lore guziak jaun haren gañerat zoazin. Behorra ere ari zen aizeka eta printzeak ez zuen izatu lore bat xoilki. Heldu da etxerat eta kondatzen du bere amari nola izatu den lorez estalia eta printzeak ez zuela izan bat xoilki.

Berritz ere semeak egiten du amets neskata dela. Amak ez zakien zer pentsa eta erraten dio:

—Nik galdetuko diot nerekin lo egitea eta orduan segurtatuko naiz. Neskata balin bada, zu ezkonduko zare eta egiazki gizona balin bada ni inen naiz harekin.

Erraten dio beraz andre harek printzeari iyan ez luken nahi harekin in lo. Printzeak erraten dio baietz segurki. Arratsa ethortzen denian badohazi biak ogerat. Andreak ukitzen diozka bularrak eta gohor gohorrak atzematzen. Argia pizten du segurtatzeko obekiago eta ikhusten du egiazki neskata dela.

Badoha bere semeak erraterat harentzat izanen dela printzeak nahi balin badu. Segurki neskata dela eta ungi xarmenta eta ungi in. Galdetzen du beraz berehala jaun gazte harek emaztetzat. Andre harek ere nahi du. Besta ederretan ezkontzen dire. Ezkondu eta behor xuriak erraten dio ez duela geihago haren beharrik eta gan nahi lukela bertze mundurat. Bañion gan banion lehenago ematen dio xirola bat eta erraten dio:

—Deusetan penatu balin bazare aski duzu xirola hori jotzea eta ni ethorriko naiz berehala zure laguntzerat.

Badoha behorra. Hañitz urus bizi ziren jaun andreak bere amarekin. Izaten dituzte denborarekin bi muthil.

Handituxiak ziren noiz ethortzen beita berria gan behar dutela gizon guziek gerlarat. Hañitz tristatu ditu berri horrek eta jaun hari ere galdea ethorri zitzaioen kortetik gateko. Xangrin handia du familia guziak banian gan behar zen. Partitzen da.

Zenbeit denboraren buruan, zazpi urthe pasatzen dire eta gure debruararen denborak inak dire. Atheratzen da ifernutik eta badoha bere



andrea zen tokirat. Andre hura bazagoen bere bi muthilleri begira. Sabrean edo ezpatan ari ziren biak. Sartzen da etxe hartan. Badoha bere andrearengan eta erraten dio:

—Segi nazu berehala. Baten plazan izanen ditut orai hiru.

Amagiñarreba han zen jaun izigarri itsusi hura ethorri zenian. Hala izitu zen non ez zioien itzikan erran. Badohazi beraz ixil ixilla. Gan, gan, gan, oiha beltz baterat arribatzen direnien ikhusten du andre harek hiru urkabia paratuak. Pentsatu zuen berehala hekientzat egiñak zirela hekiek. Senharrak erraten dio:

—Horra nola hil behar duzuen.

Andreak erraten dio orduan:

—Hil behar duen hari ez zaio deus errefusatzen eta utzi behar nazu othoi xirola huntarik piska bat jotzerat nere haurreri.

Erraten dio:

—Ba, ba! Egiten ahal duzu.

Ematen da xirola jotzen eta asi orduko agertzen da behor xuria eta erraten dio debru izigarri hari:

—Ez duk ez izanen hik nahi hubena. Hemen nauk ni, horren laguntzeko.

Eta erraten du:

—Lurra! Hire medioz, idek hadi eta atxikak sekulakotz debru izigarri hau hire erraietan.

Hori erran orduko lurra idekitzen da eta debrua han gordetzen sekulako. Erraten dio behorak:

—Orai ez zare haren beldur izanen. Gan da sekulako. Eta orai ganen zare zure etxerat zure haurrekin.

Eta Fifinek erraten dio:

—Ez, ez, ez naiz sekulan menturatuko agertzerat nere senharraren etxerat. Ikhusi nau eta, nere amaginarrebak ilkhitzen; gizon horri segi eta zer erran lezake.

Eta orai behorak ematen dio makhil ttiki bat eta erraten dio:

—Horrekin uki zazu lurra eta egiñen da etxe eder bat barnean behar dituen gauza guziekin.

Eta etxe aintzinian sor arazten du ithurri urhezko bat. Behorra badoha, hura ungi utzi ondoan. Gerla finitzen da. Jauna heldu da etxerat eta pentsa azube haren pena. Erraten dio bere amari ez badu bere emaztea atzematen, hila izanen dela eta harek ere bere buruba hillen duela. Eta badoha berehala.

Badoha gan, gan, gan eta arribatzen da oiha baterat eta han zer ikhusten du: hiru urkabi. Pentsatzen du berehala han urkatua izatu dela haren emaztea eta bere bi haurrak. Eta erraten du behar duela harek ere han berean urkatu bere buruba. Igotzen da eta burua pasatzerat zohalari ikhusten du urrun zerbeithek distirutzen hañitz eta erraten du:

—Obe dut lehenbizi ikhustera gan zer den han. Gero ere hemen izanen dut urkabi hau.

Jausten da eta badoha atzeman arte ikhusi duena. Eta arribatzen da jauregi eder baten aintzinerat. Sartzen da eta galdetzen du baso bat ur. Andreak ematen dio eta ezagutzen du berehala jaunak eta galdetzen dio iyan ez duen bada ezagutzen. Erraten dio baietz eta besarkatzen dute elkar atsegin handirekin. Fifinek kondatzen dio bere istorio guzia, nola izan zen ezkondua debru harekin eta nola behor xuri maite harek lagundu zuen bethi eta nola bethi hari fidel egotu zen eta ez zuela sekulan deusikan izan debru harekin.

Eta fidantzia geihago izan zezan Fifinek jotzen du berritz ere xirola eta agertzen da behorra zeinak kondatzen beitu osoki Fifinek kondatu zuen bezala bere istorigua. Eta uso baten forma hartu eta gan zen airetan zerurat. Jaunak erraten dio gan behar dutela amaren etxerat, hura ere penetan dela duda gabe, bañian andriak erraten dio han berian obekiago litazkela, ez dutela deusen eskasik han, beren ithurri urrezkuarekin eta duala bere amaren billa eta han denak biziko zirela.

Partitu zen senharra kusian. Bere ama artu eta ethorri zen gibelerat eta han bizi izan ziren hañitz urte, hañitz urus. Ungi bizi izan ziren, ungi hil ziren.

*(Laurentine, Tuturen abizpa)*





## TARTARO

Nausia ez bazen kontent mutillaz eta egortzen bazuen, huntasun guziak mutillarentzat. Nausiak egortzen du zazpi xerrirekin oihererat, deus jatekorikan gabe. Mutillak erraten:

—Zer jan behar dut? Arrixkak?

Nausiak erraten dio:

—Nahi duzuna.

Eta badoha. Bazuten emana ximinei ganean telletetan gaitzeru bat heltzaur idortzen. Gure mutillak hartzen ditu hekiek eta erematen berekin. Oihererat arribatu denian Tartaro heldu zaio eta erraten dio:

—Non habilla eta zer ari haiz? Xerri gardan egoki?

Heltzaur bat hartzen du eta agorat eman eta austen du eta erraten dio:

—Giristino ezur jaten.

Tartaruak erraten dio:

—Ez duk hemen leihorrik eta tana nere etxerat. Han afalduko haiz eta izanen duk ogia.

Erraten dio mutillak baietz. Gan direnian Tartaruak ematen du idi azpi bat suan. Erraten dio gure mutikoak:

—Zer apetitua dukan! Eta nik gutiago janez hik bezinbat indar.

—Gero ikhusiko diagu hori.

—Gure mutillak jan ahala jan eta uzten du Tartarua akabatzen eta erraten dio ogerat duala.

[Mutikoa ogerat dualarik Tartaro zutik dago eta mutikoa ogeperat dua. Hiru gorputz hatzematzen ditu. Bat ogean ematen du pipa agoan —zazpi kintaleko palenka—.

Tartarok hila jo zuenean oiheru egin zuen, hiltzeradino joa izan balitz bezala.

Biharamunian Tartaroa ikusten du. Hila zela uste zuen.

—Haskaria prest dago? Gau hontan zimitzek xixtatu naute azkarki.

—Bilatu behar dituk, bestenaz tanpi hiretzat.

Lehen lana: haritzak errotik ateratzea.]

Bigarren lana: Ithurria. Ithurrirat erematen du, zeinek ekharriko zuen ur gehiena etxerat. Tartaruak betetzen ditu bi barrika bañian erraten dio mutillak:

—Hoikiek bakharrik! Nik ur guzia erematen dut.

Eta asten da igitzen ithurria. Tartaruak erraten dio:

—Ez, ez, ez. Uzten haut. Goazen. Norat gan nintake edaterat ur hori kentzen balin baduzu.

Egortzen dute iratze peza baten pikatzerat eta erraten diote ez badu hura guzia pikatzen, kukubak jokatu gabe hilla izanen dela. Badoha gure mutilla eta argitu gabe pipa pizten ari zen noiz eta kukuak iten beitu kuku. Gure mutilak koleran, artzen du bere sispia eta tiratzen du arbola baten generat, zentarikan egin beitzioten kuku eta kukua erortzeko plazan, erortzen zaio bere etxekoandera. Senharrak koleran egortzen du debruaren ganat letra batekin. Errepustarik ez zuen eman nahi debruak. Orduan zer iten du? Artzen du debrua bizkarrian eta hala heldu zen etxerat. Nausiak urrundikan ikhusi eta erraten dio:

—Utzak hor! Utzak hor. Ez dadiela ethor gure etxerat.

Egortzen du berritz mutilla bertze debru batenganat ekhar detzan harenganik haren hiru erreztunak. Badoha mutilla. Bidean atzematzen du gizon bat, errota arri bat bizkarrian. Erraten dio norat duan. Erraten dio holako debruen etxerat.

—Erran behar diok nire partez hemen nagoela hamabi urte huntan arria bizkarrian.

Baietz. Iten du bide puska bat eta atzematzen du neskatxa gazte bat eri hamalau urte hartan. Galdetzen dio norat duan eta erraten dio harek ere, hamalaur urte hartan hala dela eta errateko debruari. Erraten dio baietz.

Bide in duenian berritz ere atzematzen du gizon xahar bat bi haritz zangoetan eta jakin duenian norat duan erraten dio harek ere, hainbertze denbora hartan debruen begira zagoela haritz hekietaz gabetua izateko. Erraten dio erranen dioela.

Arribatzen da debruaren etxerat. Atzematzen du emazteki xahar bat. Erraten dio zertarat duan eta nola bidean ikhusi dituen hiru presuna, bat errota harriekin, bertze bat eri eta bertze bat bi haritz zangotan eta nola erran dioten errateko debruari hekietaz oroitzeko.

Emazteki harek erraten dio:

—Jaten ditu nere debruak giristino guziak. Nola heldu zare hunarat?

—Egorri beinaute. Bainan zuk lagunduko nazu.

Erraten dio baietz eta ematen du zoko batean. Heldu da debrua eta ogerat gaten direnian, loharkatu denian debrua, emazteak kentzen dio erreztun bat eta debrua iratzartzen da eta erraten dio:

—Zer ari zare, emazteki tristea.

Erraten dio:



—Amets bat egin dut gizon bat ikhusi dutala errota arri bat bizkarean. Zer egin behar luke ez izateko geihago?

—Botatu lehenbiziko ikhusiko duen gizon hari eta harek hartu behar luke.

Loharkatzen da debrua. Emazteak kentzen dio bigarren erreztuna. Debrua koleratzen da. Emazteak erraten dio amets bat egin duela. Neskatxa gaxo bat hainbertze urte hartan eri. Erraten dio debruak:

—Sukaldeko ximiniako harriaren azpian bada zapo izigarri bat eta hura funditu arte eri izanen da.

Berritz ere lokartzen da eta emaztekiak kentzen dio hirugarren erreztuna. Debrua orainion asarreago da. Emazteak erraten dio amets in duela, ikhusi gizon bat bi haritz zangotan ezin kurrituz. Debruak erraten dio:

—Haritz heketarrikan batetan bada suge bat eta hura hill arte hala ibilliko da.

Emaztekiak erraten diozka guziak mutikoari eta ematen hiru erreztunak. Gure mutillak salbatzen ditu hiru malurus heiek erranez zer egin behar duten. Heldu da nausiaren etxerat eta ematen diozka bapanazka erreztunak. Lehena eman zigoenian asi zen dantzan. Bigarrena eman zigoenian airatzen piska bat eta hirugarrena eman zigoenian airatu zen hain gora, ez baitzen gibelerat ethorri.

Gure mutikoa gan zen bere amaren billa eta beitzuen emazte gai bat, ezkondu zen. Izan zituzten seme alaba batzuek eta bizi izan ziren arras urus bere erreztuneri esker.

## HIRUR EGIAK

(beste bertsio bat)

Egun batez axeria presentatu zen ur handi baten bazterrerat. Errekontratu zuen han batelier bat eta erran modestia handi batekin:

—Jauna, plazer nuke uraz bertze alderat pasatu, eta othoi har nezazu barka hortarat.

Batelierrak erraten dio:

—Pasatuko zaitut bainan zer emanen dautazu saritzat?

Axeriak errepostu erraten dio:

—Zure pagamendutzat erranen daukitzut hirur egia handiak.

Batelierrak erraten dio:

—Akort gira. Has zaite beraz egia horien kondatzen.

Axeria jadanik barkan zena hasten da mintzatzen eta erraten batelie-rraz:

—Zenbeit jendek erraten dute: artho hau edo mestura hau hain da ona non konpara baitake ogiari. Gauza hori ezin daiteke, ezen arthua edo mestura ez da sekulan hain ona nola ogia. Horra lehenbiziko egia.

Uraren erditara zirenian, batelierrak erraten dio axeriari:

—Orai konda zazu bigarren egia.

Axeriak ihardesten dio:

—Huna jauna. Emazu kasu ene erraneri. Anhitz aldiz aditu duzu erten ilhargi klaro denian gauaz: hau da gau ederra. Ilhargiak argitzen du iguzkiak bezenbat. Jauna, ez dezazula gauza hori sinets, ezen sekulan ilhargia ez da iguzkia bezain argi, ez eta gaua eguna bezain klaro. Horra bigarren egia.

Uraren bazterrerat arribatu eta, batelierrak galdegiten dio axeriari hirugarren egia. Hunek errepostu emaiten dio:

—Jauna, hitzemaiten dautzut, bainan uretik kanpo arribatu eta.

Batelierrak emaiten du axeria leihurreraino eta hunek hitzeman bezala erten dio:

—Jauna eskerrak deraizut zeren pasatu nauzun ur huntan. Bainan orhoit zaite, jaun maitea, nik bezala pagatzen bazituzte bertze guziek ez daukezula zure fortuna egina. Horra jauna, zuri erteko nuen hirugarren egia.

(Julien Olbaso  
Errirent Bidarrain)



## JUPITER

Mundua kreatu eta oraino aberastasunak edo ontasunak partitu baino lehen, huna zer gerthatu zen. Orduan ere baziren orai bezala handi nahiak. Joan ziren xapeldunak Jupiter kreaizaileaganat galde baten hari egitera:

—Uros nahi ginuke izan, jauna, munduan. Badakigu urhiak egiten duela munduko zoriona. Beraz iguzu aberastasuna.

Jupiterrek amodio onez aditzen du galde hori eta ematen diozkate aberastasunak. Jaun horiek itzuli ziren bozkalentziarekin. Heien ondotik, esperantza handiz betheak bertze gizon batzu, diote zirela fraideak eta aphezak; joan ziren hek ere Jupiterrengana fagore eske eta galde zioten bertzek bezala aberastasuna mundu huntako zoriontzat, bainan urhiaren enplegua jadanik egin baitzen Jainkoak ihardetsi zioten:

—Aberastasunak edo urhiak emanak ditut xapelduner.

Orduan gizon, fraide edo aphez horiek erran zioten:

—Hola denaz geroz, pazientzia!

—Emaiten dautzuet pazientzia, dio Jupiterrek.

Hitz horiek aditu eta itzuli ziren beren tokietarat.

[Geroago doatzi beste gizon batzu ponetetan edo laborariak.] Galde bera egiten diote hek ere Jainkoari:

—Zuek galdegiten dazkidatzuenak emanak ditut.

—Zer eginen dugu beraz? Pazientzia!

—Hura ere emana dut aphezer eta fraider.

—Kaka beraz guretzat, Jauna?

—Emana zaitzue. Jaunak, kaka!

Orduz geroz ikhusten dire xapeldunak aisean, aphezak eta fraideak pazientzian eta bonetdun laborari gaixoak kakaren erdian.

*(Julien Olhaso  
Errient Bidarrain)*